



Familia-erreferenterik ez duten gazte migratzaileak Euskadin

Diagnostikoa eta jarduteko proposamenak





AURKIBIDEA

SARRERA: AZTERLANAREN HELBURUAK ETA METODOLOGIA	4
1. Familiarik gabe dauden gazte atzerritarren ezaugarriak	8
2. Esparru juridikoa	16
2.1. EAEko administrazio publikoen eskumenak	16
2.2. Atzerritar jatorria duten pertsonen estatutu juridikoa	23
2.2.1. Araubide juridiko aplikagarria	25
2.2.2. Familia-erreferenterik ez duten gazte atzerritarrek behar duten arreta	33
3 BEHARRIZAN OSOAK ETA ESTALDURAREN DIAGNOSTIKOA	37
3.1. Administrazio-egoeraren eta dokumentuen erregularizazioa	37
3.2. Oinarrizko beharrizanak estaltzeko baliabideak	41
3.3. Enplegua eta kualifikazioa	44
3.4. Beharrizanak osasunaren arloan	46
3.5. Tokikoa izateko sentimendua, komunitatean integratzea	48
3.6. Babes bereziko premia	49
3.7. Laguntza premia	50



4 Erakundeen erantzuna	52
4.1. Administrazio-egoeraren erregularizazio hain beharrezkoa.....	52
4.2. Arazoentzako erantzun oso baten beharizanaren aurrean.	54
4.3 Oinarrizko eta ostatu beharizanak estaltzea.....	59
4.4 Enplegua eta kualifikazioa.....	63
4.5. Osasuna	65
4.6. Komunitatean integratzea	66
4.7. Babes indartua zaurgarritasun bereziko egoeren aurrean (gizakien salerosketa, sexu-esplotazioa...).	70
4.8. Koordinazioa	70
4.9. Erantzuna COVID-19aren pandemiaren testuinguruan.....	71
5. Europako jardunbide egokiak helduarora igarotzean.....	75
6. LABURPEN EXEKUTIBOA.....	99
7. GOMENDIOAK	110
I. ERANSKINA: Administrazio publikoei eskatutako informazioa	126
II. ERANSKINA:Elkarrizketaren gidoia	143

SARRERA: AZTERLANAREN HELBURUAK ETA METODOLOGIA

Azken urteotan, hainbat partikular eta gizarte-erakunderen kexak jaso ditu Arartekoak. Kexa horien bidez, salatu dute atzerriko nazionalitatea duten gazte migratzaileak gizarte-zaurgarritasuneko egoeran daudela, ez baitute familia-erreferenterik Euskal Autonomia Erkidegoan (EAE), eta, kasurik larrietan, ez dutela erakundeen inolako erantzunik jasotzen eta *kalean* daudela.

Kexek arazo hauek izaten dituzte hizpide: baliabideak gainezka eta pertsonak itxarotzerrendan gazteak emantzipatzeko eta gizarteratzeko programetan parte hartzeko, batzuetan inklusio-ibilbideak bat-batean etenda, zailtasunak udal erroldan inskribatuta jarraitzeko edo hasierako alta emateko, bizileku-baimena ezin eskatzea, are lehenago tutoretzapean egon diren gazteen kasuan, pasaporterik ez daukatelako –oraindik ez dutelako eskatu edo jaulkitzeke dagoelako–, edo erroldarik, edo ezin dituztelako frogatu eskatzen diren bizitzeko baliabideak.

Zehazkiago, kexa batzuek azpimarratzen dute gazte batzuek, adin-nagusitasunera iristeagatik edo adina zehazteko prozesu batean “adin-nagusikoa” izatearen berediktu baten ondoren egoitza baliabideetatik irtetea, ez daukatela ostaturik, ez inolako arretarik. Aipatzen dute ez dagoela koordinaziorik erakundeen edo sailen artean eta ez dagoela aurreikusita haien beharrezanean zelan erantzun.

Beste kexa batzuk beste gazte batzuei erreparatzen diete, zeinentzat aukera bakarra udaletako gizarte-larrialdietako zerbitzuetara jotzea baita, gehienetan hiriburu edo biztanle kopururik handienetakoetara. Esku hartzeko eskaera horietan, diotenez, batzuetan jasotzen dituzten erantzunek zerikusia dute zerbitzuek arretarik ezin ematearekin, eskumenik edo plazarik ez daukatelako. Halako kasuetan, gazte horiek “kaleko” egoeran bizi dira eta horren lekuko diren auzokoek esku hartzea eskatzen dute gure gizartean gazte horien bizia eta kulturarteko bizikidetzaren arrisku larrian jartzen dituzten bazterkeria egoerek bat egitea ekiditeko.

Dokumentazioa eskuratzearen arloan, Arartekoak jasotako kexek aipatzen dute babes erakundeetan dokumentazio hori lortzeko behar diren izapideak adin-nagusitasun horretara iritsi aurretik egoteak duen garrantzia. Beste batzuek azpimarratzen dute luzea egiten dela bizileku-baimen administratiboaren eskaera aurkeztea dagokion Gobernuaren Ordezkariordeztzak eskatzen duelako adingabea babes-zerbitzuen eskura jartzen denetik bederatzir hilabeteak agortu behar direla, eta horrek bizileku-baimena emateko data atzeratzen du.

Halaber, aipatzen dira etxebizitza edo gela bat alokatzeko zailtasunak. Lanaren etekin ekonomikoak dauden ere ez da erraza jabe batek etxebizitza bat talde horri alokatzea eta alokairuko etxebizitza bat lortu ahal izan denean, prestazio ekonomikoen onuradun diren bi bizikidetz-unitatera mugatzeak ere oztopatzen du beste pertsona batek edo batzuek etxebizitza partekatu ahal izateak.

Era berean, bestelako kexak jaso dira; haietan, bizilagunek euren ezinegona helarazten diote Arartekoari gazte horien jokabideengatik. Gure hirietako kaleetan gizarte bazterkeria egoeran dauden gazteak egoteak gizarte alarma sortzen du, gazte delinkuentzia bihurtzeko beldurragatik (azken urteotan ofiziozko gehiago eskatu dira gazte horiei delitu txikiengatik laguntza juridikoa emateko).

Azken batean, zenbait motatako kexak jasotzen ditugu, batzuek arreta duina eskatzen dute eta azpimarratzen dute ikuspegi humanitariorik eta gizarte inbertsiorik esku hartu behar dela, Euskadiren garapen sozial eta ekonomikoan parte har dezaketen gazteak direlako; beste batzuek jokabide disruptiboak eta delituzkoak daudela salatu eta poliziaren presentzia handiagoa, zehapen-espeditenteak, eta justiziak esku hartzea galdegiten dituzte

Kexa horiek izapidetu bitartean, erakunde honetako ordezkariak bilerak eta elkarrizketak izan dituzte foru eta udal arduradunekin, eta agerian utzi dute haiek kudeatzen dituzten baliabideak gainezka daudela, aurrekontu-zuzkidura pixkanaka handitu arren, eta ezinegona adierazi dute euren ustez gazte horien beharrez kasu egiteko eskudun diren beste administrazio batzuek (kasu batzuetan eskumen zuzenekoagoak izanda) ez direlako inplikutzen.

Horregatik, Arartekoaren iritziz, gaur-gaurko arazoa da hizpide duguna, eta, gizartean alarma handi eta larria eragiten duenez, gizarte-erantzun eraginkorrak behar ditu. Horretarako, proposatu da ikuspegi integraletik aztertzea gazte horien premiak, bai eta euskal ongizate-sistema oro har ematen ari zaizkien erantzunak ere, diagnostiko ahalik eta zehatzena eduki ahal izateko, neurri egokienak zehazteko eta euskal administrazio publiko eskudunei gomendioak egiteko.

Hauek dira, zehazki, azterlan honen **helburuak**: 1) familia-erreferenterik ez duten gazte migratzaileen ezaugarri nagusiak kuantifikatu eta ezagutzea; 2) esparru juridikoa eta eskumenei dagokiena deskribatzea; 3) taldearen egoera eta ezaugarri nagusiak aztertzea; 4) arlo horretan esku hartu behar duten erakundeek jarduera-ildo nagusiak deskribatzea eta 5) gazte horiekiko esku-hartzean dauden jardunbide egokiak hautematea.

Horrekin informazio zehatza eskaini nahi da talde horren ezaugarri eta beharrez nagusiei buruz, eta erakundeek beharrez horiek estaltzeko bideratutako erantzuna deskribatu eta aztertzea.

Aztertutako jendartea EAEn familia-erreferenterik gabe bizi diren atzerritar jatorriko 18-23 urte bitarteko gazteek osatutakoa izan da, lehenago administrazio publikoaren tutoretzapean egon zein ez. Ezarritako adin-tartea ez da hutsala eta zenbait eragile

izan ditu kontuan. Lehenik, FEanTSAk, etxerik gabeko gazteen esparrua definitzen duen dokumentuan¹, azpimarratzen du, adin-nagusitasuna 18 urtean ezarrita egon arren, literatura espezializatuan adostasuna dagoela esateko 23 urte izan arte gazteek jarraitzen dutela euren gaitasun kognitibo, emozional eta psikologikoak. Bigarrenik, ezin da alde batera utzi hori dela ezarritako adina diru-sarrerak bermatzeko errenta eskuratu ahal izateko; prestazio horrek, printzipioz, oinarrizko beharrianak eta gizarteratze prozesuak sortutako gastuak estaltzen ditu. Bestela esanda, 18-23 urte bitarteko pertsona horiek zaugarritasun handiko egoera batean daude, bai garapen pertsonalari lotutako baldintzengatik, bai askitasun ekonomikoaren eremuan laguntza gutxiago edukitzeagatik.

Erabilitako **metodologiari** dagokionez, txosten honen edukiak hiru iturri izan ditu. Lehenik, sistematikoki aztertu da kolektibo horri eta haren beharriaz buruz dagoen informazioa, gazte horien argazki ahalik eta argiena eskaintzeko erabilgarria liratekeen azterlanak eta informazioak azpimarratuz.

Bigarrenik, informazio xehea eskatu zaie² horretan diharduten zenbait erakunderi ezagutzeko zer beharrian ari diren hautematen eta zer jarduketa zehatz eta orokor ari diren egiten talde horrentzat. Covid-19aren agerpena dela eta, txosten hau egiteko unean konfinamendu aldian eta ondorengo asteetan egindako berriazko ekintzei buruz ere galdetzea erabaki zen.

Hauek dira informazioa eskatu zaien eta eskaerari erantzun dieten administrazio publikoak:

- Eusko Jaurlaritzaren aldetik (2016-2020ko XI. legegaldiko izenekin), Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila, Hezkuntza Saila; Osasun Saila; Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila eta Giza Eskubide, Bizikidetzeta eta Lankidetzaren Idazkaritza Nagusia.
- Foru administrazioetatik, Arabako Foru Aldundiko Gizarte Politiken Saila, Bizkaiko Foru Aldundiko Gizarte Ekintza Saila eta Enplegua, Gizarte Inklusioa eta Berdintasuna Sustatzeko Saila eta Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte Politiketako departamentua.
- Udalen kasuetan, familia-erreferenterik gabeko gazte atzerritarren ehuneko garrantzitsu bat duten udalerriak hautatu ziren. Hala, Barakaldo, Bilbo, Donostia, Irun eta Gasteizko udalei erantzun diote informazio eskaerari.

Era osagarrian, elkarrizketa batzuk egin zaizkie³ gazte horiekin harremanak izan ohi dituzten pertsonari, horrela txosten honetan proposatutako helburuetan sakondu ahal izateko. Zehazki, lau elkarrizketa sakon egin dira, erakunde hauetako profesionalekin:

¹ FEANTSA. *European Framework for Defining Young Homelessness* [linean]. Brussels: European Federation of National Organisations Working with the Homeless, 2019. Eskuragarri hemen: https://www.feantsa.org/download/framework-for-defining-youth-homelessness_final_pdf3614092469143708469.pdf

² Administrazio bakoitzari egin zitzaizkion informazio eskaeren edukia I. eranskinean jaso dira.

³ Elkarrizketen gidoia II. eranskinean jaso da.

Gipuzkoako Foru Aldundia (1E)⁴, Adsis Fundazioa – Gasteiz (2E), Peñascal Fundazioa – Bilbo (3E) eta SOS Arrazakeria Gipuzkoa (4E). Nabaritu daitekeenez, saiatu gara informazioa hiru lurralde historikoetako pertsonekin alderatzen, bakoitzeko errealitatean egon litezkeen aldeak jaso ahal izateko.

Dokumentazio, ikerketa eta alderatze lan honetan, Arartekoak Begirune Fundazioaren eta Agintzari Gizarte Ekimeneko Sozietate Kooperatiboko Aholkularitza Arloaren laguntza jaso da, eta eskerrak eman nahi dizkiegu euren eginahal eta engaiamenduagatik.

Txostenaren **egiturari** dagokionez, zenbait atal bereiz ditzakegu. Lehenengoan, talde hori osa dezaketen gazteen kopurua zenbatetsi da gutxi gorabehera. Horretarako elkarrizketetan lortutako informazioa, eta antzeko azterlanetan egin diren zenbatespenak edo erakundeek eskaintako informazioa erabili dira. Era berean, haien ezaugarri soziodemografikoei buruzko informazioa eskaintzen da, zenbait alderdi nabarmenduz, hala nola adina, sexua edo jatorria.

2. atalak esparru juridikoa erakusten du laburki eta, bereziki, Espainian atzerritarrek dauzkaten eskubide eta askatasunei lotutakoa, atzerritar izateak hein handi batean baldintzatzen dituelako haien integrazio prozesuak.

Hurrengo atalak egoera-diagnostiko baten ezaugarri nagusiak biltzen ditu, gazte horiek emantzipazio eta bizitza autonomo eta heldura igarotzeko prozesuan aurrera egiteko pixkanaka ase behar dituzten beharrianen arabera ordenatuta (nolanahi ere, osoko beharrianak).

Azterlanaren atalik zabalena kontsultatutako administrazioek garatutako erakundeen erantzuna jasotzen du, aurreko atalaren ildotik, estali beharrianen arabera ordenatuta, eta Arartekoari emandako erantzunetan jasotako informazioa biltzen du. Arestian aipatu denez, berariazko atal bat sartu da Covid-19aren pandemiari aurre egiteko agindutako konfinamendu egoeraren esparruan bideratutako erantzunari buruz.

Gure erakundeen erantzunaren ondoren aurkezten den blokean, Europako zenbait herrialdetan garatutako jardunbide egoki batzuk jasotzen dituen bloke bat aurkezten da. Bakoitzarentzat hauek adierazi dira: zer beharriani erantzuten dion, zertan datzan eta zergatik izan daitekeen garrantzitsua gure testuinguruan.

Azkenik, atal bat sartu da, laburpen exekutibo gisa. Txostenaren emaitza nagusiak laburbildu dira hor eta jarduteko gomendio eta proposamen batzuk proposatu dira gazte horien arreta hobetzeko, erakundeen erantzunaren balorazioa eta hautemandako beharrianak abiapuntu hartuta

⁴ Hitzez hitzezko aipuak jaso dira (*verbatim*) txostenean jasotako ideia batzuen oinarri eta adibide gisa. Elkarrizketatu bakoitzari erantsi zaizkion letrak eta zenbakiak esaldia esan duen pertsona identifikatzea eta bakoitza bere testuinguruan ondo jarri ahal izatea ahalbidetzen dute.

1. Familiarik gabe dauden gazte atzerritarren ezaugarriak

Jorratzen ari garen arazoaren alderdi garrantzitsu bat da gazteak kuantifikatu eta haien ezaugarriak definitzea. Oso zaila da, ordea, talde hori osatzen duten pertsonen gutxi gorabeherako zifra bat ematera iristea, dauzkan ezaugarriengatik eurenatik: irregulartasuna dokumentuetan, bizileku mugikortasuna, eta kideak etengabe batzea.

Kontsultatutako erakundeek (aldundiek eta udalek) ez daukate talde horri buruzko erregistro fidagarririk, eta horrek izugarri zailtzen du datu horiek ezagutzea. Hala ere, haien kuantifikatzeak eta haien ezaugarri soziodemografikoak ezagutzeak duten garrantzia dela-eta, eginahal bat egin behar dugu haien kopurua zenbatesteko, halako moldez non Euskal Autonomia Erkidegoan bakarrik dauden atzerritar gazteen gertakari sozialak duen pisua erakutsiko duen gutxi gorabeherako zifra bat eduki dezakegun.

Adituei egindako elkarrizketek berresten dute oso zaila dela talde horren zifra zehatza ematea lurralde historiko bakoitzeko, baina kasu guztietan azpimarratzen da azken urteetan nabarmen gehitu dela, batez ere tutoretzapean egon eta denboraren poderioz adin-nagusitasunera iristen diren adingabeen etorreran. Azken urtean, 2019an, ordea, igoera hori nabarmen murriztu da. Eta 2020rako etorreren zifrak ere urriak izango dira, osasun alertaren eraginagatik.

“Asko jaitsi da etorrera 2019an”. (1 E).

“Jaitsiera bat egon da, baina berdin da, gehiago etorriko direlako eta hau dagoeneko trabatuta dago, dagoenarekin badago trabatuta”. (3 E).

Kasu gehienetan, azken urteotan etorreren kopurua igotzeak dauden baliabideak gainezkatu ditu, eta askotan, horren ondorioz, gazte horietako askok azkenean etxerik gabeko pertsonentzako baliabideak eskuratu edo kalean ematen dute gaua zuzenean. Dinamika hori hiru lurraldeetan ari da gertatzen.

“Ahalegina egiten ari gara inor kanpoan ez geratzeko, baina badago kanpoan geratzen den jendea, noski”. (3 E).

“Gero eta handiagoa da kalean dauden gazte migratzaileen kopurua”. (4 E).

“CAMAS halako gaztez beteta dago. Aterpe ere bai”. (2 E).

Kuantifikatzea berez zaila bada, are gehiago Gipuzkoako kasuan, hor eragin handiagoa daukalako Europako herrialdeetarantz doazenek. Horregatik, lurraldetik gero geratzen eta errotzen diren baino gazte dezente gehiago igarotzen dira.

“300 baino gehiago datoz eta 72 geratzen dira. (...) 300 zenbatzen dituzu, baina azkenean geratu direnak ez dira 300. Ez dator bat errealitatearekin, azkenean oso gutxi geratzen direlako”. (4 E).

Eta agian hori da alderik handiena taldearen ezaugarriei dagokienez. Hala, Araban eta Bizkaian igarotzako halako gazteak oso gutxi direla azpimarratzen den bitartean, Gipuzkoako kasuan agerikoa da errealitate hori. Araba eta Bizkaiaren kasuan kasuren bat aipatzen da, gazteren bat Europako iparraldera joan, baina itzuli dela gero, hemen beste herrialde batzuetan egon daitezkeen baino aukera gehiago daudelako haientzat, hasiera batean paradoxikoa eman badezake ere.

“Gehienak geratzeko etortzen dira. Eta alde egiten dutenak, Suediara edo edonora alde egiten dutenak, itzultzen dira azkenean. Joan eta itzuli egiten dira. (...) Nire ustez handik egoera are zailagoa delako”. (2 E).

“Guretzat ez dago igarotzako jenderik, ez dugu baloratu ere egiten. Gazte asko dauzkagu, Europako iparrera hoan, eta azkenean itzuli egin direnak. Han ez daukate aukerarik. Ez dago hemen daukagun erregulatu gabeko erregulazio hori, hiru urtez errotuta lan-baimena lortzea ahalbidetzen duena”. (3 E).

“Gazte horiek ez datoz Gipuzkoara. Igarotzan daude. 408etatik guri % 13-14 geratzen zaizkigu. (1 E).

Argi dago datuak falta direla eta zaila dela EAEn bizi diren gazteen kopurura hurbiltzea. Baina, bestalde, argi dago lortu behar dela pertsonen gutxieneko kopurua zenbatestea gizarte gertakari horren benetako garrantzia ezagutzeko.

Taldea mugatzen hasteko, jakin behar dugu EAEn, 2018ABEIren⁵ arabera, 18-23 urte arteko magrebtar jatorriko (Magreben jaiotako) 1.142 gizon eta 869 emakume inguru dauzkagula EAEn bizitzen. Hau da, adin-tarte horretako 2.011 lagun inguru. Eta jatorri horri erreparatu diogu aldundi, udal eta talde horrekin lan egiten duten hirugarren sektoreko erakundeetako arduradunen bidez jakin dugulako gehien-gehienak Magrebtik datozela.

Halaber, badakigu talde hori emakume gutxik osatzen dutela, joera goranzkoa bada ere, eta horrek pentsarazten digu zifra hurbilago egongo dela 1.142 lagunetik 2.011tik baino.

⁵ 2018ko Atzerriko Biztanle Etorrinen Inkesta (2018 ABEI) Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailaren Estatistika Organo Espezifikoko eragiketa estatistiko ofizial bat da. 2018an lagin eraginkorra atzeritar jatorriko 16 urtez gorako 2.418 lagunekoa izan zen; horrek ezan nahi du +/-% 1,20ko gehienezko lagin-errore batekin lan egitea 165.153 laguneko unibertso zenbatetsi baterako. Lagin eraginkor horrek atzeritar jatorriko 4.732 laguni buruzko informazioa ematen du (Le = +/-%2,15, 211.208 laguneko populazio zenbatetsi baterako), etxebizitzan edo establezimenduan atzeritar jatorriko pertsonak dauzkaten 2.418 bizikidetz-unitatetik etorrira (Le = +/-%4,62, 95.651 etxeko unibertso zenbatetsi baterako). ENPLEGU ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILAREN ESTADISTIKA ORGANO ESPEZIFIKOA. EAEko etorkin atzeritarrei buruzko inkestaren emaitzen txostenak. *Euskadi.eus* [online]. Hemen eskuragarri: https://www.euskadi.eus/eusko-jauriaritza/administrazio-erregistroak/-/txostena_ikerketak/eaeko-etorkin-atzeritarrei-buruzko-inkestaren-emaitzen-txostenak/

Noski, 2018ABEIk ematen dizkigun zifrek egoera administratibo eta dokumental erregularrean dauden pertsonak jasotzen ditu batez ere (datu horietan atzerritar jatorriko biztanle guztietatik % 4,9k baino ez dauzkate irregulartasunak dokumentuetan, % 2,8k Magrebtik iritsitakoen artean, baina zifra hori % 9,6ra igotzen du 18-23 urte arteko gizonezko magrebtarren artean), baina jakin badakigu familiarik gabe etorritako gazte atzerritarren artean ere, etxerik gabeko pertsonen egoera gehitzen dutenean, erroldatu gabekoen eta dokumentuetan irregulartasunak dauzkatenen tasak atzerriko edo Magrebko jatorriko pertsonen batez besteko tasak baino askoz handiagoak direna. Nolanahi ere, aipatutako zifrek ideia bat egiteko esparru gisa balio behar digute txosten honetan hurbiltzen garen taldearen gutxi gora beherako bolumenta zenbatestera iristeko orduan.

Bestalde, euskal aldundiek talde horrentzako programei buruz eskainitako datuak dauzkagu. Hala, Bizkaiko Foru Aldundiak adierazi digu bere programek 2020an talde horretako 550 lagun ingururi ematen dizkietela zerbitzua eta estaldura; Gipuzkoako Foru Aldundiak 2019an 180 lagun ingururi eman die arreta; eta Arabako Foru Aldundiak esan digu 2019an 55 lagun ingururi eman dietela arreta, agian, zeinak 2018 eta 2019ko abegi-ondoko programetatik baitatoz. Guztira, 785 lagun ingururi buruz ari gara, agian.

Badakigu, ordea, programa horiek ez direla gai taldearen beharrian guztiei erantzuteko eta jakin badakigu badaudela EAEn bakarrik bizi diren atzerritar gazteak, 18-23 urtekoak, udal ekimenen arreta jaso edo etxerik gabeko egoera batean bizi direnak eta zifra horren barruan ez daudenak. Euskal erakundeek, hirugarren sektoreko entitateekin batera, azken urteetan, zehazki 2010az geroztik, egindako gaueko errolda-zenbaketek⁶, gure hirietako kaleetan bizi diren atzerritar gazteen kopuruaren igoera hori islatzen dute.

Covid-19a zabaltzearen ondorioz alarma-egoera ezartzeak pertsona guztiak konfinarazi zizkien agintari publikoei, eta horrek etxerik gabeko pertsonak baliabide publiko jakin batzuetan konfinatzea ekarri zuen. Horrek erraztu zuen Euskadin data horretan etxerik gabe bizi ziren pertsonen kopuruari buruz datu batzuk eduki ahal izatea, nolabaiteko fidagarritasunez. Hala, Bizkaiko herri nagusietako udal arduradunei galdetu ondoren, badirudi talde hori, bizitegi-egoera zaugarrian edo etxerik gabe egoteagatik zenbait baliabide publikotan konfinatu zituzten pertsonena, 900-1.000 lagunek ere osa lezaketela Bizkaian.

Maiatzaren hasieran bizitegi-bazterketa larri egoeran bizi diren pertsonen zenbaketa egin zen. Zenbaketa hori biurtekoa da eta 2012az geroztik egiten da, etxerik gabeko egoerak zer garrantzi duen eta egoera horretan dauden pertsonen ezaugarriak ezagutzeko. Udal batzuek, hala nola Bilbo, Barakaldo edo Getxokoak,

⁶ Orain arte egindako zenbaketen txostenak Berrituzen kontsulta daitezke. Eusko Jaurlaritzaren ekimen bat da tokiko gizarte-zerbitzuen berrikuntza, ebaluazioa eta kudeaketako jardunbide egokiak sustatzeko]. BERRITUZ. Bizitegi-bazterketa larri egoeran bizi diren pertsonen zenbaketa. *Euskadi.eus* [online]. Hemen eskuragarri: <https://www.berrituz.eus/eu/experiencias/recuento-de-personas-en-situacion-de-exclusion-residencial-grave/ex-46/>

zenbaketa horri buruzko datuak eman dizkigute, eta horrek aukerak zabaltzen ditu talde hori apur bat gehiago ezagutzeko. Zehazki, Bilboko Udalak guztira 707 lagunengatik datuak bildu zituen bere laguntza baliabideetan (kalean ez ezik, aterpetxe, pentsio eta abarretan laguntza-programetan parte hartzen zuten gazteen datuak ere jasotzen zituen). Bilboko Udalaren datuen arabera, pertsona horien % 22 inguru 18-23 urte arteko familiarik gabeko gazteak izan litezke (707 pertsonetatik 156 lagun Bilbon konfinatu ziren 2020an). Barakaldon, Udalak berak emandako 2020ko maiatzeko zenbaketako datuen arabera, % 24 inguru dira profil berekoak. Beste udalerrri batzuetan % 18-22 dira. Gutxi gorabeherako proportzio horri jarraituz, Bizkaian 200 gazte ingururi buruz hitz egin genezake. Gipuzkoan, Donostia eta Iruñea udalek emandako erantzunak aztertuta eta foru eta udal teknikariek izandako elkarrizketak kontuan hartuta, badirudi kalean dauden gazteen kopurua apur bat txikiagoa dela eta 30 lagun inguru izan daitezkeela. Araban ere, Gasteizko Udalak emandako informazioa aztertuta, beste 40 lagun gehitu genitzake, proportziorik gabeko zenbatespen bat eginda, eta hala, foru zerbitzuetan ez dauden gazteak 270 inguru irateke guztira. Alegia, EAEn talde horren sabaia hauek osatuko lukete: foru eta udal programetan parte hartzen duten gazte taldeak, 795 lagunek, eta osasun-alertaren egoeran zenbatu ziren 270 lagunek, gutxi gorabehera. 1.055 lagun, guztira.

Bilboko Udalak emandako datuek foru laguntza programaren batean zenbatutako gazte kopurua eta konfinatutako pertsonen artean zeudenak nolabait gainjartzen direla kontuan hartuz (pertsonen % 15-20 inguru), uste dugu gazteen benetako kopurua 800 lagunengatik geratzen dela, baina 900era iritsi gabe: **EAEn familiarik gabe bizi diren 18-23 urte bitarteko 844-897 lagun bitartean.**

Kontuan hartuz udal arduradun batzuek esan digutela, foru programan parte hartzen duten eta udal zerbitzuek arreta ematen dieten gazteek gain, badaudela haietatik kanpoko gazte batzuk, agian pentsatu behar dugu benetako zifra ezarritako tartearen baliorik handienera hurbiltzen dela. Nolanahi ere, zifra horiek gazte talde horren analisiak gomendatzen dituen zehazkia guztiekin jaso behar da, oso dinamikoa eta aldakorra eta kopurua mugatzeko bereziki zaila baita.

Taldearen beste ezaugarri batzuei dagokienez, elkarrizketatutako adituek ez dute uste hiru lurraldeen artean alde handirik egon daitekeenik. Diotenez, gazte horietatik gehienak gizonak dira eta Magrebtik datoz, Marokotik hein handi batean, eta gutxiago Aljeriatik. Saharaz hegoaldeko jatorria duten gazte batzuk dira, baina oso gutxi dira.

“Gureetatik iaz (Gipuzkoa), % 96 mutilak izan ziren”. (1 E).


“Batez ere marokotarrak dira eta batzuk aljeriarrak (Bizkaia). Baita Ginea edo Ghanakoak ere, baina oso gutxi. % 90 inguru marokotarrak dira”. (3 E).

“Mutilak dira denak, neska bakarra daukagu (Araba). (...) Garai batean Saharaz azpiko nahikotxo etortzen ziren, esaterako, duela hamar urte, eta gero talde hori pixkanaka murriztu eta talde magrebtarra handitu da”. (2 E).

Pentsatzekoa denez, EAEn talde oso horren daturik ez badaukagu eta gutxi gorabeherako zenbatespenekin lan egin behar badugu, ez daukagu haien profileraren hurbiltzen gaituen datu kuantitatiborik iturri fidagarrietatik. Nolanahi ere, badaukagu Bilboko Udalak emandako datuak (familiarik gabeko 18-23 urte bitarteko 156 gazte inguru abegian hartuta konfinamenduan), eta horrek haien profil eta ezaugarrien argazki batera hurbil gaitzake, gutxi gorabehera, berriz ere.

Profilaren ezaugarriak aurkeztu aurretik, komeni da azpimarratzea daukagun lagina, administrazio-egoerari, errolda-egoerari eta bizilekuari dagokienez, ez dela guztiz adierazgarria; izan ere, familia-erreferenterik ez duten 18-23 urte bitarteko atzeritar gazteen taldearen barruan, datu horiek egoera estu, zaugarri eta marjinalenetan egon daitezkeen pertsonei dagozkie.

Zuhurtzia horiekin, esan daiteke gehienak gizonak direla (Bilbon, % 96,6), eta gutxiengoa baino ez direla emakumeak (% 3,1). Gainera, gehienek Marokon (% 84,0) eta Aljerian (% 4,8) dute jatorria, baina batzuk Sahara azpiko Afrikatik etor daitezke (% 6,4).







Iturria: guk egindakoa

Gazte horietatik erdiek baino gehiagok eginda dauzkate lehen hezkuntzako ikasketak (% 54,1) eta hirutik batek bigarren hezkuntzako ikasketak (% 33,1). % 11,3 inguruk ez daukate ikasketarik eta % 1,2k baino ez daukate unibertsitate-ikasketak.

Gazte horietatik gutxik adierazten dute lana daukatela (% 23,5) eta gehienek ez daukate (% 76,5). Pertsona horietatik, ehuneko txiki batek egiten ditu ikasketak motaren bat (% 16,6 inguru).

Familia-erreferenterik ez duten gazte migratzaileak Euskadin

Gazte gehienek ez daukate euren diru-sarrerarik (% 73,7), eta gutxienek (% 21,1) diote diru-sarrerak dauzkatela euren lanagatik (% 11,3), prestazio publikoengatik (% 8,3) edo biengatik (% 1,5).







Iturria: guk egindakoa

Gehien-gehienek, bestalde, atzerriko nazionalitatea (% 94,2) eta oso gutxiak daukate espainiar nazionalitatea edo nazionalitate bikoitza (% 5,8).

Gehienek administrazio-egoera irregularra da (% 78,2), baina haietako batzuk (% 21,8) administrazio-egoera erregularrean daude.

Haien errolda-egoerari dagokionez, Bilboko datuek erroldatze-tasa urria adierazten dute, % 44,3, eta ez daudenak, aldiz, % 55,7, agian beharrezkoa dela jakiteko beste denbora igaro ez dutelako.




Handia da kaleko egoeran, etxebizitzarik edo egoitza-baliabiderik gabe dauden gazteen kopurua. Bilbon aztertutako laginean, gazteen % 57,2k konfinamenduaren aurreko gaua kalean lo eginez eman zuten, eta % 42,8k aterpetxe, pentsio, laguntza-baliabide, pisu partekatu eta abar batean egin zuten. Dena dela, berriro esan behar dugu lagin horrek familia-erreferenterik gabeko gazte migratzaileen taldearen barruko estutasun handieneko egoerak jasotzen dituela.



Iturria: guk egindakoa


Erdiek baino gutxiagok daukate OTI osasun-txartela edo familia-mediku bat esleituta daukatela frogatzen duen gutun bat (% 47,4k baino ez).

Kaleko egoera ohikoa izan arren, gehienek diote osasun ona edo oso ona dutela (% 80,4) eta ez daukatela batere adikziorik (% 89,8).




Iturria: guk egindakoa

Azken datu interesgarri bat da gazte horiek adingabeen tutoretzapeko zentzoren batetik igaro diren: % 29,5ek diote euren bizitzako uneren batean foru tutoretzaren pean egon direla eta beste % 19,3k diote estatuko gainerako lurraldeetako adingabeen zentzoren batetik igaro direla. Guztira, erdiak ia egon dira adinekoen zentro batean (% 48,8).



Iturria: guk egindakoa

Etorkizunari buruz galdetzen denean, azpimarratu nahi dugu gazte gehienek gure ingurunean geratu eta etorkizun bat eduki nahi dutela (hala diote % 88,7k).



Iturria: guk egindakoa

Azkenik, kontu horren harira, adituekin izandako elkarrizketetan sortu nahi den zerbait aipatu nahi dugu. Diotenez, lurraldean errotu asmoz datozen gazteen kasuan, askok daukate argi ikasi eta enplegu bat lortzen saiatzera datozela.

“Gazte gehienak familia-proiektu batekin datoz, ikasi dute eta familiak ordainduta eta antolatuta datoz”. (1 E).

2. Esparru juridikoa

Honen moduko azterlan batean esparru juridikoa zehaztearen garrantzia, nagusiki euskal administrazio publikoei zuzenduta egonda, zalantzarik gabekoa da. Oraingoan garrantzi are handiagoa hartzen du gazte horien identitatea eta administrazio-egoera frogatzeko behar den dokumentazioa lortzeko araudiak duen pisuagatik. Dokumentazio hori lortzea eta mantentzea ezinbestekoa da haiek gizarteratu eta laneratzeko. Informazio egokia, eta dagokion epean, edukitzeak eta jarduketa jakin batzuk azkar eta eraginkortasunez egiteak haien gizarteratze eta laneratze prozesua errazten dute. Beharrezko izapide administratiboak ez egiteak, aldiz, oso gazte hasi eta haien familia eta jatorrizko tokia utzi eta gertaera traumatikoak pairatzea ekarri zituen bizi ibilbide bat moztu dezake, adin horretan helduak lagun izatea beharrezkoa denean eta derrigorrezkoa denean haiek zenbait bizi arlotan babestea.

Lehenengo atalean laburki azalduko ditugu Estatuko Administrazio Orokorraren eskumenak, alde batetik, eta euskal administrazio publikoenak, bestetik, atzerritarren gizarteratzeko eta laneratzeko dauden politika publikoen jardun-eremuetan. Bigarrenik, aurreratu denez, gazte atzerritarren estatutu juridikoa aztertuko da, tutoretza jaso duen zein ez. Estatutu horrek baldintzatzen du haren gizarteratze eta laneratze prozesuaren emaitza; horregatik da oso garrantzitsua benetako emantzipazioa eta autonomia lortzeko, eta hori, ekonomia-jarduera ordaindu bat eginda baino ez da etorriko.

2.1. EAEko administrazio publikoen eskumenak

Atzerritarren eskubideak eta askatasunak arautzeko eskumena estatuari dagokio, [Espainiar Konstituzioaren](#) (EK) 149.1.1 artikulua. Ondorioz, estatuak eskumen eskusiboa du naziotasun, immigrazio, emigrazio, atzerritartasun eta asilo-eskubideari dagokienez. Europar Batasunak⁷ ere badauzka eskumenak hartzeko

⁷ Europar Batasunaren funtzionamenduari buruzko tratatua (EBFT), 67. art.: "Batasuna askatasun-, segurtasun- eta justizia-esparrua da, oinarritzko eskubideen errespetuaren itzalpean eta estatu kideen sistema eta tradizio juridikoen errespetuaren itzalpean. 2. Batasunak barruko mugetan pertsonen kontrolik ez dela egongo bermatuko du, eta asilo-, immigrazio- eta kanpoko mugetarako kontrol-politika erkidea garatuko du, estatu kideen arteko elkartasunean oinarriturik, eta hirugarren herrialdeetako herritarrei dagokienez ekitatiboa izango dena. Titulu honetako ondorioetarako, aberrigabeak hirugarren herrialdeetako herritarren parekoak izango dira. 3. Batasuna segurtasun-maila handia lortzen saiatuko da, eta, horretarako, delinkuentzia, arrazakeria eta xenofobia saihesteko eta borrokatzeko neurriak eta polizia-agintarien, auzietarako agintarien eta beste agintari eskudunen artean koordinazioa eta lankidetzak lortzeko neurriak erabiliko ditu eta, gainera, batak bestearen zigor-arloko ebazpen judizialak onartuko ditu, eta, beharrezkoa bada, zigor-arloko legediak batak bestera hurbilduko dituzte (...)".

Familia-erreferenterik ez duten gazte migratzaileak Euskadin

bisei eta egonaldi laburrei eta asiloari buruzko neurriak eta errefuxiatuei eta lekualdatutako pertsonen lotutako neurriak edo sarrera eta bizilekurako baldintzei buruzko eta legez estatu kideren batean bizi diren hirugarren herrialdeetako nazionalen eskubideei buruzko, zein migrazio gertakariri lotutako legez kontrako jardueraren errepresioari buruzko neurriak eta, oro har, pertsonen zirkulazio askearekin zerikusia duten bestelako politikak garatzeko, batzuk zein besteak, askatasun, segurtasun eta justizia esparru komun bat sortu eta justiziaren eta poliziaren arloan lankidetzaz errazteko⁸.

EK-k estatuari immigrazioaren arloan aitortzen dion eksklusibotasunari ñabardurak egin behar zaizkio, gizarteratzearen alderdiari dagokionez, baina ez, ordea, atzeritartasunari dagokionez (sarrera eta irteera arautzen dituen atzeritarren araubide juridikoa, administrazio-baimenak eta arau-haustekak eta zehapenak). Horregatik kontuan hartu behar da estatuaren eta autonomia erkidegoen arteko eskumen banaketa, hala nola EKren 148.1 artikuluko 20. eta 21. arauak eta EKren 149.1 artikuluko 7. eta 17. arauak. Lehenengoen baimena ematen diote EAERI gizarte-laguntzaren, osasunaren eta higienaren arloetan eskumenak bere gain hartzeko, eta bigarrenek, ordea, zabalik uzten dute aukera lanari eta gizarte segurantzari buruzko legediaren arloan betearazteko eskumenak bere gain hartzeko. EAEk hezkuntzaren, lan-prestakuntzaren, haurren eta etxebizitzaren arloetan dituen eskumenak ere funtsezkoak dira azterlan honen ondorioetarako. [Euskal Herriko Autonomia Estatutuak](#), 1979koa izanda, immigrazioaren eta gizarteratzearen arloko eskumena jasotzen ez duen arren, beste autonomia estatutu batzuen erreforma berriagoak joan dira haiek sartzeko, hala nola Katalunia eta Andaluziakoak.

Jurisprudentziak eskumen autonomiko propioetan, sektorialetan, eta auto-antolakuntzakoetan oinarrituta jarduteko zer aukera dauden aitortu du⁹. Hala, Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiak ebatzi zuen eskubidearen arabera dela Eusko Jaurlaritzaren otsailaren 12ko 40/2002 Dekretuaren 16. artikulua (Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailaren egitura organikoa eta funtzionala finkatzen dituen Dekretua), zeinak eginkizun jakin batzuk esleitzen baitzizkion Eusko Jaurlaritzako Immigrazio Zuzendaritzari. Auzitegiaren aburuz, estatuaren aldeko eskumen eksklusiboa egoteak ez dakar hark beretzat eramatea autonomia erkidegoek eskumen horrekin lotura izanda esleituta daukaten eskumen oro. Autonomia erkidegoko administrazioak, konstituzionaltasun blokearen arabera dagozkion bere eskumenen ondorioetarako, ordenamendu juridikoak atzeritarrei

Europar Batasuneko aldizkari ofiziala, C 326/47, 2012ko urriaren 26a. Hemen eskuragarri: <https://eur-lex.europa.eu/LexUriServ/LexUriServ.do?uri=CELEX:12012E/TXT:ES:PDF>

⁸ EBFTren 79. art.

⁹ EAE JANE 699/203, irailaren 30ekoa. ECLI:ES:TSJPV:2003:3696. Hemen eskuragarri: <http://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/8466e8fd7fe74e4b/20031212> EAE JANE, irailaren 30ekoa. ECLI:ES:TSJPV:2003:3690. Hemen eskuragarri: <http://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/b8ab7407bde41781/20031212>

Espanian aitortzen dizkien eskubideei dagokienez (etxebizitza, gizarte-laguntza, hezkuntza, lana eta osasun-laguntza), eta haien gizarteratzea errazteko, beharrezkotzat jotzen dituen xedapen organikoak har ditzake. Ondorioz, autonomia erkidegoek konstituzionaltasun blokeak esleitu dizkien eskumenak garatzeko euren politikak gara ditzakete, ordenamendu horrek aurreikusitako mugei lotzen bazaizkie. Euren eskumenak erabiltzeko egokitzat jotzen dituzten organoak ere ezar ditzakete, eta horrek ez dakar derrigorrez estatuarentzat gordetako eskumen-eremua inbaditzea.

Halaber, [apirilaren 4ko 344/2001 Errege Dekretuak](#), Immigrazio Politikarako Goi Batzordea sortzen duenak, hau onartzen du bere hitzaurrean: *“la integración social de los inmigrantes, no sólo afecta a la Administración General del Estado, sino también a las Comunidades Autónomas y Corporaciones Locales, que tienen atribuidas competencias, si bien en distinta medida, en materias como la sanidad, prestaciones y servicios sociales, vivienda, educación y cultura”*. 4/2000 Lege Organikoa, urtarrilaren 11koa, etorkinek Espainian dauzkaten eskubide eta askatasunei eta haien gizarteratzeari buruzkoa, onartu zuen [abenduarien 30eko 2393/2004 Dekretuak](#) ere, [apirilaren 20ko 557/2011 Errege Dekretuak](#) indargabetu zuenak, hitzaurrean aipatzen du autonomia erkidegoen, udalen eta gizarte agenteen parte hartzea, azken horiek Immigrazioaren Hirualdeko Lan Batzordearen bitartez: *“todos ellos vienen asumiendo tareas relacionadas con la atención a los inmigrantes y, consecuentemente, obtienen una participación acorde con esas tareas dentro de los diferentes procesos referidos al ámbito de la inmigración”*.

Aurreikusitako koordinazio-tresnak 68. artikuluan jasotzen ditu [urtarrilaren 11ko 4/2000 Lege Organikoak](#), etorkinek Espainian dauzkaten eskubide eta askatasunei eta haien gizarteratzeari buruzkoak¹⁰ (LOEx), Immigrazioaren Arloko Biltzarraren bidez koordinatzea aurreikusiz. [Urriaren 30eko 12/2009 Legeak](#) ere, asilorako eskubidea eta babes subsidiarioa arautzen dituenak, aipatzen du autonomia

¹⁰ 68. art.: 1. Immigrazioaren Arloko Biltzarra da administrazio publikoek immigrazioaren arloan garatzen dituzten jarduketan koordinazio egokia ziurtatzeko organoa. 2. Hasierako lan-baimena emateko eskumen betearazleak euren gain hartzen dituzten autonomia erkidegoek, estatuak atzerriartasunaren, immigrazioaren eta bizileku-baimenaren arloetan dauzkan eskumenekin koordinatuta garatu beharko dituzte derrigorrez, halako moldez non atzerriartasunari eta immigrazioari buruzko araudia lurralde osoan berdin aplikatzea, prozeduren bizkortasuna eta norik bere eskumenak garatzeko behar den administrazioen arteko informazio trukea ziurtatzen diren. Koordinazioa egitean autonomia erkidego bakoitzaren auto-antolakuntza gaitasuna eta bakoitzaren lurralde deszentralizazio sistema zaindu beharko dira. 3. Errotzearen ziozko baimenak eman aurretik, autonomia erkidegoek edo, hala badagokie, udalek, ohiko etxebizitza euren lurraldean duen atzerriartaren gizarteratzeari buruzko txosten bat egingo dute. Txosten horren edukiak erregelamenduz zehaztuko dira. Nolanahi ere, txostenak kontuan hartuko du egondako denbora, etxebizitza eta bizi baliabideak edukitzeko aukera, Espainian bizi diren senideekiko loturak, eta integratzeko eginahalak, gizarteratze, laneratze eta kultura-integrazio programen jarraipenaren bidez. 4. Euren polizia sortuz herritarren segurtasunaren eta ordena publikoaren arloko eskumenak euren gain hartu dituzten autonomia erkidegoek, hala badagokie, ordena publikoari eragiteari buruzko txosten bat eman ahalko dute, bizileku-baimena emateko edo berritzeko prozedura guztietan, Espainian dauden atzeritarrei dagokienez, gobernuaren txostena behar dela aurreikusten bada. Txosten hori espedientean sartuko da, hala badagokie, Estatuaren Segurtasun Indar eta Kidegoek segurtasun publikoari buruzko euren eskumenak erabiliz emandakoa bezala.

Familia-erreferenterik ez duten gazte migratzaileak Euskadin

erkidegoekiko koordinazioa bere 4. xedapen gehigarrian¹¹. Gainera, EAEk eskumena dauka errotzeari eta integratzeko ahaleginari buruzko txostena egiteko eskumena ([urtarrilaren 11ko 4/2000 Lege Organikoaren](#) 68.3 artikulua, eta [apirilaren 20ko 557/2011 Errege Dekretuak](#) eta haren aplikazioari buruzko jarraibideak onartutako garapeneko Erregelamenduaren 124.2 c) eta 51.6 artikulua¹²).

Eusko Jaurlaritzak egindako txostenak dira eta Estatuko Administrazio Orokorrek balioetsi behar ditu, ez baitira lotesleak. Errotzearen txostenak aukera ematen die inguruabar bereziengatik bizileku- eta lan-baimena eskatu nahi duten atzerritarrei baimen hori emateari begira gizarteratze maila nahikoa frogatzen duten elementuak aurkezteko. Integratzeko eginahalaren txostenak aukera ematen die euren bizileku-edo bizileku- eta lan-baimenak berritu behar dituzten atzerritarrei euren integrazioa frogatzen duten elementu batzuk aurkezteko. Txosten hori eskatzaileak berriztapen horietarako eskatzen diren baldintza guztiak betetzen dituela frogatzerik ez duenean baino ez dira aurkeztu beharko.

Autonomia erkidegoek Migrazioen Estatu Idazkaritzari jakinaraz diezaioke errotzearen txosten hori egiteko eskumena duen organoa pertsona errolatuta dagoen udalerriko udala dela. Euskadin autonomikoa da eskumena eta, orain arte, ez da eskumenik eskuordetu udalen alde. Errotzearen eta integratzeko eginahalaren txostenen edukiak pisu garrantzitsua dauka atzerritarrak dokumentatzeko prozesuan, lotesleak ez badira ere, izapide administratiboan funtsezkoak direlako, aintzat hartuko den balioespen bat baitaukate. Txostenen zorrotzasunak eta xehetasunak erraztu dezakete administrazio-bidean edo auzibidean dokumentazioa eskuratzea.

Gazte horien dokumentazio premiei atzerritartasunaren araubide juridikoa eta gizarteratzearen arloko eskumenak betetz kasu egiteak haien arteko derrigorrezko erlazioarekin bat datorren eta efikazia eta koordinazio printzipioak kontuan hartzen dituen arauen eta erakundeen egituraketa ekarri behar luke (EKren 103. artikulua). Euskal administrazio publikoek atzerritarrei emandako arretaren oinarri juridiko eta etikoa berdintasunaren eta benetako bizilekuaren printzipioak izan dira. Hala, Euskadiko etorkinen aniztasuna kudeatzeko eta gizarteratzeko egin diren [plan estrategikoetan](#)¹³ jaso dira, plan horiek Eusko Jaurlaritzaren immigrazioaren arloko tresna programatiko nagusi gisa eratuta.

¹¹ Laugarren xedapen gehigarria. Lankidetzaren beste administrazio publiko batzuekin. Autonomia erkidegoek, osasun, hezkuntza eta gizarte arloan dagozkion eskumenen arabera, asilo-eskatzaileentzat berariaz bideratutako zerbitzuak eta programak kudeatzen dituzte, Estatuko Administrazio Orokorrekin koordinatuz eta lankidetzan. Era berean, kolektibo horri eskuragarri dituzten gizarte baliabide zehatzei buruzko informazioa emango dute, baita asilo-eskatzaileentzako arreta espezializatuko erakundeei buruzkoa ere.

¹² INKLUSIO, GIZARTE SEGURANTZA ETA MIGRAZIO MINISTERIOA. DGI/SGRJ/3/2011 Jarraibidea, atzerritarrek Espainian dituzten eskubide eta askatasunei eta horien gizarteratzeari buruzko urtarrilaren 11ko 4/2000 Lege Organikoaren erregelamenduaren aplikazioari buruzkoa.

¹³ Euskadiko Immigrazioaren aldeko Gizarte Ituna; Atxikimendu-agiria; Herritartasunaren, kulturartekotasunaren eta immigrazioaren esparruan jarduteko EAEko V. plana (2018-2020); Immigrazioarako euskal estrategia; Immigrazio,

Onartu berri den [Eusko Legebiltzarraren legez bestek proposamena, 2020ko abenduaren 14koa](#), migratzaileei eta errefuxiatuei harrera egiteko euskal sistema bat garatzeari buruzkoa; bertan, honako hau eskatzen zaio Eusko Jaurlaritzari: *“atzerritartasunaren arloko adituen taldea osatzea, indarrean dagoen lege-esparruaren azterketa egin dezan, autonomia-erkidegoen eskumenak ahalik eta gehien garatzeko gomendioak egin ditzan eta migrazio-eskumenen berehalako transferentzian aurrera egiteko urratsak eman ditzan, EAE pertsona guztientzako benetako harrera-leku bihurtzeko, migratzaile eta errefuxiatu guztiei baldintzarik gabeko babesa bermatzeko, eta munduko herritarren eskubideen defentsa aktiboan oinarritutako zeharkako politika integratuak abian jartzeko”*.

Herritartasun inklusiboaren gakoa, izatezko bizilekuan oinarrituta, ardatza izan da Euskadiko immigrazio planetan, V. Plan horretan agerian geratzen denez. Hor 2007-2009ko Immigrazioaren II. Euskal Planaren zatiak berreskuratu dira, elementu bereizgarri gisa duen garrantzia azpimarratzen dutenak:

“... herritartasun inklusiboaren ikuskera biltzea ahalbidetuko du, eta ikuskera horrek Estatuko ordenamendu juridikoan bildutako nazionalitate-kontzeptu klasikoa birformulatuko du EAEren eskumenen eremuan. (...) Ezinezkoa da egiaz integratzea etorkin egoiliarrei herritarrak direla eta, horren ondorioz, herritartasunak EAEn ematen dituen eskubide eta betebeharrak guztien titularrak direla, berdintasunez, aintzat hartu gabe. (...) Herritartasun berria lortzeko eskatzen den lotura bizitokia da. (...) Herritartasun inklusiboak erabateko berdintasun-irizpidea eskatzen du”. Eskubide-berdintasuna etorkinen eta nazionalen artean aldeztu da, baina nazionalizatu gabeko pertsonen artean, genero desberdinekoen artean eta abarren artean ere bai.”(61. or. eta hur.)

Halako moldez, non azken plan horrek hau proposatzen duen lehentasuneko ekintza-lerro gisa: *“lehentasunezko jarduera-ildo batzuk ezartzen ditu, egungo eta geroko euskal gizarteak honako hauek izan ditzan: berdintasuna, herritarrek eskubideak izateari dagokionez; Euskadin bizi diren pertsona guztientzako aukera-berdintasunaren sustapena; gizarte-trinkotasuna, eta elkartasun handiagoa gizarte-kolektibo behartsuenekin; begirunea pertsona eta kultura guztien dibertsitatearekin; eta gizarte-interakzioaren aldeko testuinguruaren sustapena”*.

Hala, V. Planak azaltzen du zein oinarri izan dituen Eusko Jaurlaritzaren azken hamarkadetako esku-hartzea immigrazioaren arloan eta horretarako berdintasun-printzipioaren irismena definitzen du:

Herritartasun eta Kultura arteko Bizikidetzari buruzko III. Plana, Immigrazioaren III. Euskal Plana; Immigrazioaren I. Euskal Plana [2020ko abenduaren 15ean kontsultatuta]. BERDINTASUN, JUSTIZIA ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA. Etorkinentzako plan estrategikoak. [Euskadi.eus](https://www.euskadi.eus) [online]. Hemen eskuragarri: <https://www.euskadi.eus/immigrazio-plan-estrategikoak/web01-a2famil/eu/>

Familia-erreferenterik ez duten gazte migratzaileak Euskadin

“Berdintasun-printzipioak giza eskubideen titulartasuna al bait zabalen izatea dakar, EA Eri dagozkion eskumenen eremuan. Eta eskubide zibilez ez ezik, gizartearen, ekonomiaren eta kulturaren arloko eskubideez ere ari gara eta bertan bizi diren guztientzat orokortzen dira eskubide horiek, haien nazionalitatea kontuan izan gabe; eskubide politikoez ere mintzo gara, autonomia- eta toki-ordenamendu juridikoan txerta daitezkeen neurrian. Bestalde, eskubide eta betebeharren berdintasun formalarekin batera, berdintasuna sustatzeak bi alderdi biltzen ditu: alde batetik, tratu-berdintasuna, eskubideen bazterketa eta diskriminazio mota oro debekatuz pertsonen ezaugarri fisikoak, ideiak, kultura, sexu-orientazioa, posizio ekonomikoa eta abar direla-eta; eta bestetik, aukera-berdintasuna, pertsona guztiek gizartean aukera berak izateko eskubidearekin eta ekitatearekin loturik, aurreiritzi errotuen eraginpean dauden talde jakin batzuen gizarte-desabantailako egoera orekatzeko neurriak hartzeko aginduz botere publikoei”

V. Planak hau sartzen du arlo juridikoko neurri programatiko gisa: *“Bermatzea atzerritar etorki, jatorri eta/edo nazionalitateko herritarrek benetan eskura ditzaketela bitarteko sozialak EA Eko gainerako biztanleen baldintza beretan”*¹⁴.

lido beretik, [2017-2020rako bizikidetzaren eta giza eskubideen planak](#) jasotzen duen elkartasun-printzipioa azpimarratzen da: *“Gizarteak eta erakunde publikoak berdintasunean eta elkartasunean oinarrituta dauden eta integrazioa, kohesioa eta justizia xede dituzten politika publikoak bultzatu behar ditugu. Politika publiko horiek hezkuntzaren, osasunaren edo oinarritzko gizarte-prestazioen unibertsaltasunaren alde egin behar dute irmo, eskubideen, betebeharren eta aukeren berdintasuna ahalbidetzen duen gizarte kohesionatu bat izan dezagun.”*¹⁵.

Azken plan horrek giza eskubideekiko errespetua jasotzen du funtsezko printzipio gisa: *“eta pertsonen duintasunarekiko errespetua, arraza, generoa, sinesmena edo beste edozein baldintza pertsonal edo sozial bereizi gabe”* (33. or. eta hurrengoak).

Hain zuzen ere, Arartekoak sailen plan horiek aipatzen ditu [Arartekoaren 2020ko urtarrilaren 7ko Ebazpenean](#) (Ebazpen horren bitartez, amaitu egin da 2018ko udan iraganbidean zeuden migratzaileak gurera iritsi izanari lotuta Arartekoak egin zuen jarduketari). Hor, erakunde honek zenbait ohar egin zituen administrazio publikoen arteko koordinazioari, lankidetzari eta haien eskumenak argitzeari buruz, eta geri mintzatuko gara hari buruz gomendioen atalean. Ebazpenaren ondorioen artean, tresna tekniko hauen zeregina aipatzen zen:

¹⁴ Kolektibo horri buruz, V. Planak, zehazki, bizikidetzaren arloan, gazte atzerritarrentzako gizarteratzeko ibilbidea hirugarren sektoreko entitateen bidez zabaltzea proposatzen du (4.3.3.3) 107. or., eta laguntza ekonomikoa aurreikusten du bakarrik dauden gazte atzerritarrekin (18 urtez gorakoekin) berariaz lan egiten duten entitate eta erakundeentzat, arreta bereziko kolektibo bat izateagatik (4.3.7.8) 142. or. Gainera, haien egoeraren eta beharrezkoen deskripzio-azterlan bat aurreikusten du (4.3.7.15), 149. or.

¹⁵ Euskadiko Immigrazioaren aldeko Gizarte Itunak, bestalde, etika demokratiko eta aurrerabideko dimentsioa duen abegi eredu bat proposatzen du lan eta demografia beharrezanean aurre egiteko. Itun horrek aitortu du euskal gizartearen anitza dela, eta giza eskubideetan, berdintasunean eta diskriminaziorik ezan oinarritutako ikuspegia sustatu du, genero-berdintasunari bereziki erreparatuz, herritartasun anitz eta inklusiboa bultzatzeko.

“Orain arte, immigrazio-arloko hainbat plan eta estrategia prestatu dira, herriadministrazioek —Eusko Jaurlaritzak, nagusiki, baina baita foru-aldundiek eta zenbait udalek ere— Euskal Autonomia Erkidegoko immigrazioak dakartzan premiei aurre egiteko. Hala ere, dokumentu horiek ez dira nahitaezkoak, eta, horregatik, modu desberdinean aplikatu dira lurralde osoan zehar eta eremu bakoitzean. Immigrazioaren eta aniztasunaren kudeaketak zeharkako izaera du, eta, beraz, arlo horretako jarduera-planak prestatzeko egin den ahaleginak arrakasta izan dezan, plana beteko den konpromiso irmoa hartu behar da, edo, bestela, plana betetzen dela bermatzeko beste tresna arauemaile batzuk ezarri behar dira.”

Plan horietan adierazitako printzipioak eta ekintza-lerroak arloko politika publikoetan gauzatzen dira, eta azken horiek, bestalde, euren araudiek erregulatzen dituzte. Haietan zehazten dira atzerritarren eskuragarritasuna (nolabait mugatua) eta parte hartzeko posibilitateak.

Autonomia erkidegoak aipatzeaz gain, atzerritarrek Espainian dituzten eskubide eta askatasunei eta horien gizarteratzeari buruzko 4/2000 Lege Organikoa¹⁶ garatzen duen [Erregelamenduak](#) udalak ere aipatzen ditu atzerritarren integrazioa dagokien eta zerikusia duten agente gisa. Ildo horretatik mintzo da [apirilaren 7ko 2/2016 Legea](#), Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoa¹⁷. Haren 17.1.35 artikulua arabera, udalerrien berezko eskumena da honako hau: Immigrazio alorrean gizarteratze-politikak kudeatzea, atzerritartasunaren inguruko legeriarekin bat etorrira eta erakunde autonomikoekin lankidetzan. Araudiaren zehaztapen bakar horrek irismen handia dauka, KEren 137. artikulua kontuan hartzen baita, zeinak aitortzen baitu udalerriek, probintziek eta autonomia erkidegoek autonomia daukatela euren interesak kudeatzeko.

Udalek daukaten funtsezko beste eginkizun bat udal-errolan inskribatzeko eskumenari dagokiona da. Atzerritarrei buruzko legearen 6.3 artikulua dio udalak dagokion lurraldean bizi diren atzerritarren gaineko informazioa jaso behar duela udal-errolan eta informazio hori eguneratuta eduki behar duela. Bestalde, udal-errolan inskribatzea ezinbesteko baldintza da zerbitzuak eta prestazioak eskuratzeko eta eskubideak erabiltzeko. Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemara¹⁸ edo

¹⁶Espainia. 557/2011 Errege Dekretua, apirilaren 20koa, Espainian atzerritarren eskubide eta askatasunen eta bere gizarteratzearen inguruko 4/2000 Lege Organikoaren Araudia -2/2009 Lege Organikoaren bidez aldatu ondoren-onartzen duena. *Estatuko Aldizkari Ofiziala, 2011ko apirilaren 30ekoa, 103. zk.* Hemen eskuragarri: <https://www.boe.es/buscar/act.php?id=BOE-A-2011-7703>

¹⁷ Euskadi. 2/2016 Legea, apirilaren 7koa, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoa. *Estatuko Aldizkari Ofiziala, 2016ko maiatzaren 2koa, 105. zk.* Hemen eskuragarri: https://www.boe.es/diario_boe/txt.php?id=BOE-A-2016-4171

¹⁸ Euskadi. 12/2008 Legea, abenduaren 5ekoa, Gizarte Zerbitzuei buruzkoa. *Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria*, 2008ko abenduaren 24koa, 246. zk. Hemen eskuragarri: https://www.euskadi.eus/y22-bopv/es/bopv2/datos/2008/12/s08_0246.pdf. Lege horrek xedatzen du Autonomia Erkidegoan diren pertsona guztiak izan dezatela informazio-, balorazio-, diagnostiko- eta orientazio-zerbitzuez baliatzeko aukera, bai eta lagun egiteko zerbitzuaz baliatzeko ere, eta, orobat, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren prestazio eta zerbitzuen zorroan definitutako gizarte-premia larrietarako prestazio eta zerbitzuez baliatzeko.

Hala, Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legearen zioen azalpenean honela definitzen dira gizarte-zerbitzuak: *“ongizate-estatuaren benetako oinarria”, “erantzukizun publikoko eta estaldura unibertsaleko sistema, herritar guztiei zuzendua”.*

Familia-erreferenterik ez duten gazte migratzaileak Euskadin

Diru-sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemara ¹⁹ jotzeko, ikastetxe batean matrikulatzeko edo lehen mailako arretako osasun-zentro batera joateko, oinarritzko beste zerbitzu batzuen artean, udal-eroldan izen emanda egotea eskatzen da eta, beraz, funtsezko izapidea da administrazio publikoekiko harremanetan eta auzotasuna eskuratzeko. Beraz, derrigorrez aipatu behar dira [apirilaren 2ko 7/1984 Legea](#), Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituena²⁰, [Toki Erakundearen Biztanleriari Eta Lurralde Mugaketari Buruzko Araudia](#) ²¹ eta, bereziki, udal-eroldaren kudeaketari buruzko [jarraibide teknikoak](#)²². Jarraibideen artean, 1.a, 2.a eta 3.a azpimarratu behar ditugu. Eroldan inskribatzeko modua, behar den dokumentazioa eta zaurgarritasun bereziko egoeren aurrean jokatzen diren modua ezartzen dira haietan.

2.2. Atzerritar jatorria duten pertsonen estatutu juridikoa

Konstituzio Auzitegiak atzerritarren eskubideen irismena eta mugak aztertu dituen epaietan²³ atzerritarrek eskura ditzaketen hiru eskubide modalitate²⁴ ezarri ditu:

- Estatuko eta atzerriko jatorriko pertsonen berdintasuneko eskubideak. Espainian bizi diren atzerritarrek gizakiari berdintasunean datzekion

Abenduaren 23ko 18/2008 Legeak, Diru Sarrerak Bermatzeari eta Gizarteratzeari buruzkoak, xede hau ezartzen du bere zioen azalpenean: *“sistemaren barruan diren prestazio ekonomikoetara eta gizarteratzeko tresnei dagokienez, herritarrek horiek berdintasun- eta ekitate-irizpideen arabera eskuratzeko modua bermatu nahi da”*. Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria, 2008ko abenduaren 31koa, 250. zk. Hemen eskuragarri: https://www.lanbide.euskadi.eus/contenidos/informacion/rgi_normativa/es_def/adjuntos/Ley%2018-2008.pdf

¹⁹ Gizarteratzeko eta Diru Sarrerak Bermatzeko abenduaren 23ko 18/2008 Legearen 26. artikulua. Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria, 2008ko abenduaren 31koa, 250. zk. [Hemen eskuragarri: https://www.lanbide.euskadi.eus/contenidos/informacion/rgi_normativa/es_def/adjuntos/Ley%2018-2008.pdf

²⁰ Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 15.-18. artikulua. Estatuko Aldizkari Ofiziala, 2009ko urriaren 31koa, 263. zk. Hemen eskuragarri: <https://www.boe.es/buscar/act.php?id=BOE-A-2009-17242>

²¹ Espainia. Toki-erakundeetako Biztanleriaren eta Lurralde Mugapenaren Araudia onartu duen uztailaren 11ko 1690/1986 Errege Dekretua. Estatuko Aldizkari Ofiziala, 1986ko abuztuaren 14koa, 194. zk. [Hemen eskuragarri: <https://www.boe.es/buscar/act.php?id=BOE-A-1986-21944>

²² PRESIDENTETZAKO, GORTEEKIKO HARREMANETAKO ETA BERDINTASUNEN MINISTERIOA. Idazkariordetzaren 2020ko apirilaren 29ko Ebazpena. Horren bidez, 2020ko otsailaren 17ko Ebazpena argitaratzen da, Estatistikako Institutu Nazionalaren Lehendakariaren eta Autonomia Erkidegoekiko eta Toki Erakundeekiko Eskumenak Koordinatzeko Zuzendaritza Nagusiarena, udal-eroldaren kudeaketaren gainean udalei emandako jarraibide teknikoetara buruzkoa. Estatuko Aldizkari Ofiziala, 2020ko maiatzaren 2koa, 122. zk. Hemen eskuragarri: <https://www.boe.es/buscar/act.php?id=BOE-A-2020-4784>

²³ 17/2013 KAE, urtarrilaren 31koa. ECLI:ES:TC:2013:17. Hemen eskuragarri: <https://hj.tribunalconstitucional.es/HJ/es/Resolucion/Show/23272>
95/2000 KAE, 2000ko apirilaren 10ekoa. ECLI:ES:TC:2000:95. Hemen eskuragarri: <https://hj.tribunalconstitucional.es/HJ/es/Resolucion/Show/4079>

236/2007 KAE, azaroaren 7koa. ECLI:ES:TC:2007:236. Hemen eskuragarri:

<https://hj.tribunalconstitucional.es/HJ/es/Resolucion/Show/6203>

30/1995 KAE, irailaren 11koa. ECLI:ES:TC:1995:130. Hemen eskuragarri:

<https://hj.tribunalconstitucional.es/HJ/es/Resolucion/Show/2984>

115/1987 KAE, uztailaren 7koa. ECLI:ES:TC:1987:115. Hemen eskuragarri: <http://hj.tribunalconstitucional.es/es-ES/Resolucion/Show/847>

107/1984 KAE, azaroaren 23koa. ECLI:ES:TC:1984:107. Hemen eskuragarri:

<https://hj.tribunalconstitucional.es/HJ/es/Resolucion/Show/360>

²⁴ Legegileak nazionalitatea duten pertsonen aldean ezarri dituen eskubideen zehaztapena eta aldeak kapitulu honetako hurrengo atalean aztertuko da.

eskubide jakin batzuk dauzkate. Eskubide horiek ezinbestekoak dira giza duintasuna bermatzeko (ordena politikoaren oinarrietako bat, EKren 10.1 artikulua), hala nola bizitzeko eta osotasun fisikorako eta moralerako eskubidea, intimitaterakoa, askatasun ideologikorakoa, eta abar, leuntzeko aukerarik gabe.

- Atzerriko jatorriko pertsonak inolaz ere ez dauzkaten eskubideak. Atzerritarrak ez dira eskubide jakin batzuen titularrak, hala nola EKren 23. artikuluetan onartuenak: gai publikoetan, zuzenean edo aldizkako boto unibertsaleko hauteskundeetan askatasunez hautatutako ordezkarien bidez, parte hartzeko eskubidea eta eginkizun eta kargu publikoak berdintasunez eskuratzeko eskubidea, legeetan adierazitako baldintzekin, hots, EKren 13. artikulua xedatzen duenez eta daukan salbuespenarekin.
- Potentzialtasuna eskubideen titulartasunean. Atzerritarrak eskubideen titularrak izan daitezke tratatuek eta legeek ezarritako neurrian eta baldintzetan eta onargarria da nazionalitatea dutenen aldean desberdintasunak ezartzea.

Giza eskubide unibertsalen eta migrazio-kontrolako politiken arteko balantza oreka ezegonkor batean mugitzen da beti, batez ere adingabeak direnean, ordenamendu juridikoak lehentasunez babesten baititu, euren atzerritartasunaren aurretik, eta horrek haien aldera egin behar du.

EKren 39. artikulua adingabeak babesteko betebeharra familiak eta botere publikoek partekatutako erantzukizun gisa ezartzen du eta aldarrikatzen du euren eskubideak zaintzen dituzten nazioarteko hitzarmenetan aurreikusitako babes izango dutela (4. zenbakia). Haietatik, nagusia Nazio Batuen Batzar Nagusiak 1989ko azaroaren 20an erabakitako Haurraren Eskubideei buruzko Hitzarmena da. Funtsezko printzipioen artean jaiotza, herritartasuna, arraza, sexua eta abar direla eta ez baztertzekoa dago, adingabearen babes juridikoari buruzko urtarrilaren 15eko 1/1996 LOren²⁵ 1. eta 3.1 artikuluetatik ondorioztatzen denez. Ondorioz, Espainian dauden adingabe guztiak babesteko betebeharrak bat dago, zein ere den haien herritartasuna zein aberrigabeak izan.

Balantzak argi eta garbi egiten du haien atzerritartasunaren alde adin-nagusitasunera iristen direnean. Une horretan ordenamendu juridikoak atzerriko jatorriko pertsonentzat aurreikusitako araubide juridikoa aplikatzea lehenesten du, jasotzen duten tratamendua atzerritar helduena izanik, ñabardura batzuekin, lehenago babes-erakunde baten tutoretzapean egon badira, adin horretan oraindik

²⁵ Espainia. Urtarrilaren 15eko 1/1996 Lege Organikoa, Adingabearen Babes Juridikoari eta Kode Zibila eta Prozedura Zibilaren Legea zati batean aldatzeko buruzkoa. *Estatuko Aldizkari Ofiziala*, 1996ko urtarrilaren 17koa, 15. zk. [linean]. Hemen eskuragarri: <https://www.boe.es/buscar/doc.php?id=BOE-A-1996-1069>

Familia-erreferenterik ez duten gazte migratzaileak Euskadin

laguntza eta babes eta erreferentzia-esparru abegikor eta egonkor bat behar duten arren, haurren eta gazteen garapenari buruzko txosten askotan jaso eta azterlan honetan agerian jarri denez.

2.2.1. Araubide juridiko aplikagarria

Antolamendu juridikoak hiru araubide juridiko bereizten ditu:

- 1) Nazioarteko babes premiatik datorrena, [12/2009 Legea, urriaren 30ekoa](#), asilorako eskubidea eta babes subsidiarioa arautzen dituen²⁶.
- 2) Europar Batasuneko estatu kideetako eta Europako Esparru Ekonomikoari buruzko Ituna sinatu duten beste estatu batzuetako herritarrak Espainian sartzea, askatasunez joan-etorrian ibiltzea eta bizitzea arautzen dituen araudia, [240/2007 Errege Dekretua](#), otsailaren 16koa, Europako Espazio Ekonomikoari buruzko Ituna sinatu duten beste estatu batzuetako herritarrak Espainian sartzeari, askatasunez joan-etorrian ibiltzeari eta bizitzeari buruzkoa²⁷.
- 3) [4/2000 Lege Organikoa, urtarrilaren 11koa](#), etorkinek Espainian dauzkaten eskubide eta askatasunei eta haien gizarteratzeari buruzkoa²⁸, (LOEx) eta 557/2011 Errege Dekretua, apirilaren 20koa, hura garatzen duen [Araudia](#) onartzen duena (RLOEx).

Azken hori da azterlan honek xede duen kolektiboari nagusiki aplikatzen zaiona; izan ere, EAEn bizi diren gazte atzerritar gehienek marokoar jatorria dute, baina hori ez da oztopo beste araubide juridikoak ere aplikatu behar izateko aukera egoteko. Kopuru txikiagoan bada ere, gerta daiteke gazte atzerritarren artean batzuen jatorrizko estatua EBko kide Europako Esparru Ekonomikoa izatea, eta nazioarteko-babes eskatzaileak egotea, eta azken bi kasu horietan araubide juridikoa, hasiera batean, bermatzaileagoa da. Halaber, gerta daiteke pertsona batzuk ez onartzea estatu bateko nazional gisa eta, beraz, aberrigabearen estatutua

²⁶ Espainia. 12/2009 Legea, urriaren 30ekoa, asilo-eskubidea eta babes subsidiarioa arautzen dituen. *Estatuko Aldizkari Ofiziala*, 2009ko urriaren 31koa, 262. zk. Hemen eskuragarri: <https://www.boe.es/buscar/act.php?id=BOE-A-2009-17242>

²⁷ Espainia. 240/2007 Errege Dekretua, otsailaren 16koa, Europako Espazio Ekonomikoari buruzko Ituna sinatu duten beste estatu batzuetako herritarrak Espainian sartzeari, askatasunez joan-etorrian ibiltzeari eta bizitzeari buruzkoa. *Estatuko Aldizkari Ofiziala*, 2007ko otsailaren 28koa, 51. zk. Hemen eskuragarri: <https://www.boe.es/buscar/act.php?id=BOE-A-2007-4184>

²⁸ Espainia. 4/2000 Lege Organikoa, urtarrilaren 11koa, etorkinek Espainian dauzkaten eskubide eta askatasunei eta haien gizarteratzeari buruzkoa, azaroaren 20ko 14/2003 Lege Organikoa eta abenduaren 11ko 2/2009 Lege Organikoa aldatua. *Estatuko Aldizkari Ofiziala*, 2000ko urtarrilaren 12koa, 15. zk. Hemen eskuragarri: <https://www.boe.es/buscar/act.php?id=BOE-A-2000-544>

eskatu behar izatea. Estatutu hori [uztailaren 20ko 865/2001 Dekretuak](#), aberri-gabea-estatutua onartzeko Araudia onartzen duenak, arautzen du.²⁹

Administrazio-egoera erregularrean egoteko bete behar duen baldintza nagusia muga dagozkion agiriekin gurutzatu izana eta baliabide ekonomikoak edo lan egiteko administrazio-baimen daukala frogatzea da, eta hori ez da posible gazte horietako gehienentzat.

Aitzitik, posible balitz, lan egiteko administrazio-baimena emanaz gero lan-arauak zein gizarte segurantzari buruzkoak nazionaleri aplikatzen zaizkien inguruabar berdinetan aplika lekitzeko, Gizarte Segurantzaren Lege Orokorraren testu bategina onesten duen urriaren 30eko 8/2015 Legegintzako Errege dekretuaren 7. artikulua, ordaindutako lana eduki edo eskuratutakoan. Halaber, kotizazio gabeko prestazioen onuradun ere izan daitezke administrazio-egoera erregularrean badaude³⁰.

Baina, esan dugunez, gazte atzerritar gehienak behar den dokumentaziorik gabe sartzen dira estatuan, eta behar beste baliabide ekonomikoak frogatzeko aukerarik gabe eta, beraz, administrazio-egoera irregularrean daude. Baldintza horietan egoera eta eskubideak ez dira ia aipatzen araudian, LOEx-en 14.3 artikuluan izan ezik *“Los extranjeros, cualquiera que sea su situación administrativa, tienen derecho a los servicios y prestaciones básicas”*.

2.1 puntuan aipatuenez, Euskal Autonomia Erkidegoan berdintasun-printzipioari emandako edukiaren irismiena dela-eta, botere publikoek, gizarte adostasun garrantzitsu batekin, konpromisoa hartu dute atzerritarrek gizarteratzeko eta laneratzeko zerbitzu publikoen erabiltzaile eta bizitzeko gutxienekoa bermatzen duten prestazio ekonomikoen onuradun sartzeko. Halako moldez non, uneotan, zerbitzu publiko nagusiak eskuratzeko ez baita eskatzen administrazio-egoera erregularrean egotea, eta Euskal Autonomia Erkidegoan denbora batez izatez (edo benetan) bizitzea baino ez dute frogatu behar. Denbora hori berdina da pertsona guztientzat, zein ere den haien jatorri nazionala. Hala ere, salbuespen batzuk daude, hala nola: enplegu-eskatzzaile inskribatzea, autonomiaren eta mendekotasunaren arreta sisteman sartzeko³¹ (desgaitasunaren balorazioa eskatzeko

²⁹ Espainia. 865/2001 Dekretua, uztailaren 20koa, aberri-gabeen estatutua onartzeko Erregelamendua onartzen duena. *Boletín Oficial del Estado*, 2001eko uztailaren 21koa, 174. zk. Hemen eskuragarri: <https://www.boe.es/buscar/doc.php?id=BOE-A-2001-14166>

³⁰ Espainia. 8/2015 Errege Dekretu Legegilea, urriaren 30ekoa, Gizarte Segurantzaren Lege Orokorraren testu bategina onesten duena *Estatuko Aldizkari Ofiziala*, 2015eko urriaren 31koa, 261. zk. Hemen eskuragarri: <https://www.boe.es/buscar/pdf/2015/BOE-A-2015-11724-consolidado.pdf>

³¹ Autonomia pertsonala sustatu eta mendekotasuneko egoeran dauden pertsonen laguntzeko abenduaren 14ko 39/2006 Legearen 5.1 artikulua aplikatuz, lege horretan aitortutako eskubideen titularrak izateko, urtarrilaren 11ko 4/2000 Lege Organikoak, etorkinek Espainian dauzkaten eskubide eta askatasunei eta haien gizarteratzeari buruzkoak, nazioarteko tratatuek eta jatorrizko herrialdearekin ezarritako hitzarmenek ezarritako baldintzak bete behar dituzte atzerritar helduek.

Familia-erreferenterik ez duten gazte migratzaileak Euskadin

bezala) edo Etxebide babes publikoko etxebizitza eskatzaileen erregistroan izen ematea (azken kasu horretan ere aurreikusi da parekatzea).

Erabaki horiek hartzeko abiapuntua izan da sinestea programa publikoetan atzerritarren administrazio-egoera erregularizatzeari itxaron gabe sartzea onuragarria dela euskal gizarte osoarentzat, gizarte-bazterketa prozesu larriak ekidin eta gizarte kohesioaren alde egiten duelako. Horrek ez du galarazten onartzea egoera dokumentalak, hots, hasierako baimena emateko eta bizileku- eta lan-baimen administratiboak berritzeko zailtasunek, eragindako pertsonak kaltetu ez ezik, ondorioak dauzkala egindako gizarte inbertsioan ere, gizarteratze eta laneratze prozesua begiztan sartzen delako eta jarri diren baliabide ekonomikoak eta giza baliabideak gastatzen (edo xahutzen) direlako.

Datu interesgarri gisa, esan behar da araudiak errazten duela babes-erakunde baten tutoretzapean dauden atzerritar adingabeek bizileku- eta lan-baimena eskuratzea eta, beraz, adin-nagusitasunera iritsitakoan, bizitzeko administrazio-baimen bat ez ezik (LOEx-en 35. artikulua), lan egiteko administrazio-baimen bat ere eduki lezakete, eta horrek gizarteratze prozesua errazten du. Gainera, bizileku-baimena lehen unetik lortzeak erraztasun handiagoak dakartza gizarteratze prozesuan, eta aukera ematen du espainiar nazionalitatea eskatzeko edo iraupen luzeko bizileku-baimen bat lortzeko, aurre-aurreko bost urteetan jarraian Espainiako erakunde publiko baten tutoretzapean egon ondoren (ROLEx-en 148. artikulua).

LOEx-en 41.1 j) artikulua aurreikusten du bizileku-baimena duten tutoretzapeko atzerritar adingabeek ez dutela lan-baimena lortu beharrik euren tutoretza egoten duen erakunde publikoaren ustez euren onerako diren hezkuntza edo prestakuntza jarduerak edo programak garatzeko. Hala berretsi du Migrazioen Estatu Idazkaritzaren³² [1/2020 jarraibideak](#).

Herriaren Defendatzailek gomendatu duen bezala, babes-erakunde baten tutoretzapeko atzerritar adingabeen bizileku-baimenak lan-baimena jaso behar luke, 16 urterekin edozein nerabek egin dezakeelako jarduera ordaindu bat, familia berrelkartzeko bizileku-baimen bat lortzen denean gertatzen den bezala. Lan-baimen hori lortzeak inklusio prozesua erraztuko du gerora, beste aukera batzuen artean, prestakuntza-prozesuetatik datozen lan-praktiketan parte hartzea edo bizileku- eta lan-baimena berritzeko hain beharrezkoak diren baliabide ekonomikoak frogatzea errazten duten lan-kontratuak eskuratzea ahalbidetzen duelako.

Halaber, ordenamendu juridikoak espainiar nazionalitatea eskuratzea ere aurreikusten du ([Kode Zibilaren](#) 22.2 c) artikulua, KZ), eta xedatzen duenez,

³² INKLUSIO, GIZARTE SEGURANTZA ETA MIGRAZIO MINISTERIOA. Migrazioen Estatu Idazkaritzaren 1/2020 jarraibidea, lan egiteko adina duten atzerritar adingabeak lan egiteko gaitzen dituena. Hemen eskuragarri: http://extranjeros.inclusion.gob.es/ficheros/normativa/nacional/instrucciones_sgie/documentos/2020/report_final_2_00305_Instruccion_MENAS.pdf

nahikoa izango da Espainiako lurraldean urtebetez bizitzea *“los que hayan estado sujetos legalmente a la tutela, guarda o acogimiento de un ciudadano o institución españoles durante dos años consecutivos, incluso si continuare en esta situación en el momento de la solicitud”* espainiar nazionalitatea eskuratu ahal izateko, naturalizazio-mekanismo horren bidez. Horrek gazteei eragiten die euren tutoretza garatzen den bitartean, eta ondoren ere bai, legezko nagusitasunera iritsitakoan. Haien legezko ordezkariari dagokio, hau da, dagokien foru aldundiari, haien izenean nazionalitatea eskatzea.

Baldintza hauek bete behar dira: urtebetez administrazio-egoera erregularrean egotea eta gizalegezko jokabide ona eta Espainiako gizartean integrazio maila nahikoa frogatzea (KZren 22.4 artikulua).

[Azaroaren 6ko 1004/2015 Errege Dekretua](#), nazionalitatea egoitzagatik eskuratzeko prozedura arautzen duen Erregelamendua onartzen duena (1004/2015 ED), indarrean jarri zenetik baldintza batzuk ezarri dira, KZren 22.4 artikulua arabera, Espainiako gizartean integrazio maila nahikoa dutela frogatzeko. Azterketa bi gainditzea dakar horrek: gaztelania atzerriko hizkuntza gisa ezagutzearen azterketa bat (DELE) eta interesdunak Espainiako balio historiko, konstituzional eta soziokulturalak ezagutzen dituela frogatzeko azterketa bat (1004/2015 EDren 6.1 artikulua). Prozedura berri horrek zailago jarri die atzerritar helduei Espainiako nazionalitatea eskuratzeko; izan ere, adingabe diren bitartean, hurrek eta nerabeek ez dituzte azterketa horiek gainditu behar Espainiako gizartean integrazio maila nahikoa frogatzeko, izen emanda egon diren egoitza edo abegi zentroaren ziurtagiria baino ez dute aurkeztu behar (1004/2015 EDren 6.6 artikulua). Gainera, adingabearen egoitzako erregistro zibilaren arduradunaren baimena behar da, Fiskaltzaren txostenaren ondoren (1004/2015 EDren 4.3 artikulua).

Adin nagusikoak direnean azterketa biak gainditu behar dituzte, gaztelaniaren ezaguera eta Espainiako bizimodura eta kulturara egokitzea, gizalegezko jokabide ona frogatzeaz gain.

Bizi eta lan egiteko administrazio-baimena lortzea

Araudiak gazteak Espainian adin-nagusitasunera iristean egon daitezkeen bi egoera bereizten ditu: adin-nagusitasunera iristean bizileku-baimen titular izatea (RLOEx-en 197. artikulua); eta adin horretara baimen hori izan gabe iristen direnena (RLOEx-en 196. artikulua).

Bizileku-baimen bat izan gabe legezko tutoretza, zaintza edo abegiren pean egon diren gazteen kasuan, ondorioz administrazio-egoera irregularrean egonda, babes-erakundeak inguruabar berezien ziozko bizileku-baimen bat ematea gomenda dezake, gazte hori erakunde horrek bere gizarteratzea errazteko programatutako prestakuntza-ekintzetan eta jardueretan parte hartu badu (RLOEx-en 198.1

Familia-erreferenterik ez duten gazte migratzaileak Euskadin

artikulua). Eskaera interesdunak berak aurkeztu beharko du hamazortzi urte bete aurreko 60 egutegi-egunetan edo hurrengo 90 egutegi-egunetan (RLOEx-en 198.2 artikulua). Aukeran, IPREMen % 100eko baliabide ekonomikoak edo, halakorik ezean, laneko arautegiaren araberrako lan-kontratu bat edo batzuk, eskatzen den baimenaren indarraldiarekin bat datorren aldi baterako.

Babes-erakundearen gomendiorik ez dagoenean edo 90 egunak gainditu direnean, RLOEx-en 1.4 xedapen gehigarrian aurreikusitako aukerara jotzen da³³.

Legezko tutoretzapean egon ez denean, bizileku- eta lan-baimena eduki ahal izateko lehenago hiru urtez egon izana frogatu behar da, batez ere udal-erroldako inskripzio ziurtagiriaren bidez. Bizileku-baimenaren eskaera, kasu horretan, errotze kasuetarako inguruabar berezien ziozkoa litzateke (izan hori izan arren, erregularizatzeko ohiko bidea da lurraldean dagokion dokumentaziorik gabe sartu denean). Kasurik ohikoenak gizarte eta lan³⁴ errotzekoak dira.

Gizarte errotzearen kasuan frogatu behar du gutxienez hiru urtez egon dela Espainian, baliabide ekonomikoak izan behar ditu eta bizilekua duten beste atzerritar batzuekin familia-loturak frogatu edo gizarteratze txosten bat aurkeztu. Gizarte errotzea RLOEx-en 62.-66. eta 123.-130. artikuluetan dago araututa. Lortzen eta aurkezten zailena den dokumentazioa bizi baliabideak frogatzen dituen dira, gutxienez urtebeteko lan-kontratu batekin. Lan-kontratua aurkeztetik salbuetsita gera daiteke, frogatzen bada bere mantenu eta ostaturako behar beste bizi baliabide edukitzea edo norberaren konturako jarduera batetik datozenak frogatuz gero.

Lan errotzearen kasuan, beharrezkoa da lehenago urte bi ematea Espainian gutxienez eta gutxienez sei hileko lan-harreman bat frogatu behar da. Horretarako ebazpen judicial edo adiskidetze-ekitaldiaren akta bat edo Laneko eta Gizarte Segurantzako Ikuskatzailetzaren arau-hauste akta baiesteko ebazpen bat aurkeztu behar da. RLOEx-en 123.-130. artikuluetan arautzen da.

³³ RLOEx-en 1.4 xedapen gehigarria: *"Cuando circunstancias de naturaleza económica, social o laboral lo aconsejen y en supuestos no regulados de especial relevancia, a propuesta del titular de la Secretaría de Estado de Inmigración y Emigración, previo informe del titular de la Secretaría de Estado de Seguridad y, en su caso, de los titulares de las Subsecretarías de Asuntos Exteriores y de Cooperación y de Política Territorial y Administración Pública, el Consejo de Ministros podrá dictar, previa información y consulta a la Comisión Laboral Tripartita de Inmigración, instrucciones que determinen la concesión de autorizaciones de residencia temporal y/o trabajo, que podrán quedar vinculadas temporal, por ocupación laboral o territorialmente en los términos que se fijen en aquéllas, o de autorizaciones de estancia. Las instrucciones establecerán la forma, los requisitos y los plazos para la concesión de dichas autorizaciones. Asimismo, el titular de la Secretaría de Estado de Inmigración y Emigración, previo informe del titular de la Secretaría de Estado de Seguridad, podrá otorgar autorizaciones individuales de residencia temporal cuando concurren circunstancias excepcionales no previstas en este Reglamento".*

³⁴ Halaber, eska daiteke inguruabar berezien ziozko bizileku-baimena zio humanitarioengatik, genero-indarkeriaren biktimen diren emakumeek, nazioarteko babesaren zioengatik, agintari polizial, fiskal zein judizialei edo segurtasun nazional edo administratiboari eta onura publikoari laguntzeagatik, edo agintari polizial eta ez-polizialei sare antolatuen kontra laguntzeagatik, edo gizakien salerosketaren biktimen kasuan. Ez dira horiek izaten azterlan honek aztertzen dituen gazteen egoerak eta, beraz, ez gara geldituko haien esparru juridikoa azaltzen espazio mugatua dugulako, baina kontuan hartzeko aipatzen dira.

Bizileku- eta lan-baimenak berritzea adingabe izanda eta tutoretzapean egon bitartean lortu bada.

Bizileku-baimenaren berritzeak bi urteko indarraldia izango du eta irabazi-asmorik gabeko aldi baterako bizileku-baimen bat berritzeko aurreikusitako prozeduraren arabera izapidetuko da (LOEXen 197.4 artikulua).

Baimen hori berritzeko baldintza hauek hartuko dira kontuan: interesdunak bere mantenurako behar besteko baliabide ekonomikoak frogatu beharko ditu (mantenurako frogatu behar den zenbateko ekonomikoa IPREMen % 100 den kopuru batean ezartzen da, 537,84€ 2020rako); kontuan hartuko dira, hala badagokie eta ondorio horietarako, LOEx-en 35.9 artikulua araberako eskudun diren erakunde publikoek aurkez ditzaketen txostenak; eta kontuan hartuko da eskatzailearen gizarteratzea, zeina zenbait alderdi balioetsi ondoren erabakiko baita, hala nola: bizikidetzara arauak betetzea, estatuko hizkuntza ofizialak ezagutzea, espainiar herritarrekin edo Espainian bizilekua duten atzerritarrekin familia-loturak egotea, Espainiako herritar edo erakunde baten abegi, zaintza edo tutoretzaren pean emandako denbora, ikasketetako jarraitutasuna, lan-eskaintza edo -kontratu bat egotea eta prestakuntza-ibilbideetan parte hartzea (RLOEx-en 197.3 artikulua).

Orain arte, adin-nagusitasunera bizileku-baimen batekin iristen bazen, lan-baimena eska zitekeen, RLOEx-en 197.6 eta 200. artikuluetan xedatutakoaren arabera, zeinek eskatzen den baimenaren indarraldian jarduera bermatzen duen kontratu bat aurkeztea eskatzen baitute.

1/2020 jarraibidea, lan egiteko adina duten atzerritar adingabeak lan egiteko gaitzen dituen, onartu zenetik, egoera berria sortzen da haiek adin-nagusitasunera iristen direnean. Hala, bizileku-baimena berritzeko eskaerak lan-baimen bat ere badakarrenez, aukera legoke RLOEx-en 71. artikulura jo eta aurreikusitako kasuetan integratzeko eginahalaren txostena eskatzeko aukera legoke (71.6 artikulua)³⁵. 2021. urteko otsailean, Inklusio, Gizarte Segurantzaren eta Migrazio Ministerioak kontsulta publikoa egin du RLOEx aldatzen duen arau-proiektua egin aurretik, erakunde publiko batek babesten ez duen adingabe atzerritarren dokumentazioa eragozten duten oztopoak kentzeko eta irabazi asmorik gabeko egoitzako araubide propioa (egoera horretatik urrun dauden beste helburu batzuetarako aurreikusten dena) diseinatuzko xedearekin.

³⁵ Herriaren Defendatzaileak 197. artikulua aldatzea gomendatu du, halako moldez non, bakarrik dauden atzerritar adingabeen bizilekua bizileku- eta lan-baimenen araubide orokorrean sartuta egotean (72. artikulua), hura berritzean 71.6 artikuluko aurreikuspenak kontuan hartzen diren, gutxienez hiru hileko lan-jarduera frogatzerik ez dagoen kasuetan. Berariaz xedatuko da kasu horietan integratzeko eginahala betetzat joko dela haren tutoretza izan zuen adingabeen babes-erakundearen txostenarekin. HERRIAREN DEFENDATZAILEA. Adin-nagusitasunera dagokien baimena lortu gabe iritsi diren tutoretzapeko adingabe ohien bizilekua, 2020-03-09. Hemen: [DefensordelPueblo.es](https://www.defensordelpueblo.es) [linean]. Hemen eskuragarri: <https://www.defensordelpueblo.es/resoluciones/residencia-de-los-ex-menores-tutelados-que-han-accedido-a-la-mayoria-de-edad-sin-haber-obtenido-la-pertinente-autorizacion/>

Familia-erreferenterik ez duten gazte migratzaileak Euskadin

Nolanahi ere, orain arte, berritzeko eskaeran, aukeran, mantentzeko baliabide ekonomiko nahikoak edukitzea frogatu behar da, hilean IPREMen % 100 den kopuru batean. Halaber, froga dezake -lan-kontratu bat ondoz ondoko indarraldiko lan-kontratu batzuk dauzkala, eta haiei dagokienez RLOEx-en 64. b), c), d), e) eta f) artikuluetan aurreikusitako baldintzak betetzen dituela; (edo RLOEx-en 105.3 a), b), c) eta d) artikuluetan norberaren konturako jarduera bat garatzeko aurreikusitako baldintzak betetzen dituela; kasu horretan proiektuaren itxarondako errentagarritasuna, gutxienez, haren mantenu eta ostatuari dagozkion gastuak bermatzeko kopuru bat izan beharko da, hilean IPREMen % 100 dena).

Araudiak aurreikusten du (RLOEx-en 198.3 artikulua) bereziki kontuan hartuko dela eskatzaileak Espainiako gizartean duen integrazio maila, RLOEx-en 197.3 artikuluan aurreikusitakoaren arabera.

Puntu honetan aipatu behar da epai batzuek zalantzan jartzen dutela bizileku-baimenak berritzeko baliabide ekonomikoak eskatzea egokia izatea. Izan ere, baldintza hori eragina izaten ari da administrazio publikoekin hitzarmenak dituzten gizarte erakundeek kudeatu ohi dituzten emantzipatzeko programei lotutako ostatueta arreta jasotzen duten eta tutoretzapean izan diren gazteen bizileku-baimenak lortu eta berritzean.

Hala, Auzitegi Goreneko administrazioarekiko auzien salaren uztailaren 9ko 1155/2018 epaiak ³⁶, kasazio-zio gisa aurkezten du ezarritako eskakizuna, mantentzeko baliabide ekonomiko gisa hilean IPREMen % 100 den kopuru bat frogatzekoa, ez betetzea zio nahikoa den baimena berritzea ukatzeko ala, aitzitik, balioetsi behar den RLOEx-en 197.3 artikuluko inguruabarrak betetzen direnez ere, baldintza ekonomikoak bete ez arren.

Auzitegi Gorenaren ustez, beharrezkoa da baliabide ekonomikoekin IPREMen % 100eko kopurua frogatzea, halako moldez non hori ez betetzea zio nahikoa da ukatzeko, integratzeko eginahala berez birtualtasuna lortu gabe.

Auzitegi Gorenaren bigarren epaiak (2019ko otsailaren 1eko 220/2019 Epaia)³⁷, zerkusia du RLOEx-en 197. artikulua babesean lortutako bizileku-baimen bat bigarren berritzean aplikatu behar den araudiarekin (artikulu horrek babes-erakunde baten tutoretzapean egon diren gazteen lehenengo berritzea arautzen du). Auzitegi Gorenaren ustez baliabide ekonomikoak edukitzearen eskakizuna frogatu behar da, eta baldintza hori ezin da ordeztu mantenuaren bestelako frogabideekin.

³⁶1155/2018 AGE, uztailaren 9koa. ECLI: ES:TS:2018:2768. Hemen eskuragarri: <http://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/4e9248a05670ac53/20180725>

³⁷220/2019 AGE, otsailaren 1koa. ECLI: ES:TS:2019:220. Hemen eskuragarri: <http://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/77b5bf9299411eba/20190208>

“El artículo 197 del RLOEx es aplicable, únicamente, a la primera renovación de la autorización de residencia obtenida-en aplicación de su artículo 196-por menores extranjeros no acompañados sujetos a tutela de un organismo de protección, cuando alcancen la mayoría de edad. La segunda y/o ulteriores renovaciones de autorización de residencia no lucrativa se rigen por el régimen general previsto en el artículo 51 en relación con el artículo 47 de la norma reglamentaria. El requisito relativo a la disponibilidad de medios económicos, en los términos establecidos por el legislador, es condición necesaria para obtener la renovación de este tipo de autorizaciones no lucrativas, “haciendo innecesaria la valoración de otras circunstancias que no se establecen como sustitutivas o moderadoras de dicha exigencia.

Las prestaciones públicas no son computables a efectos de determinar el nivel mensual de ingresos económicos exigibles para obtener la renovación de una autorización temporal de residencia no lucrativa”.

Ondorioz, jurisprudentziaren arabera, azaldu denez, ez lirateke posible ez lehenengo berritzea (197. artikulua), ez inguruabar berezien ziozko bizileku-baimenaren eskaera, zeinak IPREMen % 100 (535,84€) eskatzen baitu, orain arte, zuzenbidean onargarri den edozein frogaren bidez frogatzen zenean (froga horiek ziren, besteak beste, Bizkaiko Foru Aldundiaren gizarteratzeko laguntza berezia -346,50€ inguru-, aldundien ziurtagiriak, gizarteratze-pisuen txostenak eta Gipuzkoako Foru Aldundiak ematen zituen laguntza ekonomikoen dokumentazioa -gazteentzako prestazio ekonomikoa, hileko 633 € inguru-), eta gazte horientzat oso zaila da IPREMen % 100 edo IPREMen % 400 frogatzea, RLOEx-en 51. artikulua aplikatuz. Azken kasu horretan ematen ari zaien tratamendua irabazi asmorik gabeko bizileku-baimen baten berritzearena da, eta hori errentak edo pentsioak dauzkaten pertsonentzat dago pentsatuta. Praktikan gobernuaren ordezkariordetzak araudi horren interpretazioa era desberdinetan aplikatzen ari badira ere; esaterako Gobernuaren Ordezkariordetza Gipuzkoan jurisprudentzia lerro horri darraio kasu guztietan, baina gobernuaren beste ordezkariordetzek Bizkaian eta Araban ez dihardute horrela. Azken kasu horretan, esaterako, onartu da bizileku- eta lan-baimena aldatzea 6 hileko kontratu batekin, soldata lanbide arteko gutxieneko soldataren parekoa edo handiagoa bada (ez litzateke onartuko soldata txikiago batekin, 12 hilekoa balitz ere).

Bilboko Atzerritarrentzako Bulegoak Bizkaiko Foru Aldundiaren txosten bat eskatzen du, eta hor agertu behar da eskatzaileak bere mantenu ekonomikoa estalita izango duela baimenaren indarraldian gizarteratzeko laguntza berezia jasoz.

Tutoretzapean egon diren atzerritar gazteen bizileku-baimenak berritzea izaten ari da gazteek eta haien gizarteratze eta laneratze prozesuan laguntzen dituzten agente publiko eta pribatuek aurre egin behar dieten arazo nagusietako bat.

Familia-erreferenterik ez duten gazte migratzaileak Euskadin

Bizileku-baimena berritzea ukatzeak pikutara bidaltzen ditu egindako eginahal pertsonalak, eta eskatzailea lagundu duten agente publiko eta sozialek egindako lan gehiena, autonomia pertsonalerako eta gizarteratzeko prozesua oztopatzen duelako.

Azkenik, Herriaren Defendatzaileak RLOEx-en 198. artikulua aldatzea gomendatu du³⁸; xedea prozedura bat ezartzea da, haren bidez, adingabeak babesteko erakundearen ziurtagiriarekin, 4/2000 Lege Organikoaren 31.3 artikuluan aurreikusitako inguruabar berezien ziozko bizileku-baimen eskaera bat hasi ahal izateko. Inklusio, Gizarte Segurantza eta Migrazio Ministerioak gomendioa onartu du.

Prozedura horrek berriaz ezarri beharko du gaztearen baliabide ekonomikoak, lan-kontraturik ez dagoen kasuetan, frogatutzat joko direla, gaztea bere tutoretza izan zuen erakunde publikoaren edo, hala badagokio, bere gizarteratze eta laneratze programan sartuta duen erakunde pribatuaren helduarora igarotzeko programa batean sartuz.

2.2.2. Familia-erreferenterik ez duten gazte atzerritarrek behar duten arreta.

Familia-erreferenterik ez duten atzerritar gazteen arretaren garrantzia azpimarratu zen [Arartekoaren ekainaren 17ko 5/2013 Gomendio orokorrean](#). *Laguntzailerik gabeko atzerriko adingabe/gazteei arreta emateko bermeak*. Gomendio orokorraren ardatza atzerritar gazteen arreta zen, baina Arartekoak gomendio batzuk egin zituen babes baliabideetatik irteten direnean gizarte lagun egite edota bideratze egokiak duen garrantziari dagokionez ere.

Gazte horien migrazioa, kasu gehienetan, autonomoa da eta familiaren laguntza edo erreferentziarik gabe, eta, beraz, zaurgarritasun-egoeran eta gizarte-bazterketa arrisku larrian daude. Euren adinerako oso zailak diren uneak eta egoerak bizi behar izan dituzte, eta dauzkaten ondorio emozional garrantzitsuek helduzera eraman ditzakete edo, aurre egin behar izan dieten egoeren arabera, traumak eta zailtasunak ekar diezazkiekete helduaroko bizitzarako, eta abegia egin behar litzaieke euren bizitzari bira positiboa ematea ahalbidetzeko.

³⁸ HERRIAREN DEFENDATZAILEA. Adin-nagusitasunera dagokien baimena lortu gabe iritsi diren tutoretzapeko adingabe ohien bizilekua, 2020-03-09. Hemen: [DefensordelPueblo.es](https://www.defensordelpueblo.es) [linean]. Hemen eskuragarri: <https://www.defensordelpueblo.es/resoluciones/residencia-de-los-ex-menores-tutelados-que-han-accedido-a-la-mayoria-de-edad-sin-haber-obtenido-la-pertinente-autorizacion/>

[Uztailaren 22ko 8/2015 Lege Organikoa](#), haurrak eta nerabeak babesteko sistema aldatzen duena³⁹, izan zen estatu eremuan adingabeek helduaro independentera igarotzean, euren gaitasun eta egoera pertsonalen arabera, laguntza jaso behar dutela edo lagun egin behar zaiela ezarri zuen lehenengo legea, halako moldez non hau xedatu duen, Zioen azalpenean adierazten denez: *"la obligación de la Administración de preparar para la vida independiente a los jóvenes ex tutelados, cuestión de gran calado social y de la que ya hay buenas prácticas de Entidades Públicas y del Tercer Sector de acción social"*. Legeak berriazko aurreikuspen bat erantsi du:

Artículo 22 bis. Programas de preparación para la vida independiente: Las Entidades Públicas ofrecerán programas de preparación para la vida independiente dirigidos a los jóvenes que estén bajo una medida de protección, particularmente en acogimiento residencial o en situación de especial vulnerabilidad, desde dos años antes de su mayoría de edad, una vez cumplida esta, siempre que lo necesiten, con el compromiso de participación activa y aprovechamiento por parte de los mismos. Los programas deberán propiciar seguimiento socioeducativo, alojamiento, inserción socio-laboral, apoyo psicológico y ayudas económicas.

Haurrak eta Nerabeak [Zaintzeko eta Babesteko otsailaren 18ko 3/2005 Legeak](#) duela 15 urte aurreikusi zuen helduarora igarotzeko programak behar zirela.

44. artikulua: 1. Herri-administrazioek, beren eskumenen esparruan, helduarora igarotzeko programak sortuko dituzte, bai eta horien sorrera sustatuko ere.

2. Lege honen ondorioetarako, hauek dira helduarora igarotzeko programak: nerabeei bizimodu heldu eta beregainari dagozkion jarduera eta erantzukizunetarako prestakuntza eskaintzen zaizkienak.

Programa horiek garatzeko aukera bat zehazten du uztailaren 8ko 131/2008 Dekretuak, gizarte babesik gabeko haur eta nerabeentzako egoitza harrerako baliabideak arautuko dituenak, 3.2 artikuluan (geroago urriaren 6ko 185/2015 Dekretuak, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren prestazio eta zerbitzuen zorroari buruzkoak, jaso du adingabeentzako egoitza-zentroei buruzko 2.4.4 fitxan): *"Salbuespen gisa, eta zaindutako pertsonak eta Foru Aldundi eskudunak adostu ostean, adin nagusi izan aurretik babes-sareko baliabide batean bizi ziren 18 urte edo gehiago dituzten gazteak izan daitezke egoitza-harrerako baliabideen erabiltzaileak emantzipazio-programaren esparruan, betiere 18 hilabeteko gehieneko aldian."*

³⁹ Espainia. 8/2015 Lege Organikoa, uztailaren 22koa, haurrak eta nerabeak babesteko sistemaren aldatetaren. *Estatuko Aldizkari Ofiziala*, 2015eko uztailaren 23koa, 175 zk.Hemen eskuragarri: https://www.boe.es/diario_boe/txt.php?id=BOE-A-2015-8222

Familia-erreferenterik ez duten gazte migratzaileak Euskadin

Geroko araudi autonomikoak, hala nola Kataluniako maiatzaren 27ko 14/2010 Legea, haur eta nerabeen eskubideei eta aukerei buruzkoa, harago joan dira eta tutoretzapean egon diren zein arrisku-egoeran dauden gazteentzat emantzipatzen laguntzeko programak behar direla ezarri dute *“para promover la igualdad de oportunidades, ofreciendo recursos de apoyo personal, de vivienda, formativos y laborales necesarios para asesorarles y acompañarles en el ejercicio de la plan ciudadanía en condiciones de igualdad, con responsabilidad y con el máximo grado de integración en la sociedad en la que viven”*⁴⁰.

Hasiberria bada ere, tutoretzapean egon diren edo bazterketa-arriskuan dauden gazteek arreta jasotzeak duen garrantzia juridikoko onartzeak agerian uzten du gizaratean eztabaida ezina den beharrezan bat: familia-erreferenterik ez duten 18-23 urteko gazteek lagun egitea eta gizarte eta prestakuntza baliabide batzuk behar dituztela euren bizitza bideratu ahal izateko.

Duela gutxi, Europako Parlamentuak Ebazpen garrantzitsu bat egin du⁴¹. Hor, azpimarratzen du krisi ekonomikoak izugarri eragiten diela gazteei eta, gazteen langabezia-tasa handiak saihesteko, ezinbestekoa izango dela neurriak hartzea Covid-19ren pandemiak sortutako krisi ekonomikoari aurre egiteko.

Ebazpenak Europako esparruan duela urte batzuetatik hona gazteak lan-merkatuan sartzea sustatzeko aplikatzen ari den gazte-berme mekanismoa indartu nahi du. Ebazpenean agerian uzten da gazte-berme “indartu”⁴² batek aurreko ikuspegiaren gabeziak gainditu behar dituela. Ikuspegi hori enplegarritasunean oinarritzen zen, eta arrazoizko epe batean dagokien gazte guztientzat lanpostu iraunkorrak ziurtatzeko bide gisa pentsatu behar da. Ildo horretatik, errepikatzen du gazte-

⁴⁰ 152. artikulua, 14/2010 Legea, maiatzaren 27koa, haur eta nerabeen eskubideei eta aukerei buruzkoa Estatuko Aldizkari Ofiziala, 2010eko ekainaren 28koa, 156. zk. Hemen eskuragarri: <https://www.boe.es/buscar/act.php?id=BOE-A-2010-10213&p=20100602&tn=1>.

Tutoretzapean egon diren zein arrisku-egoeran dauden gazteentzat emantzipatzen laguntzeko programak aukera-berdintasuna sustatzeko. 1. Erakunde eskudunak behar diren orientazioa, prestakuntza eta laguntza eman behar dizkiete tutoretzapean egondako gazteei, adin-nagusitasunera, emantzipaziora edo adin-gaikuntzara iritsitakoan eskatzen badute, norberaren autonomiarako programek ezarritako baldintzak betetzen badituzte. 2. Norberaren autonomiarako programen helburua tutoretzapean egon diren gazteei behar diren laguntza pertsonal, etxebizitza, prestakuntza eta lan baliabideak eskaintzea da, herritartasun osoa berdintasuneko baldintzetan, erantzukizunez eta bizi diren gizarteko integrazio mailarik handienarekin erabiltzean aholku eman eta lagun egiteko. 3. Norberaren autonomiarako programek jasotzen dituzten gizarteratzeko metodologiak genero-analisan oinarritu behar dira, tutoretzapean egon diren gazteen enplegarritasuna hobetzea ahalbidetuko duten lanbide-gaitasunak eskuratzeko ziurtatzeko.

⁴¹ EUROPAKO PARLAMENTUA. Résolution sur la garantie pour la jeunesse, 2020-10-8. (2020/2764(RSP)). Hemen eskuragarri: [https://oeil.secure.europarl.europa.eu/oeil/popups/ficheprocedure.do?lang=fr&reference=2020/2764\(RSP\)](https://oeil.secure.europarl.europa.eu/oeil/popups/ficheprocedure.do?lang=fr&reference=2020/2764(RSP))

⁴² Gomendio berriak gazte-bermea indartu nahi du eta aurrekoa, gazte-bermea ezarri zuen 2013ko apirilaren 22koa, ordeztzen du. Estatu kideei mintzatzen zaie, berma dezaten 30 urtez azpiko gazte guztiek jasoko dituztela kalitate oneko enplegu-eskaintza bat, hezkuntza iraunkorra, ikaskuntza edo praktikak langabezia geratu edo hezkuntza formala utzi eta lau hilaren buruan, Gizarte Eskubideen Europako Oinarriaren 4. printzipioaren arabera. EUROPAR BATASUNeko KONTZEILUA. A Bridge to Jobs - Reinforcing the Youth Guarantee and replacing Council Recommendation of 22 April 2013 on establishing a Youth Guarantee” (11320/20), 20 October, 2020. Hemen eskuragarri: <https://data.consilium.europa.eu/doc/document/ST-11320-2020-INIT/en/pdf>

bermeak ez duela erakundetu behar behin-behineko lana gazteen artean, bereziki soldata izugarri urriak, gizarte babesik eza, laneko segurtasunik eza, norberaren konturako lan faltsua eta benetako soldatapeko enplegua behin-behineko enpleguarekin ordezteak dakartzan estatus ezohiko baten bidez.

Bestalde, Ebazpena pozten da gazte-berme indartua inklusiboagoa delako eta bazterketa modu oro saihesten duelako, bereziki talde baztertu eta zaurgarriena, arraza eta etnia gutxiengoena, migratzaileena eta errefuxiatuena, desgaitasuna duten gazteena eta alde urrun edo landatarretan, hiri alde baztertuetan, itsasoaz bestaldeko lurraldeetan edo uharte eskualdeetan bizi diren pertsonena; aldi berean, kezka agertzen du lan-merkatuan dagoen desorekagatik, zeinean emakumeek, orokorrean, eta gazteak, bereziki, bazterketa bikoitza pairatzen duten: gazte izateagatik eta emakume izateagatik.

Ebazpenak azpimarratzen du talde hartzaile horiengana iristeko, gazte-bermea gizarte eta ongizate politiken multzo koherente batean txertatu behar dela. Politika horien artean behar dira, besteak beste, gizarte segurantzak —langabezia-prestazioak eta gutxieneko errenta barne—, haurtzaintza zerbitzuak, osasuna, etxebizitza egokia, merkea eta irisgarria eta laguntza psikologikoa eskuratzea, gazte guztiek mekanismo hori eskuratu ahal izatea bermatzeko.

3 BEHARRIZAN OSOAK ETA ESTALDURAREN DIAGNOSTIKOA

Gizarteratzea kontinuum bat da, eta hainbat faktorek eragiten dute horretan, bai bizitokiari eta lanari lotutakoek, bai osasunari eta harremanei lotutakoek. Horiek guztiek elkarri eragiten diote, eta zehazten dute zein den pertsona bakoitzak komunitatean duen “integrazio” maila. Ildo horretatik, gizarteratzearen erronkei erantzun behar dieten sistema publikoak pertsonen bizitzaren eremuak beste dira eta bakoitzaren beharizanei erantzun behar diete. Familia-erreferenterik ez duten gazte migratzaileen kasuan, haien beharizanak ez dira oso desberdinak gazte autoktonoenen aldean: euren autonomia-proiektua eraiki eta aurrera eramatea, eta horretarako funtsezkoa da oinarrizko premiak estaltzea ziurtatzen duten baliabide ekonomiko nahikoak, kasu gehienetan ordaindutako lanetik datozenak, etxebizitza bat eta harreman pertsonal eta sozialen sare bat izatea. Oztopo gehigarri batzuk aurkitzen dituzte, ordea, atzeritar izateagatik, hala nola erregularizazio administratiboari, hizkuntza ezagutzeari edo sarerik ez izateari lotutakoak, haietako batzuk aipatzearen.

Nolanahi ere, beharizanei buruz mintzatzean berriz esan behar da **beharizanak osoak direla**, pertsona osoa den bezala, eta, hurrengo orrialdeetan bakoitzean eta arlo bakoitzerako egoeraren diagnostikoan sakontzeko, zatituta aztertzeo eginahala egin bada ere, osotasunaren ideia nagusitu behar da hausnarketa orotan. Beharizana guztiek (eta haientzat bilatzen diren erantzunek) elkarrekin dihardute eta txertatzeko prozesuetan eragiten dute guztiek; denak daude elkarri lotuta eta **osotasun global eta bakar bat osatzen dute**.

Premisa hori ezarrita, hasteko, esan behar dugu uneotan nolakoa den gazte horien beharizanen estaldura haien bizitzen arlo bakoitzean, eta diagnostiko honetan Arartekoak herritarren erreklamazio eta kontsultetan jaso duen, zein, sistematizatuta, elkarrizketatutako pertsonen eta galdetutako administrazio publikoek helarazi duten informazio guztia jasoz.

3.1. Administrazio-egoeraren eta dokumentuen erregularizazioa

Hasteko, **erregularizazio administratiboaren premia** aipatuko dugu. Beharrezkoa da bera, baina ez aski, haien gizarteratze prozesu pertsonalaren garapen arrakastatsu osoa ziurtatzeko. Bizi eta lan egiteko administrazio-baimena lortzea praktikan ahalbidetzen du gazte migratzaile horientzat diseinatutako ibilbidea egingarria

izatea eta azken onera iristea. Administrazio- eta dokumentu-egoera gainerako beharrianak baldintzatu eta denak zeharka gurutzatzen dituen eragile gisa agertzen da.

Gazte horiek **bizileku-baimenak eskuratu eta berritzeari** lotuta topatzen duten lehenengo zailtasuna, gehien bat, **bizi baliabideak frogatzean** datza.

Eusko Jaurlaritzan immigrazioaren arloan eskudun den sailak azaltzen duenez,

“Bizi baliabideak frogatzea eskatzen den lehenengo unea apirilaren 20ko 557/2011 Errege Dekretuak, Espainian atzerritarren eskubide eta askatasunen eta bere gizarteratzearen inguruko 4/2000 Lege Organikoaren Araudia -2/2009 Lege Organikoaren bidez aldatu ondoren- onartzen duenak, 197. edo 198. artikuluetan xedatutakoa aplikatzearen ondorio da, eta adin-nagusitasunera iristean gertatzen da, kontrako bi kasutan, bizileku-baimenarekin edo hura barik. Une honetan IPREMen % 100eko bizi baliabideak frogatzeko eskatzen da, hilean 537,84 euro. Frogatzeko baliabideen izaerari dagokionez, frogatze hori ez du aplikatu beharreko araudiak mugatzen, EAEko hiriburu bakoitzeko atzerritarren bulegoen jardunbide administratiboak baizik. Haren arabera, puntu hori, printzipioz, zuzenbidean onargarri den edozein frogabideren bidez froga liteke, eta praktikan laguntzak jasotzea, gizarteratze-pisu batean onartua izatea, foru aldundien edo bestelako erakundeen ildo horretako ziurtagiriak... onartzen dira. Esan behar da albiste kezagarriak iristen ari direla. Haien arabera, aldaketa bat gerta daiteke azaldutako irizpidean, irizpide murriztailetarantz. Irizpide horiek zalantzan jarriko lukete bizi baliabideen txostena funtsezko dokumentu gisa onartzen jarraitzea apirilaren 20ko 557/2011 Errege Dekretuak, Espainian atzerritarren eskubide eta askatasunen eta bere gizarteratzearen inguruko 4/2000 Lege Organikoaren Araudia -2/2009 Lege Organikoaren bidez aldatu ondoren- onartzen duenak 197. edo 198. artikuluetan eskatzen dituen baliabide ekonomikoak edukitzea frogatzeko orduan.

Atzerriko nazionalitatea duten familia erreferenterik gabeko gazte migratzaileei bizi baliabideak frogatzeko eskatzen zaizkien bigarren unea adin-nagusitasunera iritsi ondorengo lehenengo berritzea, 557/2011 Errege Dekretuaren 197. artikuluan araututakoaren arabera, edo, 18 urte bete ondoren, 198. artikuluan araututakoan oinarrituta hasirako baimen bat eskuratu beharra gainditutakoan gertatzen da. Une horretan interpretazio arazo edo lege hutsune bat gertatzen da atzerritarrei buruzko araudian. Bizileku-baimena adin-nagusitasunetik bigarrenez berritu behar den unea da eta, adin-nagusitasunaren unean IPREMen % 100en pareko bizi baliabideak frogatu behar badira, berritzean IPREMen % 400 eskatzen da, hots, hilean 2.151,36 euro, zenbateko ezinezkoa edozein gazterentzat, are gehiago

familia-erreferenterik ez duen atzerriko nazionalitateko gazte migratzaile batentzat.

Horregatik, euren adin-nagusitasunean lehen oztopoa gainditzea lortzen duten familia-erreferenterik gabeko gazte migratzaileei, ezinbestean ukatzen zaie eskaera bizileku-baimena gero berri behar dutenean. Une horretan, euren bizileku-baimena bizileku- eta lan-baimen batera aldatu, edo gerora sortutako irregulartasun-egoera batera igarotzen dira”.

Bizileku-baimen administratiboa berritzeari dagokionez, Arartekoak jakin du, halaber, zailtasun bereziak daudela hura haurrentzako egoitza-zentrotik irten eta gutxira izapidetu behar denean, haien egoera oraindik oso ezegonkorra denean; izan ere, gerta daiteke ordurako errolatuta ez egotea edo bizi baliabiderik ez izatea, oraindik ezin izan direlako bete haiek edukitzea frogatu ahal izateko izapideak.

Gainera, bizitzeko baimen administratiborik ez edukitzeak euren familia ikustera bidaiatzea galarazten die, eta adin horretan horrek kostu pertsonal handia izan ohi du, batez ere gaixotasunak edo heriotzak gertatzen direnean edo eguneroko bizitzan gertaera traumatikoak jasan direnean.

Errotzearen figura, atzeritarrei buruzko legedian eta arrazoi berezien ziozko aldi baterako baimenari lotutakoan jasotako beste aukeretako bat, ez da erraz aplikatzekoa kolektibo horrentzat. Esparru juridikoari buruzko atalean azaldu denez, baldintza hauek bete behar dira: 1) baliabide ekonomikoak frogatu (lan-kontratu baten bidez edo ekonomia-jarduera bat eginez edo zenbateko jakin bateko errentak izateagatik) edo, 2) autonomia erkidegoan bizilekua duten atzeritarrekin familia-loturak izan (halakotzat jotzen dira haiek mantentzea ahalbidetzen dieten baliabide ekonomikoak dauzkaten ezkontideak edo erregistratutako izatezko bikoteak eta lehen graduako aurreko eta ondorengo ahaideak bakar-bakarrik), kolektibo horrek nekez frogatu dezakeen zerbait. Egoera horretan, Eusko Jaurlaritzako Familia Politikako eta Aniztasuneko Zuzendaritzaren jardunbidea (erakunde horri baitagokio errotze txosten horiek ematea) eskatzaileak estatuan dauzkan zuzeneko senide guztiak kontuan hartzea izan da orain arte, arauaren interpretazio zabala eta malgua eginez, baina errealitatea da oso kasu gutxik jarraitzen diotela erregularizazio bide horri.

Gazte horien testuinguru juridiko-administratiboa konplexuago bihurtzen duen bigarren elementu bat Euskal Autonomia Erkidegoko atzeritarren hiru bulegoen artean, eskatutako baliabide ekonomikoen zein zenbatekoen tipologiak (IPREM-en % 100 edo % 400, lurralde historikoaren arabera) frogatzeko moduari dagokionez, dauden **irizpide desberdinak** dira, eta beharrezkoa da denak lerrokatzea.

Interpretazio desberdin horiei lotuta, aipatu behar dugu atzeritarren bulego batzuk irizpideak gogortzen hasi direla bakarrik dauden atzeritarrei adin-nagusitasunera

iristean bizileku-baimena berritzeko, eta kezka horri buruzko iritzia eman dute [Herriaren Defendatzaileak](#) zein gainerako defentsa bulego autonomikoek 2020ko hastapenetan. Erakunde horien hitzetan, *“irizpide horiek zenbait erabaki judizialetan oinarritzen dira, eta haien arabera, bizileku-baimena lehen aldiz berritzea eskatzen duten gazteei euren baliabide ekonomikoak edukitzea eskatzen zaie, erakunde publikoaren babesa galdu ondoren. Irizpide murriztaile berri horiek ukatzen dute norberaren baliabide ekonomikorik egotea gaztearen beharrezan laguntza-zentro batek estaltzen dituen edo laguntzako prestazio baten onuraduna izanez gero”,* eta IPREMen % 400eko diru-sarrera frogatzeko eskatzera pasatzen da. Herriaren Defendatzailearen ustez, eta bat datoz iritzi horrekin gainerako defentsa bulegoak, *“interpretazio horren berehalako ondorio praktikoa da adingabeak babesteko erakunde autonomikoen tutoretzapean egon diren ia atzeritar adingabe guztiak egongo direla egoera irregularrean, adin-nagusitasunera iritsi eta berehala. Eta, hori, botere publikoek adingabea zen bitartean tutoretza egiteak dakartzan legezko betebeharrak guztiak betetzeko ahalegin guztiak egin arren”.* Hori dela-eta, gomendio hau egiten diote Inklusio, Gizarte Segurantzaren eta Migrazio Ministerioari: *“198. artikulua aldatzea, haren bidez, adingabeak babesteko erakundearen ziurtagiriarekin, 4/2000 Lege Organikoaren 31.3 artikuluan aurreikusitako inguruabar berezien ziozko bizileku-baimen eskaera bat hasi ahal izateko. Prozedura horrek berriaz ezarri beharko du gaztearen baliabide ekonomikoak, lan-kontraturik ez dagoen kasuetan, frogatuz joko direla, gaztea bere tutoretza izan zuen erakunde publikoaren edo, hala badagokio, bere gizarteratze eta laneratze programan sartuta duen erakunde pribatuaren helduarora igarotzeko programa batean sartuz”.*

Irizpide aldaketa hori Gipuzkoan elkarrizketatutako pertsonen ere berretsi dute:

“18 urte betetzen dituzun unean, printzipioz erregularizatuta, berritzeko eskubidea daukazu eta IPREMen % 100 eskatzen dizute –550 euro baino apur bat gutxiago-. Lehen aski zen laguntza ekonomiko bat izatea edo emantzipazio-pisu batean egotea. Orain ezer ez, interpretatzen dute laguntza ekonomikoa edo emantzipazio-pisua sorospen-laguntza bat direla, eta ez gizarteratze eta laneratze prozesurako laguntza bat. Beraz, orain, lan-kontratu bat eskatzen dizute zuzenean”. (4 E).

“Paperak berritu behar dituzten unean akabo. Orain baldintzak igo dituzte, ez dakit zergatik”. (1 E).

Nahasmena areagotzen duen hirugarren elementua hau da: Auzitegi Gorenaren jurisprudentzia era murriztailean bilakatu den bitartean, aldi berean, araudia kontrako zentzuan aldatuko dela iragartzen da, arestian aipatutako Herriaren Defendatzailearen gomendioak onartzearen ondorioz.

Egoera horren aurrean, kontsultatu diren iturri batzuen arabera, arazo horien aurreko irtenbidea legediaren aldaketa batetik etor liteke (2. kapituluaren aipatuenez, eskumen autonomikoak gainditzeko du horrek) edo, bestela, administrazioen

artean gazte horiek gizarteratu eta laneratzeko erakundeen erantzun bat emateko estrategia bateratuak erabilia.

Arau bilbe konplexu eta murriztaile horri udal batzuek eta kontsultatutako adituek aipatutako beste aldagai bat batzen zaio: gazteek ez dituzte ezagutzen kontu juridikoak ez nola eta nora jo izapide horiek konpontzeko. Hizkuntza eta, bereziki, jasotzen duten dokumentazio administratibo eta judiziala ulertzeko zailtasunek larriagotzen dute hori.

Antza, ezjakintasun hori dago errolatzeari lotutako arazoen oinarrian eta, bereziki, adin-nagusitasunera iritsitakoan haurren egoitza-baliabidea uzteak sortutako bizilekua aldatzeko unean. Halako kasuetan, zentroak udalari jakinarazten dio gaztea dagoeneko ez dela zentroan bizi eta beste udalerrri batean alta eskatzen badu, aurreko udalerrian bizi ez dela jakinaraztean ofiziozko baja-espeditente bat hasten da eta, eteten ez bada, azkenean gaztea adingabea zen bitartean bizi izan zen harren egoitza-baliabidea dagoen udalerrriaren errolatik aterako da. Udal-errolako inskripzioaren bajak mugatuko du haren eskubideak gauzatzen dituzten gainerako zerbitzu eta prestazioak eskuratu ahal izatea (prestazio ekonomikoak, osasuna, etxebizitza, etab.). Erroldan izen emanda jarraitzea, hutsunerik gabe ofizioz izapidetutako bajengatik, bektore bat da haren gizarteratze eta laneratzeko prozesuan, EAEko gizarte-babes sistema eta dokumentuen erregulartasuna eskuratzea erraztuko duena.

Azalpen hau amaitzeko, ondoriozta liteke, txertatzeko ibilbidean administrazio-egoera erregularra lortu eta hari eusteak duen garrantzia dela-eta, familia-erreferenterik gazte migratzaileei **orientazioa eta aholkularitza juridikoa** ematea **estrategikoa** bihurtzen dela.

3.2. Oinarrizko beharrianak estaltzeko baliabideak.

Aurreko puntuan gazte horiengan atzerritar izateagatik eragin berezia duen bizi proiektu autonomo bat eraikitzea zailtzen duen elementu bat aipatuta, orain bigarren elementu bati buruz mintzatuko gara. Bera ere da oso baldintzatzailea, baina kasu honetan 18-23 urteko edozein gazterekin partekatzen dute edo antzekoa da: bizirauteko eta oinarrizko beharrianak (elikadura, arropa, baita ostalua ere) estaltzeko behar diren baliabide ekonomikoak. Baliabide ekonomiko horiek ematen dituen iturria lana izan ohi da eta, izan ere, gazte horiek euren migrazio proiekturako aitortutako zio nagusia kualifikatzea eta lan bat lortzea da. Gure gizartean, ordea, hizpide ditugun adin-tarteetan zaila da lana eskuratzea, are gehiago hezkuntza maila urriekin eta hizkuntza zailtasunekin (horretaz jardungo du hurrengo atala), eta familia-sarea da behar den sostengua ematen duena ikasketak amaitu eta gutxieneko lan-egonkortasun bat lortzen den bitartean. Baina gazte horiek, hain zizen, ez daukate familiaren sostengu hori.

Gutxieneko errentak izateko edo diru-sarrerak edo oinarrizko errentak bermatzeko programei lotutako prestazio ekonomikoak eskuratzeko ere mugak daude, hala nola adina, errolatuta emandako denbora, etab.

Informatzaile batzuen aburuz, bizirauteko baliabide ekonomikoak izateko premia bilakaera luzekoa da; izan ere, batzuetan emantzipatzea lortu arren, eskuratzen dituzten enpleguak oso behin-behinekoak dira eta maiz laneko eta langabeziako egoerak txandakatzen dituzte. Hala, gizarte zerbitzuen sistemarekiko mendekotasunak bolada luzeetan irauten du.

Ostatua ere oinarrizko premia elementutzat jo daiteke. Izan ere, zuzenbide humanitarioko nazioarteko tresnetan onartuta dago etxebizitza edo bizitoki egokia izateko eskubidea; tresna horien arabera, segurtasunez, bakean eta duintasunez nonbait bizitzeko eskubidetzat hartzen dute hura. Nazio Batuen Batzar Nagusiaren Giza Eskubideen Kontseiluak 2018ko otsailaren 26tik martxoaren 23ra bitarteko 37. bilkuraldian onartutako Errelatore bereziaren txostenean, etxebizitza egokia bizi-maila egokia izateko eskubidearen osagaitzat hartzeari eta ez diskriminatzeo eskubideari buruzkoan, *“duintasuna, segurtasuna eta komunitate jasangarrietan txertatzea bermatzeko bitarteko”*tzat hartzen da etxebizitza.

Ezagutzen dugun errealitateak, ordea, muga handiak dauzka etxebizitza eskuratzeko, bai merkatu librean, bai sistema publikoan, eta bai adin-nagusitasunera iritsi arte administrazioaren tutoretzapean egon diren gazteentzat, bai gure lurraldera adin nagusikoak izanda iritsi direnentzat.

Euskal Etxebizitza Sistemari etxebizitza bat eskuratzeko lehen oztopoa Etxebide etxebizitza-eskatzailen erregistroan izen emateko bizileku-baimena indarrean izateko baldintzatik dator. Bestalde, Etxebizitzari buruzko ekainaren 18ko 3/2015 Legearen II. kapituluari jasotako etxebizitza duin eta egoki baten legezko okupazioa eskuratzeko eskubide subjektiboa baliarazi ahal izateko, eskubidearen titularrak gutxienez lau urteko antzintasuna izan behar du erregistro horretan, guztiz ezinezkoa dena gazte horientzat.

Pentsa liteke gazte migratzaileak kolektibo zaugarrien barruan koka litezkeen, haiek seinalatzen baitira etxebizitzaren zuzeneko adjudikazioen onuradun potentzial gisa. Horrek adjudikazio-prozedura arruntetatik salbuesten ditu genero-indarkeriaren biktima diren emakumeak, terrorismoaren biktimak, hirigintza-jarduketengatik ordezko bizitokia jaso duten pertsonak eta bereziki zaugarri diren pertsonak. Erantzuna ezezkoa da berriro; izan ere, “kolektibo bereziki zaugarria”ren definizioa maiatzaren 14ko [1/2013 Legeak](#), hipoteka-zordunen babesa, zorraren berregituratzea eta alokairu soziala indartzeko neurriei buruzkoak, 1. artikuluko 2. zenbakian jasotakoa aipatuz egiten da, eta hor zehazten da zaugarritasunaren jatorria judizialki etxetik bota ondoren etxebizitza utzi beharrean dago, hots, utzarazpen kasuetan. Nolanahi ere, pertsona horiei ere eskatzen zaie Etxebiden

inskribatuta egotea, eta oztopo nagusia da hori etxebizitza sistema publikoan sartzeko.

Euskal Etxebizitza Sistema arautzen duen araudiak etxebizitza publikoa eskuratzea mugatuta eta errentamendu bati eusteko baliabide ekonomikorik ez edukitzeak eta errentatzaile batzuen arbuioak etxebizitza merkatu librean eskuratzea mugatuta, gazte horiei bizilekurako erantzuna emantzipatzen laguntzeko programetatik iristen ari zaie. Programa horiek, zenbait izenekin, foru gizarte zerbitzuek eta udal batzuek, hala nola Gasteizkoak, bideratzen dituzte. Gizarteratzeko pisuak, etxebizitzak laguntzekin, ostaturako bekak... prestazio eta zerbitzu partikular gisa edo neurri multzo baten barruan, dira, gaur egun, gazteei etxebizitza duin bat eskuratzea ahalbidetzen dieten formulak.

Baina ostatu aukera horiei dagokienez, arazoa da sareak ez daukala plaza nahikorik eta, ondorioz, ez zaiela gazte guztiei iristen. Alde batetik, eskaria asko handitu da, batez ere, jende gehien etorri zen urteetan (2017, 2018 eta, hein txikiago batean, 2019an) –adingabe izanda- iritsi ziren gazte asko adin-nagusitasunera iritsi direlako. Bestalde, ostatua eskaintzen duten zerbitzuen txandakatze maila oso urria da; izan ere, gazteek, etxebizitza bat lortzeko aipatutako zailtasunen aurrean, joera dute emantzipazio-baliabideetarako aurreikusitako egonaldia agortzeko, erabiltzaile berriak sartzeari oztopatuz.

“Orain korapilatzen ari dira emantzipazio-pisuetako irteerak, eta tapoi handi bat sortzen da orduan (Gipuzkoa)” (4 E).

“Emantzipazio-pisuetan dauden gazteak (Gasteiz) ez dira irteten, ezinezkoa delako haientzat gela bat lortzea bizitza independentea egin ahal izateko eta ez dituzu botako prozesu osoaren ondoren kalean gera daitezen”. (2 E).

Gizarte erakunde batzuk merkatu arruntean etxebizitza lortzeko lanak egiten ari dira, batzuetan, bitartekari jardunez, baina, diotenez, bide horrek zailtasun handiak dauzka. Beste kasu batzuetan komunitate erlijiosoak dira kolektibo horrentzat euren bizileku baliabideak eskaintzen dituztenak.

“Gazte horientzat gela bat lortzea oso zaila da, lana izan eta dirua eduki arren. Gainera, gelaxka ziztrin hutsak dira. (...) Eta gero komunitate erlijioso batzuek jendea hartzen dute: jesulagunek, eskolapioek, mirabeek... (3 E).

“Gasteizen etxebizitza bilatzea zientzia-fikzioa da, izugarri garesti dago dena. (...) Gainera magia moduko bat jaso da, erroldatuta egoteko etxea behar duzu, beraz, horretaz baliatu eta erroldatu ahal izateko kobratzen dute. Iragarri ere egiten da... 200 euro erroldatzeagatik”. (2 E).

“Herri ekimen bat dago, bitartekari jardunez alokatzeko pisuak bilatzen saiatzen ari dena benetan. Ekimen oso interesgarria da”. (4E).

Ostaturik eta euren oinarrizko premiak estaltzeko baliabide ekonomikorik gabe, gazte horien kontuan hartzeko moduko ehuneko batek “kaleko” egoeran amaitzen du eta, azken babes sare gisa, udal gizarte zerbitzuek eta bazterketa-egoerako pertsonentzako baliabideen bidez laguntzen diete: aterpetxeak, eskakizun urriko zentroak, hotzaren baliabideak, gizarte jantokiak, eguneko zentroak (dutxak eta garbigailuak dituztenak), etab. Profesionalen eta gizarte erakundeen ustez, bazterketako baliabideak ez daude gazte horien profilarantzat definituta, baina haien beharrianantzat egoki diren irtenbiderik ezean, eskura dagoena erabiltzen dute eta, batzuetan, gainezkatu egiten dute.

Azaldutako egoera dramatikoaren adibide bat eman du Eusko Jaurlaritzako Lan eta Justizia Sailak. Jakinarazi duenez, ingurune zabaleko –askatasuna kentzen ez duen- neurriren bat betetzen ari diren gazte batzuk, barneratzeko neurrietara aldatzea eskatu dute, horrela bizitzeko, prestakuntzarekin jarraitu eta dokumentuak, hala nola bizileku-baimena, izapidetu ahal izateko toki bat ziurtatzeko. Izan ere, konfinamendu aldian ildo horretatik joan da erantzun judiziala eta askatasuna kentzen ez duen neurriaren zatia askatasuna kentzeko denbora luzeagoarekin ordeztu da.

3.3. Enplegua eta kualifikazioa

Esanenez, lana agertzen da edozein gazteren bizi proiektu autonomoari eusteko baliabide ekonomikoak lortzeko bide nagusi gisa, baita gazte horientzat ere. Hura lortzeko zailtasuna, ordea, garrantzitsuak dira. Izan ere, lan-merkatuari dagokionez, kualifikazio ertain eta handiko (II. eta III. mailak) enplegu ugari izateak bereizten du Euskal Autonomia Erkidegoa, eta hezkuntza formalaren sistema (lanbide-heziketa) ahalegintzen ari da horri erantzuten, gero eta heziketa-zikloa espezializatuagoak eskainiz. Horrekin guztiarekin batera, espezializatu gabeko eta kualifikazio txikiko lanpostuak murrizteko joera globala dago, gertagarriagoa baita horien ordeztu irtenbide teknologikoak ezartzea. Izan ere, lanpostu horiek zaurgarriagoak izan ohi dira berregituratzeetan eta ekonomia-uzkurdurako uneetan.

Testuinguru horretan, gazte horien zailtasun gehigarriak ikasketa-maila urriei, euren hizkuntzan analfabetoak ere izanik kasu batzuetan, eta hizkuntza zailtasunei daude lotuta, eta, bizirauteko baliabide ekonomikoak izateko premiak estututa, behin-behineko enpleguak betetzera edo zuzenean ezkutuko ekonomiara kondenatzen dituzte.

Enplegua eskuratu beharrak beste premia batzuei buruz hitz egingo luke, tarteko helburu gisa, gaztelania maila nahikoa lortzeari, prestakuntza ibilbide egokituak diseinatzeari edo enplegarritasun programa pertsonalizatuak eskuratzeari lotuta.

Prestakuntzaren arloan, gazte horien egoera une kritiko batzuetatik igaro da iragan hurbilean, baina badirudi gainditzen ari direla. 2015-2016 ikasturtean Oinarrizko Lan Prestakuntza emaitza oso onak ematen ari ziren Hastapeneko Lanbide Kualifikazioko Programak ordeztuz ezartzeak, Euskal Autonomia Erkidegoan, arazo bat sartu zuen, prestakuntza-ibilbide horretarako sarbidea 17 urtez gorako gazteentzat eta derrigorrezko bigarren hezkuntzako lehen zikloa egin ez dutenentzat mugatzen baitzuen. Eragindako bakarrak izan ez baziren ere, baldintza berri horiek eragin handia izan zuten familia-erreferenterik gabeko gazte migratzaileen parte hartzeko aukeretan, askotan eskatzen den baino adin nagusiagoa izanda iristen baitira eta lehenago hezkuntza sistema formalarekin harremanik izan gabe.

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak baldintzak nolabait malgutu ditu, nolabait, eta hori Oinarrizko Lanbide Heziketan matrikulatzea ahalbidetzen ari da, taldeetan plaza hutsak geratzen badira, baina gazte horiek kualifikazioa eskuratzeari bidea ixtearen aurreko erantzuna enplegurako prestakuntza azpisistematik etorri zen zeinak, 2018an, funts garrantzitsu bat antolatu baitzuen, behar den malgutasunarekin, profesionaltasun-ziurtagiriei lotutako prestakuntza batzuk garatzeko. Lanbide kualifikazio apaleko gazte langabetuen aktibazio soziolaboralerako prestakuntza-ekintzak egiteko sustatutako dirulaguntzen deialdiaren xedea, hain zuzen ere, 2. mailako profesionaltasun-ziurtagiriei lotutako prestakuntza aukerak sortzea eta, horrela, DBH osatu ez duten eta, zenbait zio direla-eta, oinarrizko gaitasunik ez izateagatik enplegurako prestakuntzarekin jarraitzeko biderik ez duten 16-25 urte bitarteko gazteen lan-mundura arrakastaz igarotzea erraztea da. 16 urte baino gehiagorekin iritsi eta, beraz, bigarren hezkuntzan eskolatu ez diren atzerritar gazteek ez lituzkete beteko 2. mailako profesionaltasun-ziurtagiriak eskuratzeko baldintzak eta programen hartzaile gisa berariaz aipatutako kolektiboetako bat dira.

Programa horiek gizarte erakundeek (Peñascal, Adsis, Harrobia, Elkarbanatuz...) garatutako proposamen zehatzetan gauzatu dira eta gazte askok jotzen dute haietara. Badiraute, ordea, zailtasun batzuek parte hartze osorako edo, gutxienez gizarte eta hezkuntza eskaintza osorik baliatzeko: hizkuntza ikasteko baliabide publiko urriak, la-prestakuntzaren aurreko edo haiek osatzeko moduluekin edo gizarte erakundeek emandako berariazko ikastaroekin arintzen saiatzen direnak; garraiorako laguntzarik eza, ikastetxera joateko benetako aukera baldintza dezakeena; bizileku-baimena berritzeko lan-kontratuaren eta, azken batean, baliabide ekonomikoak eskuratzeko premia gorria, prestakuntza prozesu luzeetan parte hartzea zailtzen duena; edo oinarrizko bizi mantenerako elementuak (ostatua, gizarteratzeko laguntza, bizileku-baimena) galtzea, psikiko eta emozionalki ezeگونkortzen duena, ikasteko behar den gaitasun kognitiboa arriskuan jarritz.

Agertzen zaien oztopo berezi bat oraingoan 4.1 puntuan aipatutako administrazio-egoeratik dator. Izan ere, administrazio-egoera irregularrean dauden gazteak zailtasunak aurkitzen dituzte enpresan praktikak egiteko, gero eta ohikoagoak baitira praktikak prestakuntza-programaren funtsezko atal gisa jasotzen dituzten

ibilbideak. Praktika “akademikoak” izanik, ez dira baldintza nahikoa lan-baimen bat eskatzeko (zeinak, aldi berean, bizileku-baimena aktibatzen baitu), baina baimen horiek izan gabe ezin da lantoki batean sartu, ez inolako lan zereginik bete, ezta praktketan ere.

Erregularizazio administratiborik ezak eragin berezia dauka laneratzeko enpresetan ere, haiek izanik zailtasun bereziak dauzkaten kolektiboek, hala nola gazte migratzaileek, lana eskuratzea errazteko diseinatutako lan tresnetako bat. Kasu horretan honetan datza zailtasuna: laneratzeko enpresa batean lanpostu bat betetzeko hautagaiak enplegu zerbitzu publikoek proposatzen dituzte, eskatutako profilarekin bat datozen enplegu-eskatzaileen artean. Administrazio-egoera irregularrean dauden pertsonak, eta hori da hizpide ditugun pertsona gehien kasua, ezin dira enplegu-eskatzaile inskribatuta egon (baimenduta daukate, ordea, prestakuntza prozesuetan parte hartzeko izen emanda egotea), bizileku-baimenik ez dutelako. Ondorioz, ezingo dira inoiz proposatuak izan, paradoxikoki, euren administrazio-egoera irregularretik irtetea ahalbidetuko liekeen enplegu-eskaintza baterako.

Gabezia eta premia horiek egon arren, ordea, ezin da atal hau amaitu aipatu gabe familia-erreferenterik gabeko gazte migratzaile horientzat enpleguak eta lanbide-kualifikazioak motibatzen duten indarra. Izan ere, zenbait informatzaile azpimarratu dute helduentzako hezkuntzak edo gizarte erakundeek eskainitako gaztelaniako klaseetara jende asko joaten dela, eta are gehiago zenbait erakundek eskatzen duten kualifikatzeko prestakuntzara.

3.4. Beharrianak osasunaren arloan.

Migratzaile gazteek osasun ona izan ohi dute. Euskal Autonomia Erkidegoan baliabide ekonomiko nahikorik ez duten etorkinek bermatuta dute, printzipioz, osasun-arreta unibertsala, eta zailtasun handirik gabe jo dezakete lehen mailako eta larrialdietako arretara. Ez dituzte eskuratzen, aldiz, doako osasun prestazio eta zerbitzuen zorroan jasotzen ez diren prestazioak. Haien artean, jasota dagoen prozesu akutuen arretatik harago, aho-hortzen osasunaren arreta litzateke gazte horiek gehien nahi/eskatzen dituzten arloetako bat, eta erantzun publikoa behar da⁴³, galdetutako pertsona eta erakunde batzuek diotenez.

Osasun mental egokiari lotutako premiak, ordea, ez dirudi ondo konponduta daudenik. Maila psikologikoan, arestian aipatutako egoera guztiek dakarte segurtasun falta etengabe bat; larritasuna sortzen du horrek, eta esperientzia

⁴³ Duela gutxi Kataluniak urriaren 13ko 12/2020 LEGEA, aho-hortzen osasunaren arreta publikoari buruzkoa, onartu du. Abiapuntua da aho-hortzen osasuna pertsonen osasunaren atal banaezina dela, eta arreta bermatzen die gizarte zaugarritasuneko egoeran edo gizarte-bazterketako arriskuan dauden pertsonen. *Estatuko Aldizkari Ofiziala, 2020ko urriaren 20koa, 281. zk.* Hemen eskuragarri: https://www.boe.es/diario_boe/txt.php?id=BOE-A-2020-12882

horiek tratatu gabeko arazo psikologikoei batzen zaie, batez ere pairatutako bizipen traumatikoei sortutakoei eta haien ondorioei. Komeni da gogoratzea gazte horietako askok arrisku eta indarkeria egoerak bizi izan dituztela euren migrazio ibilbidean, oso gazte izanik. Haiekin harremanetan dauden gizarte zerbitzu eta erakundeetako profesionalak sufrimendu pilatua hautematen dute, eta hari migrazio proiektuak nahi zutenarekin eta familiaren itxaropenekin bat ez etortzeak sortutako frustrazioa maneiatzeko zailtasunak batzen zaizkio. Gazte horien egoera emozionala deskribatzeko sosegurik eza, beldurra, herstura, porrot sentipena, eta antzeko hitzak erabiltzen dira eta, bestalde, areagotu egiten dira, denboraren poderioz, euren itxaropenak betetzen ez direla ikusi ahala. Horri lotuta, migrazio doluaren gaineko esku-hartze psikosozialerako laguntza gehiagoren falta sumatzen da.

Gehienetan osasun zerbitzuek ez dute azaldutako ezinegon emozionala euren diagnostikoan jasotzen eta, batzuetan, jokabide arazoak ekar ditzake, ondorio kaltegarriekin gizarte arretan. Osasun sistemaren erantzunik ezean, gizarte zerbitzu batzuek arazo horiei heltzeko programak edo zerbitzuak abiarazi dituzte.

Egoera eta bizipen nahasketa horrek, batzuetan, gizarteratzeko prozesuak are gehiago zailtzen dituzten arriskuko portaerak sortzen ditu. Halako jokabideen adierazpenetako bat drogen gehiegizko kontsumoak dira, agian kaleko bizitzaren gogorrari aurre egiteko modu gisa uler litezkeenak, "automedikazio" informal bat, beldurra ahaztu eta traumatik bizirik ateratzeko zerbait. Nolanahi ere, komeni da azpimarratzea jokabide horiek gazte batzuegan baino ez direla gertatzen, eta haien harreman eta elkarrekintzarako gaitasuna baldintzatzen dutela, baina orokorrak izan gabe.

Gainera, norberaren ezaugarriek, bereziki gaitz mentalen bat izateko aurretiko joerak eta erresilentzia gaitasunak, migrazio ibilbidean bizi izandako indarkeriaren edo sufrimenduaren larritasunak edo intentsitateak eta jasotako (edo jaso gabeko) laguntzek patologia mental larri bat izateko posibilitateak baldintzatuko dituzte, zeinak gizarteratze prozesu osoa baldintzatuko baitu, oraingoan era erabakigarriagoan. Patologia horiek aurretik hauteman, lagundu eta prebenitzeko mekanismoak egotea, hortaz, oso garrantzitsua bihurtzen da, are gehiago kontuan hartuta, galdetutako pertsona batzuen iritziz, gazte askok tratamendu terapeutiko edo psikiatrikoaren aurrean erakusten duten erresistentzia.

Gaixotasun mentala duten pertsonentzako baliabideak eskuratzeko aukerari dagokionez, hori bailitzateke aukeretako bat patologia mental larri bat diagnostikatuta duten kasuentzat, administrazio-egoera irregularrean dauden migratzaile gazteek oztopo batekin egiten dute topo: ezin dute eskuratu desgaitasuna (gaitz mentalarengatik) balioesteko ezinbesteko baldintza bat, desgaitasun bat duten pertsonentzako prestazioak eta zerbitzuak eskuratzeko aukera oro mozten duena.

3.5. Tokikoa izateko sentimendua, komunitatean integratzea.

Pertsonok izaki sozialak gara eta talde batekoak, toki batekoak, komunitate batekoak garela sentitu behar dugu. Sentimendu hori era interaktiboan ehuntzen da, banako bakoitzak beste pertsonengana eta haiek harengana egindako mugimenduekin. Horretarako denbora, abegia sentitzea eta konfiantza behar dira. Gazte migratzaileek urrun utzi dituzte euren familiak, euren lagun taldeak, euren kultura, etorkizun bat interpretatzeko bestelako gakoak dituen testuinguru batean eraikitzen saiatzeko. Prozesu horretan, sentimendu eta bizipen asko bizitzen dituzte.

Informatzaile batzuek diotenez, askotan gazte horiek bereizketa eta **deserrotze** maila sakona daukate, arlo afektiboan ondorio larriak dituena. **Bakarrik sentitzen direla diote**, haiei buruz izaten dugun irudiaren kontra. Egiatan, adiskidetasun harreman hautatu eta egonkorrik gabe, "berdinen" taldeak nolabaiteko babesa eta taldekoa izateko sentipena ematen ditu, baina arriskuak ere ekartzen ditu, taldearen presioari eta arriskuko edo gizalegearen kontrako jokabide batzuk bultzatzeko eraginari lotuak.

Gazte migratzaileak **talka kultural** bat bizi dute, euren jatorrizko kulturaren eta bizi diren herrialdeko gizarte arauen, kultura antolamenduaren eta bizi estilo orokorraren arteko aldeak bizitzen dituzte. Pertsona desplazatu orok bezala, egokitzeko prozesu bat behar dute.

Helmugako herrialdeari eta oro har bizitzari buruz dituzten **errealismo urriko itxaropenek**, batzuetan, zailago bihur dezakete egokitzeko aldi hori. Euren jatorrizko herrialdeetan jaso duten informazio asko ez da zehatza, seguruenik haien aurretik joanda arrakasta izan dutela kontatu nahi duten migratzaileen informazioaren edo hedabideek, askotan errealitatearekin oso bat etorri gabe, transmititzen dituzten irudien eragin handia izanda.

Familia-erreferente hurbilik ez izateaz gain, gehienetan ez **daukate gizarte sarerik**. Parte-hartze urria dute jarduera komunitarioetan (kirol-jarduera batzuk, hala nola futbola, alde batera utzita). Batzuen sozializazioa ingurune oso bazterrekoetan gertatu da eta komunitatea eta are arreta ematen dieten baliabideetan kudeatzeko zailak diren jokabideak daukate. Leku batzuetan gatazka garrantzitsuak gertatzen dira Sahara azpiko Afrikatik eta Marokotik datozen pertsonen artean, Espainiara iritsi arte izandako bizipen zailengatik. Bizipen horiek haien arteko bizikidetzaren baldintzatzen dute, oldarkortasuna, tentsioak eta gatazkak sortuz, batzuetan ostatu-baliabideetako bizikidetzaren arriskuan jartzeraino.

Baina hasieran esan denez, komunitatean txertatzea, "kide izatearen" sentimenduak sortzea, guztion lana da: pertsonarena eta komunitatearena.

Komunitateak, lurraldea eta eguneroko bizitza partekatzen dituzten pertsonen talde horrek, ez du beti era adiskidetsuan erantzuten. Askotan, gazte migratzaileak, are gehiago kalean bizitzeagatik izugarri ikuserrazak badira, **aurreiritzi eta jarrera arrazisten biktima** dira, baztertu egiten dituzte. Hala elkarrekiko mesfidantzako sorgin-gurpil batean sartzen da, estigmatizazioak arbuiatzeko sentimenduak sortzen dituelako, eta norberarengan ere herrialdeko jendearen kontrako aurreiritziak eta antzeko egoeretan dauden herrikideekin isolatzeko joera garatzen ditu.

Azkenik, informatzaile batzuek diote kolektibo horrek aisia eta astialdiko baliabide komunitario gutxi eskura dezaketela, eta horrek, hein batean, behintzat, azal lezake, arestian aipatu bezala, jarduera komunitarioetan hain gutxi parte hartzea.

3.6. Babes bereziko premia.

Orain arte gazte horiek bizi diren zaurgarritasun egoera azpimarratu da, aurreko ataletan aipatutako gabezia eta zailtasun ugarietan islatuta. Gazte horietako batzuek, gainera, indarkeria eta esplotazio gehigarri bat pairatzen dute, eta babes "indartua" behar dezakete.

Zenbait inguruabarrek sare kriminalen biktima izatera eraman edo bultzatzen dituzte gazte horiek. Herrialdera iritsi arte jarraitutako ibilbidea ordaindu beharrak, euren familiari dirua bidali edo bizitza hobe baterako dirua irabazi nahi izateak, gehiegizko kontsumoen dinamikari ekin zaionean droga erosi beharrak..., edo, besterik gabe, zaurgarritasun handiko egoerak, zeinak sareek bereganatzeko biktima errazak bihurtzen baititu.

Azterlan honetan parte hartu duten erakundeek eta organizazioek aipatu dituzten egoerak sexu-esplotazioari lotuta daude: prostituzioan diharduten gizonezko gazteak eta euren herrialdetik derrigorrezko ezkontzei ihes egiteko alde egin duten emakumeak, sexu-esplotazioko sareak edo muturreko txirotasun egoerak, horri guztiari eraso fisiko eta sexualak gehituta. Zalantzarik gabe, gure kaleetan gertatzen ari diren egoera izugarriak.

Sexu-esplotazioaren edo abusuen biktima diren emakumeen egoerari bereziki lotuta, berariazko ahalduntze programak indartu beharra aipatzen da.

3.7. Laguntza premia

Orain arte familia-erreferenterik gabeko gazte migratzaileen premien artean, bere bizi proiektu autonomia eraikitzeko prozesuari ekiten dion gazte orok dauzkanak edo kolektiboan atzerritar izateagatik eragin berezi bat dutenak jorratu dira. Ez da ezer esan, aldiz, izenean bertan aipatzen den beste egoera: familiaren laguntza ez izatea emantzipatzeko urratsetan “lagun egin” eta haiei eusteko.

Aipatu da familia-sarearen garrantzia adin-nagusitasunera iritsi den gazte ororen oinarrizko premiak estaltzeko, baina prestakuntza prozesuetan sartuta edo lan-merkatuan sartzeko lehenengo urratsak –duda-mudakoak beti- ematen ari da oraindik. Familia-erreferenteen eginkizuna, ordea, ez da sostengu material horretara mugatzen. Seguruenik, seme-alaben bizitzarako horrek beste garrantzia edo handiagoa dute lehen mailako sozializazio gune horrek euren pixkanakako autonomia prozesuan eskaintzen dizkien sostengu emozionalak eta lagun egiteak. Gazte migratzaile horiek, kasurik onenean, milaka kilometrora dauzkate erreferente horiek.

Bestalde, gazte horiek helduaroaren arazoei aurre egin arren, migrazio proiektuei dagozkien zailtasun erantsiekin, gainera, ez dugu ahaztu behar heldu oso gazteak direla, nerabeak ia, heltzeko etapa horri dagozkion ezaugarri eta kezekin. Etorkizunerako garrantzi handia duten erabakiak hartzea, ezegonkortasun handiko egoeretan, testuinguru ezezagun batean eta konfiantzazko pertsonen laguntzarik gabe ataka zaila da jasateko.

Beharizan horiei buruz ari dira informatzaile batzuk diotenean dauden zaurgarritasun egoera helduarora igarotzeko erreferentziazko figura egonkorrik ez izatearen ondorio ere badela, ez baitute bide horri bermekin aurre egin ahal izateko laguntza kognitibo eta emozional egokia emango dien inor. Laguntza kognitiboa behar da egoerak ulertu, aukerak balioetsi eta erabakiak informazio sendoetan oinarritzeko eta laguntza emozionala behar da arrakastetan poztu, zailtasunetan eutsi eta porrotak jasateko.

Familia-erreferenterik ezean edo haiek urrun egonda, beste hezkuntza figura batzuek egin diezaiekete lagun. Horretarako, ezinbestekoa da behar diren konfiantzazko lotura horiek ezartzeko prest agertzea, jakinda, nolana ere, gazteak berak erabakitzen duela hura sortzea; ezin zaio derrigorrez ezarri.

Lagun egiteak garrantzi ikaragarria hartzen du azaldutako testuinguru hain konplexu eta dudazko horietan, zailtasun eta oztopo handiekin, eta beti aurrera egiten ez duten ibilbideetan. Erregularizazio administratiboko zoritxarrak, ostaturak, erabaki txar batek, eta abarrek aurreratutako bidearen zati bat hondatu eta frustrazio handia edo porrot sentimenduak sor ditzakete. Orduan bilakatzen da

Familia-erreferenterik ez duten gazte migratzaileak Euskadin

laguntza emozionala, aholkularitza eta orientazioa emanaz lagun egiten duen erreferentziako profesionala osotasuna bilatzen duen esku-hartze proiektu ororen ezinbesteko eta funtsezko elementu bat. Edonola ere, figura hori, boluntarioek eta elkartasunak bultzatuta (edo bultza litzakete, behintzat), komunitatean dauden beste batzuek indartu dezakete.

4 Erakundeen erantzuna

Euskal administrazio publikoak, bakoitza dagokion eskumen-eremuan, zenbait mailatan, aurreko kapituluan aipatutako premia horiei erantzuten ari zaizkie. Azterlan honetan erabilitako metodologian azaltzen zenez eta, edonola ere, Arartekoak esku hartzeko prozeduraren ohiko modu gisa, informazioa eskatu zaie pertsona horiei arreta ematen dieten edo ustez arreta eman behar lieketen zerbitzu publikoei, egiten ari diren jarduketa publikoen argazki eguneratu bat izateko. Kapitulu honen edukiak kontsultatutako erakundeek egindako informazio eskaerei erantzunez bidali duten informazioa jasotzen du. Eskaera horiek 3. kapituluan aurkeztu dira. Salbuespen gisa, gerta daiteke egiten ari den jarduketaren bat atal honetan ez agertzea, erakunde horri informaziorik eskatu ez zaielako (udal batzuen kasua izan daiteke) edo, galdetuta, eskaerari erantzun ez zaiolako. Interesgarria dirudi egoera hori aipatzeak, hutsuneren bat hautemango balitz.

4.1. Administrazio-egoeraren erregularizazio hain beharrezkoa.

Esparru juridikoari buruzko atalean xehetasunez azaldu denez, atzerritarren administrazio-egoerari dagozkien kontuak Estatuko Administrazio Orokorraren eskumen dira eta, ondorioz, ez dira euskal administrazio publikoak eskudunak Euskal Autonomia Erkidegoan bizi diren atzerritarren bizileku- eta lan-baimenak eman edo berritzeko.

Hori hala izanik eta azterlan osoan gazte bakoitzarentzat inklusio-proiektu baten garapen on baterako administrazio-egoerak duen garrantzia aipatuta, orientazioak eta aholkularitza juridikoak izaera estrategikoa hartzen dute euskal administrazioek arlo horretan erakundeetatik eskain dezaketan erantzunean. Izaera horren ondorioz, arazo horri heldu zaio lehen Euskal Autonomia Erkidegoko erakundeen erantzuna deskribatzean.

Aholku Sarea, Atzerritartasunaren alorreko Euskal Zerbitzu Juridikoa, Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailak sustatzen duen sarea da, helburutzat hartuta atzerritartasunaren alorreko aholkularitza juridikoa ematea zaugarritasun egoeran dauden etorkinei eta profesionalei -herri-administrazioetakoei eta hirugarren sektorekoei, etorkinekin inklusio-prozesuetan diharduten heinean-.

Zerbitzu honek, eremu publiko eta pribatuetatik elkarrekin lan egin eta parte hartzearen kontzeptuarekin lerrokatuta, lau agente-motaren partaidetza du. Hauek dira agenteak, zehazki: 1) Saileko Familia Politikako eta Aniztasuneko Zuzendaritza, sarea koordinatu eta bateratzeko erantzukizuna duena; 2) Biltzen, Integrazioko eta Kultura arteko Bizikidetzarako Euskal Zerbitzua, bertaratu beharrik gabeko arreta ematen duena (telefonoa eta posta elektronikoa); 3) zazpi gizarte-erakunde (Cear-Euskadi, Gurutze Gorria-Euskadi, Bilboko Elizbarrutiko Caritas, Kosmopolis, SOS-Arrazakeria Gipuzkoa, LAIZ-CCOO eta Adiskidetuak); 4)

Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako Abokatuen hiru elkargoak. Gizarte-erakundeek eta abokatuen elkargoek aurrez aurreko arreta ematen dute, baina elkargo profesionalek deribazio baten ondoren egiten badute ere, *Biltzen*, Integrazioko eta Kultura arteko Bizikidetzarako Euskal Zerbitzutik zein gizarte erakundeetatik.

Eraketa horri esker euskal lurralde osoa estali eta udalerrri eta eskualde kopuru garrantzitsu batean zabal daiteke, behar duten pertsoneri hurbiltasun desiragarri bat emanez. Gainera, sareko lanak osotasuneko ikuspegia ematen du autonomia mailan, eta horrek atzerritarren arloaren alderdi arautzaileen ikuspegi integral bat ahalbidetzen du.

Barakaldon, Immigrazioaren eta Dibertsitatearen Kudeaketaren Udal Zerbitzuak, zein bere atalean aipatuko diren beste zerbitzu batzuekin batera, atzerritarren arloko aholkularitza juridikoko zerbitzua ematen du. Handik, atzerritarren edo haien senideen egoera juridikoari eragiten dieten zenbait konturi buruzko aholkua ematen du. Hura eskuratzeko, lehenago Barakaldoko Udaleko oinarrizko zerbitzuen edo gizarte arretako zerbitzu espezializatuen deribazioa behar da. Haien artean etxerik gabeko pertsonentzako arreta taldea dago.

Argia izan daitekeenez, azterlan honek aztertzen dituen gazteak orientazio eta aholkularitza zerbitzu horien erabiltzaile dira, bakarrak ez badira ere.

Hamen programan, aldiz, familia-erreferenterik gabeko gazte migratzaileek eskusiboki jasotzen dituzte orientazioa eta aholkularitza juridikoa. Bizkaian lan egiten duten gizarte erakundeen partzuergo batek sustatzen du (Cáritas Bizkaia, Ellacuría Fundazioa, Izangai, Harribide, Peñascal Fundazioa eta CEAR-Euskadi). Programa Bizkaiko Foru Aldundiko Enplegua, Gizarte Inklusioa eta Berdintasuna Sustatzeko Sailaren funts publikoekin finantzatzen da, eta aholkularitza juridikoa prestazio multzo zabalago batean biltzen du, gazte horiek gizarteratzeko ibilbideak sortzeko.

Jasotako erantzunen artean **Irungo** Udalak berariaz adierazi digu erroldan izen emateko modua. Arartekoak badaki beste udal batzuetan ere jardunbide bermatzaileak daudela erroldan izen emateko prozeduran. Nolanahi ere, Irungo Udalak bere erantzunean berariaz adierazi duenez, era horretan jasotzen dugu dokumentu honetan. Hala, eskubideak (osasuna, hezkuntza, etxebizitza, etan.)

materialki eskuratzean erroldarik ezak sortzen dituen zailtasunak ikusita, Udalak gizarte erroldatzea sustatzen du gizarte zerbitzuetan udalerrian nolabait errotuta dauden pertsonentzat. 2019an 18-23 urte arteko familia-erreferenterik gabeko 6 gazte migratzailek lortu zuten gizarte errolda udalerrian.

4.2. Arazoentzako erantzun oso baten beharrianaren aurrean.

Lehenago, interesagarria da esatea, galdetutako administrazio batzuen erantzunetan jasotako zalantza batzuk ikusita, ez dirudiela argi dagoenik nori dagokion gazte horiei arreta emateko eskumena. Gizarteratzeko foru gizarte zerbitzuei begiratzen zaie zuzenean, gizarte-bazterketa egoeran dauden pertsonen arretako eskudun gisa. Galdera da familia-erreferenterik gabeko gazte migratzaileak bazterketa-egoera larri edo moderatuko pertsonak diren.

Egindako diagnostikoan batez ere bizi autonomiari lotutako premiak agertzen dira. Halakoei zenbait sistema publikok ematen diete arreta, eta hori bat etorriko litzateke ideia honekin: pertsonen ongizatea ez da bakarrik gizarte zerbitzuen sistemaren zeregina, sistema horiena guztiena baizik, koordinatuta eta efizientziaz jardunda. Izan ere, gizarte zerbitzuen sistema pertsonei euren autonomia eta gizarteratze mailetan aurrera egiteko aukera eskaintzen dien azken sare hori litzateke, baina ez behar litzaketen ondasun guztiak –ordez- emanez, haiek aktibatzen lagunduz baizik.

Bestalde, gazte horietatik gehienek trebetasunak dauzkate euren burua zaindu, gobernatu eta harremanak izateko, eta erresilentzia pertsonaleko gaitasun egoki bat, eta horrek gizarte-bazterketan dauden pertsonen ezaugarrietatik urruntzen ditu. Pentsa liteke, behar diren laguntzekin, euren emantzipazio prozesuak zuzendu litzaketela, zeinetan euren bizitzak autonomiaz aurrera eramateko behar diren elementuak biltzen baitira. Ideia hori bat letorke batzuek defendatzen duten ildoarekin: jatorrian, gazte horien premiak enpleguari eta etxebizitzari dagozkiela, eta horrek berez ez lukeela gizarte-bazterketako egoera bat justifikatuko, izatekotan, gizarte-bazterketa arriskukoa baizik. Baina, era berean, posible da sistema publiko guztiek konturatu behar izatea gazte horiek zer egoera berezitan dauden euren prestazioak, beharrezkoa balitz, egokitzeko eta pertsona horiei ere eskaintzen dituzten ondasunak eskuratzen uzteko.

Ikuspegi hori bat dator aurreko kapituluan azaldutako beharrian osoen ideiarekin, orain eskaintzen ari zaien erantzunaren gabezia garrantzitsu gisa ere aipatuta: arretaren berariazko diseinu global baten premia. Haien errealitateari osotasunez begiratu eta zerikusia duten sistema publikoek abiarazi, indartu edo egokitu beharreko neurriak bideratuko dituen plan, programa, ekimen... bat. Ildo horretatik

mugitzen da Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailaren ekimena. Jakinarazi duenez, duela zenbait hiletik hona Eusko Jaurlaritzako sail batzuk batera ari direla lanean foru aldundiekin eta EUDELekin estrategia bat abian jartzen. Estrategia horrek, betebeharren eta eskubideen kontratu baten bidez, babesgabetasun egoeran dauden adingabe eta gazteei helduarora igarotzeko prozesua eta bizi autonomoko proiektu bat gauzatzea erraztuko dizkie. Pertsona horien artean, familia-erreferenterik gabeko atzerriko nazionalitateko gazte migratzaileak leudeke. Diotenez, strategiaren zirriborroa amaituta dago ia eta hura gauzatzean, sail horrek, abian jarriko ditu dokumentu horretan jasotako konpromisoak lortzeko ekintzak.

Ekimen hori oraindik proiektu fasean egonda, gaur egun erantzunik osoenak (aurreko kapituluan adierazitako premia biri edo gehiagori erantzuna ematen dietelako) foru aldundiek euren gizarteratzeko gizarte zerbitzuetatik eskaintzen dituztenak dira. Kategoria horretan jartzeko elementu erabakigarria lagun egiteari eskaintako gainerako prestazio eta zerbitzuen funtsezko prestazio integratzaile gisa ematen dioten eginkizun garrantzitsua da.

Arabako lurraldean, aldiaren batean foru aldundiaren tutoretzapean egon diren gazteek -haien artean daude azterlan honek hizpide dituenetako batzuk-, egoera jakin batzuetan, abegi-ondoko jarraipeneko programa eskura dezakete. Programa hezkuntza talde baten tutore-laguntza batean datza, helburu orokorra gaztearen autonomia eta heltze prozesuan lagun egiteko izanik, eta gazte horiek behar dituzten orientazioak ematen ditu. Kasu batzuetan ostatuaren alokairua eta mantenua, zein gizarteratzeko prozesuak sortutako edozein gastu, ordaintzeko prestazio ekonomikoak izapidetzea jasotzen da.

Gazteak programan parte hartzea eskatu behar du, eta onartua izateko, baldintza batzuk bete behar ditu: balorazio-batzordeak jatorrizko baliabideko profesionalak egindako proposamenaren balorazio positiboa egitea, proposatutako lan-plana eta jarraipena onartzea, aurreko baliabideetan oinarritzko autozaintza, gizarte eta autogestioko trebetasun batzuk eskuratu izana, programa aprobetxatuko dela ziurtatzeko, jatorrizko baliabideko profesionalen laguntzaz egoitza aukera egoki bat aurkitu izana, jatorrizko baliabidean jokabide orokor onaren aurrekariak izatea eta gizarteratze eta laneratze prozesu bat hasi izana (zentzu zabalean ulertuta: enplegurako prestakuntza, enplegua aktiboki bilatzea...).

Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeko Adingabeen eta Familiaren Arloak emandako informazioaren arabera, 2018an programan parte hartu zuten 49 gazteetatik 31 bakarrik zeuden atzerritar gazteak ziren, eta 2019an 38tik 24 ziren. Ez dute jakinarazi haur baliabideetatik irtendako gazteetatik zenbatek ez zuten parte hartu abegi-ondoko jarraipeneko programa horretan.

Bizkaiko lurraldean, Enplegua, Gizarte Inklusioa eta Berdintasuna Sustatzeko Saileko Gizarteratzeko Zerbitzuak gazteei arreta emateko estrategia garatzen du.

Estrategia hori bazterketa prebenitzeko bi programatan egituratzen da; batek laguntza eskaintzen die gizartera egokitu ezinako jokabideak dauzkaten gazteei, eta bigarrenak laguntza eskaintzen du erreferentziako heldurik ez daukaten gazteak heltzeko prozesuetan. Bigarren hori ez da bakarrik gazte atzerritarrentzat, eta familia-erreferenterik gabeko gazte migratzaileen prozesuetarako arreta ildo bereizi batean kokatzen da, premia bereziak baitauzkate.

Maiatzaren 21eko 59/2019 Foru Dekretuan definitzen denez, gazteei arreta emateko estrategia *“Prebentzio-programa bat da erabiltzaile gazteei emantzipatzen eta heldutasunerako trantsizioa egiten laguntzeko eta baliabide pertsonalak emateko dena; haren bidez, emaitzak lortu nahi dira gazteen harreman-inklusioan (familiako sareak, sare afektiboak eta sare komunitarioak sortuz eta mantenduz), eta, modu transbertsalean, ekintzak egin nahi dira bizi-autonomian duten galera eteteko.”*

Hauek dira gazteen arretari lotutako zerbitzuak:

- Eguneko zerbitzuak, balio anitzeko prestazio multzo bat eskaini eta inklusio-ibilbidean banakako lagun egitea bermatzen duten prestazioen multzo bat eskaintzen dituztenak. Erabiltzaile guztiekin, hots, bai euren ingurune komunitarioko ostatu normalizatuan bizi direnekin, zein egoitza zerbitzuen erabiltzaileekin, egindako esku-hartzea bideratzeko erreferentziatzko esparru fisikoa da.
- Laguntza intentsitate handiko egoitza zerbitzuak, aldi baterako direnak eta eguneko zerbitzuaren bidez egindako esku-hartzea osatzeko; gizarteratzeko laguntzak dituzten etxebizitzak dira. Esku-hartzearen lehenengo fasean, ostatu normalizatueta igaro aurreko urrats gisa testuinguru egituratu eta egituratzaile bat behar duten erabiltzaileentzat dira.

Familia-erreferenterik gabeko gazte migratzaileen prozesuetarako arreta lerro bereziko programa hauek aipatzen ziren:

- Zubia programa: 67 plaza eskaintzen dira, haietatik 7 egoitzako eta eguneko zerbitzuko arreta konbinatukoak, eta beste 60ak eguneko zerbitzukoak, ingurune komunitarioko ostatu laguntzarekin.
- Ghadaan programa: 57 plazakoa, haietatik 7 egoitzako eta eguneko zerbitzuko arreta konbinatukoak, eta beste 50ak eguneko zerbitzukoak, ingurune komunitarioko ostatu laguntzarekin.
- Aktibitate programa: eguneko zerbitzuko 15 plazakoa, ingurune komunitarioko ostatu laguntzarekin.
- Hemen programa: eguneko zerbitzuko 160 plazakoa, gazteen lagun egitearekin.

Familia-erreferenterik gabeko emakume gazte migratzaileen kasuan, arreta Gizarteratzeko Zuzendaritza bereko Emakumeak Babesteko eta Familiei Laguntzeko Zerbitzuak ematen du, eta emakume gazteen arretarako berariazko bi egoitza baliabide dauzka (Artagan eta Maitesuma), gazte horiek ere erabil ditzaketenak.

Programa horien esparruan prestazio hauek bermatzen zaizkie erabiltzaileei: gizarte eta hezkuntzaren arloko eta arlo psikosozialeko esku-hartzea; bitartekaritza; eta bizi independenterako laguntza, hots, arreta pertsonala eta etxekoa, ingurune komunitarioan ostatua lortu eta kudeatzea eta laguntza ekonomikoak kudeatzea barne. Halaber, prestazio osagarriak ere eskaintzen dira; mantenua, arreta juridiko-administratiboa, aisia eta komunitateko parte-hartzea.

Kolektibo horren prozesuei laguntzeko, gainera, Bizkaiko Aldundiko Enplegua, Gizarte Inklusioa eta Berdintasuna Sustatzeko Sailak inklusiorako laguntza bereziak bideratzen ditu. 2020rako 372,97 eurokoak, eta beka osagarri bat ingurune komunitarioko etxebizitzak erabiltzen dituzten eguneko zentroetako erabiltzaileen ostatu gastuetan laguntzeko, 160 eurokoa gehienez.

Programak gehienez bi urtez irauteko daude pentsatuta, eta bi alditan luzatu daitezke, bakoitza 6 hilekoa. Egoitza zerbitzuek esku hartzen dutenean, iraupena gehienez 6 hilekoa da, antzeko aldi baterako luzatu daitekeena.

Gazteei arreta emateko estrategian sartzeko, gizarte-bazterketaren balorazio eta gizarte diagnostiko espezializatua egin behar da, edo foruko Haurren Zerbitzuak deribatu behar du. Haurren Zerbitzua kokatuta dagoen Gizarte Ekintza Sailak jakinarazi du zerbitzu bien arteko deribazio-protokolo bat dagoela Gizarteratze Zerbitzuak ezarritako baldintzak betetzen dituzten gazteentzat. Adin-nagusitasunera iritsi baino hiru hilabete lehenago aktibatu ohi da eta haren barruan pertsona horri buruzko informazio xehearen bidalketa osoa sartzeko, arretaren segida ziurtatzeko.

2018an 219 gazte iritsi ziren adin-nagusitasunera foruko Haurren Zerbitzuak hartuta egonda eta, haietatik, 95 (% 43,4) Gizarteratze Zerbitzura deribatu zituzten. 2019an, 206 (% 45,8) deribatu ziren, adin-nagusitasunera iritsi ziren 450etatik.

Arau orokor gisa, Haurren Zerbitzuak adin-nagusitasunera iristen diren gazteen egonaldia tarte labur baterako luzatzen du, 2 eta 4 aste bitartean, foru aginduaren izapidetzea eta haien ematea formalizatzen eta, hala badagokie, programa berrira igarotzen amaitzeko. Gizarteratze Zerbitzua eskuratzen ez dutenean, eta ikusten denez, azken bi urteetan kasuen erdietan baino gehiagotan gertatu da hori, lotura errazten zaie udal gizarte baliabideekin (haiei buruz mintzatuko gara geroago, oinarrizko premien estalduraz aritzeko) eta laguntza ematen duten hirugarren sektoreko entitateekin. Salbuespeneko kasuetan baino ez da baimentzen tutoretzan egondako gazteari haurrentzako baliabideetako egonaldia bere premiak gutxieneko

neurri batean asetzen dituen egoitza aukera bideragarri bat aurkitu arte luzatzea, batez ere osasun arazo garrantzitsuren bat egonez gero. Oraintxe 4 gazte daude egoera horretan.

Gizarteratze Zerbitzuko arduradunek familia-erreferenterik gabeko gazte migratzaileentzako programei lotuta aipatzen duten zailtasun nagusiak, hain zuzen ere, bolada labur batean plaza eskaera duten gazteen kopuru zabalarekin du zerikusia, haientzat ez baitago plaza nahikorik duen sarerik. Haurrentzako zerbitzuetatik deribatutako gazteen kopuru horiei gehitu behar zaizkie adin nagusikoak izanda haiek zuzenean sartzea eskatzen duten gazteenak. Gauzak horrela, 2018an sarrera berriak 204 dira eta 2019an 295. Hala, eskari bat, 2019ko ekitaldian hileko hogeita bost kasuren inguruan kokatzen zena, eta programetako txandakatze urria uztartzen dira, haietan geratzeko indizeak, oro har, esku-hartzearen iraunaldi osoa hartzen duelako (2+1 urte), eta emaitza gazte horiei arreta emateko jarritako baliabideek gainezka egitea eta itxaronzerrendak areagotzea da.

Egoera horregatik jarri da martxan Bidea Lantzen aldi baterako programa. Haurren babes sistematik irtendako pertsonentzat pentsatuta dago, gazteei arreta emateko estrategian plaza eskatuta, bertan sartzearen zain daudenerako. Programa horrek ostalua eta mantenua ematen ditu, beste prestazio batzuek gain: gizarte-laguntza (errolatzea lortzeko laguntza, prestakuntza eta lanerako orientazioa eskuratzea...); gizarteratzeko laguntza izapidetzea; laguntza juridikoa dokumentazio eskaerak eta bizileku- eta lan-baimenak izapidetzeko. Gaur egun, programak 233 plaza eskaintzen ditu, eta, horren osagarri, gaur ostalua emateko gune bat dago, "kaleko" ibilbideak saihesteko.

Gipuzkoan, Foru Aldundiak GazteOn SareLan programari buruzko informazioa eman du. Haren itxaropena lurralde mailan emantzipatzeko berariazko arreta eredu bat eskaintzea eta, egungo jardunbideen aldean, gazteen autonomia garatzea ahalbidetuko duten testuinguruak sortzeko ahalmena hobetzea da, haien banako beharizanetara egokitzeko malgutasunez. Gainera, arreta osoa eta hausturarik gabea eskaini nahi du 16 eta 23 urte bitartean eta haren dimentsio komunitarioa hobetu. Gazte bakoitzaren garapen pertsonal osoan lagun egitea oinarri hartuta, zenbait prestazio bideratzen ditu eta, egoitzaren arloan, bi etxebizitzatan banatutako 8 plaza dauzka.

Nolanahi ere, programa hau oso ezarri berria izanik oraindik, familia-erreferenterik gabeko gazte migratzaileentzako arreta Indarkeria Matxistaren Emakume Biktimen Arretako eta Gizarteratzeko Zerbitzuaren zerbitzuak eta prestazioak uztartzuz eskaintzen da, hala nola:

- Lagun egiteko programa espezializatua: arreta anbulatorioko gizarte eta hezkuntza zerbitzua, gazteak parte hartzen duen esparru komunitarioan, profesional batekiko elkarrekintzan (erreferentziako hezitzailea), laguntza

harreman batean. Harreman horren helburu orokorra autonomiaz bizi eta gizarteratzea da. Programa 4 erakundeak kudeatzen dute eta 18-23 urteko gazteekin lan egiten du berariaz. 2018an 125 gazteri eman zien arreta eta 2019an 131ri; haietatik 15 eta 30, hurrenez hurren, Haurren Zerbitzuak deribatu zituen.

- Gizarteratzeko laguntza ekonomikoa: dirulaguntzako prestazio ekonomiko hau jasotzeko gaztearen parte-hartzearekin eta lagun egiteko programa espezializatutik eskaintzen den gizarte eta hezkuntza laguntzarekin gauzatzen den inklusio-plan bat bete behar da. 2018an 118 gazte migratzailek jaso zuten laguntza hori eta 2019an 128k. Haietatik, hurrenez hurren, 15 eta 18 Haurren Zerbitzuetatik zetozen.
- Gazteak gizarteratzen laguntzeko etxebizitzak: egonaldi ertain eta luzeko egoitza zerbitzu hauek erabiltzaileen gaitasun eta trebetasun pertsonalak eta harremanetarakoak hobetzeko laguntza eskaintzen dute. Haien xedea gabezia psikosozialak dauzkaten eta intentsitate ertaineko laguntza psikosoziala behar duten 18-23 urteko pertsonen bizitza komunitatearen testuinguruan ahalbidetzea da. 2018an 114 gaztek erabili zituzten zerbitzu horiek, haietatik 53 Haurren Zerbitzuak deribatuta. 2019an 122 gazte izan ziren, 49 haurrak babesteko gizarte zerbitzuetatik iritsita.
- Gazteak gizarteratzeko egoitza zentroa: 18-30 urteko pertsonentzat dira, etxerik ez dutenean, gabezia psikosozialak daukatenean eta, beraz, intentsitate ertain-altuko laguntza psikosoziala behar dutenean.

4.3 Oinarrizko eta ostatu beharrianak estaltzea.

Aurreko atalean azaldutako diagnostikoak adierazten zuen gazte horiek emantzipatzeko laguntza premiei erantzun osoagoa eskaintzen dituzten programak (aurreko puntuan aurkeztu direnak) gainezka daudela eta ondorioz kontuan hartzeko moduko gazte kopuru batek ez dauzkala estalita euren premiarik oinarrizkoenak (elikadura, arropa, ostatua, etab.). Gehienak biztanleria handiko hiriguneetan pilatuta, udalerrri horietako zerbitzu publikoak saiatzeko dira egituratuta eta arauz esleituta⁴⁴ dauzkaten gizarte zerbitzuetatik, hala nola bazterketa arriskuan dauden pertsonentzako zerbitzuetatik, haien beharriari erantzuten. Elikadura, higiene eta arropa premiei ematen diete arreta, gizarte jantokien, erosketa-bonoen edo bizitzeko gutxieneko prestazio ekonomiko txikien bidez. Ostatu premiak bazterketa altuko pertsonentzako egoitza zerbitzuetako egonaldien bidez

⁴⁴ 185/2015 Dekretua, urriaren 6koa, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren prestazio eta zerbitzuen zorroari buruzkoa.

Eguneko arreta zerbitzuak (1.7), gaueko harrera zerbitzuak (1.8), Bazterketa arriskuan dauden pertsonentzako ostatu/tutoretzapeko etxebizitza zerbitzuak (1.9.2)

(aterpetxeak, hotzaren baliabideak, tutoretzapeko etxebizitzak), edo gela bat eskuratzeko prestazio ekonomikoekin ere bai. Hau litzateke ikuspegi apur bat xeheagoa:

Gasteizen, udal zerbitzuek euren gain hartzen dute hirira adin nagusikoak izanda (edo fiskaltzaren dekretu batek halakoak direla erabakita) iritsi diren familia-erreferenterik gabeko gazte migratzaile guztien arreta, baita, haurrentzako foru gizarte zerbitzuen harreraren pean egonda, adin-nagusitasunera iritsitakoan, aurreko atalean azaldutako abegi-ondoko jarraipeneko programa eskuratzen ez duten gazteena ere. Tutoretzapeko etxebizitzetan izan ezik, gazte horiek zerbitzu orokorretatik jasotzen dute arreta, batez ere:

- Dirulaguntza motako eta izaera finalistako udal prestazio ekonomikoak. Udalerrian erroldatuta egon behar da eta eskuratzeko gizarte zerbitzuetako teknikarien balorazio profesionala behar da eta haiekin definitutako esku-hartze plana bete. Beste xede batzuetarako ere egon arren (etxebizitza, gizarte eta osasunekoak, norberaren gastuak, hileta gastuak...), hauek dira gazte horiek gehien erabiltzen dituztenak:
 - Oinarrizko premietarako prestazioak, diruzkoak (elikagaiak, higiene-produktuak, arropa/oinetakoak eta farmaziako gastuak) eta ez-diruzkoak (erosketa-bonoa dendetan gastatzeko –elikadura eta higiena-, eta gizarte jantokia).
 - Txertatzeko laguntzak.
- Egoitza premiak estaltzeko zerbitzu horien arabera gazte horientzat erantzunik egokiena tutoretzapeko etxebizitzak dira. Bizitegi-bazterketa egoeran dauden pertsona eta familientzat izanda, bizitza autonomo bat lortzeko tarteko pausutzat hartzen da. Programak 65 plaza dauzka hiriko zenbait aldetan dauden etxebizitzaren sare batean eta gizarte eta hezkuntzako diziplinarteko taldeak arduratzen dira.
- Tutoretzapeko etxebizitzetan ez dago plaza nahikorik eta, beraz, haiek eskuratzen ez dituzten gazte migratzaileak ostatu orokor hauetara deribatu eta bertan jasotzen dute arreta: Etxe Irekia udal zentroa (mantenua duten 10 ostatu plaza + erantsitako 4 plaza), Aterpe gaueko udal zentroa (30 plaza) eta neguko ostatu dispositiboa.

2019an Gasteizko Udaleko gizarte zerbitzuek 18-23 urteko familia-erreferenterik gabeko 142 gazte migratzaileari eman zieten arreta.

Bizkaian, Bilboko Udalak, hasteko, esan du adin-nagusitasunera iritsitakoan babesik gabeko haurrentzako foru gizarte zerbitzuen egoitza-harrerako baliabideetatik irten eta aurreko atalean aurkeztu den emantzipatzeko programetan tokirik ez dutela bakarrik dauden atzerritar adingabeak (Bizkaiko aldundiko Gizarte Ekintza Sailak emandako datuaren arabera, adin-nagusitasunera iristen direnen % 50 baino

gehiago lirateke), kalean geratu ohi dira zuzenean, batez ere hirigune handieran, hala nola Bilbon. Gazte horiei bazterketaren arloko zerbitzuetan arreta ematea egokia izatea gutxienez zalantzarria dela uste badute ere (haien ustez, haien errealitatea gehiago da hezkuntzaren eta enpleguaren arlokoa), zerbitzu horiek erabiltzen dira emantzipatzeko programetan sartu ez eta Bilboko lurraldean geratzen diren familia-erreferenterik gabeko gazte migratzaileei erantzuna emateko.

Bilboko Udalak baliabide bazterketa-egoeran dauden pertsonen kasu egiteko dauzkan baliabideetatik, hauek erabiltzen dituzte gazte horiek: 4 aterpetxe eta gaueko zentro, 200 plazarekin (100 gehiago negu sasoiari); 4 gizarte jantoki, 650 zerbitzurekin egunean; Itaka Fundazioarekin itundutako tutoretzapeko etxebizitzako 10 plaza; gizarte-larrialdiko laguntzak; eta etxerik gabeko pertsonekin esku hartzeko programa. Gizarte-larrialdietako Udal Zerbitzuak (GLUZ), funtsezko premien programan, 18-23 urteko 515 atzerritar gazteri eman zien arreta 2019an.

Barakaldon ere badaude atzerritar gazte horietako asko, eta hango udalak ere bazterketa-egoeran dauden pertsonentzat jarritako baliabideetatik egiten die kasu haien premiei. Bi dira, zehazki, laguntza intentsitate urriko gisa definituak biak eta Goiztiri elkarteak kudeatuak:

- gaueko harrera zerbitzua, 28 plazakoa (joan den neguan beste 7 gehitu zitzaizkien). 2019an arreta emandako 177 pertsonetatik 24 (% 13,6) 18-23 urteko gazte migratzaileak dira, batez ere Marokotik iritsitako gizonak (% 90).
- *Bidaide* eguneko arreta zerbitzua, oinarrizko elikadura eta higiene premiak estaltzeari lotua, 30 plazakoa, baina batez beste 70 pertsonari ematen die arreta egunean. 2019an arreta emandako 292 pertsonetatik 44 (% 15,1) 18-23 urteko gazte migratzaileak dira, gehien-gehienak gizonak (emakume bat baino ez) eta Marokotik iritsiak.

Bi udal zerbitzu horiez gain, Goiztiri elkarteak Lortu harrera programa programa dauka martxan, Eusko Jaurlaritzak diruz lagundua. 16 plaza dauzka (3 etxebizitza) eta honela dago definituta: egoitza zerbitzua bizitegi-bazterketako egoeran eta harrera fasean dauden migratzaileen oinarrizko premiak konpontzeko eta haiek gizarteratzea eta gizarte eskubideak eskuratzea ahalbidetzeko. Programaren arreta jaso duten 37 lagunetatik, 14 (% 37,8) 18-23 urtekoak dira eta, bi izan ezik, gainerakoak gizonetzkoak, Magrebkoak denak (Marokoko 13 + Algeriako 1).

Gipuzkoako lurralde historikoan, Donostiako Udalak jakinarazi du gazte migratzaileentzat berriaz zuzendutako jarduketara bakarrik gela bat eta bizitzeko gutxienezko bat eskuratzeko prestazio ekonomikoak ematea dela. Prestazio horiek errazago eskuratzeko ohiko baldintzak malgutu ziren, hala nola errentamendu-kontratu bat egotea edo pertsonak laguntza ordaintzen zaion eta bizi den toki berean erroldatu beharra. Baldintza horietan, 2019an 48 pertsonari eman zitzaien

laguntza. Gainerakoan, gazte horiei bazterketa-egoeran dauden pertsonentzako zerbitzuen saretik ematen diete arreta.

Irun udalerriri mugan egoteak garrantzi berezia ematen dio, eta hango udalak esan du, gazte horiei errolatuta ez egoteak prestazio ekonomiko normalizatuak eskuratzea oztopatzen dienez, ohikoa aurreko errolatze epe bat eskatzen ez duten udal programak eta prestazioak eskuratzea dela. Hauek dira:

- laguntza ekonomiko berezien programa, unean unekoa eta prestakuntza eskuratzeko garraio premietarako, bitartekaritzarako eta ezinbesteko agiriak kudeatzeko gastuetarako, eta abarretarako pentsatua. Urtean 15 inguru ematen dira (aztertutako xede profilarekin bat datozenak).
- Udalaren gizarte eta hezkuntza programa, gizarte eta hezkuntza laguntza ematen duena, gizarte hezitzaileen bitartez. Oso kasu jakinetan erabiltzen da, eta hala islatzen da kopuruan: 5 kasu baino gutxiago urtean.
- Gaueko harrera zerbitzua, gaua pasatzeko, jateko, higienerako eta hezkuntzan lagun egiteko prestazioekin. 88 gaztek erabili zuten 2019an egonaldi laburretan.
- Eguneko arreta zerbitzua, jateko, higienerako eta hezkuntzan lagun egiteko zerbitzuak ematen dituena. 2019an 92 gazteri eman zien arreta.

Zerbitzu horiei 5.1. puntuan aipatutako gizarte errolatzea, eta gazte horiekin esku-hartze programak garatzen dituen hirugarren sektorearekiko (Cáritas, Gurutze Gorria...) koordinazioa lehen mailako arretako gizarte zerbitzuetatik.

Ostatuari dagokionez, eta kontuan hartuz oinarrizko premien estaldura aztertzen ari garela, derrigorrez aipatu behar da gizarte ekintzako hirugarren sektoreko entitateek emandako arreta. Hala, azalpen honetan datu hau sar daiteke: Eusko Jaurlaritzako Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saileko Etxebizitza Sailburuordetzak babes publikoko etxebizitzak laga dizkie gizarte erakundeei edo beste administrazio publiko batzuei. Sail horrek baieztatu du aukera oso gutxi dagoela familia-erreferenterik gabeko gazte migratzaile horiek etxebizitza publikoaren alokairua eskuratzeko; izan ere, bizileku-baimena indarrean izan behar da eta lau urteko antzintasuna Etxebide Etxebizitza Eskatzaileen Erregistroan. Hala ere, bere txostenean dioenez, gaur egun Sailak babes publikoko 96 etxebizitza dauzka lagata zenbait kolektibok erabiltzeko, eta haien artean migratzaileak aipatzen dira.

4.4 Enplegua eta kualifikazioa.

Enplegua eskuratzearen arloan, erakundeen erantzun urria emantzipatzeko programetatik, lanaren ikuspegitik, emandako arretari laguntzeko edo hura osatzeko programetan gauzatzen da. Hala aurkezten du, behintzat, Bizkaiko Foru Aldundiko Enplegua, Gizarte Inklusioa eta berdintasuna Sustatzeko Sailak, “enplegu bizkorgailuaz”, bere Enplegua Sustatzeko Zuzendaritza Nagusiak kudeatzen duen zerbitzuaz. Esparru horretan eta apirilaren 7ko 13/2020 Errege Lege Dekretuaren babesean, 80 gaztek aldi baterako lanpostuak eta lan-baimenak eskuratu dituzte.

Ilido berean kokatzen da duela gutxi –2020ko uztailen- gazte erakundeentzat egin zen gizarte erakundeentzako dirulaguntza deialdia, babes-sistema utzi duten 18-23 urteko gazteentzako enplegu eta prestakuntza ibilbideak ezartzeko.

Zehazki, Gazte On programan partaidearen diagnostikoa, orientazioa eta lagun egitea, gaitasunen eta trebetasunen garapena, prestakuntza eta lanbide-esperientzia sartzan dira. Programa horretan Lanbiden izen eman edo erregistratutako pertsonen parte har dezakete eta partaide bakoitzak hileko 537,84 euroko laguntza ekonomikoa jasotzen du, gehienez 12 hilabetez kobra daitekeena. Familia-erreferenterik gabeko 120 gazte migratzaile ari dira parte hartzen programan.

Arestiko programan ikusten denez, lan-merkatuan sartzeari **lan- edo lanbide-kualifikazioari** estuki lotuta dago.

Gazte horien beharrezko buruzko kapituluan aipatu denez, arlo horretan gaur egun erantzun nagusia enplegurako prestakuntzaren azpisistemak edo, nahi bada, **Lanbide** Euskal Enplegu Zerbitzuak ematen du. Erakunde horrek jakinarazi duenez, gaur egun, gazte horiek kualifikazio urriko gazteentzako berriazko programako prestakuntza ekintzak eskura ditzakete. Bertan DBH lortu ez duten 16-25 urteko gazte langabeek parte har dezakete, zenbait zioengatik, Lanbiden izen eman aurretik 2. mailako profesionaltasun-ziurtagiriak egiterik ez dutenean. Programa horrek gehienez 2 urte dirauen prestakuntza-ibilbide luze bat garatzen du. Oinarrizko mailako eta 1. mailako prestakuntza ekintzetan parte hartzeko baldintza prestakuntza ekintzaren komunikazio-hizkuntza ezagutzea da, hau da, gaztelaniaz prestakuntza aprobetxamenduz jarraitzeko beste jakitea. Gazte horietako askok maila baxua daukate gaztelaniaz eta, beraz, kalifikazio urriko gazteentzako programak garatzen dituzten erakundeek “gaztelaniako komunikazioko” ekintzak sartu dituzte, geroago lan bat garatzeko kualifikazio bat

lortu ahal izateko gaitasunetan prestatzeko behar diren gutxieneko hizkuntza gaitasunak emateko.

Gipuzkoako Aldundiko Gizarte Politiketako departamentuak, bestalde, halako ezaugarriak dituen programa baten berri eman du. Aktibazio, enplegarritasun, gizarteratze eta laneratze zerbitzuaren bidez eskaintzen da programa hori. Peñascal Fundazioak garatzen duen Hasi Gazte programak, euskarri nagusia ostalaritzako prestakuntza izanik, emantzipaziorako eta bizitza autonomorako beste trebetasun garrantzitsu batzuk lantzen ditu (gaztelaniazko ezaguera, euskarazko oinarrizkoa, matematika, gizarte eta zientifikoa; enplegurako orientazioa; administrazioari eta gizarterari buruzko ezaguera; etxeko ekonomia, gastuen plangintza eta kontrola; etxeko konponketa txikiak, etab.)

Oinarrizko gaitasunak eta ezaguerak ikasteari lotuta, Hezkuntza Sailak jakinarazi du Helduen Hezkuntzako Eskolan, prestakuntza arautuko moduluetan jasotako edukiez gain (Hastapeneko irakaskuntzak –I, alfabetizazioa eta II, ezagutzak finkatzea- eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza), beste prestakuntza arautu gabe batzuk ere ematen direla, helduen kualifikazioa hobetu eta nor bere kasa ikasteko eta bizitza soziokultural eta laborean parte hartzeko gaitasuna garatzeko. Talde horretan daude, besteak beste, gaztelania eta euskarazko ikaskuntza atzerritarrentzat. Zaila da zehaztea familia-erreferenterik gabeko zenbat gazte dagoen matrikulatuta, ordea, erregistro ofizialek ez baitute jasotzen familiarekin bizi direnetz. Nolanahi ere, Hezkuntza Sailak dio administrazio-egoera ez dela oztopo eskaintzen dituzten irakaskuntzetan parte hartzeko eta, gainera, malgutasun handiz jokatzeko dela prestakuntza ez-formalaren programazioan, ikastaroaren edozein unetan matrikulatzea onartuz eta berriazko taldeak sortuz eskariaren bolumenak hala eskatzen duenean.

Gaztelania ikasteko programak, edonola ere, ez daude bakarrik programa soziolaborean edo Helduen Hezkuntzako Eskolan. Galdetutako udal batzuek horri buruzko ekimenen berri eman dute, Gasteizko Udalaren gaztelaniako tailerretatik, zenbait gizarte erakunderen ekimenera. Barakaldo eta Irungo udalek, esaterako, haien berri eman dute.

Enplegurako kualifikatzeko programei dagokienez, Bilboko Udalak uste du prestakuntza eskuratzeko aukera duten pertsonen hura benetan aprobetxatu, prestakuntza zikloak amaitu, praktikak egin eta lan-munduan sartzen direla.

Azterlan honetan maiz errepikatu denez, enplegua eskuratzearen eta erregularizazio administratiboaren arteko lotura estua kontuan hartuta, interesgarria da jakitea Eusko Jaurlaritzako Familia Politikako eta Aniztasuneko Zuzendaritza lanean ari dela Zuzendaritza horrek gidatu eta Lanbideko koordinatutako lantalde bat sortzeko, atzerriko jatorria eta/edo nazionalitatea duten gazteen enpleguaren eta enplegurako prestakuntzaren berriazko arloko lana eta ekimenak indartzeko. Izan ere, 18-23 urteko gazteek ere balia litzakete ekimen horiek.

Amaitzeko, 2018tik Gipuzkoako Foru Aldundiak EHUrekin hitzarmena eginda garatzen duen Arrakasta programa aipatu behar da. Programa horren helburua haurrak babesteko sisteman egonda goi-mailako ikasketak eskuratu nahi dituzten gazteei laguntzea da. Nolanahi ere, aipatu diren inguruabarrak direla-eta, zaila da imajinatzea gaur egun familia-erreferenterik gabeko gazte migratzailearen bat unibertsitate-ikasketetan sartzeko moduan egotea.

4.5. Osasuna

Erakundeek osasunari lotutako premiei emandako erantzuna, nagusiki Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailetik eskaintzen da. Sail horrek azpimarratzen duenez, familia-erreferenterik gabeko gazte migratzaileen taldeak ez daukala berariazko laguntza-premiarik, baina osasun baldintzatzaile kaltegarriak pilatu ohi ditu. Hori dela-eta, izaera prebentibo eta komunitarioarekin, haren arazoei koordinatuta helduko liekeen gizarte eta osasun arreta esparru bat behar litzateke, bazterketa-egoerak ongizate eta osasun itxaropenak baldintzatzen dizkien beste talde batzuetako esku-hartzeen antzera.

Kolektibo honen premiei buruzko atalean onartu denez, oro har, orain irtenbide batzuk daude osasun-sistema publikoan sartzeko eta, izan ere, udal erroldan izen emandako edozein pertsonak, bere administrazio-egoera zein ere den (Osasuna Babesteko Programa), larrialdiko zein lehen mailako arretako osasun prestazioa eskura dezake osasun-txartel indibidualaren (OTI) bidez edo familia-mediku bat eta anbulatorio bat esleituz. Udal erroldan izen emanda ez dauden pertsonak, aldiz, larrialdiko zerbitzuetara baino ezin dute jo. Edozein inguruabarrengatik OTIrik ez duten pertsonak Osasun Sailak Gizarteratzeko IV. Euskal Planaren eta Etxerik gabeko Pertsonentzako Estrategiaren esparruan dauzkan programa eta ekimenetatik ematen zaie arreta. Plan horietan hartutako konpromisoek alde hauek lantzen dituzte: etxerik gabeko pertsonentzako kaleko arreta psikiatrikoa garatzea, baztertutako pertsonak osasun laguntza eskuratzea, osasun baliabideetara lagun egitea eta kaleko egoeran dauden pertsonak eriondoan arreta ematea. Suma daitekeenez, prestazio horiek bazterketa altuko egoeran dauden pertsonentzat daude pentsatuta eta, batzuetan, familia-erreferenterik gabe eta kaleko egoeran dauden gazte migratzaileek ere jasotzen dituzte.

Sailak dioenez, hiri eta metropoli ezaugarriak dituzten udalerririk jakin batzuetan maizago pilatzen dela familiaren laguntzarik gabeko gazte migratzailearen profila hori, hala nola hiru hiriburuetan eta Nerbioi ibaiaren ertz bietako udalerrietan. Hala, udalerririk horietan biztanleria dentsitate txikiagoa edo landa ezaugarriak dauzkaten beste udalerririk batzuetan garatu ez diren baliabideak daude, haietan ez dagoelako ezaugarri horiek dituen biztanle masa kritiko bat. Zerbitzu bakoitzaren berri emateko orduan, hau dio Sailak: *“Horrelako baliabideek, hots. substantzien*

menpekotasuna duten eta bazterketa-egoera larrian dauden herritarrentzako xedaturikoak bezalakoek. hiru baliabide dituzte Bilbon (egoitza, egunekoa eta ikuskaturiko kontsumo-gela), baztertuta dauden pertsonen susperraldirako baliabideak, kaleko psikiatria-baliabideak edo beste hiriburu batzuetan dauden eguneko baliabideak.”

Bilboko Udalaren eta Bizkaiko Osasun Mentaleko Sarearen artean etxerik gabeko pertsonentzat garatutako asertibotasunerako komunitate tratamenduko programa aipatzen da bereziki. Kaleko laguntza psikiatrikoko programa bat da eta, momentuz, Bilbo udalerrian garatzen ari da, Euskadin bertan pilotzen delako etxerik gabeko pertsona gehien. Izan ere, programa beste bi hiriburuetara, Donostia eta Gasteizera, zabaltzea aurreikusita egonda, ezaugarri horiek dituzten biztanleen masa kritiko urriak ez du ahalbidetu.

Bestalde, Sailak aipatu du gizarte eta osasunaren arloan gizarte erakundeekin egoitza-baliabideetan zein eguneko arretakoetan plazak eskaintzeko dagoen lankidetzak, osasun mentaleko arazoak dituzten gazteentzako programetan, baina ez ditu aipatzen gazteek haiek eskuratzeko bete behar dituzten baldintzak. Arartekoak daukan informaziotik ondorioztatzen da programa horietan sartzeko desgaitasun bati izan behar dela frogatuta, eta ezin da haren balorazioa lortu administrazio-egoera erregularrean egon gabe.

Bizkaiko Foru Aldundiko Gizarte Inklusioa Sustatzeko Zuzendaritzak programa baten berri eman du. Kolektibo horren prozesuetan osasunaren arloan laguntzeko da, berariazkoa mendekotasunei heltzeko, substantziarekin edo substantziarik gabe izan. Programa horrek eguneko zerbitzua, esku-hartze terapeutikoa eta bizitza independenterako laguntza dauzka.

4.6. Komunitatean integratzea

Komunitatean integratzearen arloan, aurreko kapituluan erabilitako ildoari jarraituz, honela aurkez daiteke erakundeen erantzuna: alde batetik, gazteekin bizi diren tokian bizitza sozial eta kulturean parte hartzea errazteko egin diren jarduketak kontuan hartuz eta, bestetik, harrera egiten duen komunitateko herritar guztientzako ekimenak, elkarreragin, truke eta batera parte hartzeko esparruak sustatzeko. Edonola ere, ez da ahaztu behar sailkapen hori aurkezpen ordenatuagoa egiteko egiten dela, komunitatean integratzea subjektu partikularren eta bera dagoen komunitatearen arteko dinamika interaktibo baten emaitza gisa baino ez baita ulertzen.

Gazteek bizitza sozial eta kulturean parte hartzea bultzatzeko egindako jarduketei dagokienez, haiekin zuzenean lan egiten duten erakundeen arabera, nahiko

orokorrean, komunitatean begirune eta bizikidetzaz jarreretatik komunitatean aktiboki parte hartzea sustatzeko jarduketak egiten dituzte. Hala azaldu du Arabako aldundiak haurrentzako harrera baliabideetatik oraindik adingabeak direnetaik haien emantzipazioaren aurreko etapetan egiten den lanaz mintzatzean, edo Gipuzkoako Foru Aldundiak, azpimarratzen duenean GazteOn SareLan programa komunitarioa dela.

Ildo beretik hitz egin du Bizkaiko Foru Aldundia, eta jakinarazi du gazte horientzako zerbitzuen saretik gizartean parte hartzeko eta aisiarako proposamenak egiten direla. Haien bidez, txangoak eta bisitak, topatzeko eta hitz egiteko esparru irekiak, boluntariotza-jarduerak eta bisibilizazio, sentsibilizazio eta errebindikazio jarduerak egiten dira. Jarduketa horiek pertsona bakoitzarekin laguntzatik egiten den lan osoan txertatuta daude. Gizarte parte-hartzearen arloan, hau da haren xedea: *“parte hartu nahi izateko sentsibilizatzea, parte hartzen jakiteko ikastea eta, azkenik, parte hartu ahal izateko antolatzea”*

Bilboko Udalaren jarduketa batzuk ere koka litezke lan-ildo horretan, berariaz familia-erreferenterik gabeko gazte migratzaileentzat pentsatuta dauden heinean. Ellacuría Fundazioarekiko hitzarmenean egindako programa bat da, eta haien gizarte parte-hartze eta bisibilizazio positiboa erraztea bilatzen du, sentsibilizazio, eragin eta boluntariotzako jardueren bidez, haien gizarte loturak indartu, herritar guztiekin topo egiteko guneak erraztu eta herritartasun aktiboa sustatu ahal izateko.

Barakaldoko Udaleko Immigrazioaren eta Dibertsitatearen Kudeaketaren Udal Zerbitzuak zerbitzu batzuk garatzen ditu migratuen harrera eta gizarteratzea errazteko, eta gazte horiek haien erabiltzaile dira. *Bidelagun* laguntza psikosozial transkulturalaren zerbitzuaren helburua migratuei egokitzeko prozesuan nazioz haraindiko ikuspegi sistemiko batetik laguntzea da. *Barakaldon bizi* lehen harrerako programa udalerrian oso errotuta ez dauden migratuentzat dago pentsatuta eta bertan oinarritzko informazioa eta orientabidea eskaintzen dira gizarte eskubideei, erakunde bilbearen funtzionamenduari, eta abarri buruz. Eduki horiek osatzeko badago hainbat hizkuntzako informazio eta orientabide gidaliburu bat.

Bigarren lan-ildoan, alegia, udalerrri bakoitzeko herritarrei zuzendutakoan, koka daitezke udal batzuek deskribatu dituzten sentsibilizazio eta kulturarteko bizikidetzako jarduketak. Irungo Udalaren kasuan, orokorrean aipatzen dira kulturarteko sentsibilizazioaren arloko udal jarduketak eta tolerantziako programak. Barakaldoko Udalak, bestalde, xeheago deskribatzen ditu bere immigrazioarako eta dibertsitatea kudeatzeko tokiko II. planak sentsibilizazioaren eta bizikidetzaren ardatzean abian dituen programak eta, kolektibo horrentzat berariaz pentsatuta ez badaude re, haien arreta eta heltzeko modua azpimarratzen dira, kolektibo hori bereziki estigmatizatuta dagoelako eta aurreiritzi eta zurrumurru faltsuak jasaten dituelako. Hauek dira programa horiek:

- Denbora Bankua, elkar-laguntzako harremanak kulturarteko ikuspuntu batetik sustatu nahi dituena.
- Elkarreak indartzeko eta migratuen elkarten parte-hartzea sustatzeko programak; haren bidez, tresnak eman nahi zaizkie etorkinen elkarteei euren antolakuntzaren funtzionamendua indartu, kulturartekotasuna sustatu eta gizartean aktiboki parte hartzea bultzatzeko. Gazte migratzaileen kolektiboari dagokionez, garrantzi berezia dauka Agharas –Barakaldoko berbere gazteen kultura elkarrea- egindako lana. Amazigh kultura eta kulturarteko bizikidetzak sustatzeaz gain, udal erakundeari laguntzen dio kolektibo horri lagun egiten eta sustatzen (gazelaniazko klaseak, hizkuntza bikoteak, lagun egiteak, bitartekaritza-interpretazioa...).
- Aniztasunaren eskolak berariaz heldu die gazte horien egoerari komunitate agenteen sarearen hileko topaketa batean.
- Barakaldoko gazteen artean aniztasuneko bizikidetzak sustatzea, prozesu gisa diseinatutako lan-ildoak. Haren xedea gazte migratuak, batez ere familia-erreferenterik ez dutenak, gimnasioetan, kirol-instalazioetan eta Gazte Bulegoak egindako aisia jardueretan sartu ahal izatea ziurtatzea da. Haren adierazpenetako bat Bizilagunak programan gertatu da (otordu bat eginez Gazte Bulegoaren lokaletan gaueko harrerako, eguneko harrerako eta Lortu udal programetako gazte migratzaileekin), baita Zurrumurruen aurkako Udal Estrategian ere (gazte talde jakin batekin).

Bilboko Udalak ere jakinarazi du gizartea zurrumurruen aurka sentsibilizatzeko estrategia batean parte hartzen duela eta Familia Politikako eta Aniztasuneko Zuzendaritzak zenbait jarduketara aipatu ditu, diskurtso politiko positiboa indartzeko, Herritartasunaren, kulturartekotasunaren eta immigrazioaren esparruan jarduteko V. planean jasotako helburuekin bat etorritik. Hala, jakinarazi du dekalogo bat prestatu dela diskurtso eta narratiba intolerante edo xenofoboaren aurrean, ZAS Zurrumurruen Aurkako euskal Sareak egindako "Usteak ustel!" egindako dokumentua argitaratu dela, eta kanpainak egin direla zenbait hedabidetan elkartasuna, bazterketarik eza eta migratzaileen eskubideen eta betebeharren parekatzea eskatuz.

Euskadin bazterketaren aurka borrokatzeko funtsezko tresna bat, nolahi ere, [Eraberean](#) da, 2014an Familia Politikako eta Aniztasuneko Zuzendaritzak arrazaren, etniaren edo nazioaren, eta sexu eta/edo genero joera edo identitatearen ziozko bazterketaren aurka borrokatzeko bultzatutako gizarte erakundearen sarea. Sareko erakundeek antena gisa dihardute bazterketa-egoerak hautemateko, balizko biktimei laguntza eta aholkularitza eskainiz. Sarearen erregistroetan, ordea, familia-erreferenterik gabeko gazte migratzaile batek salatutako kasu bat baino ez da ezagutzen. Sareak, bestalde, prebentzioko ikuspegi batetik, sentsibilizatzeko, agenteak prestatzeko, dibulgazioko materialak sortzeko... jarduketak ere egiten ditu.

Erlijioaren, kulturaren eta identitatearen arloko premiei dagokienez, gazte horiei zuzeneko arreta ematen dieten administrazioek (orain arte ikusi denez, foru aldundiak eta udalak, batez ere) diotenez, aurkeztu diren baliabide eta zerbitzuetan premia horiei kasu egiten dieten neurriak hartzen eta errazten direla, adierazpen jakinekin, hala nola txerrikirik ez duten menuekin, esanahi berezia duten jai erlijiosoak, hala nola Ramadana, bildotsaren jaia, Iftarra, etab. ospatuz. Bilboko eta Barakaldoko udalek komunikazio eta lankidetzan ona aipatzen dute euren udalerrietako musulman komunitatearekin –eta haiek parte hartzen duten elkarteekin-.

Eusko Jaurlaritzako Biktimen eta Giza Eskubideen Zuzendaritzak, bestalde, Euskadiko komunitate islamikoekin lankidetzan bizikidetzan sustatzeko Jarduera-Programan jasotako ekimen batzuen egoeraren berri eman du. Ekimen horiek azterlan honek hizpide dituen gazteei eragiten diete. Hauek nabarmentzen dira: Gurtzako-lekuei buruzko legea, zeinaren legebiltzarreko izapidetzea indargabetuta geratu baitzen 2019ko hasieran hauteskundeak deitzean, eta Elkarrizketaren agenda, ADOS aholku-batzordearekin batera komunitate islamikoak gehien kezkatzen eta arduratzen dituzten gaiak identifikatzeko lan egiten duena. 2020rako beste neurri batzuk ere bazeuden aurreikusita: udalekua musulman gazteentzat, gazteen eta balio partekatuen sarea, Euskadiko Gazteriaren Kontseiluarekin lankidetzan, integrazioari buruzko lekukotasunak biltzen dituen dokumental bat, baina COVID-19aren pandemiari aurre egiteko neurriek galarazi dute haiek gauzatzea. Ekin zaio, aldiz, *Uztartu* Erradikalizazio biolentoaren prebentziorako gizarte-eta heziketa-programaren lehen faseari.

Atal hau amaitzeko, garrantzitsua da aipatzea [Biltzen](#) Integraziorako eta kulturen arteko Bizikidetzarako Euskal zerbitzua. Eusko Jaurlaritzako Familia Politikako eta Aniztasuneko Zuzendaritzak eskainitako erakundeen erantzunaren barruan osorik aurkeztu ez bada ere, beste administrazio batzuen erantzunean agente esanguratsu gisa aipatzen da. Horrek ondo hitz egiten du esleituta daukan eginkizunaz. Gehien bat, atzeritarrekin eta gizarteratzeko prozesuetan zuzenean esku hartzen duten agente publiko eta sozialei laguntza (prestakuntza, aholkularitza, orientabidea, irizpidea...) ematea bilatzen du. Xede hau dauka: *“euskal gizartearen dauden kultur komunitateen arteko elkarrizketa bizkortzea; orobat, kultur komunitate horien eta Administrazioaren arteko harremana. Hain zuzen ere, zerbitzu publiko eta pribatuei beraien lanerako aholkua eman diezaiekeen zentroa nahi da kultur arteko bitartekotza eta hezkuntzaren eremuan, alor horretako gatazkak kudeatu eta eraldatzeko prozesuak errazteko gauza izango dena, eta pertsona oroaren gizarte-integrazio osoa errazteko gai, aniztasuna errespetatuz, betiere.”*

4.7. Babes indartua zaugarritasun bereziko egoeren aurrean (gizakien salerosketa, sexu-esplotazioa...).

Gai honi buruz jasotako erantzun guztiak mintzatzen dira gizakien salerosketaren kasuetako jarduketari buruz, eta agintari polizialekin batera lan egiten dutela edo udaltzaingoarekin eta Ertzaintzarekin komunikazio arina dagoela baino askoz gehiago ez dute esaten.

Eusko Jaurlaritzako Familia Politikako eta Aniztasuneko Zuzendaritzak dioenez, 2016an Emakundek gizakien, emakumeen eta nesken salerosketaren kontrako mahaia jarri zuen martxan eta Bilboko Udalak dio udal gizarte zerbitzuek lankidetzan dihardutela salerosketaren biktima diren emakumeentzako baliabideak kudeatzen dituzten erakundeekin, hala nola Askabide eta Gurutze Gorriarekin. Bizkaiko Foru Aldundiko Enplegua, Gizarte Inklusioa eta Berdintasuna Sustatzeko Sailak, azkenik, jakinarazi du egoera horretan egon litezkeen emakume gazteei Emakumeak Babesteko eta Familiei Laguntzeko Zerbitzuak ematen diela arreta, tratamendu psikologikoko eta hezkuntza-psikologiako tratamenduko programekin eta laguntza eta aholkularitza juridikoko programekin.

4.8. Koordinazioa

Erakundeen erantzunari buruzko kapitulu honetan egiaztatu ahal izan da erantzun osoak, sistemen, sailen eta erakundeen arteko koordinazio mailarik handiena ekar lezaketenak, oso urriak direla. Eusko Jaurlaritzako Familia Politikako eta Aniztasuneko Zuzendaritzak aipatutako babesgabetasun egoeran dauden gazteei helduarora igarotzen laguntzeko estrategia alde batera uzten badugu, oraindik proiektu fasean baitago, galdetutako erakundeek egiaztatzen dute ez dagoela koordinazio eremu espezializatu bat gazteen kolektibo horren berriazko premiei kasu egiteko. Sumatzen da, ordea, gizarte eta erakunde agente batzuen arteko lankidetzaren banako lanaren, kasu jakinaren, esparruan.

Aipatutako lankidetzaren batzuek nolabaiteko sistematizazio maila daukate. Halakotzat jo liteke Gasteizko Udaleko gizarte zerbitzuen eta Arabako Foru Aldundiko Adingabeen eta Familiaren Arloaren arteko erakundearteko hitzarmen teknikoak, bakarrik dauden eta adin-nagusitasunera iristen diren atzerritar adingabeen kasuetarako. Halaber, lankidetzaren egonkorra dira Gipuzkoako Foru Aldundiaren GazteOn SareLan eta Arrakasta programak, Haurren Babeseko eta Gizarte Inklusioko Zuzendaritza Nagusiaren bi zerbitzuen ekimen bateratuak diren heinean.

Adin-nagusitasunera iristen diren nerabeei arreta ematen dieten Bizkaiko eta Gipuzkoako gizarte zerbitzuek prozesuak dauzkate ezarrita gizarteratzeko foru zerbitzuetara, zein hiriburuetako udal gizarte zerbitzuetara “deribatzen”, baita gazte horiei arreta ematen dieten gizarte erakunde jakin batzuetara ere, gazte horiek programa publiko orotatik kanpo geratzen direnean.

Galdetutako bost udalek eta Bizkaiko Foru Aldundiko Gizarte Inklusioa Sustatzeko Zuzendaritzak diote elkarlanak egiten direla banako esku-hartzeen esparruan Osasunarekin, ikastetxe eta prestakuntza zentroekin, Lanbiderekin eta gizarte sareko erakunde askorekin, bai baliabide publikoen kudeatzaile gisa, bai elkartasuneko gizarte ekintza burutuz.

Erregulazio administratiboaren arloan, Aholku Sarea osatzen duten erakundeek harreman estua dute, lankidetzakoa eta etengabe koordinatua. Era berean, beste zerbitzu batzuekin ere lan egiten dute, hala nola Barakaldoko Udaleko orientabide juridikoko zerbitzuarekin, edo beste lurralde batzuetan atzerritarrei buruzko arreta edo aholkularitza juridikoa ematen duten erakundeekin, baina kasu jakinagoetan eta noizean behin. Arlo horretan, aipatutako zerbitzuek zein Bizkaiko Gizarte Inklusioa Sustatzeko Zuzendaritzak diote lankidetzak harremanak daukatela dagozkien Gobernuaren Ordezkariordeztzekin, batez ere, ahal den neurrian, bizileku- eta lan-baimenak arinago eman edo berritzeko.

Enpleguaren arloan, lehen esan denez, Bizkaiko Foru Aldundiko Gizarte Inklusioa Sustatzeko Zuzendaritzak lankidetzak arina dauka sail bereko Enplegua Sustatzeko Zuzendaritza Nagusiarekin, gazte horien enplegarritasuna hobetzeko berriazko programak martxan jartzeari begira.

4.9. Erantzuna COVID-19aren pandemiaren testuinguruan.

1. Erantzuna konfinamenduan.

2020ko martxoaren 19an SARS-COVID-19 koronabirusaren aurreratzeak eragindako osasun-krisia kudeatzeko alarma-egoera⁴⁵ ezartzeak eta ezarpen horrek ekarri zituen pertsonak askatasunez mugitzeko mugek egoera aldaketa oso garrantzitsua ekarri dute kolektibo horrentzako arretan, batez ere une haietan kaleko egoeran edo oso behin-behineko ostatuetan zeuden gazteen kasuan. Azterlan hau egiten lehenago hasi baginen ere, interesgarritzat jo da kontsultan parte hartu duten administrazioei testuinguru horretan eskainitako arretaz

⁴⁵ Espainia. 463/2020 Errege Dekretua, martxoaren 14koa, COVID-19 koronabirusak sortutako osasun krisiaren egoera kudeatzeko alarma egoera aitortzen duena. *Estatuko Aldizkari Ofiziala*, 2020ko martxoaren 14koa, 67. zk. Hemen eskuragarri: <https://www.boe.es/buscar/act.php?id=BOE-A-2020-3692>

galdetzea. Hemen zehazten den erakundeen erantzunaren helburu nagusia konfinamendu etapan eta hurrengo arintze faseetan segurtasunez geratzeko ostatu bat eskaintzea izan da, kutsatzeak prebenitzea, testetan positibo emandako kasuak tratamendu anbulatorioak bakartzea eta proban positibo eman duen pertsona betengandik hurbil egon izanagatik berrogeialdia egin beharra ziurtatuz.

Hasierako datu gisa esan behar da babesgabetasun egoeran dauden hurrei eta, zehazki, atzerritar nerabeei, kasu egiten dieten hiru foru zerbitzuek jakinarazi dutela konfinamendu aldian adin-nagusitasunera iritsi ziren pertsonak haurrentzako egoitza baliabideetan izan zituztela, otsailaren 18ko 3/2005 Legean xedatutakoan babestuta, adin-nagusitasuna betetakoa egonaldiak 18 hilabetez luzatzea ahalbidetzen baitu. Egonaldi horri eutsi zaio abegi-ondoko programetara, gizarteratzeko zerbitzuetara edo tutoretzapeko udal etxebizitzetara deribatzeke ohiko prozedurak pixkanaka berreskuratu arte.

Garai horretan haurren baliabideak utzitako gazteei ostatua ziurtatzeaz gain, Bizkaiko eta Gipuzkoako foru aldundietako gizarteratzeko zerbitzuek jarduketak jarri zituzten martxan etxerik ez duten edo etxe desegokia duten pertsonen ostaturako eta hezkuntzan lagun egiteko laguntza egokia emateko, eta pertsona horien artean zeuden azterlan honek aztertutako adin-tarteko gazte migratzaileak. Gipuzkoan 30 pertsonentzako edukiera duen Orioko aterpetxea zabaldu zen eta Bizkaian foru erakundeak larrialdiko harrera-zentro bat eta lotutako pisuak zabaldu zituen, 20 lagunentzako edukierarekin, plazak gehitu ziren itundutako zerbitzuetan eta zentro bat zabaldu zuen sintomarik gabeko edo sintoma arineko pertsona positiboentzat. Gainera, gizarteratzeko laguntza bereziak eskatzeko baldintzak malgutu zituen: eskatutako dokumentu batzuk lortzeko zailtasunaren eta herritarren arretarako erregistroen itxieraren aurrean, dokumentuak erantzukizunpeko adierazpen batekin ordezte eta eskaerak posta elektronikoz aurkeztea baimendu zen. Baldintzak betetzen ziren egiaztatu eta frogatzeko unea osasun-larrialdia amaitu arte atzeratu zen, pertsonen aldi horretan baliabide ekonomikoak edukitzea errazteko. Gainera, orokortu zen titularrak ez beste batek ordaintzeko aukera, banku-erakundeekin egon zitezkeen arazoak saihesteko.

Kalean bizi ohi diren pertsonen derrigorrezko konfinamendua betetzeko toki bat ziurtatzeko presioa, nolana ere, udalek jaso zuten, eta zenbait motatako esparruak prestatu zituzten ostatua, mantenua, higiene-neurriak eta, kasu batzuetan, osasun-laguntza emateko. Hala, Bilboko Udalak 511 plaza gehitu zizkien (kiroldegietan, aterpetxeetan eta beste eremu batzuetan banatuta) ostatu iraunkorretako 149 plazei eta neguko ostatuetako 60ei. Hala, 720 plazaraino iritsi zen eta haietan eguneko 24 orduko arreta eskaini zen. Dispositibo horietan sartzeko modua GLUZ Gizarte Larrialdien Udal Zerbitzuaren oinarrizko beharrianak edukitzeko programatik kudeatu zen.

Barakaldon lehen erantzuna Barakaldoko Frontoian “eguneko zerbitzu” bat (10:00etatik 21:00etara) zabaltea izan zen. Han, udalerrian errotutako etxerik

gabeko pertsonak atsedean hartu eta eguna igaro zezaketen, osasungarritasun-baldintza egokietan eta eskatutako neurriak betez. Zerbitzua ixteko orduan jendea gaua pasatzeko bere lekuetara joaten zen: aterpetxea, lonjak, parrokia-egoitzak, etab. Astebete igarota eta konfinamendua ez ezik, bakartzea ere eskatzen zuen kutsatze bat egonda, eguneko arnas zerbitzua ere gau pasatzeko ere bihurtu zen eta beste kokaleku batera eraman zen, Lasasarreko kiroldegian.

Donostian udalak 4 zentro prestatu zituen (aterpetxeak, frontoia eta gizarte harrerako zentro bat), 172 lagunentzako. Kalkulatzen da erabiltzaileen % 16 inguru familia-erreferenterik gabeko gazteak izan zitezkeela. Baliabide horiekin batera, udalak laguntza ekonomiko bereziak izapidetu dizkie 600 laguni baino gehiagori COVID-10agatik, ia denak, bizitzeko toki bat mantentzea ziurtatzeko. Berriz ere, kuantifikatzeko daturik izan ez arren, gazte migratzaileak daude arreta jaso dutenen artean. Nolanahi ere, Donostiako Udalak kalkulatzen du gutxi gorabehera 140 lagunek jarraitu zutela kalean lo egiten konfinamenduan, eskatu zutenean plazarik geratzen ez zelako –kasu oso gutxi-, edo hala nahiago zutelako, zentroa utzi zutelako edo handik bota zituztelako edo hirira aldi horretan iritsi zirelako. Pertsona horiei elikagaiak eta garbitzeko produktuak eman, eta haietako asko aterpetzen ziren pabilioi eta eraikin industrial abandonatuen inguru batean dutxa bat eta garbigailu bat ere jarri zitzaizkien.

Irungo Udalak konfinamendu aldiaren Zubia Zentroko bazterketa-egoerako pertsonentzako gaueko harrera eta eguneko harrera zerbitzuak indartu eta berrantolatu zituen, haien edukiera 29 plazara murriztuz eta erabiltzeko denbora muga eraginik gabe utziz, zerbitzuak egunean 24 orduz emateko. Halaber, beste esparru bat sortu zen, Martindozenea Aterpetxea, 30 lagunentzako edukierarekin. Zentro horretan oso larri kutsatuta ez zeuden kasuen bakartzea eta berrogeialdia egin zitezkeen.

Konfinamendua egiteko leku egoki eta segururik ez zuten pertsonen harrera egiteko dispositibo horiek guztiek Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailaren laguntza izan zuten bere eginkizun guztietan: erreferentea kasuak jakinarazteko, norbera babesteko ekipamenduen hornidura, material lagungarria, informatiboa, prestakuntzako eta telefonikoa eskura jartzea (dei-zentro bat prestatu zen gizarte eta osasun ingurunearentzat), langileei test serologikoak egitea eta laguntza lehen mailako arretatik osasun-arazoak egonez gero.

2. Eta konfinamenduaren ondoren...

Eusko Jaurlaritzako Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailak jakinarazi du funts bat jarri dela, 10 milioi eurokoa, hirugarren sektorearen eskutik, krisiari pertsona eta familia zaurgarrienengan izandako eraginari erantzuteko. "Inor atzean utzi gabe" deritzon funts horren esparruan, zortzi programa garatu dira pandemiaren ondorioz agertu diren egoerei erantzuteko. Programa horietako bi erantzun berezia ari zaizkie ematen konfinamenduan eta hura amaitutakoan

arestian aipatutako aterpetxeetan hartutako gazte migratzaileei: Lehen Urratsak eta Azken Sarea Indartzen.

Lehen Urratsak programak gizarteratzeko ibilbideak bilatzen dizkie aterpeetan hartutako pertsoneri, ibilbideak haietan hartuta dauden pertsonen profiletara egokituz. Bizkaian, Bilboko Udalak *Bilbao Aurrera Planean* sartu ditu eta Agintzari, Bizitegi, Cáritas, Claret Sozial Fondoa, Ellacuria Fundazioa, Erain, Lagun Artean eta Peñascal Fundazioa erakundeen eskutik ari da haiek aurrera eramaten. Gipuzkoan, Gizarte Inklusioko zerbitzuak jakinarazi du koordinatuta dagoela Peñascal eta Zabalduz erakundeekin programan jasotako dispositiboak eta baliabideak zabaltzeko. Donostiako Udalak, bestalde, Arrats Elkarreak (32 plaza 8 pisutan, haietako 4 udalekoak) eta Agintzari/Peñascalek (24 plaza zenbait eraikinetan) kudeatutako 58 ostatu-plazaren berri eman du.

Azken Sarea Indartzen programak baliabideak eskaintzen ditu (hilean 230-560 euro) elikagaiak eta higiene-produktuak erosi eta diru-sarrerak bermatzeko sistemako prestazioak eskuratzeko baldintzak bete ez eta bestelako diru-sarrera iturririk ez duten pertsona eta familiei ostatu emateko. Donostian Udalak zehaztu du 35 laguntza ematen ari direla programa horren esparruan, Cáritasek kudeatuta.

Funts berezi horrez gain, galdetutako erakunde batzuek beste neurri batzuk piztu edo indartu dituzte:

- Eusko Jaurlaritzako Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailak laguntza-ekonomikoen lerro bat zabaldu du alokairurako, hilean 250 eurokoa, 6 hilabetez, luzagarria.
- Donostiako Udalak 7 pisu prestatu ditu (21 lagun) tutoretzapeko etxebizitzaren programarako, eta 100.000 euroko partida bat 28 laguni ostatua pisu edo gela pribatuetan ordaintzeko. Partida horrek berezitasun bat dauka: egoera berezia dela-eta, gelak erabiltzea baimentzen du, haietan errentamendu-kontraturik gabe eta erroldatzeko baimenik eman gabe, baina etxerako bisitaren bidez gela badagoela fisikoki egiaztatu ahal izatea eskatzen zaie.
- Gipuzkoako Foru Aldundiak azterlanari erantzuteko datan (2020ko uztailean) aurreikusita zeukan aterpetxea (18 plaza + 14 COVID-19a duten pertsonentzat) eta San Juan de Dios (16 plaza) erabiltzea eta 13 itunduta Caritasekin Aterpe gaueko harrera-zentroan. Tolosako udalarekin ere koordinatuta zegoen xede horretarako etxe bat erabiltzeko.
- Barakaldoko Udalak udal gizarte zerbitzuetan gizarte erroldatzea erraztu die, prozesu horretan, Barakaldoko udal mugartean finkatu nahi dutela adierazi duten pertsona guztiei.

5. Europako jardunbide egokiak helduarora igarotzean.

Azterlanaren atal honetan, laburbilduta, **Europako jardunbide egokien** hautaketa bat aurkeztuko da. Jardunbide horiek intereseko gakoak eman litzakete familia-erreferenterik gabeko atzerritar gazteekin helduarora igarotzeko prozesuetan lagun egin, lagundu eta esku hartzeko lanaren zenbait arlotan.

Gure inguruneko herrialdeen aldean, Euskal Autonomia Erkidegoak Europako beste errealitate askok, are Espainiako estatuko beste lurralde batzuek, baino migratzaileen ehuneko urriagoak izan ditu, eta oraindik dauzka.

Familia-erreferenterik gabeko atzerritar adingabe eta gazteen presentziari dagokionez, esan behar da, denboran dirauen joera bat bada ere (eta, beraz, ez gertakari bat, esan ohi denez), oro har Europako beste testuinguru batzuetan baino datu txikiagoak dauzkala oraindik, batez ere haietako portzentaje batek Europaren iparrerago dauden herrialdeetarako migrazio-prozesua egiten jarraitzen duelako.

Horrez gain, Europako testuinguruaren barruan bertan aniztasun handia dago familia-erreferenterik gabeko atzerritar adingabe eta gazteak identifikatu, aintzat hartu, harrera egin eta esku hartzeari ematen zaion tratamenduan⁴⁶ eta, betaz, interesgarria da Europako beste herrialde batzuetako proiektu, programa eta erregulazioei begiratu bat ematea, bai tradizionalki migrazioa jaso eta aterpe emateko kultura handiagoa dutela, bai adingabe eta gazte migratu eta aterpetuen profil mota gehiago dutelako ere, eta haien gizarte babeseko sistemak gehiago daudelako haurrei, nerabeei eta gazteei begira antolatuta.

Hautatutako esperientziak

Arestian esan denez, intereseko jardunbideen hautaketa honen helburua **inspirazio** izatea da, erakundeen babespean dauden gazteak eta bereziki familia-erreferenterik gabeko migratzaileak helduarora igarotzeko prozesuetan gaur egun dauden erronkei erantzungo dieten **ereduak eta esku-hartzeak diseinatu eta bideratzeko** oinarri gisa, gure errealitatea egokituta beti.

Horretarako, Europako kasu interesgarri batzuk identifikatu eta laburbildu dira (gizarte babesaren zenbait eredutatik datuz: eskandinaviarra, kontinentekoa, mediterranea eta anglosaxoia, eta zenbait herrialde, hala nola Espainia, Frantzia, Italia, Danimarka, Belgika, Herbehereak, Austria edo Suedia), lau ardatz nagusi hartuta:

⁴⁶ [Sandermann, P & Zeller, M.](#) (2017)

A. Familia-erreferenterik gabeko gazte migratzaileak helduarora igarotzeko programa eta prestazioei estaldura eman ahal izateko formula **politikoak**.

1. Contrat Jeunes Majeurs (Frantzia).
2. Banakako Babes Ibilbideak (Espainia, Katalunia).
3. SPRAR (Italia).

B. Prestakuntza/lanaren arloan familiarik gabe dauden atzerritar nerabe eta gazteei aplikatu dakizkiekeen esku-hartze eta lagun egiteko proiektuak.

4. Coordination Unit for School to Work Transition (Austria).
5. Fast-Track-to-Integration. Trelleborg-ko egokitzapena (Escania, Suedia).
6. Duo for a Job (Belgika).

C. Egoitzaren arloan familia-erreferenterik gabeko atzerritar nerabe eta gazteei aplikatu dakizkiekeen edo haientzat zuzenean pentsatuta dauden esku-hartze eta lagun egiteko proiektuak.

7. Curant (Flandria, Belgika).
8. Startblok (Amsterdam, Herbehereak).
9. Social Support Residences (Danimarka).

D. Esku-hartze eta lagun egiteko proiektuak **komunitatean integratzearen eta gizarte eta harreman kapitala sortzearen** arloan.

10. Muslim Fostering Network (Erresuma Batua).
11. Parrainage a proximité (Frantzia).
12. Mindspring (Danimarka).

Programa/baliabidearen izena:	Contrat Jeunes Majeurs
Non egiten da:	Frantzia
Informazio gehiago:	Code de l'action sociale et des familles (CASF, 2019)
Kasu egiten dion egoera / beharrizana:	
<p>Frantzian 18 urterekin iristen da adin-nagusitasunera, baina babes unibertsaleko sistema (diru-sarreraren bermearen pareko bertsioan, nolabait) ez da 25 urte izan arte hasten. Gainera, kontuan hartuz Frantzian familia-testuinguru normalizatuen batez beste gazteak 24 urte ingururekin emantzipatzen direla⁴⁷, <i>gap</i> handi bat gertatzen da adin-nagusitasunera iritsitakoan erakundearen babes-sistematik iristen den adinaren eta autosufizientzia ekonomikoko ohiko adinaren artean (gazteen langabezia-tasa ia % 21ekoa izanik, herrialdean batez besteko orokorra % 9 den bitartean).</p> <p>Gazte Nagusien Kontratua 1974an adin-nagusitasuna 21 urtetik 18ra jaistean zubi gisa sortutako neurri bat da eta erakundearen babespean jarraitzea ahalbidetzen du gutxienez lehen erakundearen bidez estaltzen ziren hiru urteetan.</p>	
Zer da / Zertan datza:	
<p>Gizarte Ekintzaren eta Familien Kodearen (CASF) L221-1 eta L222-5 artikuluen arabera, hau da gazte nagusien kontratuaren xedea: <i>"euren oreka arrisku larrian jar dezaketen familia, gizarte eta hezkuntza zailtasunei aurre egin behar dieten 21 urtez azpiko helduei (...) laguntza materiala, hezkuntzakoa eta psikologikoa ematea"</i> eta <i>"baliabiderik edo familiaren laguntza nahikorik ez izateagatik gizarteratzeko zailtasunak dauzkatenei"</i>.</p> <p>Lana (edo prestakuntza) aurkitzen laguntzeko laguntza sistema bat da, bizitzeko eta mantentzeko leku bat aurkitzeko aukera izan bitartean, haren familiak beregatik egiterik ez badu. Hauek dira, besteak beste, kontratu hori sinatzeak gaitzen dituen prestazioak:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Ekarpen finantzario bat sorospen gisa (haren zenbatekoa haien baliabide eta beharizanen arabera aldatzen da). • Hezitzaile eta/edo psikologo batek emandako etxeko laguntza zerbitzu bat. • Haurrentzako Gizarte Laguntzaren (ASE) zerbitzuek gastu korrontek eta aldi baterako ostata estaltzea. <p>Bermatu gabeko neurri bat da eta "Aide provisoire jeune majeur" (Gazte nagusia behin-behineko laguntza) eskabide baten bidez eskatu behar da, Departamentuko Kontseiluaren Presidentziari (lehenago adingabea zenean ASEren arreta izan ez badu) edo ASEko arduradunari (erakundearen babespean egon eta 18 urte beteko diren eguna hurbiltzen denean) hartu-agiria duen gutun ziurtatu bat bidaliz.</p>	

⁴⁷ AWENIG, Marié. À quel âge les Européens partent-ils de chez leurs parents ?, 2016-08-19. Hemen: <https://www.ouest-france.fr/societe/famille/quel-age-les-europeens-partent-ils-de-chez-leurs-parents-4420714>

Eskubideak zer prestazio mota eskatzen den zehaztu behar du (ostatua, elikagaiak, gizarte eta hezkuntza laguntza, sorospenak, etab.) eta bizi proiektua eta hartzen diren konpromisoak (hezkuntzakoak, etab.) arrazoitu behar dira.

Zergatik da garrantzitsua gure testuingururako:

Gabeziak izan arren (prestazio bat da, ez eskubide subjektibo bat, ez du estaltzen 21-25 urteko tartea eta epe laburrez berritzen da) formula horrek erakundeen babesaren 18 urte bete ondoren luzatzea ahalbidetzen du, ostatu baliabideak, baliabide ekonomikoak, sozialak, etab. mobilizatuz.

Konpromiso bat ezartzen du gaztearen eta babes-erakundearen artean (Departamentuko Kontseilua, foru aldundien parekoa) eskubideak eskuratu eta betebeharrak betetzeko, erantzunkidetasuna eta konpromisoa sustatuz.

Programa/baliabidearen izena:	Banakako Babes Ibilbideak (IPIs)
Non egiten da:	Katalunia
Informazio gehiago:	Servei Social d'Acompanyament Itineraris Individualitzats
Kasu egiten dion egoera / beharrizana:	
<p>IPlak haurren eta nerabeen eskubideei eta aukerei buruzko 14/2010 Legean kokatzen dira (120. artikulua. Helduarora eta norberaren autonomiara igarotzeko neurriak) eta Direcció General d'Atenció a la Infància i l'Adolescència-ren (DGAIA) tutoretzapean eta gizarte zailtasunean dauden gazteentzat dira, batez ere 16-17 urtekoentzat, babestuak izateko eta zerbitzuaren jarraipenaren eta laguntzaren pean bizitza independente bati ekitea bilatzen duen banakako babes ibilbide bat izateko gogoia adierazten badute. Halaber, egoitza-ingurune instituzionalizatuagoak onartzen ez duten gazteentzat pentsatuta dago.</p>	
Zer da / Zertan datza:	
<p>Zerbitzu tekniko espezializatu bat da, egoitza-harreraren ordezkia. Haren bidez, 16-17 urteko gazteei lagun egiten zaie euren autonomia eta emantzipazio prozesuan. Banakako autonomia proiektu bat (PAI) egiten da eta konpromiso bat sinatzen da gaztearekin eta haren erreferente teknikoarekin eta familia-erreferenteekin (egonez gero), erantzunkidetasuna sustatuz. IPI bost lan ardatzetan egituratzen da, ikuspegi malgu batetik beti:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Legezko estaldura. Gazte adingabearen legezko zaintza hartu eta ongizate eta garapen osoko maila egoki bat ziurtatzea ahalbidetzen du (esleitutako erreferente tekniko baten bidez). • Gizarte eta hezkuntzako lagun egite osoa, haren autonomia pertsonalaren maila handituko duten trebetasunak eta gaitasunak eskuratzeari begira. Tutore bat eta tutoretza eta arreta pertsonaleko esparruak esleitzen zaizkio, gaztearekin batera haren PAI diseinatuz. • Ostatua eta mantenua. Etxebizitza eta mantenuko oinarritzko beharrizanak estaltzea, zenbait formularen bidez (gazte bakoitzaren egoerara hoberen egokitzen denaren arabera): partekatutako alokairuko pisuetan (helduarora igarotzen ari diren beste gazte babestu batzuekin, ikasleekin, eta abarrekin) edo beste modalitate batzuetan (aterpetxeak, pentsioak, familien etxebizitzak, etab.) bizitzea. • Komunitatean integratzea. Haren helburua gazteen autonomia lortzea eta komunitatearen barruan integratuta jardutea ziurtatuko duten eguneroko ohiturak eskuratzea erraztea da. Kultura eskuratzea funtsezko eskubide bihurtzen da eta norberaren identitatea eraikitzen laguntzen duen elementu. • Prestakuntza eta laneratzea. Prestakuntzan eta laneratzean lagun egiteko eta laguntzeko eginkizunak eta enplegarritasuna eta laneratzea hobetzeko ibilbideen diseinua jasotzen ditu. 	

Zergatik da garrantzitsua gure testuingururako:

- Formula horrek, arau esparruan jasota badago ere (Euskadiko zerbitzuen eta prestazioen zorroaren antzera), irtenbide malgu bat eskaintzen du, "tarteko dispositibo" gisa esku-hartzearen zenbait dimentsio lotzen dituena.
- Nahastutako agenteen erantzunkidetasuna sustatu eta gaztea bihurtzen du bere etorkizunaren partaide eta protagonista.
- Bere ezarpenean kostu-efizientea da (egoitza-dispositiborik instituzionalenak baino nabarmen merkeagoa da eta aldi berean helduarora igarotzen ari diren gazteen iritziz irtenbide egokiagoa da).
- Dispositibo guztiz komunitarioa da eta zabaltzen den hiri eta herrietako hiri-bilbeetan txertatuta dago, dauden tokiko baliabideei lotuta, eta kultura/aisia hartzen du aintzat gizarte kapitala sortzen duen elementu gisa.

Programa/baliabidearen izena:	SPRAR – SIPROIMI protokoloa
Non egiten da:	Italia
Informazio gehiago:	SPRAR
Kasu egiten dion egoera / beharrizana:	
<p>2002an sortu zen SPRAR (<i>Sistema di protezione per richiedenti asilo e rifugiati</i>) - Asilo-eskatzaile eta errefuxiatuentzako babes sistema, Asilo Eskatzaileen eta Errefuxiatuen Babes Sistema erakundetu zuen 189. legearen bitartez.</p> <p>Geroago, Barne Ministerioak Servizio Centrale ezarri zuen, koordinazio bulego zentral bat.</p> <p>SPRARen helburua laguntza ematea da, norberaren independentzia lortzeko eta Italiako bizitzan benetako partaidetza izateko diseinatutako banako programa baten bidez, enpleguari, etxebizitzari, tokiko zerbitzuak eta gizarte elkarrekintza eskuratzeari eta, adingabeei dagokienez bereziki, haien eskolatzeari dagokienez.</p> <p>2018an SPRARek SIPROIMI hartu zuen izena (<i>Sistema di protezione per titolari di protezione internazionale e per minori stranieri non accompagnati</i>) - Nazioarteko babesaren onuradunentzako eta bakarrik dauden atzerritar adingabeentzako babes sistema, eta ezarri zen harrera-zerbitzu integratuak eskuratzeko aukera eman dakiekeela zio bereziengatik bizileku-baimen baten titular direnei ere: hala nola indarkeriaren, salerosketaren, lan-esplotazioaren biktimei, edo gizalegezko balio bereziko ekintzengatik.</p>	
Zer da / Zertan datza:	
<p>SPRAR/SIPROIMI erakunde-protokolo bat da eta babes-eskatzaileen integrazio prozesu bat definitzen eta aktibatzen du, lehen harreratik eta hizkuntzen irakaskuntzatik lanbide heziketa eta laneratzeraino (batez ere 30 urtez azpikoak dira eta bakarrik dauden atzerritar adingabeak portzentaje handi bat dira).</p> <p>Gizarte kohesioaren alde egiten du, integrazioari bere osotasunean aurre egiteko, zenbait eskumen maila nahastuz, esku-hartzea harrera-zentroetan oinarritutako prozesu gisa ikustea gaituz eta hezkuntza sektore formalak eta informalak eta enpresa-elkarteak mobilizatuz.</p> <p>Egoitza, hizkuntza, hezkuntza, komunitate eta lan baliabideak tokiko mailan aktibatzen dira (Tokiko Komunitateen Elkarte Nazionalaren bidez, ANCI – <i>Associazione Nazionale Comuni Italiani</i>) eta koordinazioa eta finantzazioa SIPROIMIren zerbitzu zentraletik datoz. Partzuergoari CITTALIA batzen zaio, udalerrienak osatzeko programen eta finantzazio aukeren berri ematen duen zerbitzu bat, eta irabazi asmorik gabeko erakundeek ere programa eta/edo prestazioen berriazko kudeatzaile zuzenean parte hartzeko aukera ematen du.</p> <p>Paraleluki, SIPROIMik jarduera komunitario bizia garatzen du, Italiako herritarren eta migratzaileen arteko istorio arrakastatsuak nabarmenduz (migrazio-fluxuen beste pertzepzio baten alde egingo duen komunikazio-jarduera bat egiteko).</p>	

Zergatik da garrantzitsua gure testuingururako:

- Erakundearteko lan-protokolo bat da, koordinazio zentral batetik (estatu mailakoa) toki mailako jarduerak garatzen dituen (udalek eta tokiko gizarte sareak hautatu eta garatuta). Hala, estrategia global batetik testuinguru bakoitzari berariaz egokitutako jarduketak garatzen ditu.
- Sektore anitzeko protokolo bat da, esku-hartze holistikoa bilatzen duena, zenbait sektore, hala nola hezkuntzarena, lanarena, etxebizitzarena edo kulturarena, mobilizatuz.
- Komunikazio-jarduera sendoa biltzen du, gizarte kohesioan aurrera egin eta zurrumurruek eta estereotipoak zabaltzea ekiditeko (edo haiei aurre egiteko, behintzat).

Programa/baliabidearen izena:	Coordination Unit for School to Work Transition
Non egiten da:	Austria:
Informazio gehiago:	BUNDESKOT
Kasu egiten dion egoera / beharrezakoa:	
<p>Austrian bigarren mailako prestakuntza jasotzen duten ikasleak % 7 baino ez badira ere, egoera hori halako bi da ikasle migratzaileen artean; izan ere, haien % 14k ez dute amaitzen bigarren hezkuntzako lehen zikloa baino.</p> <p>Beraz, Austriako gizartean (non langabezia mailak oso txikiak diren eta trebakuntza orokorra oso handia) eskolako porrot horrek gazte migratzaileen enplegarritasun aukerak murrizten ditu (haien langabezia mailak batez bestekoa halako bi dira), baina batez ere mantentze-pobreziako egoeretatik irteteko dituzten aukerak (haien diru-sarrerak askoz txikiagoak dira).</p>	
Zer da / Zertan datza:	
<p>Eskolatik Lanera Igarotzeko Koordinazio Unitatearen programa Gizarte Zerbitzuen Ministerio Federalak gidatzen du (estatu bakoitzak bere unitatea badu ere) eta koordinatuta egituratzen diren hiru maila nagusi ditu oinarri: motibazio programa bat hezkuntza sisteman jarraitzeko, gazteentzako <i>coaching</i> programa bat eta hirugarrena deierazko prestakuntzari laguntzekoa. Helburu hauek ditu:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Alderdi interesdun guztien artean lankidetzeta eta erantzukizun sistema bat eraikitzen laguntzea, bazterketa-arriskuan dauden gazteei berriazko mekanismoekin lagunduz (“gizarte desabantailak” dituztenak barne, hala nola gazte migratzaileak eta bereziki familia-sararik ez dutenak). • Hezkuntza sistematik lan-mundura eraginkortasun handiagoz igarotzeko orientabidea eta gida ematea, eskolaren eta lanaren arteko arrakala murrizten lagunduz. Berriaz, hezkuntza sistema (lanbidekoa) utzi zuten gazteak berriro lotzea eta/edo bizi aukera errealistak prestatzen laguntzea. • Banako laguntzarako tresnak ematea gaztea hezkuntzan eta/edo lan-merkatuan era iraunkorrean txertatu arte, haren autopertzepzioa hobetuz eta motibatze laguntzak emanez. <p>Batez ere 15-19 urteko gazteentzat izan arren, gizarte zailtasun handiagoko kasuetan 24 urte izan arte luza daiteke.</p>	
Zergatik da garrantzitsua gure testuingururako:	
<ul style="list-style-type: none"> • Ministerio batek koordinatutako ekimen bat da baina praktikan toki eremuko agenteek garatzen dute. • Lan-bazterketaren aurretik esku hartzeko denbora-kate bat ezartzen di, hezkuntza sistema uzteko arriskurik handiena dagoen etapetan hasita, esku-hartzeetan hausturak saihestuz eta prozesuko ikuspegi bat emanez (15-24 urte). • Lan-bazterketaren aurrean ikuspegi prebentiboa ezartzen du eta oinarria da eskola uztea ekiditea beti izango dela baztertuta dauden gazteak gerora berriro kualifikatzea baino errentagarriagoa. 	

Programa/baliabidearen izena:	Fast Track to Integration – Trelleborgs Kommun-en moldaketa
Non egiten da:	Trelleborgs Kommun (Escania, Suedia)
Informazio gehiago:	National Approaches to Unaccompanied Minors Following Status Determination. Country Report Sweden
Kasu egiten dion egoera / beharrezakoa:	
<p>Trelleborg Suediako hiririk hegoaldekoena da eta herrialdeko bigarren porturik handiena dauka. Hori dela-eta, Suedian sartzeko porturik garrantzitsuena da migratzaile eta errefuxiatuentzat (bakarrik dauden adingabe eta gazteen portzentaje handiak barne).</p> <p>Fast-Track ereduak Suedia osoan 2015eko Enplegu Sistemaren Erreforma Nazionalarekin (<i>Arbetsförmedlingen</i>) ezarri bazen ere, Trelleborgen kasua paradigmaticoa izan da, ikuspegi berezia (integraziorako laguntza azkarrak lehenesten ditu, eta batez ere enplegurantz) eta komunitate txiki batean eskaera kopuru handi bat emaitza onekin kudeatzeko gaitasuna dituelako. Hori dela-eta, Trelleborgek Fast Track ereduari egin zion moldaketa aztertzen ari dira orain Suediako beste inguru batzuetan kopiatzeko.</p>	
Zer da / Zertan datza:	
<p>Trelleborgeko ereduak <i>Fast Track</i> ereduaren prestazioei eusten die, baina ardatza gehiago jartzen du autonomian eta enpleguan gizarte babesean baino. Haren arabera, ez da egia adingabe gehienak lotutako arazoekin iristen direla (aitzitik, sistemak berak sortzen ditu) eta adingabeek euren bizi prozesuan eginkizun aktiboa eduki nahi eta ahal dute. Izan ere, haren datuen arabera, ebaluazio psikosozial baten ondoren adingabeen % 85ek ez daukate lotutako arazo psikosozialik eta autonomia sistemara igarotzen dira (eta ez gizarte babeseko sistemara, zeina arazoak dauzkaten gainerako % 15ez arduratzen baita).</p> <p>Hala, gehien-gehienentzat, adingabearen erreferentea ez da gizarte langile bat, gazte eta enplegu teknikari bat baino, zeinak jarraipena egingo baitu bost arlotan: prestakuntza eta lana, osatua, osasuna, haien diruaren kudeaketa eta komunikazioa eta integrazioa, lotutako egoitza eta gizarte baliabideak emanez, baina autosufizientzia ekonomikoa, erantzunkidetasuna eta pixkanakako autonomia lortzearen ikuspegitik beti. Hiru fasetako prozesu batean oinarritzen da (normalizatutzat jotako kasuen % 85entzat):</p> <ul style="list-style-type: none"> • Orientabidea (adingabeari trantsizio-prozesuetan dauden aukerei buruzko informazio guztia ematen zaio hor). Hiru hilabetekoak dira gehienez eta horren ondoren adingabeak erabaki bat hartu behar du jarraitu nahi duen trantsizio-prozesuari buruz. • Moldatzea (adingabeak Suedian gizarteratzeko prozesuari ekiten dio, eta haren erreferente teknikoak lagun egiten dio –pixkanakako autonomiaren ikuspegitik- prestakuntza, osatua, lana, etab. bilatzen). • Irteera (jarraipen-sistematik askatzeko prozesua gertatzen da eta erabateko 	

autonomia edo trantsizioak porrot egiten badu gizarte babeseko sistemara igarotzea espero da hor). Helburua autonomia hori gehienez 20 urterekin lortzea da.

Zergatik da garrantzitsua gure testuingururako:

Proposamen disruptibo bat da, ezaugarri hauek dituena:

- Elementu lehenetsi gisa gizarte zaintza hartu beharrian, haren proposamena batez ere gardentasunean, erantzunkidetasunean, autonomian eta autosufizientziaren bilaketan oinarritzen da.
- Lehen unetik adingabea eta gaztea bihurtzen ditu euren erabakien protagonista, euren etorkizunaren erantzunkidetasuna hartuz.
- Jarduteko metodo azkarrak eta argiak proposatzen ditu, iritsi orduko egindako hasierako ebaluazioekin (adingabeak laguntza psikologikoa eta gizarte eta hezkuntzako benetan behar dituen ikusteko) eta lehen unetik trantsizio azkar eta eraginkor bat (hezkuntza, hizkuntza, lan eta komunitate mailan) eta 20 urterekin amaiera bat lortzeko baliabideak zabalduz.

Programa/baliabidearen izena:	Duo for a Job
Non egiten da:	Belgika (jatorrian) eta Frantzia (oraingo hedapena)
Informazio gehiago:	DUO FOR A JOB
Kasu egiten dion egoera / beharrizana:	
<p>Belgikan gazteen langabezia (25 urtez beherakoena) % 37koa da eta are handiagoa gazte migratzaileen edo iragan migratzailea dutenen artean. Bestalde, erretiratu aurreko aldian (55-64) pertsonen jarduera-tasa Europako txikiena da (% 37), eta hala gizarte kapitaleko eta trebetasunak eta esperientzia baloratzeko sare oso garrantzitsu bat ari da galtzen.</p>	
Zer da / Zertan datza:	
<p><i>Duo for a Job</i> (Bi lan baterako) belaunaldiarteko <i>mentoring</i> programa pilotu bat da, lan bat aurkitzeko zailtasunak dituzten eta errefuxiatu edo migratzaile diren edo iragan migratzailea duten gazteen (mentees) eta euren lan-bizitzaren azken zatian dauden edo erretiratu berri diren eta lan-ibilbide zabala eta posizio oneko kontaktu sare (gizarte kapitala) aktibo bat duten pertsonen (mentores) artean.</p> <p>Honako helburu hauek ditu:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Belgikan jatorri migratzailea duten gazteen enplegua sustatzea. • Gizarte-kohesioa indartzea: gizarte loturak eta tokiko elkartasuna. • Kulturarteko eta belaunaldiarteko harremanak sustatzea. • Sentsibilizatzea eta ezagutza espezializatuak transmititzea gizarte kohesionatu eta integratzaileagoak sustatzeko. <p>Belgikan 1570 "Duo" (785 mentor eta beste horrenbeste mentee) mobilizatzea lortu du, kasuen % 54an enplegu bat lortzea ekarri dute, eta % 19an lan-praktikak. Gaur egun Frantzian ari da kopiatzen.</p>	
Zergatik da garrantzitsua gure testuingururako:	
<ul style="list-style-type: none"> • Pertsona nagusien gizarte kapitala aprobeztatzen delako. Gizarte kapital hori galdu ohi da erretiratzean, eta horrela zahartze prozesu aktiboagoak hasten dira eta konfiantzan oinarritutako kontaktu ukiezinen sareetarako bidea errazten da, horietara ezin baita prozesu formalen bidez iritsi. • Belaunaldiarteko eta kulturarteko dinamikak sortzen dituelako, pertsona nagusien eta gazte migratzaileen edo jatorri migratzailekoen arteko baterako lanaren bidez, adin desberdinak ez ezik kultura desberdinak ere badituzten pertsonen arteko trukeak ahalbidetuz. • Komunitateko kidea izatearen sentipena indartzen duten dinamikak bideratzen dituelako, estereotipoei eta zurrumurruei aurre eginez. 	

Programa/baliabidearen izena:	CURANT Cohousing
Non egiten da:	Anberes (Belgika)
Informazio gehiago:	CURANT URBAN INNOVATION INITIATIVES
Kasu egiten dion egoera / beharrizana:	
<p>Anberesen (Flandrian oro har) bakarrik dauden atzerritar adingabeek 18 urte betetzen dituztenean, ezin dituzte babes zerbitzuak jaso (laguntza ekonomikoak, integratzeko ikastaroak, harrera klaseak, prestakuntza pertsonalizatua, etab.) eta gutxieneko bermeak eskaintzen ez dituzten etxebizitzetan bizi behar izaten dute. Hala, komunitatean integratzeko, hezkuntzarako, lanerako eta egoitzarako aukerak mozten zaizkie.</p> <p>Bestalde, unibertsitate komunitate zabal bat dago eta hiri horretan gazte askotxo ari da emantzipatu nahian (eta alokairuko etxebizitzaren merkatu zabal bat dago eta alokairuaren aldeko kultura bat).</p>	
Zer da / Zertan datza:	
<p>CURANTek egoitza eta komunitate tresnen erabilera misto bat proposatzen du: 1-3 urtez gazte migratzaile/errefuxiatu baten (17-22 urtekoa) eta flandriar baten (20-30 urtekoa) artean etxebizitza partekatzea (<i>cohousing</i>) eskaintzen du prezio merke batean (250 € hilean pertsona bakoitzeko), <i>buddies</i> delakoak.</p> <p>Integrazioa errazteko, flandriar gazteak bere gizarte kapitala mobilizatzen du errefuxiatuari zenbait alderditan laguntzeko, hala nola lana bilatzen, kontaktu sare bat sortzen, nederlandera ikasten, etab. Aldi berean, bi pertsonak dute eskura laguntza tekniko bat (gizarte eta hezkuntzako eta psikosoziala) eta errefuxiatuak gainera laguntza teknikoak izango ditu hizkuntza mailan, aisialdian, lana bilatzeko, etab.</p> <p>Anberesko Udalak sustatutako proiektua da eta bertan "Atlas" hiriko integrazio agentziak, Vormingplus GKEak, Anberesko Unibertsitateak, UZ Brussel "Solentra" unitate psikiatrikoak eta Anberes, Gante eta Bruselako haur eta gazteentzako JES vzw - 'urban lab'ek parte hartzen dute.</p> <p>Proiektuak (<i>Urban Innovative Actions</i> Europako deialdiak finantzatuta) bizikidetzaren unitate berriak eraiki ditu, baina kulturarteko <i>cohousing</i> alokairu sare bat ere sortu du hirian. Haren helburua gutxienez 75 eta gehienez 135 gazte migratzaile/errefuxiatu hartzea da.</p>	
Zergatik da garrantzitsua gure testuingururako:	
<ul style="list-style-type: none"> • Gizarte, egoitza, komunitate eta hezkuntza tresnak biltzen dituen ekintza bat proposatzen du, ikuspegi kostu-efiziente batetik, eta babesik gabeko gazteak helduarora igartzeko baliabideen eskaintza osa dezake. • Guztiz komunitarioa da, batez ere eraikin berriak eraikitzearen ordez (estigmatizatzaileak izan daitezkeelako) hirian okupatu gabe dauden pisuak mobilizatzea lehenesten duelako. 	

- Migratzaile eta/edo errefuxiatuei gizarte kapitala sortzea ahalbidetzen die, pertsona autoktonoaren kontaktu sarean sartuz.
- Migrazioari eta kulturartekotasunari buruzko zurrumurruei aurre egiten eta estereotipoak desagitzen laguntzen du, *buddy*rengan ez ezik, baita haren familia eta lagun sarean ere.

Programa/baliabidearen izena:	Startblok Riekerhaven
Non egiten da:	Amsterdam (Herbehereak)
Informazio gehiago:	STARTBLOCK
Kasu egiten dion egoera / beharrezana:	
<p>Holandan gazteek etxebizitzaren kostu handiari egin behar diote aurre, eta zaila da hori jasatea batez besteko soldata mailarekin. Bereziki argia da hori erakundeen babesetik datozen gazteen eta/edo gazte migratzaile edo errefuxiatuen artean. Bestalde, babes sistemak alokairurako laguntza zuzkidura zabal bat dauka gazteentzat.</p> <p>Bizilekua lortzeko zailtasuna konpontzeaz gain gizarte eta kulturarteko kohesioa bultzatzea bilatzen du Holandan bizitza independentea hasteko adin-tartean, holandar zein atzerritar (migratzaile, ikasle edo errefuxiatu) gazteen trantsizio-prozesuei laguntza emanez, euren esperientzia, ekarpen eta harremanekin elkar aberastu dezaten.</p>	
Zer da / Zertan datza:	
<p>Starblok bizileku-baimena (errefuxiatu-estatutua) lortu berri duten gazte errefuxiatuentzako eta Herbehereetako gazteentzako etxebizitza proiektu bat da, 18-27 urteko gazteentzat. Administrazio publiko batek (Amsterdamgo Udala) sustatzen du proiektua eta ostatuaren kudeaketan espezializatutako enpresa bat du bazkide (De Key). Profilak irabazi asmorik gabeko baliabide publiko eta pribatuek (gazteentzakoak eta errefuxiatuei harrera egitekoak) hautatzen dituzte.</p> <p>Riekerhaven inguruan dago Startblok, eta 565 etxebizitza eskaintzen ditu, honela osatuta: pertsona bakarreko 463 estudio altzaririk gabe eta 102 gela zenbait lagunentzako apartamentuetan. Estudioek 23 metro koadroko azalera dute eta sukalde txiki bat, komuna eta bainugela dauzkate. Estudioen kostua 500 euro baino apur bat gehiagokoa da hilean (berokuntza, elektrizitatea, ura eta Internet barne) eta etxebizitza independentetzat jotzen dira. Hori dela-eta, ezin dute etxebizitza sorospen publikorik jaso (kostu osoaren % 25 murriztu ohi dute halako sorospenek).</p> <p>Eraikinak gune komun bat dauka gizarte jardueretarako eta kanpoko bi area handi daude. Starblokek autogestioaren (komunitatearen kudeaketa orokorra eta logistikoa) eta auto-antolakuntzaren (jarduera sozialak, kulturalak, etab.) bidez funtzionatzen du, halako moldez non egoiliar guztiek parte hartu behar duten eguneroko eta komunitatea kudeatzeko jardueretan, elkarrekiko erlazioa sustatuz.</p>	
Zergatik da garrantzitsua gure testuingururako:	
<ul style="list-style-type: none"> • Autogestio ereduak (bai eguneroko antolakuntzarako bai jarduerak programatzeko) kulturarteko elkarrekintza eta lan partekatua sorrarazten ditu, baterako jarduerak sustatuz. • Eredu horrek kostu txikiko egoitza irtenbideak ematen ditu (Herbehereetako alokairurako laguntzen eskemaren barruan hautagarriak) eta emantzipatzeko 	

aukera merke bat da.

- Esku-hartze publiko-pribatu bat mobilizatzen du, tokiko administrazio batek gidatzen badu ere, erakunde publikoen, sozialen eta enpresen arlokoen artean partekatutako kudeaketa sistema bat duena.

Programa/baliabidearen izena:	Social Support Residencies
Non egiten da:	Danimarka
Informazio gehiago:	Danish Refugee Council Integrationset
Kasu egiten dion egoera / beharrizana:	
<p>Danimarka munduan asiloa hartzeko (eta eskaerak onartzeko) politikarik intentsuena duten herrialdeetako bat da, baina azken urteetan gogortu egin da, herrialdean eta Europan gertatutako aldaketa politikoengatik eta migrazio eruedetan egondako aldaketagatik. 2019rako urtean 2.600 eskaera inguru espero dira (2015ean urteko 21.000tik gorako piku bat egon zen eta 2018an urtean 3.800 baino gehiago), baina onartzeko tasa altuenetako bat da oraindik (% 63 baino zertxobait gehiago)⁴⁸.</p> <p>Hori dela-eta, laguntza-egituretan (dauden baliabideen kopuruan) murrizketa bat egon da, baina tipologia eta estrategia orokorra mantentzen da oro har. Sistema batez ere udalerrietatik kudeatzen da, gizarte erakundeekin lankidetzan. Hirugarren sektoreko erakunde nagusia Errefuxiatuaren Daniar Kontseilua (<i>Danish Refugee Council</i>) da, Danimarkan integratzeko arloaren bitartez (<i>Integrationset</i>).</p>	
Zer da / Zertan datza:	
<p><i>Danish Refugee Council</i>eko gizarte laguntzako etxebizitzek (<i>Social Support Residences</i>) bakarrik dauden gazte errefuxiatuak hartzen dituzte (bain adingabeak bai adin nagusikoak, haietan 23 urte bete arte egon baitaitezke Udal Gizarte Zerbitzuek hala erabakiz gero).</p> <p>Egoitza irtenbide bat ez ezik, gizarte eta hezkuntza laguntza eta laguntza psikosoziala ematen dituzte, bakarrik dauden gazte errefuxiatuak daniar gizartean integratzeko, bere kasa bizitzera doazenean, ekonomiko eta psikologikoki mantendu edo eguneroko bizitzan laguntza oso txikia jaso ahal izateko.</p> <p>Etxebizitza horiek beste gazte errefuxiatu batzuekin partekatzen dituzte eta hiri inguruneetan daude (batzuetan unibertsitateko campusetan). Haien ikuspegia gazteak lan-merkatuak eta aisia-jarduera partekatuetarako prestatzean oinarritzen da, horrela trebetasunak, gizarte sareak eta daniar gizartearen ulermena indartu eta garatzeko.</p> <p>Baliabide horiek, beraz, hezkuntza eta lan sistemarekin (prestakuntza zikloak eta enpresetako praktikak eskuratzea eskainiz) eta udal gizarte zerbitzuekin (psikologoak, tutoreak) koordinatzen dira, autodeterminazio kalifikatuko ikuspegiak, neuro-sekuentzialak, bizitzaren narratibakoak, harrera-gizartearen kultura kodeak ulertzeko laguntzak, etab. aplikatuz. Administrazio-zereginetara lagun egin, komunitateko laguntza eman eta bestelakoak egiten dituzten boluntarioekin ere lan egiten dute.</p>	

⁴⁸ BENDIXEN, Michala Clante . How many are coming, and from where? [Refugees.dk: information on refugees in Denmark \[en linea\], 23.10.2020](http://refugees.dk/en/facts/numbers-and-statistics/how-many-are-coming-and-from-where/) . Hemen eskuragarri: <http://refugees.dk/en/facts/numbers-and-statistics/how-many-are-coming-and-from-where/>

Zergatik da garrantzitsua gure testuingururako:

- Gizarte eta hezkuntza esku-hartzearen ikuspegi holistikoa duelako (bai sektoreei, bai esku hartzeko denborari dagokienez; 23 urte izan arte), egoitza irtenbide batek ematen duen segurtasun-oinarria abiapuntu hartuta.
- Bere esku-hartzean transkulturaltasunaren ikuspegia eta dimentsio komunitarioa zeharka jasotzen dituelako, sare normalizatuaren baliabideei lotzeko (kultura, hezkuntza... mailan).
- Administrazio publikoen eta irabazi asmorik gabeko gizarte erakundeen arteko lankidetzak proiektu bat delako, eta boluntarioen partaidetza ondo zehaztua duelako, profesionalen lan teknikoarekin talka egiten ez duten eginkizunetan.

Programa/baliabidearen izena:	Parrainage a Proximité
Non egiten da:	Frantzia
Informazio gehiago:	FRANCE PARRAIGNES
Kasu egiten dion egoera / beharizana:	
<p>Frantzian familia-sarerik ez duten eta erakundeen tutoretzapean dauden gazteek zailtasun handiak dauzkate gizartean parte-hartze osoa izateko eta gizarte kapitala sortu eta pilatzeko orduan. Familia funtzionaltasun batzuk nekez estal daitezke egitura profesionaletatik (egoitza baliabideak), oso komunitarioak izan arren.</p> <p>Gizarte eta harreman sare horien falta dela-eta gizarte, kultura eta lan desabantaileri aurre egin behar diete (are gehiago bakarrik dauden atzerritar adingabeen kasuan), zailago baitute kultura eta gizarte kodeak, lana eskuratzea errazten duten nodoak eta harreman egiturak, etab. eskuratzea.</p>	
Zer da / Zertan datza:	
<p><i>Parrainage a Proximité</i> (Hurbileko Gidaritza) familian lagun egiteko formula bat da, irabazi asmorik gabeko zentro publikoen eta pribatuen arteko aliantza batek sustatzen duena. Haren bidez, Frantzian jaiotako (iragan migratzailea izan zein ez) banako pertsonak edo familiek edo jatorriz MENA edo JENAKo herrialdeetatik datozen pertsonak eta familiek konpromisoa hartzen dute denbora eta jarduerak erakundeen babes baliabide batean dagoen adingabe edo gazte batekin partekatzeke –era egituratu eta programatuan-. Antzekotasunak leuzkake Gipuzkoako IZEBEA programarekin, baina modu zabal eta indartuagoan, presentzia handia baitauka Frantziako departamentu askotan.</p> <p>Borondatezko kontratu baten bidez, familiek konpromisoa hartzen dute bakarrik dagoen atzerritar adingabe edo gazteari eguneroko jardueretara lagun egiteko, familia eta aisia denbora partekatzeke (otorduak, afariak, eskola-kiroleko partidak, aisia eta kultura jarduerak), adingabeak/gazteak erkatzeke erreferente bat eta aldi berean komunitatean integratzeke laguntza bat izan ditzan.</p> <p>Familia horiek, gainera, baliabide tekniko profesional bat daukate prozesuan laguntzeko; izan ere, haurrak babesteko zentro publikoekin koordinatu ohi dira, hala nola <i>Maison d'enfants à caractère social</i>-ekin (MECS), zeinak adingabeentzako egoitza zentroen antzeko egiturak baitira (gizarte zerbitzuen zorroaren 2.4.4. zerbitzuan daude jasota).</p>	
Zergatik da garrantzitsua gure testuingururako:	
<ul style="list-style-type: none"> • Familian lagun egiteko formula ez da familia-abegia bezain zorrotza eta parte hartzea ahalbidetzen die interesa izanda abegirako denborarik edo baliabide ekonomiko edo fisikorik (etxebizitza, etab.) ez duten familiei. • Atzerritar gazteari babez baliabide formalek asmo oso komunitarioa izan arren (Euskadiren kasuan bezala) nekez eman ahalko dizkieten kodeak eta harreman-nodoak eskuratzea ahalbidetzen dio, hura hezkuntzan, hizkuntzan, komunitatean edo lanean txertatzea bultzatuz. 	

- Lagun egiten duten familiei eta bereziki haiek parte hartzen duten inguruneei (kirol taldeak, kultura eta aisia programak, etab.) bakarrik dauden atzerritar adingabe eta gazteen errealitatea ezagutzea eta harekin ohitzea ahalbidetzen die, zurrumurruen eta estereotipoen aurka eginez.

Programa/baliabidearen izena:	The Muslim Fostering Project
Non egiten da:	Erresuma Batua
Informazio gehiago:	THE FOSTERING NETWORK
Kasu egiten dion egoera / beharrezana:	
<p>EAE, Espainia eta Europako araudiak harrera-baliabideak erakundeetatik ateratzen alde (eta batez ere egoitza-harreraren aurrean familia-harreraren alde) egiten badu ere, datuek bi zailtasun erakusten dituzte argi eta garbi:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Alde batetik, bakarrik dauden adingabe eta gazte ia guztiek egoitza-zentroetan garatzen dituzte euren bizi prozesuak (sisteman sartzen direnetik irten arte). • Bestetik, gero eta zailagoa da baliogarriak diren abegi-familiak erakartzea eta lortzea (errealitate hori are larriagoa da Europako beste testuinguru batzuetan). <p>Horregatik, herrialde batzuk, hala nola Erresuma Batua (komunitate musulman zabalak eta egonkorak daude hor, tradizio handiagokoak) familia arabiar eta/edo musulmanengana hurbiltzeko estrategiak egiten hasi dira adingabe musulman eta/edo arabiarrek familian hartzeko.</p>	
Zer da / Zertan datza:	
<p>"The Muslim Fostering Project" proiektu pilotua <i>Fostering Network</i>-ek garatzen du Erresuma Batuan eta bi helburu nagusi ditu:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Abegi-familia izateko prest dauden eta gai diren familia musulmanen kopurua handitzea, ekintza hauek eginez, besteak beste: <ul style="list-style-type: none"> ✓ Erakartzeko eta laguntzeko berariazko estrategiak, hala nola kolektiboengana hurbiltzea (meskitak, elkarteak), material egokituak prestatzea familia musulmanen errealitate kultural eta erlijiosoarentzat erakargarriagoak bihurtzeko, eta abegia eguneroko bizitza praktikoan hobeto txertatu ahal izateko materialak prestatzea. ✓ Egokitasunaren azterketak (adingabeak eta familia elkartzeko), transkulturaltasuneko irizpideak kontuan hartuz (identitatea, fedea, eguneroko ohiturak, tradizioa, etab.) eta huts egindako prozesuen azterketa (ikasi eta hobetzeko). • Adingabe musulmanak hartzeko prest dauden familia ez-musulmanen kopurua handitzea, familia abegigile ez-musulmanei laguntzeko programa bat diseinatuz, berariazko baliabideekin, bai erakartzeko (informazioa, hurbilketa), bai laguntzeko (prozesuan). 	
Zergatik da garrantzitsua gure testuingururako:	
<ul style="list-style-type: none"> • Familia abegigileen oinarriaren gehikuntza bat miatzea ahalbidetzen du, batez ere komunitate arabiar eta/edo musulmanen artean, erakartzeko tresnak eta prozedura praktikoak haien errealitatera moldatuz. 	

- Bakarrik dauden atzerritar adingabe eta gazteen kolektiboari familia-abegiaren ordezkoko aukera gehiago eskaintzea ahalbidetzen du –kasuan kasu-, gaur egun ia guztiak baitaude erakundeen egoitza baliabideetan (zentroak, etxeak).
- Gizarte eraikuntza kolektiboko prozesuetan familia migratzaileak edo iragan migratzailea dutenak gizarte ereduari lotzearen eta komunitateari laguntzearen ikuspegitik engaiatzea ahalbidetzen du.

Programa/baliabidearen izena:	Mindspring
Non egiten da:	Danimarka (jatorria) eta ondoren Herbehereak eta Belgika
Informazio gehiago:	Mindspring
Kasu egiten dion egoera / beharrizana:	
<p>Danimarka munduan asiloa hartzeko (eta eskaerak onartzeko) politikarik intentsuena duten herrialdeetako bat da, baina azken urteetan gogortu egin da, herrialdean eta Europan gertatutako aldaketa politikoengatik eta migrazio ereduaren egondako aldaketagatik. 2019rako urtean 2.600 eskaera inguru espero dira (2015ean urteko 21.000tik gorako piku bat egon zen eta 2018an urtean 3.800 baino gehiago), baina onartzeko tasa altuenetako bat da oraindik (% 63 baino zertxobait gehiago)⁴⁹.</p> <p>Hori dela-eta, laguntza-egituretan (dauden baliabideen kopuruan) murrizketa bat egon da, baina tipologia eta estrategia orokorra mantentzen da oro har. Sistema batez ere udalerrietatik kudeatzen da, gizarte erakundeekin lankidetzan. Hirugarren sektoreko erakunde nagusia Errefuxiatuaren Daniar Kontseilua (<i>Danish Refugee Council</i>) da, Danimarkan integratzeko arloaren bitartez (Integration set).</p>	
Zer da / Zertan datza:	
<p><i>MindSpring</i> errefuxiatuentzako (“haiekin”, “haientzat” eta “haiengatik”, DRCren hitzetan) talde programa bat da erbesteko bizitzari eta integrazioari buruz. Programak ezagutza eta trebetasun berriak ematen dizkie taldeko kideei, eta euren egoera kudeatzen eta Danimarkan integratu eta bizitza independente baterantz igarotzeko prozesuetan aurrera egiten laguntzen die. <i>MindSpring</i>-ek partaideak gaitzen ditu, ezagutza eta gaitasun berrien bidez, euren bizitza berriari arrakastaz aurre egiteko eta, gainera, euren integrazioa eta garapen pertsonal eta profesionala erraztuko dizkien gizarte sare baterako oinarria sortzen laguntzen die. <i>MindSpring</i>-en zenbait gai lantzen dira, hala nola erbesteko bizitzari eta integrazioari lotutako estresa, identitatea, trauma eta erronka orokorrak.</p> <p>Taldeko programa bat da, lehenago errefuxiatua izan zen boluntario batek bideratzen duena. Pertsona horrek, beraz, haien aurrekariak eta hizkuntza partekatzen ditu, haien arazo eta sentipen gehienak ezagut eta uler ditzake, eta horrela segurtasuneko eta taldearen barruan egoteko sentipen bat sortzen da. Harekin batera profesional tekniko bat dago (“prestatzaile kidea”). Haren eginkizun nagusia taldea gidatzea da, zenbait gairi buruz informatuz, hala nola dauden ongizate zerbitzuei eta tokiko inguruneari buruz, laguntza profesionala non lortu, etab. <i>MindSpring</i> taldeak partaideen ama-hizkuntzan egiten dira eta (prestatzaile kidea) itzultzen da, konfiantza handitzeko.</p> <p>Helduarora igarotzeko prozesuetan dauden gazteentzat direnean, <i>Mindspring</i> taldeek berariaz lantzen dituzte bakardadeari, larritasunari edo traumari buruzko</p>	

⁴⁹ [Refugees.dk](#) (2019)

gaiak heldutasunerako proiektu pertsonala eraikitzeko denbora-esparru baten testuinguruan.

Zergatik da garrantzitsua gure testuingururako:

- Talde-dinamikak dira, ikuspegi transkultural batetik abegi testuinguru berria eta migratzaile eta/edo errefuxiatuaren iragana lotzen laguntzen dutenak, mundu biek elkar osatuz integrazio eta helduarora igarotzeko prozesuetan aurrera egiteko.
- Prozesu horiek segurtasuna ematen diote migratzaile/errefuxiatuari (haren hizkuntzan garatzen baita) bere integrazioan aurrera egiteko baliabideak ematen dizkion bitartean.
- Gainera, programatik erabiltzaile igaro ziren pertsonak ondoren (euren trantsizioa osatutakoan) pieza aktibo bilakatzea ahalbidetzen dute, boluntario gisa haiek urte batzuk lehenago zeuden puntuan dauden beste pertsona batzuei laguntzeko.
- Programa kostu-efizientea da, esku hartzeko dimentsio tekniko eta borondatezko bat uztartzen dituelako, eta haren emaitza onak 2010etik egiaztatu dira. Gainera, sinergiak sortzen ditu beste baliabide batzuekin (egoitzakoak, hezkuntzakoak, etab.).

6. LABURPEN EXEKUTIBOA

Arartekoak interesgarritzat jo du azterlanaren eduki materialaren laburpena egitea, batetik, gauzatutako ikerketaren laburpena izateko eta, bestetik, proposatzen diren gomendioei begira garrantzitsuenak iruditzen zaizkion elementuak nabarmentzeko. Nolanahi ere den, aurreko kapituluak irakurrita, irakurleek nor bere ondorioak atera ahalko ditu familiako erreferenterik ez duten 18 eta 23 urte bitarteko gazte migratzaileen egoerari buruz, haien beharrei buruz eta politika publikoek ematen dieten erantzunari buruz.

1. Ingurumariari doazkion aurretiazko alderdiak

1.1. Azken urteotan, Arartekoak jaso dituen kexa batzuek agerian uzte dute familiako erreferenterik ez duten gazte migratzaileak pairatzen ari diren gizarte-kalteberatasuneko egoera kezagarria, zenbait kasutan, kalean ere bizi direla.

1.2. Azterlan honen xede diren gizarteko kideek, familiako erreferenterik ez duten 18-23 urte arteko gazte migratzaileek, ez dute komunitate- edo familia-sarerik. Kasu batzuetan, babes-erakundeek babestu dituzte hasiera batean, bai Euskadin, bai Estatuko beste autonomia-erkidego batzuetan. Beste batzuetan, berriz, migrazio-ibilbide zail baten ondotik iritsi dira gure hirietara. Gizatalde horrek ez du kontaktuak baliaturik migratzen, eta, beraz, euren sarea eratu behar dutenez, ez dute berezko komunitatearen laguntzarik, oinarrizkoa izan ohi dena etorkin helduenentzat.

1.3. Gazte horien etorrerak zerikusia dauka hainbat arrazoirekin (gizarte- edo politika-arlokoak edo pertsonalagoak). Oso zaila da migratzaileen kopurua edo iristea aurretiaz aurreikustea.

1.4. Gero eta zabalduago dago tutoretzapean edo gizarte-bazterketako arriskuan dauden gazteei arreta publikoa eman behar zaiela, duten adinagatik eta lurraldean familiako erreferenterik ez dutelako. Ideia hori aintzatespen juridikoaren xede ere bada, nahiz eta oraindik hasi berria den. Beraz, laguntza eta gizarte- eta prestakuntza-baliabide jakin batzuk behar dituzte beren bizitza bideratu ahal izateko. Euskadin jatorria duten gazteen emantzipazio-adina 29 urtetik gorakoa da, Gazteriaren Euskal Behatokiaren arabera, bizimodu autonomoa izateko zailtasunak direla eta.

1.5. Gazte horiei arreta emateko garatzen ari diren programek eta estrategiek, batez ere, gizarte-zerbitzuek, esku hartzeko hainbat eduki, iraupen eta eredu dituzte, eta, batzuetan, beste sistema publiko batzuen funtzioak ere jasotzen dituzte (besteak beste, prestakuntza-ikastaroak, ostatua edo osasun-programak).

1.6. Estatuak immigrazioaren arloko eskumena du atzerritartasunaren arloan (atzerritarren araubide juridikoa, sarrera eta irteera arautzen duena, administrazio-baimenak eta arau-hausteak nahiz zehapenak). Euskal administrazioek (autonomia-erkidegokoek, fori-erakundeek eta tokikoek) eskumena dute gizarteratzearen

arloan. 2/2016 Legea, apirilaren 7koa, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoa (17.1.35 artikulua) Immigrazioaren arloko gizarteratze-politikak kudeatzea udalerrien eskumen propiotzat jotzen du.

EAEk, gainera, errotzeari eta gizarteratzeko ahaleginari buruzko txostena egiteko eskumena du, eta, beraz, dokumentazio-prozesuan parte hartzen du. Eusko Jaurlaritzak egindako txostenak dira eta ez dira lotesleak, baina Estatuko Administrazio Orokorrek aintzat hartzen ditu.

Txostenen zorroztasunak eta zehaztasunak dokumentaziorako sarbidea erraztu dezakete, administrazio-bidean edo auzibidean. Ildo horretan, interesgarria litzateke [2018-2020 aldirako herritartasunaren, kulturartekotasunaren eta immigrazioaren eremuan jarduteko V. Planaren](#) proposamenari heldu eta aurrera egitea, *“Gizarte sustraitze-txostenen, etxebizitza egokitze-txostenen eta udal-esparruan integratzeko ahalegin-txostenen lanketa kokatzeko modurik egokiena aztertzea, udal-politikei lotuta egon dadin”* adierazpenaren ildoan (antolamendu-neurriak, 4.2.5 ekintza).

1.7. Euskal Autonomia Erkidegoko Estatutua 1979koa da, eta ez du immigrazioaren eta gizarteratzearen arloko eskumenik jasotzen. Autonomia-erkidegoetako beste estatutu batzuen erreforma berrienetan, aldiz, txertatuz joan dira, esate baterako, Kataluniakoan eta Andaluziakoan.

1.8. Euskadin, oro har, gizarte-babeseko euskal sistemari heltzeko, ez da eskatzen administrazio-egoera erregularrean egotea; hala, egiaztatu behar da Euskal Autonomia Erkidegoan izatezko bizilekua (edo egoitza eraginkorra) izan dela denbora batez, eta aldi hori berdina da pertsona guztientzat, herrialdearen jatorria gorabehera (salbuespen batzuk badaude).

1.9. Abiaturua da atzeritarren administrazio-egoera erregularizatu arte itxaron gabe programa publikoetan txertatzea onuragarria dela euskal gizarte osoarentzat, gizarte-bazterketa larriko prozesuak saihesten direlako eta, gainera, gizarte-kohesioa bultzatzen delako.

1.10. Hasierako baimena emateko eta bizileku- eta lan-baimen administratiiboak berritzeko zailtasunek eragindako pertsonen kalte egiteaz gain, ondorioak dituzte egin den gizarte-inbertsioan, eta adingabe migratzaileak gizarteratzeko eta laneratzeko prozesuetara bideratu diren baliabide ekonomikoak eta giza baliabideak higatzeko (xahutzeko ez bada) arriskua sortzen dute.

2. Ezaugarriak eta beharrak

2.1. Erregistro fidagarririk ez dagoenez eta, gainera, errealitate dinamiko baten eta mugikortasun handiko gizatalde baten aurrean gaudenez, ezin da gure lurraldean dauden gazte migratzaileen kopurua zehatz-mehatz kuantifikatu; beraz, azterlan honetan eskaintzen diren kopuruak zenbatetsitakoak dira (dagokion atalean azaldutako formularen bidez atera dugu zenbatespena). Kalkulu horren arabera, gutxi gorabehera, 844 eta 897 artekoa izan daiteke 18 eta 23 urte bitarteko migratzaileen kopurua, familiako erreferenterik ez daukana.

2.2. Gizatalde horren ezaugarriak eta profila zehazten joateko, talde txiki baten datuak emango ditugu, zehazki, familiako erreferenterik ez duten eta COVID-

19aren ziozko konfinamendu-aldian Bilboko baliabideetan egon ziren 18-23 urte arteko gazte migratzaileek osatutakoarenak. Horren ondorioz, aldez aurretik ohartarazi behar da lagin hori, administrazio-egoerari, errolda-egoerari eta bizilekuari dagokienez, behintzat, ez dela guztiz adierazgarria; izan ere, datuak bat datoz kolektiboaren barruan egoera prekarioenean, ahulenean eta baztertuenean egon daitezkeen pertsonekin.

Ohar horiek eginda, ondokoak adierazten dizkigute datuek:

- Gehienak gizonezko marokoarrak dira, baina emakumeen kopurua hazten doa.
- Ehuneko handienak lehen mailako ikasketak ditu, baina badira bigarren mailako ikasketak dituztenak ere bai. Oso gutxi dira ikasketarik ez dutenak edo unibertsitate-ikasketak dituzten gazteak.
- Gutxi batzuek baino ez dute lanik egiten, eta gehienek ez dute diru-sarrerarik. Ehuneko txiki batek prestazio ekonomikoren bat jasotzen du.
- Gehien-gehienek Euskadin bizitzen geratzeko interesa dute, migrazio-proiektua garatu ahal izateko leku egokia den aldetik. Beste informatzaile batzuek emandako informazioaren arabera, ordea, iragaitzazko pertsona gehiago dago Gipuzkoan.
- Erroldatze-faltaren eta dokumentu-irregularitasunaren tasa handiagoa dute atzerritar edo magrebtar jatorriko pertsonen batez besteko tasekin alderatuta.
- Talde horren erdiak baino zertxobait gehiagok kalean lo egiten du, eta gainerakoek aterpetxe batean, ostatu batean, laguntza-baliabideren batean, etxebizitza partekatu batean edo antzeko batean eman zuten konfinamenduaren aurreko gaua.
- Erdiak baino gutxiagok dauka osasun-txartela (OTI) edo familia-medikua esleituta duela egiaztatzen duen gutuna, baina gehienek diote osasun ona edo oso ona dutela eta ez dutela inolako mendekotasunik.
- Ia erdia babesik gabeko haurren egoitza-zentro batetik igarotakoa da.

2.3. Euren premian eta bertoko gazteenak antzekoak dira: bizimodu autonomia garatzea, baina oztopo handiagoak dituzte, besteak beste, administrazio-erregularizaziotik eratorritako beharregatik edo familia- eta komunitate-sarerik ez dagoelako.

Nolanahi ere, gizatalde ororen moduan, banako ibilbide eta proiektu bereziak dituzten norbanakoez osatuta dago, eta horiek guztiak islatu eta artatu behar dira pertsona horiekin egin beharreko esku-hartzeetan. Horrela, garrantzi berezia dute esku-hartze pertsonalizatuko planek, pertsonaren bizitzaren esparruak eta, horiei lotuta, esku-hartzea bideratzeko abiapuntuko egoera, indarguneak, beharrak eta helburuak aintzat hartzen baitituzte.

2.4. Gazte horien premiei arreta integrala emateko, administrazio eskudunen arteko aurretiazko plangintza eta koordinazioa ezkondu behar dira. Esku hartzen duen alderdi bakoitzari dagozkion izapide eta zerbitzuei buruzko informaziorik ez egoteak disfuntzio larriak eragiten ditu.

2.5. Bizileku-baimena eskuratzea eta administrazio-egoera erregularrari eustea funtsezkoak dira gizarteratzeko eta laneratzeko prozesuak bermatzeko, eta eskubideen erabilera baldintzatzen du. Lan egiteko administrazio-baimenik eduki ezean, lana lortzeko aukerak mugatuak dira, bai eta norberaren diru-sarrerak lortzea eta norberaren autonomia garatzea.

2.6. Diru-sarrera propiorik eta familia-sarerik ez daukana oso egoera ahulean dago, eta egoerak okerrera egiten du bizitokirik ez duelako (egokia, segurua eta duina); hori dela eta, pertsona horien gizarte-bazterketako egoera larriagotu egiten da edo gizarte-bazterketa pairatzen hasten dira.

2.7. Araudiaren konplexutasuna dela-eta, beharrezkoa da hasieratik orientazio juridiko egokia izatea, beharrezko dokumentazioa lortzeko eta beharrezko administrazio-izapideak egin ahal izateko. Prozesu osoan erabakigarria izan daiteke administrazio publikoek eta haiekin lankidetzan diharduten beste gizarte-eragile batzuek esparru juridikoa eta haren aplikazioa zehatz-mehatz ezagutzea, bai eta horien eta eragile juridikoen arteko koordinazioa ere.

2.8. Funtsezko beste premia bat dugu udal-eroldan inskribatzea, zerbitzuak eta prestazioak eskuratzeko eta eskubideak baliatzeko. Erroldan inskribatuta jarraitzeak, ofizioz izapidetzen diren bajengatik hutsunerik gabe, gizarteratzea eta laneratzea bizkortzen ditu, eta horrek gizarte-babeserako euskal sistemarako bidea eta dokumentuen erregularitasuna erraztuko ditu. Ofiziozko baja horiek ekidin litezke gizarte-eroldaren edo fikziozko eroldaren aukera landuta.

2.9. Beste araudi aplikagarri batzuk ere badauden arren, atzerritarrek Espainian dituzten eskubide eta askatasunei eta haien gizarteratzeari buruzko urtarilaren 11ko 4/2000 Lege Organikoa da, gehienbat, azterlan honen xede den gizataldeari aplikatzen zaiona, EAEn bizi diren gazte migratzaileen jatorria, nagusiki, Maroko baita.

2.10. Gazte migratzaile horiek, oro har, beharrezko dokumentaziorik gabe eta baliabide ekonomiko egokirik egiaztatu gabe sartzen dira Estatuan, eta, beraz, administrazio-egoera irregularrean daude, gehienbat.

2.11. Atzerritartasunari buruzko araudiak baldintza jakin batzuk ezartzen ditu bizilekua izateko, lan egiteko administrazio-baimena emateko eta administrazio-egoera erregularra eskuratzeko, eta baldintza horiek betetzea zaila da.

2.12. 18 urtetik gorako gazte atzerritarrek atzerriko edozein helduri ematen zaion tratamendu juridiko bera jasotzen dute, ñabardura batzuekin, baldin eta babes-erakunde baten tutoretzapean egon badira, nahiz eta adin horretan artean laguntza eta babesa behar duten eta erreferentzia-esparru atsegina eta egonkorra behar duten.

2.13. Tutoretzapean egon ez diren gazteek hiru urtez bizi izan direla egiaztatu behar dute (batez ere udal-errola aurkeztuta), bai eta urtebeteko lan-kontratua ere, lanbide arteko gutxieneko soldata bermatzen duena.

2.14. Araudiak erraztu egiten du babes-erakunde baten tutoretzapean dauden adingabe atzerritarrek bizileku- eta lan-baimena eskura ditzaten; beraz, adin-nagusitasunera iristen direnean, bizilekua izateko administrazio-baimena ez ezik, lan egiteko administrazio-baimena ere izan dezakete. Espainiako nazionalitatea eskatzeko edo iraupen luzeko egoitza bati heltzeko ere erraztasun handiagoa dute.

2.15. Babes-erakunde baten tutoretzapean dauden bitartean jasotzen duten arreta juridikoak, sozialak eta hezkuntzakoak erraztu egin dezakete, neurri handi batean, osteko gizarteratzeko prozesua.

2.16. Tutoretzapean egon diren bitartean, administrazio-egoera erregularra lortzerik izan ez badure, araudiak berariazko prozedura bat arautzen du tutoretza jaso duten gazte horiek bizitzeko administrazio-baimena eskatu ahal izan dezaten.

2.17. Administrazioak ematen duen bizileku-baimena berritzeko, alderdi kuantitatibo jakin batzuk bete behar dira, eta orain dela gutxi arte, horien ordez, gizarte- eta hezkuntza-arretako programa publikoetan parte hartu ahal izan da.

2.18. Une honetan, gobernu-ordezkariordeztza batzuek araudiaren interpretazio murriztailea egiten dute, zenbait erabaki judizialen ondorioz. Interpretazio horrek dioenez, gazteak egiaztatu behar du baliabide ekonomiko propioak dituela, eta horretarako ez du balio ostatu-, elikadura-, hezkuntza- eta prestakuntza-premiei aurre egitea xedatzen duten programetan parte hartzeak. Horrek eragina dauka emantzipazio-programei lotutako bizitokietan (oro har, administrazio publikoekiko hitzarmena sinatuta duten gizarte-antolakundeek kudeatutakoetan) artatzen diren tutoretzapeko gazteek bizileku-baimenak lortu eta berritzeko aukeran, modu batera edo bestera lurralde historikoa zein den.

2.19. Gaur egun, irizpide desberdinak daude EAEko hiru atzeritartasun-bulegoen artean, hasierako baimena eskatzeko betekizunei dagokienez eta tutoretzapean egon diren gazteen egoitza-baimenak berritzeko betekizunak egiaztatze moduari dagokionez.

2.20. Herriaren Defendatzaileak araudi hori aldatzea proposatu du, tutoretzapekoak izan diren gazte atzeritarren irregulartasun-egoera saihesteko, askotan, gerora sortzen baita. Autonomia-erkidegoetako gainerako herriaren defendatzaileek ere babestu dute proposamena, eta Gobernuak onartu egin du. Gomendio horrek aukera emango lioke gazteari baliabide ekonomikoak egiaztatu dituzan, hura tutoretzan hartu zuen erakunde publikoaren helduarora bideratzeko programa batean edo, hala badagokio, zaintzan daukan erakunde pribatuak kudeatutako gizarteratze- eta laneratze-programa batean sartuta.

2.21. Gazte migratzaileek ez dituzte betetzen diru-sarrerak bermatzeko errentaren eta etxebizitzako gastuetarako prestazio osagarriaren prestazio ekonomikoak jasotzeko baldintzak, eskatzen den adinera iristen ez direlako eta aldez aurretik erroldatuta egon izana egiaztatu ezin dutelako. Era berean, ezin zaie desgaitasun edo mendekotasunaren egoera ebaluatu, administrazio-egoera irregularrean daudelako eta ez dutelako egiaztatzerik aldez aurretik ezarritako bizileku-epea.

2.22. Zailtasun handiak dituzte etxebizitza-merkatu pribatura jotzeko, eta gehienek ezin dute izenik eman babes publikoko etxebizitza-eskatzaileen erregistroan, Etxebiden, ez dituztelako betetzen erroldari lotutako baldintzak edo administrazio-egoera irregularrean daudelako. Halaber, ezin dute parte hartu etxebizitza ohiz kanpo esleitzeko prozeduretan.

2.23. Bizitegia izateko erantzun bakarra emantzipazioari laguntzeko programetik dator. Programa horiek hainbat izenen arabera kudeatzen dituzte foru-aldundien gizarte-zerbitzuek eta zenbait udaletako gizarte-zerbitzuek, hala nola Vitoria-Gasteizkoak. Arabako hiriburuko udalak urteak daramatza talde kalteberentzako programa berariazkoak garatzen, besteak beste, egoera ahulean dauden gazteentzat, eta egoitza-baliabideak eta gizarte- eta hezkuntza-laguntza eskaintzen dizkie, haien gizarteratzea eta laneratzea errazteko. Programa horiek guztiak

errotazio txikikoak dira, aipatutako gazteek autonomia lortzeko zailtasunak dituztelako.

2.24. Programa horiei heltzen ez dieten gazte askok kalean amaitzen dute, eta udalen larrialdiko gizarte-zerbitzuek artatzen dituzte bizitegi-bazterketako egoeran dauden pertsonentzat egokitutako baliabideen bidez, baina baliabide horiek ez dira egokiak haientzat.

2.25. Bizitokirik ez dutenez, zeinahi egonaldi luzatu nahi izaten dute egoitza-zentro batean (babesgabetasun-egoeran dauden adingabeentzako zentroetan edo gazte-justiziako sisteman askatasunaz gabetzeko neurriak hartzeko egokitutako zentroetan).

2.26. Lan prekario, ezegonkor eta gutxi ordaindutakoetan aritzeko aukerarik besterik ez dago gehienetan.

2.27. Gazte gehienek lanbide-gaikuntza eskuratzeko eta enplegua lortzeko motibazioa dute. Helduen Hezkuntzak edo gizarte-erakundeek eskainitako gaztelaniako eskoletara eta askotariko erakundeek eskainitako gaikuntza-prestakuntzan parte hartzen dute.

2.28. Biziki garrantzitsua da prestakuntza-aukerak sortzea 16 eta 23 urte bitarteko gazteentzat, prestakuntza-ibilbide egokituak eta malguak eskainita, bai Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak ematen dituen ikasketetan, bai lanbide-ziurtagiriak lortzeko bidea ematen duten prestakuntza-saioetan.

2.29. Esan beharrik ez dago hizkuntzaren ikaskuntza sustatu behar dela eta garraio-gastuetan lagundu behar zaiela, prestakuntza-saioetara joatea izan dezaten eta hasitako prestakuntzaren emaitzan eragina izan dezaketen beste baldintza batzuei erantzun, hala nola ostatua, oinarriko baliabide ekonomikoak izatea edo laguntza-baliabideen ordutegi-koordinazioa erraztea (adibidez, eskolara ala gizarte-jantokira joateko aukeratu behar ez izatea, bataren eta bestearen ordutegiak bateraezinak direlako). Ikasketekin jarraitzeko laguntza ekonomikoa ezinbestekoa da, batez ere, ikasleak aprobeixamendua eta ikasten jarraitzeko borondatea erakutsi duen kasuetan, bai eta goi-mailako ikasketetan ere.

2.30. Lan egiteko administrazio-baimenik ez duten gazte atzerritarrek ezin dute lan-praktiketan parte hartu, nahiz eta prestakuntza-programaren funtsezko zati izan. Era berean, ezin dute laneratze-enpresetara jo administrazio-egoera erregularrean ez badaude, ezin baitute izena eman enplegu-eskatzaile gisa, laneratze-enpresa batean enplegarria izan daitekeen kolektiboa izan arren. Oztupo horiek nabarmen mugatzen dituzte enplegua lortzeko eta egoera administratiboa erregularizatzeko aukerak.

2.31. Familiako erreferenterik ez duten gazte migratzaileek osasun-baldintzatzaile kaltegarri ugari dituzte.

2.32. Gazte horietako batzuek, lehenago jasan dituzten gertaera traumatikoekin eta arazoan pilaketarekin zerikusia duten inguruabarrengatik eta amets egin duten migrazio-proiektua ez, bestelako proiektu batek eragindako frustrazio orokorragatik, migrazio-doluaren araberako esku-hartze psikosoziala eskatzen dute. Gazte horien arazoan larritasunak buruko patologiarenekin bat diagnostikatzeko irismenik ez badu

ere, jokabide-arazoak edo gehiegizko droga-kontsumoa eragin ditzakete, eta neurri egokiak hartu behar dira mendekotasuna gainditzeko prozesuan laguntzeko. Patologia horiek saihesteko laguntza- eta prebentzio-aukerak, hortaz, oso garrantzitsuak dira.

2.33. Halako gazteek asebieterik ez duten premietako bat komunitate bateko kide direlako eta gizarteratuta daudelako sentimendua da; izan ere, deslotze eta deserrotze handia pairatzen dute eta, horren ondorioz, bakardade-sentimendua azaleratzen da. Haien erreferentziarik hurbilena, nagusiki, berdinen taldearena da eta taldearekiko harreman solidarioak garatzen dituzte, baina baita taldearen presioari lotutako arriskua ere agertzen da, bai eta jokabide arriskutsu edo bidegabe batzuk bultzatzeko eragina ere.

2.34. Familiaren laguntzarik edo komunitateari lotutako kontakturik ez dutenez, eta estigmatizazio handia pairatzen dutenez, oso egoera ahulean daude. Ez dute helduaroan laguntzeko erreferentziako pertsona egonkorrik alboan, laguntza kognitibo eta emozional egokia ematen dienik.

2.35. Egia esatera, zailtasun materialei aurre egiteko ez ezik, kultura-talkak eta ikuspegi ez oso errealistan oinarritutako migrazio-proiektua berregiteak eragindako zailtasunei aurre egiteko ere oso gazteak dira.

2.36. Aisialdia, astialdia eta baliabide komunitarioetan parte hartzea interes handiko tresnak dira goranzko mugikortasun soziala zailtzen duen gizarte-isolamenduari aurre egiteko. Horregatik, oso garrantzitsua da zeinahi diskriminazio-egoera antzematea gizarteratze-eremuak baliatzerakoan.

2.37. Beste alde batetik, funtsezkoa da gure kaleetan gertatzen ari diren arrisku-egoerak prebenitzea eta horiei aurre egitea: prostituzioan diharduten gizonezko gazteak, behartutako ezkontzetatik ihesi jatorrizko herrialdetik ihes egin duten emakumeak edo sexu-esplotazioko sareek atzemandakoak, muturreko pobrezia-egoerak, eraso fisikoak eta sexualak. Gizarte-arreta egokia izateak saihestu egiten du gazte horiek esandako delituak jasan ditzaten. Ahalduntze-programak bultzatzea oso lagungarria izan daiteke gazteak indartzeko.

3. Garatutako programak eta esku-hartze publikoak

3.1. Arartekoak administrazioei igorritako informazio-eskaerari emandako erantzunetan, arreta modu integralean diseinatzen duen eta zerbitzu publikoen funtzioak aintzat hartzen dituen programa edo estrategia baten beharra nabarmendu da. Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiken Sailak, gaur egun, Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiken Sailak, jakinarazi du helburu horri lotutako ekimen pilotu bat abian jarri duela.

3.2. Nahiz eta zenbait administrazio publikoren arteko koordinazioa egon dagoen, zerbitzuak kudeatzeko behar zuzenagoei eta, adin-nagusitasunera iristean, gazteak zerbitzu jakin batzuetara bideratzeari lotutakoa, beharrezkotzat jotzen da koordinazioa lantzeko aurreikuspen handiagoa izatea eta administrazio publikoek parte-hartze zabalagoa izatea (gomendagarria litzateke, adibidez, Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza Sailburuordetzak parte hartuko balu).

3.3. Emandako erantzunetan, administrazio publikoek zalantzak adierazi dituzte gazte horiei arreta emateko eskumena zer administrazio duen. Hau da, arreta gizarte-zerbitzuei (foru- edo udal-zerbitzuei) dagokien edo Eusko Jaurlaritzari dagokion, hainbat alderdi eta eskumen zentralagoak biltzen dituzten beharrak baitira.

Diru-sarrerak bermatzea

3.4. Azterlan honetan jasotako informazioak agerian uzten du ez dagoela diru-sarrera nahikorik gazte horien oinarriko beharrak asetzeko. Diru-sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemaren prestazio ekonomikoak jasotzeko eskubiderik ez dute adinaren kariaz, eta gizarte-bazterketako egoera pairatzen badute ere, foru-aldundiek eta udal batzuek sustatutako diru-laguntzak ez dira nahikoak gazte horien guztien beharrei erantzuteko.

3.5. Bizkaian, Gizarteratzeko Laguntzen onuradun izateko, etxebizitza berean, gehenez ere, bi bizikidetz-unitate egoteko mugak are gehiago zailtzen du etxebizitza edo logela bat eskuratzea. Aitzitik, aurkeztu beharreko dokumentazioaren inguruko betekizunen malgutasunak ostatua eskuratzea errazten du.

Gizarte zerbitzuak

3.6. Tutoretzapeko adingabeak artatzen dituzten foru-aldundietako haur-zerbitzuak foru-aldundietako gizarteratze-zerbitzuekin koordinatzen dira, eta, Arabaren kasuan, Gasteizko Udalarekin, adin-nagusitasunera iristen direnean.

3.7. Foru-aldundiek emantzipatzen laguntzeko programa mugatuak garatu dituzte; izan ere, programa horietan ez dute gazte guztiek parte hartzen, babes-erakundeen tutoretzapean egon direnek baizik (eta ez gizonetzko gazte guztiek). Adin nagusikoak direla, Euskadira iritsi diren gainerako gazteei ematen zaien arreta udaletako gizarte-larrialdietako gizarte-zerbitzuek hartzen dute beren gain, edo, kasu batzuetan, zenbait udalek sustatzen dituzten gizarte-bazterketako arriskuan dauden gazteentzako programen bidez eskaintzen dira.

3.8. Udalaren gizarte-zerbitzuak foru-aldundien programetan parte hartzen ez duten eta familiako erreferenterik ez duten gazte migratzaileei laguntzen ari dira, eta hainbat zerbitzu eta prestazio ekonomiko eskaintzen dizkiete. Kasu batzuetan, laguntza sozioedukatiboa eta/edo lekua eskaintzen diete tutoretzapeko etxebizitza batean (egoitza kolektibo batean ostatua eskaintzea ere izan daiteke, edo etxerik gabeko pertsonentzako neguko ostatu-zerbitzua eskaintzea).

3.9. Gizarte-larrialdietako gizarte-zerbitzuen bidez, udalek artatzen duten familiako erreferenterik gabeko gazte migratzaileen kopurua oso handia da, beste kolektibo batzuen aldean, hala nola etxerik gabeko pertsonen kopuruaren aldean, batez ere Bilboko Udalak.

3.10. Udal batzuk beste batzuk baino arreta handiagoa ematen ari dira egun, batez ere, gizarte-bazterketa larrian eta bizitegi-bazterketako egoeran dauden pertsonak artatzeko baliabideak garatu baldin badituzte.

3.11. Foru-aldundien programak heterogeneoak dira eskaintzen dituzten zerbitzuei gagozkiela, bai haien diseinuari dagokionez, bai programak osatzen dituzten zerbitzu eta prestazioei dagokienez, horiek eskuratzeko aukerari dagokionez, bai horien hartzaile diren pertsonari dagokienez.

3.12. Bizkaiko Foru Aldundiak bakarrik jakinarazi du gizarte-bazterketaren ebaluazioa egiten duela eta gazte horiei arreta emateko diagnostiko espezializatua garatzen duela.

Orientabide juridikoa

3.13. Familiako erreferenterik ez duten gazte migratzaileentzako orientabide juridikoko hainbat zerbitzu daude. Zerbitzu horiei esker, lurralde osora hedatzen da arreta juridikoa, eta udalerrri eta eskualde askotara iristen; hala ere, gizarteratze- eta laneratze-prozesuan duen garrantzia kontuan hartuta, beharrezkoa da horiek ebaluatzea eta indartzea, horietan esku hartzen duten eragile publiko eta sozialekin batera erantzun egituratua, sendoa eta koordinatua emateko.

Prestakuntza eta enplegua

3.14. Prestakuntza-ibilbideak baliatuz, enplegurako sarbidea hobetzeko zenbait ekintza abian jarri dira, hala nola Bizkaiko Foru Aldundiak bultzatutako programa edo Lanbidek kualifikazio txikiko gazteentzat antolatutako prestakuntza-ekintzak. Hizkuntza jakin beharrak edo diru-sarrerak behar izateak eragina du hizkuntzaren partaidetzan eta aprobetxamenduan.

3.15. Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saila aukera ematen ari da gazte horietako batzuek Oinarrizko Lanbide Heziketan parte har dezaten, baldin eta lehendik dauden talde eta moduluetan plaza libreak badaude. Aukera bikaina bada ere, gaikuntza-bide hori sendotu daiteke, eskubide osoko ikasle gisa onartuz eta horiei guztiei salbuespenik gabe erantzuteko beharrezkoak diren taldeak antolatuz, edo, bestela, berariazko deialdi baten bidez, 17 urtetik gorakoentzat eta bigarren mailako ikasketak egiaztatuta ez dituztenentzat. Aukera hori ekainaren 9ko 86/2015 Dekretuaren 16.2 artikuluan jasota dago.

3.16. Gazte horiek laneratze-enpresek sustatutako enpleguari heltzearen inguruko informazioa eskatu bada ere, ez da galdera horren erantzunik jaso.

Osasuna eta desgaitasuna

3.17. Gainerako atzerritarrek baliabide ekonomiko nahikorik ez dutenean euskal osasun-arreta publikoa erabil dezaketen bezala, gazte migratzaileek ere balia dezakete, udal-errodan inskribatuta badaude (osasuna osorik babesteko programa) edo gizarte-erakundeek kudeatutako programetan parte hartzen badute (errodan izena emanda ez badaude). Azkenik, ospitaleko larrialdi-zerbitzuetara ere jo dezakete. Gizarte-bazterketako egoeran dauden pertsonentzako berariazko zerbitzu soziosanitarioak eta kaleko laguntza psikiatrikoa edo Bilboko udalerrian susperraldi-zerbitzuak ere eskura ditzakete.

Osasun mentalaren eta desgaitasunaren ebaluazioaren arloan diagnostikatzeko zailtasunak daudenez, programa espezializatuak dituzten gizarte-zerbitzuek artatzen dituzte pertsona horiek jokabidean dituzten ondorioak, osasun-arazoekin lotura

handiagoa duten premia horiei erantzuteko dituzten mugak gorabehera. Horrexegatik da garrantzitsua eremu soziosanitarioa garatzea.

3.18. Bizkaiko Foru Aldundiak osasun-arloko berariazko laguntza-programa bat garatzen du adikzioei aurre egiteko.

Etxebizitza

3.19. Babes publikoko etxebizitzarik eskuratzea ezinezkoa da gazte migratzaileek ez dituztelako betetzen babes publikoko etxebizitzaren eskatzaileen erregistroan araututako administrazio-egoerari edo antzinatasunari buruzko baldintzak (4 urte). Zeharka, kasu batzuetan, babes publikoko etxebizitzak erabil ditzakete, administrazio publikoek edo etorkinen eskubideen defentsan lan egiten duten gizarte-erakundeek kudeatzen dituzten programen erabiltzaileak direlako. Etxebizitza eskuratzeko zailtasunaren eraginez (nahiz eta logela bat izan) etxebizitza horietako txandakatzea oso mugatua izan ohi da, eta tutoretzapeko etxebizitzetako egonaldia betikotu egiten da.

Bizilekua eskuratzeko zailtasunak gainerako neurriak baldintzatzen ditu, bizilekuarena aurretiazko baldintza baita lanbide-gaikuntzan, komunitate-loturak sortzen edo enplegua bilatzen aurrera egin ahal izateko.

Parte-hartze komunitarioa, gizarte-sentsibilizazioa eta diskriminazioaren aurkako borroka

3.20. Hainbat ekimen jarri dira abian gazteek gizarte- eta kultura-bizitzan parte har dezaten bultzatzeko, errespetuzko eta bizikidetzazko jarreretatik abiatuta, sentsibilizatzeko eta gizarte-loturak nahiz elkarguneak indartzeko helburuz.

3.21. Udalerri batzuetan, gazteentzat edo etorkinentzat garatutako programek zerbitzu interesgarriak eskaintzen dituzte gazte horientzat.

3.22. Zurrumurruen aurkako gizarte-sentsibilizazioko ekimen ugari daude lurralde osoan, hainbat administrazioek eta gizarte-erakundeek bultzatuta. Tresna espezifiko bat ere badago, Eraberean sarea izenekoa, hau da, Eusko Jaurlaritzak bultzatutako gizarte-erakundearen sarea, arraza-, etnia- edo nazio-jatorriagatiko eta sexu-orientazio nahiz -identitateagatiko eta genero-identitateagatiko diskriminazioaren aurka borrokatzeko.

3.23. Duela urte batzuetatik hona, Eusko Jaurlaritzaren Gizarteratzea eta Kulturarteko Bizikidetzaren Euskal Zerbitzuak (Biltzen) aholkularitza eta laguntza ematen die eragile publikoei zein gizarte-esparrukoei, kulturen arteko bizikidetzari buruzko ekintzak bultzatzeko eta kulturartekotasun berdintasun eta diskriminazioaren aurkako borrokari lotutako prestakuntza-ekintzak garatzeko.

Erljio- eta kultura-aniztasuna

3.24. Gazteei arreta zuzena ematen dieten herri-administrazioek fedearen aitortzari doazkion beharrianak kontuan hartzen dituzte, bai zerbitzuetan, bai menuetan, bai zenbait jaiegun ospatzerakoan, bai Ramadanaren esanahian.

3.25. Kultu-aretoei buruzko Legean aurrera egiten urteak daramatzaten arren, aurreko legealdian ez zen onartu, eta parlamentu-izapidea bertan behera geratu zen.

3.26. Komunitate islamdarrekiko elkarrizketaz denaz bezainbatean, Eusko Jaurlaritzak zenbait neurri hartu ditu eta beste batzuk aurreikusita ditu komunitate horiek kezkatzen dituzten gaiak identifikatzeko, harremanak sustatzeko eta erradikalizazio bortitza prebenitzeko programak gauzatzeko.

4. Covid-19ak sorrarazitako larrialdi-deklarazioaren ondorioz gauzatutako jarduerak.

4.1. Alarma-egoerak iraun zueneko hilabeteetan eta, kasu batzuetan, ondoko hilabeteetan ere bai, gazteek ostatu-baliabideak erabili eta oinarritzko beharrak bete ahal izan dituzte. Zerbitzuetan parte hartu ahal izan dute, eta pairatutako egoerari eman beharreko osasun-arreta izan dute. Administrazio batzuek jakinarazi dute prestazioei heltzeko modua erraztu dutela, dokumentazioari buruzko betekizun batzuk malgututa.

4.2. Eusko Jaurlaritzak aparteko funts bat aktibatu du, hainbat programaren bidez, krisiak pertsona eta familia ahulenengan izan duen eraginari erantzuteko. Horri esker, etxerik gabeko pertsonen arreta hobetu da, eta, horien artean, kalean bizi ziren gazte atzerritarrena. Laguntza horrek 2020ko abendura arte iraun du, eta horren luzapena iragarri da, etxerik gabeko pertsonentzako Euskal Estrategia bete delarik. Egindako ahalegina gorabehera, hilabete hauetan ere jakin dugu oraindik ere badirela kalean bizi diren gazte migratzaileak.

4.3. Arartekoak berriki adierazi du arreta horri jarraipena eman behar zaiola 2020ko ekainaren 5eko 2/2020 Gomendio Orokorra dela bide: *Euskal administrazio publikoek jarraipena eman behar diete kalean bizi diren pertsonak artatzen orain arte egindako ahaleginei, betiere Etxegabeentzako Euskal Estrategiako (2018-2021)jarraibideak betez.*

Azken batean, egindako ikerlanak erakusten digu administrazio publikoak (hainbat eremutan, intentsitate desberdinez eta zerbitzu/programa berariazkoak erabiliz) Euskal Autonomia Erkidegoan dauden eta familiako erreferenterik ez duten gazte migratzaileen beharrei erantzuten ari direla. Hala ere, agerikoa da erantzun horien irismena ez dela erabatekoa izaten ari, gazte guztiengana iristen ez delako, bizi-dimentsio guztietako premiak betetzen ez dituelako edo modu partzial eta osatugabeen egiten delako.

Gazte horien beharrei eta eskubideei erantzuteko eta orain arte egin denaren eta behar lukeenaren arteko tartea laburtzeko edo saihesteko, hainbat gomendio proposatzen dizkiegu ukitutako administrazio publikoei. Hurrengo kapituluan jasotzen dira gomendioak.

7. GOMENDIOAK

I. Solasaldia Estatuko Administrazio Orokorrekin.

Eusko Jaurlaritzari solasaldian egotea eta Estatuko Administrazio Orokorrekin lankidetzan aritzea dagokio Immigrazioko Sektore Konferentzian eta beste lankidetzako-organismo batzuetan. Gazte horiek artatzearen helburua da laneratzea eta autonomia pertsonala lortzea. Horretarako, titularrek administrazioaren egoitza eta lan baimen bat behar dute. Haiek prestatzeko eta gizarte-laguntza emateko erabilitako baliabideek, eta gazteak gure gizartean sartzeko egindako esfortzuek, aipatutako baimena badute bakarrik izango dute emaitza. Lan-baimenen arloan, etorkizunean gerta daitekeen estatutuen erreforma kontuan hartuz, eskumena besterentzeko aukera funtsezkoa izango litzateke gizarteratze eta laneratze prozesu osoari arreta integrala emateko helburua lortzeko. [Arartekoaren 2020ko urtarrilaren 7ko ebazpenak](#) amaitu egiten du 2018ko udan iraganbidean zeuden migratzaileak gurera iritsi izanari lotuta Arartekoak egin zuen jarduketa. Ebazpen horren ondorioen artean hauxe aipatzen da: "eskumen-esparrua argitu beharra dago, eta haiek euskal agendan eta ekintza politikoan sartu, esparru konstituzionala errespetatuz, funtsezkoak baitira euskal gizartearen etorkizunerako". Horrez gain, eskumenak EAeri immigrazioaren, atzeritartasunaren eta bizikidetzaren arloko eskumenak transferitzeko aukera baloratzen zen, izan ere, erraztu beharko lukete etorkizunean harrera- eta gizarteratze-politika koordinatua, eraginkorra eta zorrotza gara daitezen EAEn.

Azterlan honetan zehar ikusi denez, egoitza-baimenak berritzeko, eragozpen handiak aurkitzen ari dira, gazte migratzaileek beren baliabide ekonomikoak egiaztatu behar dituztelako. Horrez gain, ez dira baldintza berdinak eskatzen gobernuaren hiru ordezkariordetzetan. Arartekoak gomendio bat egin du, gainerako autonomietako arartekoek bermatuta, eta hor, arautegia aldatzea proposatzen du. Azken batean, xedea da helduarora bideratzeko programak baliagarriak izatea egoitza-baimena berritzeko baldintzak betetzen direla egiaztatzeko.

Errotzeari eta integrazteko esfortzuari buruzko txostenen edukia, kalitatea eta horiek egiteko epea oso interesgarriak dira, egoitza eta lan baimenen administrazio-espeditatearen barruan daudelako. Bestalde, gizarteratze eta laneratze prozesuan duten eragina azpimarratu egin da azterlanean zehar. Horretarako, beharrezko jarduketak egitea garrantzitsua da, gaur egun dauden atzerapenak ekidin daitezen, dagozkion erabakiak hartuta, administrazio publikoak buru ditzan, izan ere, zuzenean ezagutzen ditu, bai haien egoera pertsonala eta soziala, bai integrazteko diren prestakuntza- eta hezkuntza-proposamenetan duten partaidetza eta inplikazioa.

Enpresetan ezin dute praktkarik egin, legez kontrako administrazio-egoeran daudelako. Hori, eragozpena ere bada, eta gazte horiek ezin dute eskuratu prestakuntza hori egin duten egiaztatzen duen ziurtagiria. Zailtasun hori gainditzeko ezinbestekoa da legezko bideak bilatzea, modalitate hori hautatzeko aukera izan dezaten, hots, lanbide-prestakuntza hori eta lan egitea txandakatzea. Eusko Jaurlaritzak aktiboa izan beharko luke Estatuarekin dauden lankidetzako organoetan beharrezko ekimenak sustatzen, edo legezko ekintza eta ekintza judizial egokiak egiten, gazte horiek laneko praktikak egiteko aukera izan dezaten. Horrela, gainerako gazteek bezala, lan-prestakuntza izateko eskubideaz gozatu ahal izango dute.

Adierazitako guztiagatik, Arartekoak hauxe gomendatzen du:

Eusko Jaurlaritzaren Berdintasuna, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailari,

1. Beharrezko ahalegina egin dezala administrazio-egoerako lan-baimena EAERI eman diezaioten bultzatzen. Era berean, Estatuko Administrazio Orokorrekin koordinazioa bultzatzea, Euskal Autonomia Erkidegoan dagoen ordezkariarekin bereziki, administrazioaren egoitza- eta lan-baimena lortzen eta berritzen lagun dezaten, guztiontzat berdina diren baldintzekin, hiru gobernu-ordezkariordeztzetan koordinatuz.

2. Koordinazio-lerro egonkorra ezartzea gobernu-ordezkariordeztzekin, gazte horien dokumentazio-prozesuan laguntzeko, egoitza- eta lan-baimena lortzen errazteko, eta gerora sortutako irregulartasuna (irizpideak ezagutzea, errotzeari eta integrazteko esfortzuari buruzko txostenen edukia...) saihesteko.

3. Beharrezko jarduketak egin daitezela, eta dagozkion erabakiak har ditzatela, errotzeari eta integrazteko esfortzuari buruzko txostenak denboran luzatu gabe egin daitezen, eta gazte horien inguruabar pertsonalak eta sozialak zuzenean ezagutzen dituen administrazioak egin ditzake. Xedea da txosten horiek eginkizuna garrantzitsua izan dezatela atzerriko gazteen dokumentazio-prozesuan.

Eusko Jaurlaritzako Lan eta Enplegu Sailari, eta Hezkuntza Sailari,

4. Berdintasuna, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailarekin koordinatuz, beharrezko jarduketak susta ditzatela, lanbide-prestakuntzako programetan parte hartzen duten eta aldi berean enpresetan praktikak egiten dituzten gazteei lagundu ahal izateko.

5. Era berean, gizarteratze eta laneratze programak bultzatuz, alde aurretik Estatuko Administrazio Orokorrekin koordinatuz, lan egiteko administrazio-baimena eskuratzea aurreikusten dutenak.

II. Familia-erreferenterik ez duten 18 eta 23 urte arteko gazte migratzaileen beharrei emandako erantzun integral eta koordinatua.

Familia-erreferenterik ez duten gazte migratzaileen beharrak Euskal Autonomia Erkidegoan dagoen beste edozein gazteren antzekoak dira helduarora bideratzeko prozesuan. Horrela, gero eta handiagoak diren autonomia-mailekin, proiektu pertsonal eta familiarra garatzen laguntzen du. Hala ere, gazte migratzaile horiek zenbait eragozpen aurkitzen dituzte. Alde batetik, erkidegoak ez diren atzerritarrak direlako, eta bestetik, lurraldean familiarik ez dutelako. Horrenbestez, ez dute euskal gazteak emantzipatzeko prozesuen benetako euskarririk. Horren ondorioz, haien beharrei modu holistikoa, ez gizarte-zerbitzuek bakarrik, erantzuten dien eta azterlan honetan aurkitutako ahultasuna eta berariazko beharrak kontuan hartzen dituen programa bat izatea garrantzitsua denez, gomendio hau lan honen proposamen nagusia da.

Orain arte, zenbait administrazioek erantzun diete gazteek egindako eskaerei, programa, zerbitzu edo prestazioen baldintzak kontuan hartuz. Hala ere, emantzipazio-programek edo horien antzekoek izan ezik, beste guztiek ez diete erantzun borondatez behar guztiei. Behar horiei guztiei erantzuteko, banako bakoitzaren beharrak arlo guztietatik kontuan hartu beharko lirateke (hala nola, etxebizitza, hezkuntza, prestakuntza, sarrerak bermatzea, orientabide juridikoa, laguntza, erkidegoaren partaidetza, aisialdia eta abar), modu dinamikoan eta elkarri eraginez.

Bestalde, erantzunak nahitaez pertsonalizatua izan behar du, eta hezkuntzarekin nabarmen lotutakoa. Horrek, bideak beti ez direla ez linealak, ez pixkanakakoak, onartzea eskatzen du. Batzuetan pertsonari, eta beste batzuetan testuinguruari (gogoratu azterlan honetan zehar azpimarratzen ari garen administrazio-egoeraren eragina) egotzi ahal zaizkion inguruabarrak dira aurrerapenak eta atzerakadak dituzten prozesuen erakusgarri. Izan ere, erritmoak desberdinak dira eta eragozpenak zein laguntzen duten elementuak daude. Beraz, banakako planean garrantzi berezia hartzen dute helburu pertsonalak ezartzeak, eta emantzipatzea, autonomia eta integritatea lortzeko bide horretan laguntzeak.

Era berean, **sektore eta erakunde arteko koordinazio antolatua** eskatzen du, hau da, koordinazioa ez mugatzea bakarrik zerbitzu jakina kudeatzera, baizik eta nahitaezko izaera ematen dion aurreikuspena eta formulazioa egotea, garatu behar diren fase, zerbitzu eta eskumen desberdinak ezagutzeko aukera eman dezan. Horrez gain, esku hartzen duten eragile publikoak eta gizarte-eragileak batera aritzea ere eskatzen du.

Erantzun integrala emateko, **lidergoa** behar da, esku hartzen duten gainerako eragileen laguntza eta adostasunarekin estrategia bat diseinatu eta haren garapena sustatu eta bultzatzen duena. Eusko Jaurlaritza da lidergo hori garatu behar duen administrazioa, gazteen esparruetan kudeaketa-programak eta zuzentarauak ezartzeko eskumena duelako (eta arduradunek emantzipatzen laguntzen duen zeharkako ekintza bat bultzatzeko asmoa agertu dutelako). Horrez gain, etorkinen integrazioaren ta gizarte-partaidetzaren arloan politika integral eta zeharkakoa diseinatu eta garatu behar dute. Etorkinei eta gazteak emantzipatzen laguntzeko esparru orokor honi lotuta, familia-erreferenterik ez duten gazte migratzaileen zailtasunei berriaz erantzuten dien programa edo estrategia bat egitea ere kontuan hartu behar da.

Testuinguru hurbilean familia-erreferenterik ez egotearen ondorioz, gizarte- eta hezkuntza-laguntza bereziki garrantzitsuak dira, gainerako jarduketan elementu integratzailea delako. Pertsona erreferente horren laguntza, gizarteratze- eta laneratze-ibilbidean laguntzen duen profesionala dena, borondatezkoak diren gizarte-aholkularitzako ekimenekin osa daiteke. Horrela, abegi-gizartea inplikatu ahalko da, eta loturak ezarriko dira pertsona eta familia euskaldunekin, edo beren nazionalitateko pertsonekin, gizarteratze, laneratze eta gizarte-partaidetzako helburuak betetzen lagun dezaten. Bestalde, haien beharrekin bat datozen eta haiei erantzuten dieten erreferentziak jarraitutasunez izan ahalko dituzte.

Dena den, Euskadin etorkinak hartzeko programa edo arautegirik oraindik ez egoteak ez luke eragozpenik izan behar gazte horien beharrei erantzun integral bat diseinatzeko. Izan ere, haien ahultasun-egoerak premiazko jarduketak eskatzen du, azterlan honen emaitzei erreparatzen badiegu. Hala eta guztiz ere, immigrazio eta kulturarteko arloko harrera-programa bat antolatzea eta ezartzea Eusko Jaurlaritzaren esku dagoenez, esparru horretan egiten diren jarduketek azterlan honek artatzen dituen gazteen errealitatea kontuan hartu beharko dute.

Programaren izaera integralak eta gazte horien beharren bat artatzen duten esparru publikoetan eskumenak dituzten administrazio guztiek parte hartzeak, haien berriazko errealitatea eta behar bereziak kontuan hartzea ekartzen du, araudiko eta sektore-plangintzako tresna guztietan: dekretuetan eta etxebizitza-planetan, prestazio edo zerbitzuen zorroaren dekretuan gerta daitekeen aldaketan, egiteko dagoen sektoreko arautegia egitean, edo datozen urteetan gizarte-zerbitzuen sistemaren jarduketak jorratzen dituen plan berrian. Halaber, diru-sarrerak bermatzeko politika arautzen duten xedapenetan, heziketa-zikloetan edo lanbide-prestakuntzako zikloetan sartzeko arauetan, eta euskal gizarte-babeseko sistema osatzen duten gainerako zerbitzu eta prestazioetan kontuan hartu beharko litzateke. Horiek guztiek, gainera, ezinbesteko genero-ikuspegia ere kontuan hartuko lukete, taldean gero eta gehiago diren nesken beharrak kontuan hartu eta artatzen dituen.

Errealitate hori erantzun publikoari gehitzeko, eta abian jartzen diren neurrien eraginkortasuna bermatzeko, merezi du nabarmentzea funtsezko elementua dela eragile publiko eta sozial guztiek erakundeak eta familia-erreferenterik ez duten gazteen egoera eta eskubideak ezagutzea, horri buruzko informazioa izatea, eta horretan prestakuntza izatea.

Azkenik, proposatutako programa integral hau diseinatzean, egitean eta gauzatzean, gizarte-ekimena kontuan hartu beharko da, gazte horien arretan funtsezko eginkizuna duelako. Esku-hartze sozialaren esparruan Hirugarren Sektoreko erakundeak funtsezkoak dira zenbait jarduketa egiteko, hala nola, herritarren parte-hartzeari eta gizarte-sentsibilizazioari buruzkoak. Hain zuzen ere erakunde horiek izan dira gizarte-loturak sortzen, eta jo dezaketen edo eska ditzaketen zerbitzu eta prestazio desberdinei buruzko orientazioa ematen lagundu dutenak.

Adierazitako guztiagatik, Arartekoak hauxe gomendatzen du:

Eusko Jaurlaritzaren Berdintasuna, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailari:

*6. Euskal gazteei beren emantzipazio-prozesuetan laguntzeko politiken, eta etorkinen integrazioaren eta gizarte-partaidetzaren arloko politiken barruan, familia-erreferenterik ez duten 18 eta 23 urte arteko gazte migratzaileentzako **estrategia integrala** gara dezala, eta kontuan har ditzala atzeritarrak izateak eta senideen laguntzarik ez izateak ekartzen dituen oztopo bereziak, gainerako euskal gazteekin partekatutako beharrez gain.*

7. Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialak egindako lana nabarmentzea, eta metatutako ezagutza eta esperientzia kontuan hartzea.

Parte hartzen duten Eusko Jaurlaritzaren sail guztiei eta foru-aldundiei:

8. Familia-erreferenterik ez duten 18 eta 23 urte arteko gazte migratzaileen beharrak eta berariazko baldintzak kontuan har daitezela Euskadiko gizarte-babesaren plangintzan, eta gizarte-eskubideak arautzen dituen arautegian, hala nola etxebizitzarako, osasuna babesteko eta sustatzeko, gizarte-zerbitzuetarako, prestakuntza eta enplegurako eta diru-sarrerak bermatzeko eskubidea.

9. Aipatutako estrategia gauzatu eta ezartzen den bitartean, esku hartzen duten erakunde edota seilen arteko koordinazio-neurriak bideratzea, zerbitzuen arteko igarotzeak eta jarduketa ordenatu eta koherenteak erraztuz, eta gizarte-eragile zein eragile publikoei beren eginkizunak kalitatearekin eta eraginkortasunez garatzeko beharrezkoak diren informazioa eta prestakuntza emanez.

III. Orientazio juridiko egoki, koherente eta koordinatua.

Besteak beste, pasaporteak lortzeak, administrazioaren egoitza- eta lan-baimenak eskatzeak, nazionalitatea eskatzeak eta eskubideak baliatzeko edozein jarduketak, gazte horiek artatzen dituzten eragile publiko eta sozialekin bat datorren arreta juridiko eta koordinatua eskatzen du; baita gazte horiek oraindik adingabeak direnean ere. Bestalde, bete behar diren baldintzei eta haien administrazio-egoerak gazte hauen bizitzan duen eraginari buruzko informazioak, gainera, informazio hori eragile juridikoek, eragile publikoek eta eragile sozialek partekatzea ere eskatzen du. Horren guztiaren ondorioz, zerbitzu juridiko sendoa diseinatu behar da, egitura egonkor batekin eta EAE osoa barne hartzen duena. Horrela, gazteek aholkularitza arin, oso eta kalitatezkoa izango dute hasieratik, bere administrazio-egoerari buruzko arazoekin eta beren eskubideak baliatzeko beharrezko administrazio-izapideekin lotutakoak (hala nola erroldan inskribatzea eta abar). Zerbitzu horrek euskarri juridikoa eman diezaike administrazio publikoei, gizarte-eragileei eta herritarrei oro har.

Xede horretarako oso garrantzitsua da gobernu-ordezkaritzarekin eta gobernu-ordezkariordeztzekin solasaldian aritzea, 7. eta 8. gomendioetan jasotzen den moduan. Halaber, interesgarria ere bada kontsuletxeekin komunikazio-bideak ezarri ahal izatea, hala nola, Bilbon dagoen Marokoko Ohorezko Kontsuletxean, gazte gehienak etortzen diren herrialdeko misio diplomatikoa delako. Bestalde, nazioarteko akordioak hitzartzeko aukera ere baloratu beharko litzateke, Nazioarteko Itunei eta bestelako Akordioei buruzko azaroaren 27ko 25/2014 Legearen 7. Artikuluan ezarritako aurreikuspena aplikatuz.

Gazte gehienak hiriburueta udaletxeetara eta beste udaletxe batzuetara joaten dira, hala nola Barakaldo edo Irungora, nahiz eta ostatu egonkorrik ez izan. Udal horiek, [2020ko apirilaren 29ko ebazpenaren](#)⁵⁰ 3. jarraibidea aplikatuz, erroldan izena emateko prozedura bat egin duten arren, gerta daiteke gazte atzerritarrek ez jakitea bizilekua udalerrian finkatzen duten hasierako unetik hori egiteko aukera daukatela. Erroldan nola eta noiz inskribatu behar duten jakitea, beraz, ezinbestekoa da euren eskubideak baliatzeko, eta zerbitzu eta prestazio publikoak jasotzeko aukera izateko. Azkenik, adierazi behar dugu, oro har, ez direla iraupen luzeko administrazio-baimen baten titularrak. Beraz, bi urtean behar berritu behar dute errolda.

⁵⁰ Ebazpena, 2020ko apirilaren 29koa, Idazkariordetzarena. Horren bidez, 2020ko otsailaren 17ko Ebazpena, Estadistikako Institutu Nazionalaren eta Autonomia Erkidegoko eta Tokiko Lanikidetzarako Zuzendaritza Nagusiarena, argitaratzen da, udal-erroldaren kudeaketari buruz udalei jarraibide teknikoak ematen dizkiena. Ebazpen hori 2020ko maiatzaren 2ko 122. BOEn argitaratu zen. Eskuragarri hemen: https://www.boe.es/diario_boe/txt.php?id=BOE-A-2020-4784

Adierazitako guztiagatik, Arartekoak hauxe gomendatzen du:

Eusko Jaurlaritzaren Berdintasuna, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailari,

10. Beharrezko jarduketak egin ditzala Aholku Sarea EAeko herritarrentzako arreta-zerbitzu juridiko gisa finkatzeko. Halaber, haren barruan, arreta espezializatua eman diezaiela behar dokumental eta juridikoei, gazte horiek udal erroldan inskribatzeko beharra barne, beharrezkoa izango balitz, babesten hasten direnetik hasita.

11. Zerbitzu hori, gainerako eragile publiko eta sozialekin koordina dezala, eta gobernu ordezkarietarekin eta ordezkariordetzekin koordinatzea aurreikus dezala.

12. Eskumeneko organoak beharrezko harreman diplomatikoak aktiba ditzala, jatorrizko herrialdeak pasaporteak izapidetzean izan ditzakeen atzerapenengatik.

IV. Arduraz jokatzeko administrazio-izapidetzean adingabeak direnean, eta administrazioak babesten dituenean.

Batzuetan haien egoera juridikoa legeztatzeko beharrezkoa den dokumentazioaren administrazio-izapidetzea atzeratzen da. Egin behar dituzten agirien konplexutasunak, jatorrizko herrialdean agiri jakin batzuk eskatzeko beharrak eta beste oztopo batzuek nabarmen zailtzen dute arrazoizko epe batean egoitza- eta lan-baimena lortzea. Bizitzeko eta lan egiteko administrazio-baimena lehenbailehen lortuz gero, askoz ere errazagoa da gazte horien prestakuntza- eta lan-ibilbideak egitea (lantegi-eskola batera sartzeko aukera, lan-praktikak egitea enpresetan, enplegua...). Beraz, lehentasunezkoa da langile-baliabideak edo babes-erakundeetan adingabe horien agiriak izapidetzen duen zerbitzu arduradunak berak indartzea. Helburua da adin-nagusiak direnean egoitza- eta lan-baimena izatea (edo, hala badagokie, nazionalitatea), gizarteratze- eta laneratze-prozesuan beharrezkoak diren gainerako jarduketan dinamizatzailerik eta sustatzaile gisa balio dezan.

Hala eta guztiz ere, ezinbestekoa da adingabeen babesean eskumena duten zerbitzuei egoitza-baimena eskatzeko emandako bederatzi hileko epea ez agortzea. Immigrazio eta Emigrazio Idazkaritza Orokorrak 2015. Urtean Kordobako Gobernuaren Ordezkariordetzari helarazitako kontsultari horren inguruan emandako erantzunean adierazi zuen moduan⁵¹, Arautegian ezarritako bederatzi hileko epea, gehieneko hilabete kopurua da. Horregatik guztiagatik, gobernu-ordezkariordetzek

⁵¹ Estatuko Fiskaltza Nagusia. 2016ko memoria. III. kapitulua. 4. or. 496 . Lan eta Gizarte Segurantzako Ministerioari 9 hileko epeari buruz egindako kontsulta aipatzen du: "2015. Urtean kontsulta bat egin zion Kordobako Gobernu Ordezkariordetzak Immigrazio eta Emigrazio Idazkaritza Orokorrari (...) egoitza-baimena emateko Arautegian ezarritako bederatzi hileko epea nola ulertu behar zen jakiteko, eta Immigrazioko Idazkaritza Orokorrak gehieneko epea zela adierazi zuen.

eskaera epe hori igarotakoan aurkeztu behar dela ezartzen badu, baldintza hori konpontzeko beharrezko jarduketak bultzatu beharko dira.

Azkenik, garrantzitsutzat jotzen da babes-erakundeek jatorrizko herrialdetik agiriak lortzen laguntzen jarraitzea adin nagusiak direnean, babestuta egon zen aldian ezin izan badute lortu.

Adierazitako guztiagatik, Arartekoak hauxe gomendatzen du:

Foru aldundiei,

13. Beharrezko agirien administrazio-izapidetzea arindu dezatela, eta beharrezko koordinazio-jarduketak egin ditzatela egoera juridikoa legezatzeko edo, hala badagokie, haien babestean dauden nerabeen nazionalitatea eskuratzeko. Beharrezkoa izango balitz, eginkizun hori egiten duten teknikarien taldeak indartuko dituzte.

14. Hamargarren gomendioan proposatutako orientazio juridikoko zerbitzuan espezializatu bitartean, gaur egungo zerbitzuarekin koordinatuko dira, arretaren jarraitzea bermatzeko, bai esparru juridikoan, bai dokumentalean, adin nagusiak izaten direnean.

V. Familia-erreferenterik ez duten gazte migratzaileen ostatu beharrak barne hartzea

Familia-erreferenterik ez duten gazte migratzaileak ezin dira inskribatu Etxebide-Babes publikoko etxebizitza eskatzaileen Erregistroan legez kontrako administrazio-egoeran badaude.

Baldintza hori ez da bateratzen herritarren, kulturartekotasunaren eta immigrazio esparruan 2018-2020 V. Jarduketa-planean eta 2017-2020 Bizikidetzeta eta Giza Eskubideen Planean bere gain hartutako konpromisoekin, izan ere, proposatzen dituzten neurriak herritarren eta berdintasunaren esparruetarako dira.

Etxebizitzari buruzko ekainaren 18ko 3/2015 Legearen arauzko garapenean baldintza hori aldatu dela jakinarazi duten arren, onartzeko jarraitzen du, beraz, familia-erreferenterik ez duten gazteak ezin dira sartu Erregistrora.

Azterlan honetan oinarrizko gabeziatzat jo dugu ostatu seguru eta egokirik ez egotea, eta horrek, gizarte-larrialdiko gizarte-zerbitzuetara jotzera behartzen gaitu, ostatu bat eskatuz, kalean bizi ez daitezten. Pertsona horien gizarteratze eta laneratze prozesuan etxebizitza izatea garrantzitsua da, administrazio publikoen jarduketan emaitzak bermatzeko, eta gizarte-bazterkeriako egoerak okerrera egin ez dezan. Horrela, Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza Sailburuordetzak inplikazio handiagoa izan behar du, gazte horiek ostatu egokia emateko jarduketak udalen eta aldundien esku bakarrik egon ez daitezten. Gazte hauen bizitza gizartean

normalizatzeko eta autonomia lortzeko esku-hartze sozialak ostatu seguru eta egokia izatea eskatzen du. Horregatik, ezinbestekoa da Etxebizitza Sailburuordetzak zuzkidura-ostatuak edo etxebizitzak ematen laguntzea, etxebizitza-beharrari erantzuteko eta talde horren beharren arretan eskumena duten gainerako administrazio publikoekin lankidetzan aritzeko.

Adierazitako guztiagatik, Arartekoak hauxe gomendatzen du:

Eusko Jaurlaritzaren Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailari,

15. Programa integralaren barruan, edo ezartzen ari den bitartean, aurreko gomendioetan aipatutako koordinazioaren hobekuntza kontuan hartuz, udalen, foru aldundien eta gizarte-erakundeen eskura jarritako zuzkidura-etxebizitzaren parkea handi dezala, proposamenaren beharra eta egokitasuna justifikatu ondoren, gazte horientzat duina den etxebizitzari buruzko erantzuna eman dezaten.

VI. Oinarrizko beharren estaldura

Azterlan honetan aurkitutako beharrak nabarmen erakusten dute diru-sarrera ekonomikorik ez dagoela enplegua lortzeko zailtasun handiak daudelako. Horrela, enplegurik gabe, ez dute prestazio ekonomikorik beren oinarrizko beharrak asetzeko, nahiz eta gizarte-ahultasun egoera argian egon. Diru-sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemaren prestazio ekonomikoak jaso ahal izateko eskatutako gutxieneko adina eragozpena da horiek lortzeko. Beraz, beste sistema publiko batzuk, gizarte-zerbitzuak kasu honetan, arduratu behar dira oinarrizko behar horiek bere gain hartzeaz, gauzaz hornituz edo laguntza ekonomikoen bidez; ez eskubide subjektibo batetik eratorriak gisa. Hori guztia haien ahultasun-egoera kontuan hartuz, gutxieneko adina eskatzeak zentzua duelako familia-bizikidetzara dagoenean.

Foru-aldundiek eta zenbait udalek sustatutako laguntza-programak argi dago ez direla nahikoak. Horrez gain, batzuetan, eskuratzea gehiago zailtzen duten baldintzak barne hartzen dituzte. Horren adibidea dugu etxe berean bi bizikidetzak unitate egoteko beharra gizarteratzerako laguntzak jaso ahal izateko. Horrenbestez, hiru edo lau pertsonak ezin dute etxea partekatu, adin horietako gazteen taldeen artean guztiz arrunta dena (ikasleen artean esaterako). Muga horrek, diru-sarrerak bermatzeko errenta jasotzeko eskubidea izateko oinarrizko baldintza denak, kalte egiten die.

Adierazitako guztiagatik, Arartekoak hauxe gomendatzen du:

Eusko Jaurlaritzaren Lan eta Enplegu Sailari, foru-aldundiei eta udalei,

16. Proposatutako estrategia integralaren barruan, familia-erreferenterik ez duten gazte guztiei oinarrizko beharrei eta gizarteratze eta laneratze prozesu pertsonalak eskatzen dituen gastuei aurre egiteko beharrezkoak diren diru-sarrerak bermatzen dizkieten elementuak erabil ditzatela. Horretarako, hala badagokie, kudeaketarako eskumeneko administrazioa zehaztu eta aztertu beharko dute; baita baldintzak eta zuzkidura gazte horien kopurura, berriazko beharretara eta egoerara egokitu ere.

VII. Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren ekarpena familia-erreferenterik ez duten gazte migratzaileen beharrei erantzuteko.

Proposatzen den arreta integralaren barruan, azterlan honetan zehar argi geratu da gizarte-zerbitzuei dagokiela gazte horiei beren garapen pertsonaleko eta erkidegoan integratzeko proiektuetan laguntzeko eginkizun garrantzitsua, osatzen dituzten elementu desberdinak integratzen lagunduz. Ezin da ezeztatu ezinbestekoa dela sektoreko beste politika batzuek ere parte hartzea (lan, etxebizitza, osasun eta bestelako erantzunak ematen dituztenak). Hala ere, gizarte-zerbitzuen euskal sistemaren barruan, esku-hartzea modu egokian bideratu behar da ere bai. Horren aldetik, jadanik aipatu dugunez, gizarte-zerbitzuen euskal sistemaren prestazio eta zerbitzuen zorroa aztertzekeo prozesuak kontuan izan behar beharko luke gazte horien beharren gizarte-arretaren berezitasuna.

Argi geratu da zalantzak daudela eskumeneko administrazioarekin familia-erreferenterik ez duten gazte migratzaileen beharrei erantzunik egokiena emateko duten gaitasunaren inguruan. Lehen arretako gizarte-zerbitzuak egokienak gisa hartzeko, gazteen profila kontuan hartuko genuke, benetako gizarte-ahultasun egoeran daudelako (edo, zehatzagoak izateko, baztertzeko arriskuan; gizarte-bazterkeria larrian baino gehiago), eta erkidegoen hobeto integratzeko eta kulturartekotasuneko tokiko programekin lotzeko aukera dutelako. Bigarren mailako gizarte-zerbitzuei dagokienez, gazte horien arretan duten jarduera eta esperientzia onartu behar ditugu; baita foru-aldundiekin duten mendekotasuna dela eta (aurretik babestuta egon diren gazteei dagokienez) babesik ez duten haurren gizarte-zerbitzuekin duten koordinazio errazagoa ere.

Nolanahi ere, horren inguruan hartzen den edozein erabaki, are gehiago orain arte egin ari diren gauzetan aldaketa nabariak ekartzen baditu, kontu handiz hartu beharko litzateke, eta egoera batetik bestera igarotzean, zerbitzuak jasotzen dituzten pertsonen arretak okerrera egin gabe. Epe ertainerako ereduekin lan egiteak ere ez luke eragotzi behar berehalako erantzunean hobekuntzak ere egitea.

Adierazitako guztiagatik, Arartekoak hauxe gomendatzen du:

Eusko Jaurlaritzaren Berdintasuna, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailari, foru-aldundiei eta udalei,

17. Gizarte-zerbitzuen euskal sistemak gazte horien beharrei eman behar dien erantzunaren inguruko gogoeta egin dezatela, politika publikoetan eta haien barneko artikulazioan zer eginkizun daukaten argituz. Bigarren kontuari dagokionez, bereziki beharrezkoa da argitzea udalek edo foru-aldundiek zer eskumen daukaten zerbitzuak emateko eta haien barruan beste zerbitzu edo modalitate batzuk sortzeko beharra baloratzeko.

VIII. Hizkuntza ofizialen ikaskuntza indartzea

Hizkuntza ofizialak ikastea oso garrantzitsua da lanbide-prestakuntzak aprobetxatzeko eta enplegua lortzeko. Horrez gain, bizikidetzan eta gizarte-kohesioan duen eragina ere kontuan hartu behar dugu. Euskara ikasteko eskaera badirudi nahikoa zaintzen ari direla horretarako gaitutako baliabideak. Hala ere, helduen hezkuntza-zentroetan, hizkuntza-eskola ofizialetan edo euskaltegien sarean, gaztelaniazko eskolak emateko eskaera oso handia da, eta zentro horiek ez dute osorik bere gain hartzen. Beraz, pertsonak gizarte-erakundeetara jo behar dute, behar hori hauteman dutenez, prestakuntza horiek ematen dituztelako. Bestalde, ematen diren baldintza eta ordutegien ondorioz, batzuetan ezin dira bateratu lan-prestakuntzako beste prestakuntza batzuekin.

Adierazitako guztiagatik, Arartekoak hauxe gomendatzen du:

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailari

18. Gaztelaniazko eskolen eskaintza handitzea Helduen Hezkuntza zentroetan, eta beharrezkoa den heinean, malgutzea, prestakuntza-prozesu osagarriei edota lanean dauden aldiei egokitzeko.

IX. Hobekuntza lanbide-prestakuntzarako sarbidean.

Azterlan hau egitean egiaztatu dugunez, gazte migratzaileek motibazio handia dute lanbide-prestakuntza bat egiteko. Gainera, dagoen eskaintzari esker, profesionaltasun-ziurtagiria eskura dezakete (eta plaza librerik badago, Oinarrizko Lanbide Heziketa egin, baimendutako taldetan matrikula onartzen delako, baldintzak betetzen ez diren arren). Bestalde, beste prestakuntza-ikastaro batzuetan ere parte har dezakete. Hala ere, garraio-gastuekin edo ostatu eta oinarrizko beharrei aurre egiteko, esaterako elikatzeko, baliabide ekonomikorik ez izatearekin lotutako zailtasunek haietan parte hartzea eta aprobetxatzea zailtzen dute. Gazte hauek aurre egiten dizkieten beste zailtasun batzuk dira ezin dutela egin lan-praktikarik enpresetan, lanbide-heziketako programetan, lan egiten ari

diren bitartean, egoitza- eta lan-baimenik ez badute. Hori dagoeneko 4. gomendioan aipatu dugu.

Euskadiko lan-merkatuak langile espezializatuak eskatzen ditu, eta prestakuntzarik gabeko lanaren ordez, teknologia artifizialeko sistemak erabiltzen ari da. Beraz, lan bat lortzeko, eta jakin badakigunez, gizartean gero eta gehiago mugitzeko aukeraren bat izateko, prestakuntza oinarritzkoa da. Testuinguru horretan, funtsezkoa da jakitea zer zailtasun izaten ari diren gazte migratzaileak prestakuntza-ikastaroetan parte hartzeko, bai Bigarren Hezkuntza amaitzeko, bai Lanbide Heziketara joateko, bai profesionaltasun-ziurtagiriak lortzeko eta neurri gehigarriak ezartzeko, hala nola, laguntza ekonomikoak ematea prestakuntzarekin jarraitzen laguntzeko, plaza edo beka kopurua handitzea, gazteek, beren gaitasuna edo motibazioa kontuan hartuz, goi-mailako ikastaroak egin baditzakete.

Adierazitako guztiagatik, Arartekoak hauxe gomendatzen du:

Eusko Jaurlaritzako Lan eta Enplegu Sailari,

19. Prestakuntza txikia edo zailtasun bereziak dituzten pertsonen (gazte askoren kasua dugu) prestakuntza-prozesuekin hasitako lerroan sakonduz, gazteek programetara sartzeko duten benetako aukera, haien partaidetza eta aprobetxamendu maila aztertu nuen, hiru aldagai horietan hobekuntzak egiteko. Horien artean, garraioaren ordainketa aipa daiteke, ikastaroetara joatea bermatzeko, edo bekak ematea ikasketekin jarraitzeko.

X. Laneratze-enpresek kontratatzea

Laneratze-enpresen helburu nagusia da langabezia-egoeran dauden, gizartetik baztertzeko arriskuan dauden edo lan-merkatuan sartzeko zailtasun bereziak dituzten pertsonek gizarteratzen eta laneratzen laguntzea. Laneratze-enpresa batek kontratatzea aukera oso baliozkoa da gazte horientzat, kontratatu dezaketen talde gisa berariaz hartzen delako. Hala ere, administrazio-egoerak ekartzen dituen mugak direla eta, ezin ditu kontratatu laneratze-enpresa batek, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren bulegoan enplegu-eskatzaile gisa izena emanda egotea eskatzen duelako.

Hain zuzen ere lan-kontratu bat ezin dutenez lortu, ezin dute aurkeztu administrazio-baimenaren eskaera Lan eta Immigrazio Ordezkaritzan, eskumeneko gobernu-ordezkariordeztetan. Horrenbestez, ezin diote etekinik atera zailtasunak dituzten taldeentzat dagoen legezko aukera horri (abenduaren 13ko 44/2007 Legearen 2. Artikulua, laneratze-enpresen araubidea arautzekoa). Gazte horiek langabezia-egoeran daude, eta zenbait kasutan, hiru urteko benetako egoitza egiaztatzen dute Euskadin; baita gainerako baldintzak ere. Beraz, lan-kontratu bat izango balute, beren administrazio-egoera legeztatu ahal izango zuten. Enplegu-

eskatzaile gisa ezin dutenez izena eman, laneratze-enpresa batek ezin ditu kontratatu, eta ez daukate legezko administrazio-egoera batean egoteko aukerarik.

Adierazitako guztiagatik, Arartekoak hauxe gomendatzen du:

Eusko Jaurlaritzako Lan eta Enplegu Sailari,

*20. Beharrezko ekimenak susta daitezten Estatuarekin dauden lankidetz-
organoetan, edo dagozkion legezko ekintzen bidez, laneratze-enpresek gazte
horiek kontratatzea eragozten duten oztopoak kentzeko.*

XI. Osasunari buruzko beharrak artatzea.

Azterlanean adierazi dugun moduan, Euskal Osasun Sistemak ez ditu bere arretatik kanpo uzten atzerritarrak, haien administrazio-egoera edozein dela. Osasun-arreta jasotzeko eskatzen duen baldintza bakarra da lurraldean benetan bizitzea. Horrela, familia-erreferenterik ez duten gazte migratzaile batzuek osasun-arreta jasotzeko aurkitzen dituzten zailtasun gehienak, errolatuta ez daudelako da, beraz, hasiera batean, esparru hori konpondu beharko litzateke.

Hala ere, bien bitartean, azterlan honetan egiaztatu dugu gazte batzuk, zehazki prekaritate eta ahultasun handieneko egoeran bizi direnak, gizarte-zerbitzuen sistemak edo oraindik hasiberriak diren (eta bertan garatuta dauden) gizarte- eta osasun-esparruko programek bakarrik artatzen dituztela.

Adierazitako guztiagatik, Arartekoak hauxe gomendatzen du:

Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailari,

*21. Gizartetik baztertuta dauden pertsonen esparru soziosanitarioaren
garapenean sakontzea, eta zehazki, "kalean" egoeran dauden gazteak bizi
diren udalerrri guztiei zabaltzea kaleko susperraldi eta psikiatria programak.*

XII. Gazte horien beharrak gazte-planetan sartzea.

Gazte-planek gazteen beharrei erantzuten diete, beraz, familia-erreferenterik ez duten gazteen beharrak ere barne hartu beharko lituzkete. Plan horiek, neurriak proposatzen dituzte zenbait esparrutan, hala nola, osasun, etxebizitza, enplegu, prestakuntza, gizarte-ekintza, kultura eta aisialdi esparruetan. Neurri horietako batzuek, hala nola, kultura, kirola eta aisialdiaren ingurukoek, elkarrekintza eta loturak sortzeko aukera ematen dute. Horrenbestez, ezinbesteko esku-hartze esparrua da, azterlanean zehar ikusi dugun bezala, izan ere, gazte horien eta udalerriko gainerako gazteen artean bizipenak elkarri trukatu ahal dizkiote.

Beraz, tresna egokiak dira gizarteratze prozesuan eta gizarte osoaren kohesioan hain garrantzitsua den integrazioa eta erkidegoko partaidetza bultzatzeko, eta horretan esku hartu ahal izateko. Integrazio hori dagoeneko burutu dela alde batera utzi gabe, immigrazioaren eta gazteen arloko teknikariak dauden udalerrietan nagusiki, familia-erreferenterik ez duten gazte atzerritarrak udaleko gazteria planetan sartzea ezinbestekoa da gizarte-kohesiorako. Bestalde, euskal gazte guztien premiei erantzuteko beharra ere bada, gazteen artean bazterkeriarik egin gabe.

Bestalde, immigrazioaren arloan, gizarteratze-politiken kudeaketaren eskumena udalek daukate, beraz, toki mailan, leku egokia da gazteak gizarteratzen laguntzen duten berariazko neurriak abian jartzeko.

Adierazitako guztiagatik, Arartekoak hauxe gomendatzen du:

Udal guztiei,

22. Gizarte mailan kohesionatuta dauden herriak eta hiriak sustatzeko, eta azken batean, gizarteratzeko, hain funtsezkoak diren loturak eta kide izateko sentimenduak sortzeko aukera dutenez, udalerrian bizi diren gazte migratzaileen eta gainerako auzokoen artean erkidegoko loturak sortzeko eta indartzeko jarduketak gehitu ditzatela.

XIII. **Bazterkeriaren aurka borrokatzea.**

Talde honek bazterkeria eta estigmatizazioa jasaten du. Bazterkeriak larriki kaltetzen ditu elkarrekiko harremana eta gizarte-partaidetza, zein gazte horien gizarteratze eta laneratze prozesua. Horrez gain, desberdintasunak ere sortzen ditu. Horregatik, funtsezkoa da talde horiei berariaz zuzendutako bazterkeriaren aurka borrokatzeko neurriak hartzea. Halaber, beharrezkotzat jotzen da egoeraren espezifikotasuna eta berezitasunak kontuan hartzea, besteak beste honako hauetan: garatzen ari diren jarduketetan; zurrumurruen aurkako programetan eta ekintzetan; eta berdintasunaren eta bazterkeriaren aurkako beste prestakuntza eta kongresu batzuetan.

Arartekoak jatorriz atzerritarrak diren pertsonekin bazterkeriazko jarduketak saihesteko mekanismoak ezar ditzala gomendatu dio aurretik Eusko Jaurlaritzaren Segurtasun Sailari ([7/2011 Gomendio Orokorren, urriaren 28koaren](#), VI. atala. [Berme-sistema poliziaren jarduera eta praktiketan](#)). Gomendio honek, nabarmentzen du poliziak arrazagatiko delituak jazartzeko egindako lana, eta arrazari edo nazioari buruzko datuak ez ematea gomendatzen du, zabaltzen duen informazioan. Bestalde, identifikazio-kontroltan prebentzio-neurriak ezartzea ere gomendatzen du. Hori, hemen ere aztertu zen: *Arartekoaren 2014R-25-14 Ebazpena, 2014ko abenduaren 10ekoa. Horren bidez, Eusko Jaurlaritzaren*

Segurtasun Sailari gomendatzen zaio neurriak hartzea Ertzaintzan arraza profilen garapena prebenitzeko eta kontrolatzeko.

Gizarte demokratiko batean, ezinbesteko neurriak dira, besteak beste, langile publikoek jokabideak prebenitzea, giza eskubideetan eta bazterkeriaren aurkako borrokan trebatuz, eta zenbait kontrol-jarduketa ezarriz; baita, gizarte sentsibilizazioa eta kontzientziazioa ere, bazterkeriazko jokabideak, tratu-desberdintasunak, aurreiritziak eta talde guztiak estigmatizatzea saihesteko.

Adierazitako guztiagatik, Arartekoak hauxe gomendatzen du:

Eusko Jaurlaritzaren Segurtasun Sailari eta udalei,

23. Diskriminazioaren aurkako borrokaren arloan garatzen diren jarduketan barruan, zenbait esparrutan hari aurre egiteko berariazko neurriak diseina ditzatela, besteak beste, publikoari irekitako establezimenduetan edo poliziaren identifikazioetan onartzeko eskubidearen baliatzea kontrolatzea, edo pertsonen arraza edo nazio jatorriari buruzko datuak ematean, ezinbestekoak badira ematen den informazioa ulertzeko.

Eusko Jaurlaritzaren sail guztiei, foru-aldundiei eta udalei,

24. Sentsibilizazio-ekintza jakinak (zurrumurruen aurkakoak eta abar) eta diskriminaziozko jokabideen, tratu-desberdintasunei eta gazte haienganako dagoen gizarte-estigmatizazioaren inguruko berariazko prestakuntzak bultzatzea.

XIV. Delituen biktimak izateko arrisku-egoerak detektatzeko neurriak abian jartzea.

Familia-erreferenterik ez duten eta arrisku-egoeran dauden gazteak arrisku-egoeran daude, erakunde kriminalek eta haien ahultasunaz eta bakardade- zein uzte-egoeraz aprobetxatu nahi diren pertsonak erakar ditzaketelako. Benetako arriskua da, beraz, kontuan hartzeaz gain, beste neurri batzuk ere hartu behar dira detektatzeko. Horrek, gazte horiei eragin ahal dizkieten sufrimendua eta kalte larriak saihesten dituzten jarduketak berehala abian jartzea eskatzen du.

Emakumeen kasuan, oso beharrezkoak diren eta jarraitutasuna eta sendotasuna izan behar dituzten zenbait neurri abian jarri dira. Gizonei dagokienez, berariazko neurriak aktibatu behar dira, zoritxarrez dauden benetako arriskuari erantzuten diotenak. Horrela, gizarte-eragile batek edo eragile publiko batek sexu- edo lan-esplotazioa helburua duen salerosketa-zantzurik aurkitzen badute, gaztea berehala babesten duten premiazko abegi-neurriak egon beharko dira, eta agintari judizialekin eta polizialekin koordinatu. Hala ere, azterlan honetan proposatutako gomendioak beteko balira, delitu horren biktimak izateko arriskua txikiagotuko litzateke.

Adierazitako guztiagatik, Arartekoak hauxe gomendatzen du:

Eusko Jaurlaritzaren sail guztiei, foru-aldundiei eta udalei,

25. Gizakien salerosketa edo esplotazio egoerak detektatzeko mekanismoak hobe ditzatela, artatzen dituzten zerbitzu publikoetan prebentzio eta detekzio protokoloak egokituz. Horrez gain, programa horien profesionalei beharrezko prestakuntza eta informazioa emango zaizkie, egoera horiekin lotuta dauden zantzuak edota adierazleak ezagut ditzaten.

I. ERANSKINA: Administrazio publikoei eskatutako informazioa

Sarreran esaten zenez, Arartekoak administrazio publiko askotara jo du Euskal Autonomia Erkidegoan, gazte horien beharrianak estaltzeko, ezartzen ari den erakundeen erantzuna era ahalik eta osoenean jasotzeko. Informazio eskaera horiekin, paragrafo hauetan ikusiko denez, gainera, gazte horiekin zuzenean lan egiten duten erakundeek eta profesionalek haien beharrian, eskaera, amets eta proiektuei buruz duten iritzia jaso nahi izan da, ikuspegi ahalik eta osoena emateko ahalegin batean.

Asmo horrekin, 2020ko otsailean informazioa eskatu zitzaizen zehaztuko diren administrazio publikoei, eskatutako eduki zehatzari lotuta, eta hemen azaltzen den bezala. Informazio eskaera gazte horien beharrianak asetzeko behar diren ondasunak hornitu behar dituzten sistemak, eskumenen banaketa eta sail, erakunde edo organismo bakoitzari esleitutako erantzukizunak kontuan hartuz antolatu da.

1. Immigrazioa. Aholku juridikoa.

Immigrazioaren arloko eskumenak kontuan hartuz eta bereziki atzerritarrentzako (eta, haien artean, azterlan honek hizpide dituen gazteentzako) aholku juridikoari, bazterketaren kontrako borrokari eta kulturartekotasunaren sustapenari lotuta dauden ekimenetan interesatuta, Arartekoak **Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailera** jo zuen (argitaratzeko datan, Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Saila), informazio hau eske:

(...)

Gazte migratzaileek, atzerritarrak direnez gero, baliozko dokumentazioa izan behar dute herri-administrazioekiko harremanetarako. Funtsezkoa da pasaportearen edo lan egiteko eta bizitzeko administrazio-baimena izatea eta erroldan izena emanda egotea; izan ere, agiri horiek eskatu ohi dizkiete gizarteratzeko prozesuan zerbitzuak erabili eta prestazioak jaso ahal izateko. Bestalde, zenbaitetan, kide batzuek diskriminazioa jasaten dute arrazoi kulturalak, erlijiosoak edo etnikoak direla tarteko, eta horrek egoera kaskarragoan egotea eragiten du.

Kolektibo horrek ez du egin beharreko izapideei edo aplikatu beharreko araudi juridikoari buruzko ezagutzarik, eta, beraz, orientazio juridikoa jasotzeko premia handia dute, bai lan- eta bizileku-baimena lortzeko

buruzkoa, bai pasaportearen edo errolda eskuratzearen ingurukoa —izan ere, baimena lortzeko bete beharreko betekizunak dira horiek—, bai diskriminazioei edo gorroto-delituei aurre egitearen gainekoa, halakorik jasanez gero. Orientazio hori immigranteei arreta ematen dieten gizarte-erakundeek eskaini ohi dute, kudeatzen dituzten askotariko programetan. Bizkaian, hainbat elkarte (CEAR, Izangai, Ellacuria Fundazioa, Caritas, Harribide, Adsis eta Peñascal) osatzen dute Hemen Partzuergoa, eta zenbait zerbitzu eskaintzen ditu, besteak beste, aholkularitza juridikoa —Bizkaiko Foru Aldundiak eta Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailak finantzatzen dute programa hori—. Gainera, Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailak Aholku Sarea sustatu du, atzerriartasunaren arloan aholkularitza juridikoa emateko, bai zaugarritasun-egoeran dauden immigranteei, bai immigranteen gizarteratze-prozesuetan lan egiten duten herri-administrazioetako eta hirugarren sektoreko erakundeetako profesionalei. Horrez gain, Eraberean sarea sortu du, besteak beste arraza-, etnia- edo nazio-jatorriagatiko diskriminazioaren aurka borrokatzeko.

Halaber, lan egiteko eta bizitzeko administrazio-baimena izateko, ezinbestekoa da lan-kontratua izatea. Lanbideak, euskal enplegu-zerbitzuak, lan-bitartekaritzako eginkizunak betetzen ditu. Erakunde autonomoa da, eta Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailaren mende dago.

Azkenik, Herritartasunaren, Kulturartekotasunaren eta Immigrazioaren Esparruan. Jarduteko V. Planak arreta berezia behar duten kolektiboak zuzendutako neurri programatiko gisa aurreikusten ditu, alde batetik, jatorriz atzeritarrak izanik edo atzerriko nazionalitatea edukirik lan-merkatuan sartzeko zailtasun handiagoak dituzten eta gizarte-bazterketa pairatzeko arrisku handiagoa duten kolektibo edo pertsona-talde horiei buruzko informazioa detektatzea eta biltzea, eta, bestetik, finantza-laguntza ematea, Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailak jatorriz atzeritarrak izanik edo atzerriko nazionalitatea edukirik egoera bereziki zailean dauden kolektiboekin lan egiten duten erakundeei emandako aginduen bidez.

Hasieran esan bezala, atzerriko nazionalitatea izanik familia-erreferenterik ez duten gazte migratzaileen (18 eta 23 urte bitartekoak) kolektiboaren egoerari buruz Arartekoa egiten ari den azterketaren harira, eskatzen dizut honako gai hauei buruzko informazioa bidaltzeko (...):

- 1. Azaldu orientazio juridikoa jasotzeko zer premia hauteman diren familia-erreferentziarik ez duten 18 eta 23 urte bitarteko gazte migratzaileengan. Aholku Sareak eskainitako orientazioari buruzko ebaluazioa.*
- 2. Azaldu zergatik ukatu ohi zaizkien bizileku-baimenak edo horiek berritzeko eskaerak atzerriko nazionalitatea duten eta familia-erreferenterik gabeko gazte migratzaileei.*

3. *Eraberean sareak diagnostiko-txostenen bat egin ote duen kolektibo horren aurkako diskriminazio-salaketei buruz.*
4. *Familia Politika eta Aniztasunaren Zuzendaritzak errotze-txostenak egiten ote dituen. Ukatzeak eta horiek emateko orduan hauteman diren zailtasunak.*
5. *Familia Politika eta Aniztasunaren Zuzendaritzak kolektibo horren beharrak asetzeko gaur egun eskaintzen dituen zerbitzuak aldatzeko aurreikuspenik ote dagoen.*
6. *Koordinaziorik ote dagoen une honetan orientazio juridikoa emateko eginkizuna betetzen ari diren zerbitzuen artean (Aholku Sarea, Hemen Partzuergoa, hirugarren sektoreko beste erakunde batzuk...).*
7. *Aurreikusita ote dagoen Aholku Sarearen eta Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren —lan-bitartekari funtzioa betez—arteko koordinazioa ezartzea, lan- eta bizileku-baimenaren izapidetzea errazteko.*
8. *Herritartasunaren, Kulturartekotasunaren eta Immigrazioaren Esparruan. Jarduteko V. Plana aplikatuz, aurreikusita zeuden arreta berezia jartzen duten kolektiboari zuzendutako neurriak gauzatu ote diren (adibidez, prestakuntza-katalogo espezifikoak, azterlan deskribatzaileak edo laguntza-lerro espezifikoak), zehazki, bakarrik dauden gazte atzerritarrei, EAEko musulmanen kolektiboari eta migrazio-prozesuetan sexu- edo lan-esplotaziora bideratutako salerosketaren biktima diren emakumeei zuzendutakoak. Azaldu zer neurri jarri diren abian orain arte.*
9. *Herritartasunaren, Kulturartekotasunaren eta Immigrazioaren Esparruan. Jarduteko V. Plana aplikatuz, diskurtso politiko positiboa indartzeko aurreikusitako neurriak gauzatu ote diren. Azaldu zer neurri jarri diren abian orain arte.*
10. *Herritartasunaren, Kulturartekotasunaren eta Immigrazioaren Esparruan. Jarduteko V. Plana aplikatuz, Enplegu eta Gizarte Politiketako Saileko langileei zuzendutako prestakuntza-planik egin ote den, herri-administrazioetan diharduten langileei eta askotariko hartzaileei prestakuntza eman ote zaien, edo EAEko segurtasun- eta osasun-langileei sentsibilizazioa eta prestakuntza eskaini ote zaien, prestatzaile-taldearen prestakuntzaren bidez.*
11. *Ekintzarik edo neurririk aurreikusi ote den gizakien salerosketa prebenitzeko eta Segurtasun Sailarekin —hark du delitu hori jazartzeko eskumena— koordinatzeko.*
12. *Azterlanaren sektore-eremu horri eta atzerriko nazionalitatea izanik familia-erreferenterik ez duten gazte migratzaileen premiei buruzko beste edozein informazio interesgarri.*

2. Gizarte zerbitzuak.

Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren jardun esparruan, informazio eskaerak foru aldundiei eta udal kopuru jakin bati bidali zitzaizkien, zehazki, genekienaren arabera familia-erreferenterik gabeko gazteen kopururik handiena zuten udalei.

Foru aldundien kasuan, Arabako Foru Aldundiko Gizarte Politiken Sailari, Bizkaiko Foru Aldundiko Enplegua, Gizarte Inklusioa eta Berdintasuna Sustatzeko eta Gizarte Ekintza Sailari eta Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte Politiketako departamentuari galdetu zitzaion. Honela guztiei:

(...)

Jakina denez, gizarteratzea ez da soil-soilik gizarte-zerbitzuen zeregina; izan ere, beste sistema publiko batzuek ekarritako ondasunak, hala nola enplegua edo etxebizitza, erabakigarriak dira gizarteratzea lortzeko. Nolanahi ere, ukalezina da gizarte-zerbitzuek ere ekarpena egiten diotela pertsonen gizarteratzeari.

Euskadiko gizarte-zerbitzuak arautzen dituen legeak arlo horretan eskumenak dituzten administrazio-istantzia guztiei esleitzen die premiak hautemateko, prebenitzeko eta horien inguruan sentsibilizatzeko eginkizuna. Gainera, foru-aldundiei dagokie gizarte-bazterketa moderatu eta larriko egoerei arreta ematea, eta aipatu dugun kolektiboaren zati bat halabeharrez egon da mota horretako egoeretara bideratua. Egia da, nolanahi ere, bazterketa-egoera hori oso lotuta dagoela etxegabetasunari, baina “kalean” dauden pertsonen profila definitu ohi duten ezaugarriak (osasan-, harreman-eta are jokabide-narriadura handia) dituztelako baino, ez dutelako bizitegi-irtenbide egokirik. Esan genezake gazte horiek, gizarte-bazterketa larrian dauden pertsonentzat diseinatutako programak eta zerbitzuak ez ezik beste emantzipazio-plan integral batzuk aplikatzea beharko luketela.

Esparru horretan, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren Prestazio eta Zerbitzuen Zorroari buruzko Dekretuaren (185/2015, urriaren 6koa) arabera, gizarte-laguntza da gizarte-zerbitzuen prestaziorik egiazkoena eta bereizgarriena, “horren bitartez pertsona profesional kalifikatu batekin harremanetan jartzen da, harekiko elkarreraginak lagundu egiten diola modu autonomoan moldatzen eta gizarteratzen.” “Lagun egite sozialari esker erabiltzaileak bere egoera egiazta dezake, bere autonomia pertsonala eta gizarteratzea mantentzeari edo garatzeari dagokienez (gizarteratzeko lagun egitea) dituen helburuak azal ditzake; eta prozesuan zehar helburu horiek lortzen lagunduko dion erreferentziatzko pertsona bat eduki dezake eskura, honako hauen inguruko laguntza eta babes eskainiko diona: instrumentala (...), emozionala (...), hezkuntza-arlokoa (...) harremanetarako (...)”

Azkenik, ez da ahaztu behar gazte horietako asko adingabeak izanik iritsi zirela gurera, eta Babeserako Erakunde Publikoaren tutoretzapean egon direla. Familia-erreferenterik gabeko adingabe migratzaileen emantzipazioan laguntzeko prozesuei dagokienez, erakunde honek askotan esan du ezinbestekoa dela etengabeko arreta bermatzea, adingabeak administrazioaren tutoretzapean dauden etapatik hasi eta haien bizitzak kudeatzeko autonomia nahikoa lortu arte. Neska-mutil horiek helduarora

igarotzeko prozesuan porrot egiteak berekin dakar harrera egin zitzaienetik botere publiko guztiek egindako inbertsio osoa galtzea, eta agerian uzten du gure sistema publikoak ez daudela prest errealitate berri horretara egokitzeko. Egoera horri erantzuteko, banakako ibilbideak egitea komeni da, argi eta garbi; horietan, legezko adin-nagusitasunaren “muga” gainditu behar da, eta profesional-taldeek batera egin behar dute lan, bakoitzaren egoerari eta beharrei hobeto erantzuteko.

Hasieran esan bezala, atzerriko nazionalitatea izanik familia-erreferenterik ez duten gazte migratzaileen (18 eta 23 urte bitartekoak) kolektiboaren egoerari buruz Arartekoa egiten ari den azterketaren harira, eskatzen dizut, 3/1985 Legearen —erakunde hau sortu eta arautzekoa— 23. eta 26. artikulua aplikatuz, honako gai hauei buruzko informazioa bidaltzeko, 30 eguneko epean:

- 1. Ba al dago sail edo foru-erakunde horretan helduarora igarotzeko, emantzipatzen laguntzeko edo bestelako izendapena duen programarik, haur eta nerabeen zerbitzuetako taldeak eta gizarteratzeko zerbitzuak era koordinatu eta bateratuan lan egitea dakarrenik? Azaldu, mesedez, zein diren horien elementu nagusiak eta lan-metodologia.*
- 2. Adin nagusiko bihurtutako zenbat gazte sartu diren trantsizio-programa horietan 2018an eta 2019an.*
- 3. Haurrak eta nerabeak babesteko legediak aukera ematen du babesik gabe dauden haurrentzako egoitza-zerbitzuetan dauden neska-mutilen egonaldia luzatzeko, adin nagusiko bihurtu ondoren, gehienez ere beste 18 hilabetez. Neurri hori aplikatzen ari al da 18 urte betetzen dituzten adingabe migratzaileen kasuan? Erantzuna baiezkoa bada, zenbat neska-mutili eragin die neurri horrek 2018an eta 2019an? Zein dira egonaldia luzatu ahal izateko irizpideak?*
- 4. Hauteman al duzue 18 urtetik gorako gazte talde horrek behar espezifikorik duenik? Zein?*
- 5. Zer neurri, programa edo zerbitzu garatu diren gazte horien beharrak asetzeko: ostatua, gizarte-laguntza, orientazio juridikoa, prestazio ekonomikoak, aisialdia eta denbora librekoa, eta abar.*
 - Zenbat gazte migratzailek erabiltzen dituzten edo parte hartzen duten programa/zerbitzu/prestazio horietan.*
 - Parte-hartzearen balorazioa; zer zailtasun hauteman diren horietan sartzeko, inplikatzeko eta abarrerako.*
- 6. Zer neurri eta programa dauden gizartea sentsibilizatzeko, aniztasuna kudeatzeko eta diskriminazioaren aurka borrokatzeko.*
- 7. Hartu al da neurririk/programarik gazte horien premia espiritualak, erlijiosoak edo identitarioak asetzeko?*
- 8. Ba al dago sailean edo foru-erakundean zaurgarritasun bereziko egoeretan (gizakien salerosketa, sexu- edo lan-esplotazioa, eta abar)*

dauden gazte migratzaileak babesteko berariazko programarik, edo, bestela, berariaz sartzen al dira gazte horiek abian diren salerosketaren eta esplotazioaren aurkako programetan?

9. *Beste administrazio eskudun batekin koordinatuta lan egiten al zarete gazte horien beharrak (osasuna, etxebizitza, enplegua, prestakuntza...) asetzeko?*
10. *Onartu al da esku-hartzean lankidetzan aritzeko tresnarik, esate baterako protokolorik?*
11. *Aurreikusi al da ezohiko prozeduraren bidez etxebizitza esleitzeko eskatzeko txostenak egiteko aukera (Etxebizitzari buruzko ekainaren 18ko 3/2015 Legearen 32.2. artikulua eta Genero-indarkeriaren biktima diren emakumeentzat etxebizitzaren arloko ekintza positiboko neurriei buruzko 2006ko urriaren 4ko aginduaren 6. artikulua)? Prozedura hori esleipen zuzeneko gainerako egoeretan erabiltzen da.*
12. *Azterlanaren sektore-eremu horri eta atzerriko nazionalitatea izanik familia-erreferenterik ez duten gazte migratzaileen premiei buruzko beste edozein informazio interesgarri.*

Udalen kasuan, informazio eskaera bidali zitzaien Barakaldo, Bilbo, Donostia, Irun eta Gasteizko Udalei, eduki honen arabera:

(...)

Jakina denez, gizarteratzea ez da soil-soilik gizarte-zerbitzuen zeregina; izan ere, beste sistema publiko batzuek ekarritako ondasunak, hala nola enplegua edo etxebizitza, erabakigarriak dira gizarteratzea lortzeko. Harremanen ikuspegitik, ordea, komunitatearekin loturak ezartzea, haren kide sentitzea eta gizarte-bizitzan (kultura, kirola, aisialdia eta denbora libre...) parte hartzea funtsezkoa da "integratua" egoteko eta sentitzeko. Udalek posizio pribilegiatua dute hurbiltasunezko lan horretan —lurraldetik eta erkidegotik gertu dago—, eta horrek aukera ematen die beste herri-administrazio batzuek baino baldintza hobeetan egiteko komunitate-lana.

Udaleko gizarte-zerbitzuek hainbat programa garatzen dituzte gizarte-bazterketako arriskuan dauden pertsonak gizarteratzen laguntzeko eta haien oinarrizko premiak asetzeko. Halaber, premia larrienei eta neguko gailuei aurre egiteko gizarte-larrialdietarako zerbitzuak jarri dituzte abian, neguko tenperaturek bizia arriskuan jartzen dutenean herrian dauden etxerik gabeko pertsonen bizileku-irtenbidea emate aldera.

Neska-mutil horiek beste ezaugarri bat ere badute, gazteak izateaz eta —akaso— bizitzako esparru batzuetan eskarmenturik ez izateaz gain, hain zuzen ere ez dutela erreferente heldu hurbil eta positiborik, haien bizi-prozesuan lagundu diezaiekeenik orientazio, kontraste edo euskarri emozional egokia emanez. Hori dela eta, oso garrantzitsua da tutorearen figura, erreferentziazko pertsona horrek gizarte- eta hezkuntza-laguntza

emango baitie benetako emantzipazioa lortzeko prozesuan, gaztearekin batera txertatuz haren autonomia osoa eskuratzen lagunduko dioten elementuak (lana, bizilekua, prestakuntza, harremanak...).

Urriaren 6ko 185/2015 Dekretuaren (Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren prestazio eta zerbitzuen zorroari buruzkoa) arabera, honako hau da gizarte-laguntza:

“...gizarte-zerbitzuetako prestazioetan egiazkoena eta bereizgarriena da, eta horren bitartez pertsona profesional kalifikatu batekin harremanetan jartzen da, harekiko elkarreaginak lagundu egiten diola modu autonomoan moldatzen eta gizarteratzen.

Lagun egite sozialari esker erabiltzaileak bere egoera egiazta dezake, bere autonomia pertsonala eta gizarteratzea mantentzeari edo garatzeari dagokienez (gizarteratzeko lagun egitea) dituen helburuak azal ditzake; eta prozesuan zehar helburu horiek lortzen lagunduko dion erreferentziako pertsona bat eduki dezake eskura, honako hauen inguruko laguntza eta babesa eskainiko diona (...)”

Hasieran esan bezala, atzerriko nazionalitatea izanik familia-erreferenterik ez duten gazte migratzaileen (18 eta 23 urte bitartekoak) kolektiboaren egoerari buruz Arartekoa egiten ari den azterketaren harira, eskatzen dizut honako gai hauei buruzko informazioa bidaltzeko (...):

- 1. Hauteman al duzue gazte talde horrek behar espezifikorik duenik? Zein?*
- 2. Zer neurri, programa edo zerbitzu garatu diren gazte horien beharrei arreta emateko: ostatua, prestazio ekonomikoak, gizarte-laguntza, aisialdia eta denbora libre, eta abar.*
 - Zenbat gazte migratzailek erabiltzen dituzten edo parte hartzen duten programa/zerbitzu/prestazio ekonomiko horietan.*
 - Parte-hartzearen balorazioa; zer zailtasun hauteman diren horietan sartzeko, inplikatzeko eta abarrerako.*
- 3. Zer neurri eta programa garatu diren gizartea sentsibilizatzeko, aniztasuna kudeatzeko eta diskriminazioaren aurka borrokatzeko.*
 - Hartu al da neurririk/programarik gazte horien premia espiritualak, erlijiosoak edo identitarioak asetzeko?*
 - Ba al dago udalerrian zaurgarritasun bereziko egoeretan (gizakien salerosketa, sexu- edo lan-esplotazioa, eta abar) dauden gazte migratzaileak babesteko programa espezifikorik edo, bestela, parte hartzen al du udalerririk horietan?*

4. *Beste administrazio eskudun batekin koordinatuta lan egiten al zarete gazte horien beharrak (osasuna, etxebizitza, enplegua, prestakuntza) asetzeko?*
5. *Onartu al da esku-hartzean lankidetzan aritzeko tresnarik, esate baterako protokolorik?*
6. *Aurreikusi al da ezohiko prozeduraren bidez etxebizitza esleitzeko eskatzeko txostenak egiteko aukera (Etxebizitzari buruzko ekainaren 18ko 3/2015 Legearen 32.2. artikulua eta Genero-indarkeriaren biktima diren emakumeentzat etxebizitzaren arloko ekintza positiboko neurriei buruzko 2006ko urriaren 4ko aginduaren 6. artikulua)? Prozedura hori esleipen zuzeneko gainerako egoeretan erabiltzen da.*
7. *Azterlanaren sektore-eremu horri eta atzerriko nazionalitatea izanik familia-erreferenterik ez duten gazte migratzaileen premiei buruzko beste edozein informazio interesgarri.*

3. Enplegua eta lanbide kualifikazioa

Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzuari eta Hezkuntza Sailari eskatutako informazioak, gehien bat, enplegu bat eskuratzeko kualifikazio eta prestakuntza premiei emandako erantzuna izan zuen ardatz. Hau izan da, lehenengoaren kasu zehatzean:

(...)

Lan-merkatuan sartzeko prestakuntza eta gaikuntza lortzea oinarrizko eta funtsezko elementua da kolektibo horren gizarteratzea eta parte-hartze ekonomikoa lortzeko. Eustatek eginiko Panorama demografikoa 2018⁵² txostenak berresten duenez, Euskadik datozen urteetan biztanleria aktiboa murrizteko erronkari egin beharko dio aurre, lan-biztanleria zahartu egin delako, hazkunde begetatiboa negatiboa delako eta belaunaldi arteko erreleborik ez dagoelako. Horrek ondorio nabarmenak ditu pentsio-sistema publikoan; izan ere, sistema horren oreka ekonomikoari eusteko, ezinbestekoa da biztanleria aktiboa handitzea, bere kotizazioekin ekarpena egin diezaion gizarte-segurantzaren sistemari, haren iraunkortasuna bermatze aldera. Egoera horretan, demografiaren beherakada arintzeko eta biztanleria aktiboa handitzeko aukera ematen ari da immigrazioa.

Euskal lan-merkatuari dagokionez, kualifikazio ertain eta handiko (II. eta III. mailak) enplegu ugari izateak bereizten du Euskadi, eta hezkuntza formalaren sistema (lanbide-heziketa) ahalegintzen ari da horri erantzuten, gero eta heziketa-zikloa espezializatuagoak eskainiz. Horrekin guztiarekin batera, espezializatu gabeko eta kualifikazio txikiko lanpostuak murrizteko joera globala dago, gertagarriagoa baita horien ordeztu teknologikoak

⁵² Eustaten *Panorama demografikoa 2018* txostena, 46. or.

ezartzea. Izan ere, lanpostu horiek zaurgarriagoak izan ohi dira berregituratzeetan eta ekonomia-uzkurdurako uneetan.

Gizarte- eta enplegu-politika egokiak abian jartzearen ondorioz agertu beharko lirateke aurreko erronkei eman beharreko erantzunak. Enpleguari dagokionez, hauxe da erantzun nagusia, nahiz eta bakarra ez izan: jarduerata tasa handitzea ekarriko duten lanbide-kualifikazioa eta enplegu-politika aktiboak. Gazte migratzaileak barne hartzen dituzten enplegua sustatzeko neurriek potentzial hori guztia baliatuko dute, eta etorkizunerako aukera izango dira, bai gazte horientzat, bai euskal gizartearentzat, jarduerata eta produktibitate-tasa handituko dutelako eta gizarte-segurantzako kotizazioei ekarpena egingo diotelako.

Hasieran esan bezala, atzerriko nazionalitatea izanik familia-erreferenterik ez duten gazte migratzaileen (18 eta 23 urte bitartekoak) kolektiboaren egoerari buruz Arartekoa egiten ari den azterketaren harira, eskatzen dizut honako gai hauei buruzko informazioa bidaltzeko, (...):

1. Zer baldintza bete behar dituzten gazte migratzaileek prestakuntza-ekintzak eskatu ahal izateko.
 - Nola eragiten dien administrazio-egoera irregularraren egoteak.
 - Zergatik ez zaien uzten Lanbideren prestakuntza-ekintzetan parte hartzen.
2. Zer baldintza bete behar dituzten gazte migratzaileek enplegu-eskatzaile gisa izena eman ahal izateko.
 - Nola eragiten dien administrazio-egoera irregularraren egoteak.
 - Zergatik ez zaien uzten Lanbiden enplegu-eskatzaile gisa izena ematen.
3. Zer prestakuntza-modalitatetan parte har dezaketen gazte horiek, kontuan izanik alde zuzeneko ikasketak egiaztatzeke dituzten zailtasunak eta kasu batzuetan hizkuntzari dagokionez dituzten mugak.
4. Prestakuntza-ekintzetako plazak betetzen ote diren. Eskaintza (plaza- eta ikastaro-kopurua) eskarira egokitzen ote den, eta itzarote-zerrendarik ote dagoen.
5. Zer ebaluazio egin diren kolektibo horri eragiten dioten prestakuntza-ekintzei buruz, hain zuzen ere zehazteko hautemandako premietara egokitzen ote diren, helburuak bete ote diren, gogobetetze-maila zenbatekoa den eta zenbat ikaslek amaitu dituzten prestakuntzak.
6. Zenbat gazte migratzaile eskuratzen ari diren laneratzeko enpresek sustatutako enpleguak (2018ko eta 2019ko datuak, 18 eta 23 urte bitarteko adin-taldearentzat), eta zailtasunik hauteman ote den gazte horiek kontratatzeke orduan. Nola eragiten dien administrazio-egoerak.
7. Azterlanaren sektore-eremu horri eta atzerriko nazionalitatea izanik familia-erreferenterik ez duten gazte migratzaileen premiei buruzko beste edozein informazio interesgarri.

Hezkuntza Sailaren kasuan, helduen hezkuntzak lanbide-kualifikaziorako (eta harremanerako) oinarritzko eta ezinbesteko tresna instrumentalak eskuratzeko bide gisa duen eginkizuna ikertu zen.

Lanbide-gaikuntzari eta gaikuntza horretara bideratutako prestakuntza-prozesuen arrakastari dagokienez, argi dago prestakuntza instrumentalak edo oinarritzkoak oso baliotsuak direla, eta Helduen Hezkuntza Iraunkorrek zeregin garrantzitsua izan dezake horietan. Horregatik, badirudi beharrezkoa dela jakitea zer egiten ari den eta gazte migratzaileak erantzunik aurkitzen ari diren hezkuntza formalaren esparruan, eta helduen hezkuntzak biztanle horiekiko bete beharreko eginkizunari buruzko hausnarketen eta proposamenen berri izatea.

Hasieran esan bezala, atzerriko nazionalitatea izanik familia-erreferenterik ez duten gazte migratzaileen (18 eta 23 urte bitartekoak) kolektiboaren egoerari buruz Arartekoa egiten ari den azterketaren harira, eskatzen dizut honako gai hauei buruzko informazioa bidaltzeko, (...):

- 1. 18 eta 23 urte bitarteko zenbat gazte atzerritar matrikulatu ziren 2018-2019 eta 2019-2020 ikasturteetan Helduen Hezkuntzan.*
- 2. Nolako prestakuntza jasotzen duten gazte horiek (moduluak, ziurtagiriak, hizkuntza koofizialetan alfabetatzea...).*
- 3. Helduen Hezkuntzan sartzeko zailtasunak. Zer eragin duen administrazio-egoerak. Zer eragin duen akreditazio akademikorik ez izateak.*
- 4. Hauteman al da gazte horiek zailtasun espezifikoren bat dutela prestakuntza behar bezala aprobetxatzeko?*
- 5. Aurreikusten al da aldaketarik Helduen Hezkuntzan, epe labur edo ertainera, gazte horien parte-hartzea errazteko eta, ondorioz, haien laneratzea eta gizarteratzea bultzatzeko?*
- 6. Azterlanaren sektore-eremu horri eta atzerriko nazionalitatea izanik familia-erreferenterik ez duten gazte migratzaileen premiei buruzko beste edozein informazio interesgarri.*

4. Etxebizitza. Ostatua.

Lan hau egiteko unean Eusko Jaurlaritzan **Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila** zen eskuduna etxebizitzaren arloan, eta honela eskatu zitzaion informazioa:

(...)

Zuzenbide humanitarioko nazioarteko⁵³ tresnetan onartuta dago etxebizitza edo bizitoki egokia izateko eskubidea; tresna horien arabera, segurtasunez, bakean eta duintasunez nonbait bizitzeko eskubidetzat hartzen dute hura. Nazio Batuen Batzar Nagusiaren Giza Eskubideen Kontseiluak 2018ko otsailaren 26tik martxoaren 23ra bitarteko 37. bilkuraldian onartutako Errelatore bereziaren txostenean, etxebizitza egokia bizi-maila egokia izateko eskubidearen osagaitzat hartzeari eta ez diskriminatzeko eskubideari buruzkoan, “duintasuna, segurtasuna eta komunitate jasangarrietan txertatzea bermatzeko bitartekotzat hartzen da etxebizitza.

Etxebizitzari buruzko euskal legeak (3/2015, ekainaren 18koa) zuzenbide humanitarioko nazioarteko tresnen berri ematen du, eta aitortzen du etxebizitzak lotura duela pertsonen eta haien familien bizi-baldintzekin eta gizarte-bazterketa saihesteko eta gainditzeko aukera izatearekin. Legearen beraren hitzetan: “El derecho a disfrutar de una vivienda constituye una necesidad vital para el ser humano por cuanto condiciona el disfrute de otros derechos esenciales como tener un empleo, ejercer el derecho de sufragio, acceder a las prestaciones y a los servicios públicos, escolarizar a los hijos, gozar de la cultura y de un medio ambiente adecuado, compartir las vivencias con familiares y amigos y un sinnfín más reiteradamente puesto de relevancia tanto por la doctrina más autorizada como por los propios tribunales de justicia. El derecho a disfrutar de una vivienda y su realización efectiva facilitan y permiten al ser humano llevar una vida digna”

“Etxebizitza izateko eskubidea nahitaezkoa da gizakiarentzat, funtsezko beste eskubide batzuk baldintzatzen baititu; adibidez, enplegua izatekoa, botoa ematekoa, prestazio eta zerbitzu publikoak jasotzekoa, seme-alabak eskolaratzekoa, kulturaz eta ingurumen egokiaz gozatzekoa, bizipenak senideekin eta lagunekin partekatzekoa, eta beste hainbat ere, itzal handieneko doktrinak eta justizia-auzitegiek behin eta berriz nabarmendu dutenez. Etxebizitza izateko eskubideak eta eskubide hori benetan gauzatzeak bizitza duin bat eramatea errazten eta ahalbidetzen diote gizakiari.” (Exposición de Motivos). (Zioen Azalpena)

Nabarmenezkoa da etxebizitzari buruzko euskal legeak aitortzen duela etxebizitza bat legez okupatzeko eskubide subjektiboa dutela adierazitakoari jarraituz etxebizitza duinik edo hura eskuratzeko baliabide ekonomikorik ez dutenek, eta horien artean barne hartzen ditu administrazio-egoitza duten egoiliar atzerritarrak, nazioarteko itunek eta legeek xedatzen dutenaren arabera, Konstituzio Auzitegiak berak aspalditik adierazi izan duen moduan (Konstituzio Auzitegiaren 107/1984 Epaia, 3. oinarri juridikoa).

⁵³ 2. artikulua, 1. eta 2. paragrafoak, eta 11.1. artikulua, Ekonomia, Gizarte eta Kultura Eskubideen Nazioarteko Ituna; Ekonomia, Gizarte eta Kultura Eskubideen Batzordearen 4. ohar orokorra (1991), etxebizitza egokia izateko eskubideari buruzkoa, . paragrafoa. 7:

Bestalde, Etxebizitzaren Gida Planaren xedea da “impulsar el crecimiento del parque público de viviendas en alquiler, para que sea capaz de garantizar el derecho subjetivo a la vivienda y atender las necesidades de los colectivos con mayores dificultades, la cohesión social mediante la mezcla, prestando especial atención a la emancipación de la población joven y a la mejora de la calidad de vida de las personas mayores en una sociedad altamente envejecida a través de la mejora de la accesibilidad y la eficiencia energética, y todo ello con la necesaria colaboración entre agentes e instituciones, públicos y privados”. Hona hemen plan horren ardatzak: esleipen-prozedurak eta etxebizitza babestua eskuratzeko baldintzak berrikustea eta aldatzea (3); etxebizitza-arloko berrikuntzan aurrera egitea, gazteen eta beste kolektibo batzuen beharretara egokitzen diren ereduak ezarriz (5); edo lankidetzarako sareak sortzea, politika sektorialak hobeto kudeatzeko eta integratzeko (6), Eusko Jaurlaritzako beste sail batzuekiko eta, bereziki, udalekiko eta etxebizitza eta birgaitzeko udal-sozietateekiko lankidetzak sustatzeko, eta Etxebizitzaren Gida Planaren eta Eusko Jaurlaritzaren beste plan batzuen —, hala nola, Gazte Plana, Gizarteratzeko Plana, Familien eta Haurren Plana, Housing First— arteko sinergiak bultzatzeko.

Indarrean dagoen araudiarekin bat, badirudi kolektibo horrek betetzen dituela babes publikoko etxebizitzak esleitzeko prozeduratik —etxebizitzak gizarte-bazterketako arrisku-egoerei aurre egitera bideratzen direnerako aurreikusitakoa— baztertzeko baldintzak (Etxebizitzari buruzko ekainaren 18ko 3/2015 Legearen 32.2. artikulua eta Genero-indarkeriaren biktima diren emakumeentzat etxebizitzaren arloko ekintza positiboko neurriei buruzko 2006ko urriaren 4ko aginduaren 6. artikulua). Prozedura hori esleipen zuzeneko gainerako egoeretan erabiltzen da.

Azkenik, berriki onartu da 210/2019 Dekretua, abenduaren 26koa, kreditu-erakundeen eta Euskadiko Autonomia Erkidegoko Administrazioaren arteko etxebizitzaren eta lurzoruaren arloko finantza-lankidetzakoa, eta etxebizitzaren arloko erregelamendu-xedapenak aldatzekoa. Dekretu horren bidez, intereseko zenbait arau aldatu dira, hala nola urteko diru-sarrera haztatuen mugei buruzkoa, eta izaera sozialeko beharrak ebaztera eta babes ofizialeko etxebizitzak eta araubide autonomikoko zuzkidura-bizitokiak esleitzeko prozeduretan gizarte-kohesioa zaintzera bideratutako kupoak txertatu dira.

Hasieran esan bezala, atzerriko nazionalitatea izanik familia-erreferenterik ez duten gazte migratzaileen (18 eta 23 urte bitartekoak) kolektiboaren egoerari buruz Arartekoa egiten ari den azterketaren harira, eskatzen dizut honako informazio hau bidaltzeko (...):

1. Azaldu zer baldintza bete behar diren babes ofizialeko etxebizitza-eskatzaileen erregistroan (Etxebide) izena eman ahal izateko. Zer eragin duen administrazio-egoerak.
2. Azaldu zer oztopo izan diren babes publikoko etxebizitza-eskatzaileen erregistroan (Etxebide) izena emateko eskaera onartzeko orduan, zehazki, zergatik ukatu zaien hura.
3. Lankidetzak-akordioak egin diren (edo aurreikusita dauden) Eusko Jaurlaritzako beste sail batzuekin edo udalekin eta etxebizitza eta birgaitzerako udal-sozietateekin, bai eta gizarteratze-arloan eskumena duten aldundiekin eta hirugarren sektorearekin ere, 2018-2020 aldirako Etxebizitzaren Gida Planaren 6. ardatza aplikatuz.
4. Babes ofizialeko etxebizitza-eskatzaileen erregistroan (Etxebide) izena emateko baldintzak betetzeko dauden zailtasunak ikusita, baldintzak betetzen dituzten pertsona horietako batzuei ezohiko esleipen-prozedura aplika ote dakiekeen.
5. Azterlanaren sektore-eremu horri eta atzerriko nazionalitatea izanik familia-erreferenterik ez duten gazte migratzaileen premiei buruzko beste edozein informazio interesgarri.

5. Osasuna

Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak informazio eskaera hau jaso zuen:

(...)

Migratzaile gazteek osasun ona izan ohi dute. Nahikoa baliabide ekonomikorik ez duten immigranteek, oro har, bermatuta dute osasun-arreta unibertsala, eta, izatekotan, gainerako atzerritarrek dituztenen antzeko zailtasunak dituzte (hizkuntzari lotutakoak, esaterako). Arartekoaren kezka, osasunari dagokionez, talde espezifiko batera mugatzen da: dela jatorrizko herrialdetik hona etortzearen ondorioz, dela substantzia toxikoekiko adikzioa izatearen edo gizarte-bazterketa larriko egoeran egon eta kalean bizitzearen –egoera hori oso estresagarria da, eta narriadura fisiko eta mental handia eragiten du— ondorioz traumak jasan dituzten gazteak.

EAEko osasun mentaleko estrategiak aurreikusten du arreta emango zaiela gizarte-bazterketako egoeran edo hura pairatzeko arriskuan egotearen ondorioz sortutako osasun mentaleko nahasmenduei. Bi sarek esku hartzen dutenez, komeni da dirudi gizarte- eta osasun-arloko arreta eta zerbitzuen jarraitutasuna bermatzea.

Gainera, Euskadiko Arreta Soziosanitarioaren Lehentasun Estrategikoak 2017-2020 izeneko agirian, arretaren egituraketa soziosanitarioa hartzen da hirugarren lehentasuntzat (“pertsonen” maila deritzo). Jarduera-ildo estrategiko horretan, premia soziosanitarioak direla eta gehien bereizten

diren kolektiboen alde egiten da bereziki. Helburua da gizarte- eta osasun-zerbitzuen sistemek modu koordinatuan erantzutea horiei, oinarritzat hartuta unibertsaltasunaren, ekitatearen, kalitatearen eta parte-hartzearen printzipioak. Abiapuntutzat hartzen da gizarte-bazterketa, arrisku-egoeretatik hasi eta bazterkeria handiko egoeretaraino (horien bereizgarria da muturreko errealitateak direla, hala nola etxerik ez izatea), faktore erabakigarria dela osasunari begira.

Hasieran esan bezala, atzerriko nazionalitatea izanik familia-erreferenterik ez duten gazte migratzaileen (18 eta 23 urte bitartekoak) kolektiboaren egoerari buruz Arartekoa egiten ari den azterketaren harira, eskatzen dizut honako gai hauei buruzko informazioa bidaltzeko (...):

- 1. Azaldu zer osasun-zerbitzu dauden aurreikusita lurralde-mugapen bakoitzean bazterketa-egoera larrian dauden gazteei arreta emateko.*
- 2. Zerbitzu horiek lurralde-mugapen guztietan modu homogeenan garatu diren edo zailtasunen bat edo lurralde-desorekaren bat hauteman ote den, eskualdeen arabera edo udalerriaren arabera (hiriburua izan ala ez, edo hiriburu bat ala bestea izan).*
- 3. Aurreikusita ote dagoen bizitegi-bazterketako egoeran dauden gazteei arreta emango dieten baliabideak eta zerbitzuak garatzea.*
- 4. Aurreikusita ote dagoen psikiatriaren esparruko profesionalen baliabide irekietan egindako esku-hartzeak areagotzea.*
- 5. Aurreikusita ote dagoen osasun-arloko eta gizarte-arloko langileekin talde soziosanitarioak eratzea, osasun mentaleko arazoak dituzten gazteekiko esku-hartzea koordinatzeko.*
- 6. Bi sareek esku hartzen dutenean, irizpide eta protokolo berak erabiltzen ote diren erkidegoko larrialdi psikiatrikoetan sartzeko eta alta emateko, bai eta esku-hartze soziosanitarioa egiteko ere (adikzioak, etxegabetasuna...).*
- 7. Azterlanaren sektore-eremu horri eta atzerriko nazionalitatea izanik familia-erreferenterik ez duten gazte migratzaileen premiei buruzko beste edozein informazio interesgarri."*

6. Gizarte integrazioa eta kohesioa

Udalei, gehien bat, eta foru aldundiei eta immigrazioaren eta kulturartekotasunaren arloan eskudun den Eusko Jaurlaritzako sailari egindako galderez gain, **Giza Eskubide, Bizikidetzeta eta Lankidetzaren Idazkaritza Nagusiak** oro har atzerriar gazteen beharrian espiritual eta erlijioso batzuei kasu egiteko sustatutako ekimen batzuen egoera ezagutu nahi genuen. Hala, informazio hau eskatu zitzaion:

(...)

Giza Eskubideen, Bakearen eta Bizikidetzaren Idazkaritza Nagusiaren eginkizunetako bat da giza eskubideak eta bizikidetzaren kultura sustatzen duen politika publikoa bultzatzea.

Barne-ordenamendu juridikoan nahiz nazioarteko zuzenbide humanitarioan aitortutako giza eskubideetako bat da erlijio- eta kultu-askatasunerako eskubidea.

Euskadin, badira zenbait ikerketa erlijioen garrantzia eta aniztasuna nabarmentzen dutenak. Gainera, Eusko Jaurlaritzak euskal komunitate islamikoarekiko bizikidetzaren sustatzeko jarduera-programa bat onartu du. Programa horretan aurreikusten da hainbat jarduera eta ekimen bultzatuko direla, bermatzeko gure herrialdean bizi diren pertsona guztiek eskubide hori erabil dezaketela, diskriminaziorik gabe (1., 2. eta 3. proiektuak). Gainera, programa horretan berresten da Eusko Jaurlaritzak pertsonetikiko duen konpromisoa, bai eta Euskadiko erlijio-aniztasunari eta sinesmen desberdinak dituzten pertsonen eta fededun ez direnen arteko bizikidetzaren harmoniatsuari emandako babesa ere. Konpromiso hori jasota dago bai Euskadiko erlijio-aniztasunaren kudeaketa positiboari buruzko txostenean (2015eko abendua), bai Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen 2017-2020 aldirako Planean. Era berean, Euskal Autonomia Erkidegoko kultu-lekuen edo -zentroen eta erlijio-aniztasunaren lege-proiektua izapidetzen ari da Eusko Legebiltzarrean.

Kontuan izanda kolektiboaren ezaugarriak eta jatorria zein diren, ezin ditugu alde batera utzi integrazio material eta sozioekonomikoari soilik lotuta ez dauden gaiak; behar espiritualak, erlijiosoak eta identitarioak aintzat hartu behar ditugu. Premia horiek pertsonaren barne-dimentsiotik datoz, eta zaugarritasun-egoeretan leku garrantzitsua hartzen duten bizi-proiektu pertsonalei lotuta daude.

Hasieran esan bezala, atzerriko nazionalitatea izanik familia-erreferenterik ez duten gazte migratzaileen (18 eta 23 urte bitartekoak) kolektiboaren egoerari buruz Arartekoa egiten ari den azterketaren harira, eskatzen dizut honako gai hauei buruzko informazioa bidaltzeko (...):

- 1. Gizarte-kohesioari eta kulturen eta erlijioen arteko integrazioari buruzko ardatzean aurreikusitako jarduerak egin ote diren. Hala bada, informazioa eskatzen dizuegu familia-erreferenterik gabeko gazteei eragiten dieten jarduerari, neurriei eta programei buruz.*
- 2. Aurreikusita ote dagoen 2020an familia-erreferenterik ez duten gazteen premia espiritual, erlijioso eta identitarioei eragiten dien programaren bat abian jartzea.*
- 3. Azterlanaren sektore-eremu honi eta familia-erreferenterik ez duten gazte migratzaileen beharrei buruzko beste edozein informazio interesgarri.*

7. Justizia

Gazte kopuru oso txiki bati eragin arren, azterlanak ezagutu nahi izan du arauak hausten dituzten gazteei ezarritako gizarte eta hezkuntza neurriak betetzea kudeatzen duen sailaren eta gainerako zerbitzu publikoen artean dagoen koordinazio maila, gazteen justizia baliabideetatik irteteko unean haien beharrizanei arreta egokia ziurtatzeari begira. Informazio eskaera hau egin zitzaion **Lan eta Justizia Sailari (kontsultaren datan):**

(...)

Gazteentzako neurriak gauzatzeak honako hau ekar dezake: familia-erreferentziarik gabeko 18 urtetik gorako arau-hausle adingabeak EAEko barneratze-zentroetatik ateratzea. Haien kopurua handia ez bada ere, gazte horiek, zentroetatik irtetean, behar jakin batzuk izaten jarraitzen dute, eta premia horiek betetzen ez badira edo gizarte eta hezkuntza arreta espezializatua jasotzen badute, baliteke hezkuntza-taldeek neurri judizialak betetzeko egindako ahalegin guztiak zapuztea.

Egokia dirudi gizarte zerbitzuekin eta beste zerbitzu publiko batzuekin koordinazio-neurri espezifikoak ezartzea, gazte horien baldintzen jarraipena egiteko eta haien premien betetze-maila aurreikusteko, edo arretaren jarraitutasuna egon dadin bideratze egokiak egiteko.

Gazte-justiziaren euskal zerbitzuaren funtzionamendu egokiari atxikitzen zaizkion lorpenen artean dago gizarte-zerbitzuekin, haurrak babesteko zerbitzuarekin, hezkuntzarekin, osasunarekin, segurtasunarekin eta bestelakoekin koordinatzen jakin izana. Sail eta zerbitzu publikoen arteko lankidetzak eta koordinazioak gazte-justiziaren zerbitzuaren arreta hobetzea eta oso emaitza onak lortzea ekarri du; horrenbestez, zerbitzua beste eskualde batzuetan jarraitu beharreko eredia da.

*Hain zuzen ere, Gazte Justiziaren IV. Planak ezartzen du sailartekotasuna eta erakundearteko lankidetzak, eta honako xede hau du, besteak beste: **neurri judizial bat betetzen duten edo bete duten neska-mutilek Lanbideren programetarako sarbidea izango dutela bermatzea (9.41).***

Aurrez aipatu den moduan, azterlanaren helburua familia-erreferentziarik gabeko 18 eta 23 urte arteko migratzaile atzerritarrak dira, uste baita adin horrekin gizarte-hezkuntza zentro batetik irtetean, zailtasun sozial nabarmenean geratzen direla. Beraz, beharrezkotzat jotzen da gizarte-bazterketa egoerei nahiz beste zenbait beharrei (ostatua, trebakuntza eta laneko orientazioa, dokumentazioa...) erantzuten dieten beste sistema publiko batzuekin koordinatzea. Adinak eta haren egoera zaurgarriak, bai eta

gizarte-bazterketa larriko prozesuak saihesteko arretan jarraitutasuna izateak ere, beharrezkoa egiten dute neurri zehatz egokiak ezartzea.

Hasieran esan den moduan, familia-erreferentziarik ez duten gazte migratzaileen egoerari buruz Arartekoa egiten ari den azterketaren harira, eskatzen dizut, 3/1985 Legeak –erakunde hau sortu eta arautzekoa– 23. eta 26. artikuluetan xedatutakoarekin bat etorriz, honako gai hauei buruzko informazioa bidaltzeko, 30 eguneko epean:

- 1. Lanbiderekin eta Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailaren eta Herri Administrazio eta Justizia Sailaren artean abian jarritako balizko ekintzekin koordinatzea, gazteak gizarte eta hezkuntza zentroetatik atera daitezen neurri judizialak betetzeko.*
- 2. Foru aldundietako gizarteratze-zerbitzuekin koordinatzea.*
- 3. Udaletako gizarte zerbitzuekin koordinatzea gazteak egoitza-zentroetatik irtete aldera.*
- 4. Azterlanaren sektore-eremu honi eta familia-erreferentziarik ez duten gazte migratzaileen beharrei buruzko beste edozein informazio interesgarri.*

8. COVID-19aren testuinguruan bideratutako erantzunak

Galdetutako erakundeak euren erantzunak prestatzen ari ziren unean COVID-19a agertu zen eta, hori dela-eta, kasu askotan geroko utzi zen, egoera berezian sortutako premiazko beharrezkoei kasu egin ondoren erantzuteko.

Baina, gainera eta azterlanaren xede diren pertsonen zehazki lotuta, zenbait administrazioek ekimen, programa edo zerbitzu bereziak jarri zituzten martxan. Horien bitartez, haien premiei erantzun zitzaien, konfinamendua bezalako salbuespenezko testuinguruan. Ondorioz, Arartekoak azterlanean kontuan hartutako administrazio guztietara jo zuen berriro maiatzean, bi konturi buruzko informazioa (kasu batzuetan bidalita eta beste batzuetan bidaltzeko) zabaldu zezatela eskatzeko:

- 1. Zure sailak gazte migratzaile horiei eragiten dien osasun-krisiaren ondorioz garatu dituen neurriak.*
- 2. Konfinamenduaren ondorengo etaparako balizko proiektuak, gazte migratzaile horiei eragiten dietenak.*

II. ERANSKINA:Elkarrizketaren gidoia

1. KOLEKTIBOAREN EZAUGARRIAK (lurralde historikoaren arabera egon daitezkeen aldeak kontuan hartuz)

- Taldearen kuantifikazioa.
- Kolektiboaren kopuruaren eta profilen bilakaera.
- Oraingo profilak:
 - Sexua
 - Adina
 - Jatorria
 - Aldaketak denboran...
 - Hizkuntzaren ezaguera
 - Errotzea edo igarotza.
 - Bakarkako proiektuak edo erreferente/sareekin.
 - Itxaropenak.
 - Administrazio-egoera
- Lurraldeen arteko aldeak, egonez gero
- Gazteen kokapen geografikoa (hiriburuan pilotuta edo banatuta)

2. KOLEKTIBOAREN BEHARRIZANAK

- Beharrizan nagusiak. Aldaketak beharrizanetan.
- Enplegua eta lanbide heziketa.
 - Lan-merkatuan sartzeko zailtasunak.
 - Enplegu-eskatzaile izateko eta/edo lanbide-gaikuntzako programetan parte hartzeko zailtasunak.
 - Nola eragiten du administrazio-egoerak zailtasun horietan?
 - Ezagutzen duzu jardunbide egokirik arlo horietan?
- Hezkuntza eta hizkuntza ikastea
 - BAIn sartzea eta sartzeko zailtasunak.
 - Araudien eragina, hala nola bigarren mailako ikasketak izatea beste prestakuntza batzuk eskuratzeko.
 - Hizkuntzaren ezaguera. Zailtasunak.
 - Hizkuntza ikasteko guneak.
 - Arloko jardunbide egokiak (Peñascalen gisakoak).
- Etxebizitza
 - Zer egoitza baliabide dago kolektibo horrentzat?
 - Aukerarik dago kolektibo horrek babes ofizialeko etxebizitza bat eskuratzeko?
 - Arloko jardunbide egokiak.
- Zer prestazio eta laguntza ekonomiko dago kolektiboarentzat?
- Administrazio- eta lege-egoera

- Bizileku- eta lan-baimenak eskuratzeko zailtasun nagusiak (Baliabide ekonomikoak frogatzea, haurrak babesteko zerbitzuaren izapidearen beharra eta garrantzia bizileku-baimenaren hasierako eskaerarako, integrazioaren txostenaren garrantzia (EJ), etab.).
- Ezespen-tasa handirik?
- Erroldan izen emateko zailtasunak.
- Administrazio- eta lege-egoerari lotutako beste arazo batzuk.
- Aukerarik dago administrazio eta lege oztopo horiek gainditu ahal izateko?
- Jardunbide egokiak.
- Gizarte-laguntza
 - zer gizarte-laguntza mota?
 - Zer agentek parte hartu behar dute laguntzan?
- Lehentasunik ezarri behar balitz, zer arlo dira garrantzitsuenak?

3. ERAKUNDEEN ERANTZUNA

- Esku-hartze ereduak.
- Zer erantzun ematen ari dira udalerrriak?
- zer kontu hobetu behar da esku-hartzean? Zein dira muga nagusiak?
- Lurralde-desorekako egoerak gertatzen dira erantzunean?
- zer koordinazio maila dago gertatzen diren egoeretan, hala nola tutoretzapeko zentroetatik edo gazteen justizia betetzeko zentroetatik irtetean? zer egin liteke horri buruz?
- Zer koordinazio maila dago nahastutako erakunde publikoen eta hirugarren sektorearen artean?
- Jatorriaren ziozko berdintasun printzipioa hausten duen esku-hartze edo jarduketa baztertzailerik hauteman duzue (programetan sartzeko baldintzak, etab.)?
- Nola hobetu dezakete arreta nahastutako erakundeek?
 - Lanbide
 - Hezkuntza
 - Etxebide
 - Osakidetza
 - Eta abar.
- Baliabide gehiago sortu behar da gainezka egindako egoerei aurre egiteko?
- Martxan dauden ekimenak: balorazioa, indarguneak eta ahulguneak.
- Sektoreko proiektuak.

ararteko

Herriaren Defendatzailea
Defensoría del Pueblo